

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO

BALANTZE BATERATUA, 2015EKO ABENDUAREN 31KOA (Mila eurokotan adierazita)

AKTIBOA	Oharra	2015	2014 (*)
Kutxa eta banku zentraletako gordailuak	22	183.177	143.456
Negoiazio-zorroa	23	258.966	288.223
Zor-balore adierazgarriak		255.143	278.881
Kapital-tresnak		776	1.062
Negoiazio-deribatuak		3.047	8.280
<i>Pro memoria: Mailegatuak edo bermetarakoak</i>		82.449	15.537
Galdu-irabazietan aldaketak dituzten beste finantza-aktibo batzuk arazoizko balioan	24	558	2.128
Zor-balore adierazgarriak		-	1.225
Kapital-tresnak		558	903
Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak	25	4.616.341	6.391.699
Zor-balore adierazgarriak		4.228.921	6.000.628
Kapital-tresnak		387.420	391.071
<i>Pro memoria: Mailegatuak edo bermetarakoak</i>		1.250.056	407.102
Kreditu-inbertsioak	26	13.967.063	14.674.415
Kreditu-erakundeetako gordailuak		196.117	216.396
Bezeroei emandako kredituak		13.719.411	14.406.971
Zor-balore adierazgarriak		51.535	51.048
<i>Pro memoria: Mailegatuak edo bermetarakoak</i>		-	-
Epemugako inbertsio-zorroa	27	1.142.714	1.719.014
<i>Pro memoria: Mailegatuak edo bermetarakoak</i>		139.322	-
Estaldura-deribatuak	28	232.753	303.066
Korronteak ez diren aktiboak salgai	29	354.765	338.102
Aktibo materiala		354.765	338.102
Partaidetzak	30	3.091	3.284
Erakunde elkartekideak		3.091	3.284
Erakunde taldeaniztunak		-	-
Berraseguruen ondoriozko aktiboak	31	25.198	25.153
Aktibo materiala	32	379.671	405.233
Ibilgetu materiala		317.842	336.652
Erabilera propiokoa		306.625	325.042
Errentamendu operatiboan utzitakoak		10.426	10.789
Gizarte-ekintzari lotua		791	821
Ondasun higiezinak inbertsioak		61.829	68.581
<i>Pro memoria: Finantza-errentamenduan eskuratutakoa</i>		-	-
Aktibo ukiezina	33	33.491	33.528
Merkataritza-fondoa		33.425	33.425
Bestelako aktibo ukiezina		66	103
Aktibo fiskalak	34	316.095	322.830
Korronteak		14.573	15.758
Geroratuak		301.522	307.072
Gainerako aktiboak	35	71.092	74.544
Izakinak		3.441	2.391
Bestelakoak		67.651	72.153
AKTIBOA GUZTIRA		21.584.975	24.724.675

(*) Alderatzeko helburuarekin aurkeztu dugu soilik.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO

BALANTZE BATERATUA, 2015EKO ABENDUAREN 31KOA (Mila eurokotan adierazita)

PASIBOA	Oharra	2015	2014 (*)
Negoiazio-zorroa	23	3.430	10.230
Negoiazio-deribatua		3.430	10.230
Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan	36	18.872.284	21.992.215
Banku zentraletako gordailuak		-	3.146.846
Kreditu-erakundeen gordailuak		262.856	362.369
Bezereen gordailuak		18.282.763	17.956.928
Balore negoziagarriek ordezkaturako zorrak		166.333	345.534
Beste finantza-pasibo batzuk		160.332	180.538
Estaldura-deribatua	28	114.798	133.082
Aseguru-kontratuen ondoriozko pasiboak	37	533.304	521.937
Hornidurak	38	202.656	184.583
Pentsioetarako eta antzeko betebeharrarako fondoak		25.879	35.109
Zergetarako eta beste kontingentzia batzuetarako hornidurak		-	162
Arrisku eta konpromiso kontingenteetarako hornidurak		31.187	31.840
Beste hornidura batzuk		145.590	117.472
Pasibo fiskalak	34	130.491	144.292
Korronteak		5.228	7.245
Geroratuak		125.263	137.047
Gizarte Ekintzarako Fondoak	39	11.765	11.430
Gainerako pasiboak	35	78.164	109.883
Ageriko kapital errenboltsagarria		-	-
PASIBOA GUZTIRA		19.946.892	23.107.652
ONDARE GARBIA			
Fondo propioak	40	1.502.793	1.450.712
Kapitala		708.403	695.962
Eskrituratua		708.403	695.962
Erreserbak		722.703	685.013
Erreserba (galera) metatuak		722.817	685.112
Partaidetzaren metodoaren bidez balioztatutako erakundeen erreserbak (galerak)		(114)	(99)
Ken: balore propioak		(1.359)	(1.322)
Entitate Nagusiari egotzitako emaitza		102.787	102.117
Ken: dibidenduak eta ordainsariak		(29.741)	(31.058)
Balioztapenagatiko doikuntzak	41	135.290	166.311
Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak		135.290	166.311
Eskudiru-fluxuen estaldurak		-	-
Partaidetzaren metodoaz balioztatutako erakundeak		-	-
Interes minoritarioak		-	-
Balioztapenagatiko doikuntzak		-	-
Gainerakoak		-	-
ONDARE GARBIA GUZTIRA		1.638.083	1.617.023
PASIBOA ETA ONDARE GARBIA GUZTIRA		21.584.975	24.724.675
PRO MEMORIA			
Arrisku kontingenteak	44	257.555	286.135
Konpromiso kontingenteak	45	985.090	876.665

(*) Alderatzeko helburuarekin aurkeztu dugu soilik.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO

GALDU-IRABAZIEN KONTU BATERATUA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA (Mila eurokotan adierazita)

	Oharra	2015	2014 (*)
Interesak eta antzeko errendimendua	46	395.167	532.451
Interesak eta antzeko zamak	47	86.270	164.159
Ageriko kapital errenboltsagarriaren ordainketa		-	-
INTERESEN MARJINA		308.897	368.292
Kapital-tresnen errendimendua	48	8.536	5.773
Partaidetzaren metodoaren bidez balioztatutako erakundeen emaitzak	49	83	23
Jasotako komisioak	50	107.382	115.494
Ordaindutako komisioak	51	10.825	12.490
Finantza-eragiketen emaitzak (garbiak)	52	15.363	16.320
Negoiazio-zorroa		739	2.496
Arrazoizko balioarekin balioztatutako bestelako finantza-tresnak, galdu-irabazietan aldaketak dituztenak		2.886	2.993
Arrazoizko balioarekin balioztatu gabeko finantza-tresnak, galdu-irabazietan aldaketak dituztenak		12.541	9.860
Bestelakoak		(803)	971
Kanbio-aldeak (garbiak)	53	993	987
Beste ustiapen-produktu batzuk	54	204.895	208.537
Jaulkitako aseguru- eta berraseguru-kontratuen sarrerak		186.600	188.720
Finantzarioak ez diren zerbitzuak emateagatiko salmentak eta sarrerak		6.140	8.332
Gainerako ustiapen-produktuak		12.155	11.485
Beste ustiapen-zama batzuk	55	171.427	185.134
Aseguru- eta berraseguru-kontratuen gastuak		140.695	147.379
Gainerako ustiapen-zamak		30.732	37.755
Izakinetak aldakuntzak		-	-
MARJINA GORDINA		463.897	517.802
Administrazio-gastuak	56	241.424	253.484
Pertsonal-gastuak		142.523	149.032
Administrazioko beste gastu orokor batzuk		98.901	104.452
Amortizazioa	57	19.996	20.812
Hornikuntzetarako zuzkidurak (garbiak)	58	32.256	80.648
Aktibo finantzarioak narriatzeagatiko galerak (garbiak)	59	39.509	29.297
Kreditu-inbertsioak		2.380	31.117
Galdu-irabazien kontuan aldaketak dituzten eta arrazoizko balioan balioztatu ez diren bestelako finantza-tresnak		37.129	(1.820)
USTIAPEN JARDUERAREN EMAITZA		130.712	133.561
Gainerako aktiboen narriaduraren ondoriozko galerak (garbiak)	60	20.023	1.045
Korronteak ez diren eta salgai dauden aktibo moduan sailkatu gabeko aktiboen bajako irabaziak (galerak)	61	(586)	4.590
Negozio-konbinazioko alde negatiboa	68	-	7.269
Etendako eragiketa moduan sailkatu ez diren, korronteak ez diren eta salgai dauden aktiboen irabaziak (galerak)	62	9.475	(20.393)
ZERGA AURREKO EMAITZA		119.578	123.982
Mozkinen gaineko zerga	42	9.253	14.693
Obra eta fondo sozialetarako nahitaezko zuzkidura	63	7.538	7.172
ETENGABEKO ERAGIKETETATIK DATORREN EKITALDIKO EMAITZA		102.787	102.117
Etendako eragiketen emaitza (garbia)		-	-
EKITALDIKO EMAITZA BATERATUA		102.787	102.117
Interes minoritarioei egotzitako emaitza		-	-
Entitate Nagusiari egotzitako emaitza	40	102.787	102.117

(*) Alderatzeko helburuarekin aurkeztu dugu soilik.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO

**SARRERA ETA GASTU ONARTUEN EGOERA ORRI BATERATUA, 2015EKO
ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)**

	<u>2015</u>	<u>2014 (*)</u>
EKITALDIKO EMAITZA BATERATUA	102.787	102.117
ONARTUTAKO BESTELAKO SARRERAK ETA GASTUAK	(31.021)	40.068
Emaizetara birsailkatuko ez diren partidak	-	-
Prestazio mugatuko pentsio-planetako galdu-irabazi aktuarialak	-	-
Korronteak ez diren aktiboak salgai	-	-
Partaidetzaren metodoaz balioztatutako erakundeak	-	-
Emaizetara birsailkatuko ez diren partidekin zerikusia duen mozkinen gaineko zerga	-	-
Emaizetara birsailka daitezkeen partidak	(31.021)	40.068
Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak	(43.085)	55.703
Balioztapenagatiko irabaziak/(galerak)	(67.673)	67.382
Galdu-irabazien kontura transferitutako zenbatekoak	24.588	(11.679)
Eskudiru-fluxuen estaldurak	-	(53)
Balioztapenagatiko irabaziak/(galerak)	-	(53)
Partaidetzaren metodoaz balioztatutako erakundeak	-	-
Balioztapenagatiko irabaziak/(galerak)	-	-
Emaizetara birsailka daitezkeen partidekin zerikusia duen mozkinen gaineko zerga	12.064	(15.582)
ONARTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA	71.766	142.185
Entitate Nagusiari egotzitakoak	71.766	142.185
Interes minoritarioei egotzitakoak	-	-

(*) Alderatzeko helburuarekin aurkeztu dugu soilik.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO

ONDARE GARBIKO ALDAKETEN EGOERA ORRI BATERATUA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA (Mila eurokotan adierazita)

2015eko abenduaren 31n

	Erreserbak										
	Kapitala	Erreserba (galera) metatuak	Partaidetzaren metodoaren bidez balioztatutako erakundearen erreserbak (galera)	Ken: balore propioak	Entitate Nagusiari egotzitako ekitaldiko emaitza	Ken: dibidenduak eta ordainsariak	Fondo propioak guztira	Balioztape na-gatiko doikuntzak	Guztira	Interes minoritarioak	Ondare garbia guztira
Azken saldoa 2014ko abenduaren 31n	695.962	685.112	(99)	(1.322)	102.117	(31.058)	1.450.712	166.311	1.617.023	-	1.617.023
Kontabilitate-irizpideak aldatzearen ondoriozko doikuntzak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Errorengatik doikuntzak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Doitutako hasierako saldoa (*)	695.962	685.112	(99)	(1.322)	102.117	(31.058)	1.450.712	166.311	1.617.023	-	1.617.023
Onartutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	-	-	102.787	-	102.787	(31.021)	71.766	-	71.766
Ondare garbiaren beste aldakuntza batzuk											
- Kapital-gehikuntzak	22.200	78	-	-	-	-	22.278	-	22.278	-	22.278
- Kapital-murrizketak	(9.759)	-	-	-	-	-	(9.759)	-	(9.759)	-	(9.759)
- Bazkideen ordainketak	-	-	-	-	(17.931)	(29.741)	(47.672)	-	(47.672)	-	(47.672)
- Norberaren kapital-tresnekin egindako eragiketarak (garbiak)	-	-	-	(37)	-	-	(37)	-	(37)	-	(37)
- Ondare garbiko partiden arteko intsuldaketak	-	42.384	(15)	-	(73.427)	31.058	-	-	-	-	-
- Negozio-konbinazioen ondoriozko gehikuntza (murrizketa)	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
- Obra eta fondo sozialetarako hautazko zuzkidura	-	-	-	-	(10.759)	-	(10.759)	-	(10.759)	-	(10.759)
- Ondare garbiaren gehikuntzaren (murrizketen) gainerakoa	-	(4.757)	-	-	-	-	(4.757)	-	(4.757)	-	(4.757)
Ondare garbiaren beste aldakuntza batzuk guztira	12.441	37.705	(15)	(37)	(102.117)	1.317	(50.706)	-	(50.706)	-	(50.706)
Amaierako saldoa 2015-12-31n	708.403	722.817	(114)	(1.359)	102.787	(29.741)	1.502.793	135.290	1.638.083	-	1.638.083

(*) Alderatzeko helburuarekin aurkeztu dugu soilik.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO

ONDARE GARBIKO ALDAKETEN EGOERA ORRI BATERATUA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA (Mila eurokotan adierazita)

2014ko abenduaren 31n (*)

	Erreserbak										
	Kapitala	Erreserba (galera) metatuak	Partaidetzaren metodoaren bidez balioztatutako erakundeen erreserbak (galera)	Ken: balore propioak	Entitate Nagusiari egotzitako ekitaldiko emaitza	Ken: dibidenduak eta ordainsariak	Fondo propioak guztira	Balioztape nagatiko doikuntzak	Guztira	Interes minoritarioak	Ondare garbia guztira
Azken saldoa 2013ko abenduaren 31n	696.703	688.512	(8.265)	(1.286)	79.787	(30.491)	1.404.960	126.243	1.531.203	-	1.531.203
Kontabilitate-irizpideak aldatzearen ondoriozko doikuntzak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Errorengatik doikuntzak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Doitutako hasierako saldoa	696.703	668.512	(8.265)	(1.286)	79.787	(30.491)	1.404.960	126.243	1.531.203	-	1.531.203
Onartutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	-	-	102.117	-	102.117	40.068	142.185	-	142.185
Ondare garbiaren beste aldakuntza batzuk											
- Kapital-gehikuntzak	20.388	62	-	-	-	-	20.450	-	20.450	-	20.450
- Kapital-murrizketak	(21.129)	-	-	-	-	-	(21.129)	-	(21.129)	-	(21.129)
- Bazkideen ordainketak	-	-	-	-	(16.638)	(31.058)	(47.696)	-	(47.696)	-	(47.696)
- Norberaren kapital-tresnekin egindako eragiketak (garbiak)	-	-	-	(36)	-	-	(36)	-	(36)	-	(36)
- Ondare garbiko partiden arteko intsuldaketak	-	14.511	8.164	-	(53.166)	30.491	-	-	-	-	-
- Negozio-konbinazioen ondoriozko gehikuntza (murrizketa)	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
- Obra eta fondo sozialetarako hautazko zuzkidura	-	-	-	-	(9.983)	-	(9.983)	-	(9.983)	-	(9.983)
- Ondare garbiaren gehikuntzaren (murrizketen) gainerakoa	-	2.027	2	-	-	-	2.029	-	2.029	-	2.029
Ondare garbiaren beste aldakuntza batzuk guztira	(741)	16.600	8.166	(36)	(79.787)	(567)	(56.365)	-	(56.365)	-	(56.365)
Amaierako saldoa 2014-12-31n	695.962	685.112	(99)	(1.322)	102.117	(31.058)	1.450.712	166.311	1.617.023	-	1.617.023

(*) Alderatzeko helburuarekin aurkeztu dugu soilik.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO

**ESKUDIRU FLUXUEN EGOERA ORRI BATERATUA, 2015EKO ABENDUAREN 31N
BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)**

	<u>Oharra</u>	<u>2015</u>	<u>2014 (*)</u>
USTIAPEN JARDUEREN ESKUDIRU FLUXUAK		(529.636)	(967.915)
Ekitaldiko emaitza bateratua		102.787	102.117
Ustiapen-jardueren eskudiru-fluxuak lortzeko doikuntzak		134.388	176.066
Amortizazioa	57	19.996	20.812
Bestelako doikuntzak		114.392	155.254
Ustiapen-aktiboen igoera/jaitsiera garbia		2.448.728	(1.128.190)
Negoiazio-zorroat		29.257	(101.291)
Galdu-irabazietan aldaketak dituzten beste finantza-aktibo batzuk arrazoizko balioan		1.570	3.054
Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak		1.695.144	(2.425.419)
Kreditu-inbertsioak		636.728	1.377.190
Ustiapeneko beste aktibo batzuk		86.029	18.276
Ustiapen-pasiboen igoera/jaitsiera garbia		(3.212.498)	(116.197)
Negoiazio-zorroat		(6.800)	2.158
Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan		(3.119.931)	(159.660)
Beste ustiapen-pasibo batzuk		(85.767)	41.305
Mozkinen gaineko zergengatik kobrantzak/(ordainketak)		(3.041)	(1.711)
INBERTSIO JARDUEREN ESKUDIRU FLUXUAK		615.306	1.035.849
Ordainketak		(20.854)	(33.291)
Aktibo materialak	32	(19.538)	(18.119)
Aktibo ukiezinak		-	-
Partaidetzak	30	-	-
Korronteak ez diren aktiboak eta aktiboei lotutako pasiboak salgai		-	-
Epemugako inbertsio-zorroat		(1.316)	(15.172)
Kobrantzak		636.160	1.069.140
Aktibo materialak		5.581	11.004
Aktibo ukiezinak		37	468
Partaidetzak	30	276	-
Korronteak ez diren aktiboak eta aktiboei lotutako pasiboak salgai		59.963	71.701
Epemugako inbertsio-zorroat		570.303	985.967
Negozio-konbinazioetan eskuratutako eskudirua edo eskudiruaren antzekoa		-	-
FINANTZAKETA JARDUEREN ESKUDIRU FLUXUAK		(45.949)	(58.448)
Ordainketak		(50.296)	(62.260)
Dibidenduak	40	(29.741)	(31.058)
Norberaren kapital-tresnen amortizazioa	40	(9.759)	(21.183)
Norberaren kapital-tresnak eskuratzea	40	(37)	(36)
Finantzaketa-jarduerekin zerikusia duten beste ordainketa batzuk	4	(10.759)	(9.983)

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO

**ESKUDIRU FLUXUEN EGOERA ORRI BATERATUA, 2015EKO ABENDUAREN 31N
BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)**

	<u>Oharra</u>	<u>2015</u>	<u>2014 (*)</u>
Kobrantzak		4.347	3.812
Norberaren kapital-tresnen jaulkipena	40	4.347	3.812
Norberaren kapital-tresnak besterentzea		-	-
KANBIO TASEN ALDAKETEN ERAGINA		-	-
ESKUDIRUAREN EDO ANTZEKOEN IGOERA (JAITSIERA) GARBIA		39.721	9.486
ESKUDIRUA ETA ANTZEKOAK EKITALDIAREN HASIERAN		143.456	133.970
ESKUDIRUA ETA ANTZEKOAK EKITALDIAREN AMAIERAN		183.177	143.456
PRO MEMORIA			
ESKUDIRUAREN ETA ANTZEKOEN OSAGIAK EPEAREN AMAIERAN			
Kutxa		88.463	78.688
Eskudiruaren pareko saldoak banku zentraletan		94.714	64.768
Beste finantza-aktibo batzuk		-	-
Ken: ageriko banku-aurrerakin itzulgarriak		-	-
Eskudirua eta antzekoak guztira epearen amaieran	22	183.177	143.456

(*) Alderatzeko helburuarekin aurkeztu dugu soilik.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA

(Mila eurokotan adierazita)

1. Entitatearen izaera

Caja Laboral Popular Coop. de Crédito (aurrerantzean Entitatea, Entitate Nagusia, Laboral Kutxa edo Caja Laborala), helbide soziala Arrasaten (Gipuzkoan) duen eta 2012ko azaroaren 2an eratu zen kreditu-kooperatiba berria da. Caja Laboral Popular Coop. de Crédito eta Ipar Kutxa Rural S. Coop. de Crédito bat eginez sortu zuten. Kooperatiba kalifikatuaren izaera du.

1.1 Caja Laboralaren eta Ipar Kutxaren arteko bat-egitea

Bien negozioari eragiten dien ekonomiaren eta merkatuaren egoeraren jakitun, ezarrita dauden eremuetako etorkizuneko beharrak aintzat hartuz eta kooperatibismoaren oinarrietan bermatuta azterketa eta hausnarketa sakona egin ostean, Caja Laboral Popular Coop. de Crédito eta Ipar Kutxa Rural S. Coop. de Crédito bat egitea eta bien ondare sozialak batzearen bidez kooperatiba berria sortzea erabaki zuten, 2012ko maiatzaren 28ko Kontseilu Errektoreetan. Izan ere, abiapunturik egokiena iruditu zitzaienten, ingurune berri honetan finantza-jarduera gauzatzeko dituen erronka eta aukerei aurre egiteko. Bi erakundeok, antzeko orientabidea, kudeaketa-eredua, arrisku-profila eta ibilbide txalogarria izanik, banku-jarduera eraginkor, arduratsu eta konprometiturako beren kudeaketa-ereduei balioa emateko eta finantza-zerbitzuen mapa berria eratzen protagonista izateko aukera moduan hartu dute prozesu hori. 2012ko ekainaren 30ean, Kreditu Erakunde Berria eratzen zuten Bat egiteko Proiektua, estatutu sozialak eta Kontseilu Errektorearen eraketa onetsi zituzten bi erakundeon Batzar Nagusiek.

Bat egiteko Proiektuaren edukia Kreditu Kooperatiben 13/1989 Legeak, Kreditu Kooperatiben Erregelamendua onartzen duen 84/1993 Errege Dekretuak, Kooperatiben 27/1999 Legearen 63. artikulua, Euskadiko Kooperatiben 1993ko ekainaren 24ko 4/1993 Legearen 77. artikulua eta gainerako lege-xedapen aplikagarriak arautzen dute.

Caja Laboral Popular Coop. de Crédito eta Ipar Kutxa Rural S. Coop. de Crédito likidaziorik gabe deseginez egin zen bat-egitea, eta haien ondareak eta bazkideak bat-egitetik sortutako Kreditu Kooperatiba Berrira eraman ziren. Kutxa berriak lehengo bi entitateen eskubide eta betebeharrak bereganatu ditu, ondorengotza unibertsalez.

Kreditu Kooperatiba Berriak orientabide kooperatiboari, sustraiei eta aurreko erakundeon jarduera-eremu geografikoaren garapen ekonomiko, sozial eta instituzionalarekiko konpromisoari eutsi dio. Helburua, berriz, jatorriko lurraldeetan merkatu-kuota irabaztea eta EAEn eta Nafarroan kreditu-kooperatibismoaren sektorean aitzindaritzaz lortzea du, bi eremu horietan kooperatibismoa errotuta eta onartuta baitago gizartean. Era berean, lotura berezia izango du industriaren eta nekazaritzako elikagaien sektoreekin.

Entitateak Arrasaten (Gipuzkoan) du egoitza, eta azpiegoitza operatiboa Bilbon.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

2012ko urriaren 31n, Entitate berria sortzeko bat-egitearen eta akordio sozialak publiko bihurtzearen Eskritura Publikoa sinatu zuten. Horren ondorioz, Caja Laboral Popular Coop. de Créditok eta Ipar Kutxa Rural S. Coop. de Créditok bat egin eta Kreditu Kooperatiba Berria sortu zuten. “Caja Laboral Popular Coop. de Crédito” du izena eta estatutu sozialetan zehaztuta dauden helburua, helbidea, kapitala eta gainerako ezaugarriak ditu. Kreditu Kooperatibaren 1989ko maiatzaren 26ko 13/1989 Legeak eta legezko gainerako xedapen aplikagarriek arautzen dute.

Kreditu Kooperatiba Berriaren gutxieneko kapital soziala, 10 milioi eurokoa, bat egindako entitateengandik Kreditu Kooperatiba Berriak jaso eta bereganatu zituen ondasun, eskubide eta obligazio guztiak multzoan eramanez gauzatu zen, transmisio unibertsal bidez. Bereganatu zituen ondare-elementuetan jatorria duten harreman juridikoen ondoriozko eskubide eta obligazioak Caja Laboral Popular Coop. de Crédito berriari subrogatu zitzaizkion, pertsonalki eta partikular gisa.

Bat-egite horren eraginez, bat egindako kreditu-kooperatiba biak desegin eta iraungi egin ziren, likidazio-aldirik ireki gabe.

Bat egiteko Proiektuari jarraiki, eskritura Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan inskribatu zen eguna ezarri zen bat egindako entitateen eragiketak, kontabilitateari begira, Kreditu Kooperatiba Berriaren eragiketatzat hartzeko lehen eguntzat. 2012ko azaroaren 2an, legezko izapide guztiak bete eta beharrezko baimen guztiak lortutakoan, entitate berria sortzeko bat-egitearen eskritura publikoa Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan inskribatu zen.

Bi entitateetako bazkideei bat-egitearen ondorioz eratu zen entitatearen kapital sozialean onartzen zaien ekarpenaren zenbatekoa zehazteko, honako alderdi hauek hartu ziren kontuan:

- Kapital sozialari egindako ekarpen bakoitzaren balio nominala ehun eurokoa da Caja Laboral Popular Coop. de Créditoren kasuan eta euro batekoa Ipar Kutxa Rural S. Coop. de Créditoren kasuan.
- Caja Laboral Popular Coop. de Créditoko bazkideei Entitate Berriaren kapital sozialean ehun euroko balio nominaleko ekarpen bat lortzeko eskubidea aitortu zitzaaien, bat egiteko unean Caja Laboral Popular Coop. de Créditoren duten ekarpen bakoitzeko. Era berean, Ipar Kutxa Rural S. Coop. de Créditoko bazkideei Entitate Berriaren kapital sozialean ehun euroko balio nominaleko sei koma hamaika ekarpen lortzeko eskubidea aitortu zitzaaien, bat egiteko unean Ipar Kutxa Rural Coop. de Créditoren zuten ehun euroko ekarpen bakoitzeko.
- Bat-egitearen ondoren, Entitate Berriaren kapital soziala honela dago osatuta: Caja Laboral Popular Coop. de Créditoko eta Ipar Kutxa Rural S. Coop. de Créditoko bazkideei Entitate Berriaren dagokien ekarpen kopurua bider Entitate Berriaren kapitalari egindako ekarpenaren balio nominala, hau da, ehun euro.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

1.2 Estatutuak

Taldeko Entitate Nagusiko estatutu sozialen arabera, bere jarduera ez dago inolako lurralde-eremutara mugatuta, eta bazkideen eta hirugarrenen finantza-beharrak kreditu-erakundeen berezko jardueren bidez asetzea du helburu. Horretarako, gainerako kreditu-erakundeei baimenduriko aktiboko, pasiboko zein zerbitzuko eragiketa guztiak burutu ditzake, xede kooperatiboak sustatu nahiz hobeto betetzeko balio dutenak barne, betiere bazkideen finantza-beharrei lehentasuna emanaz eta hirugarrenetikiko eragiketa aktiboetarako legezko mugak errespetatuz.

Kreditu-kooperatibei besteak beste hauek agintzen dizkie beren lege-araudiak:

- a) Espainiako Bankuan aktibo likidoen gutxieneko ehuneko bat gordailututa izatea, gutxieneko erreserben koefizientea estaltzeko.
- b) Gordailuak Bermatzeko Fondora hainbateko bat bideratzea, gordailugileek euren gordailuen zenbateko jakin bat berreskuratu ahal izateko.
- c) Ekitaldi bakoitzeko soberakin garbia Heziketako eta Sustapeneko Fondora eta erreserbetara bideratzea.
- d) Baliabide propioen gutxieneko bat gordetzea, egindako inbertsioen eta onartutako arriskuen arabera.

1991ko abenduko III. Kooperatiben Biltzarrak Elkar-lankidetzako Fondo Zentrala (EFZ) arautzeko eman zituen akordioak betez —horiek bideratzeko modua 2002ko martxoaren 27ko Kontseilu Errektoreak aldatu zuen—, Entitate Nagusiak zergen aurreko soberakinen % 20 ematen die, urtero, Mondragón Inversionesi —aurrerantzean Mondragón Inversiones— eta Mondragón Fundazioari, urte horretan kapitalari dagozkion interesak eta EFZra egiten den ekarpenari dagozkion diru-laguntzak kenduta. Entitatearen ekarpenak honela bideratzen dira:

- a) Diru-laguntza gisara, urtean behin soberakin garbien % 14 ematen da, Kooperatiba arteko Fondo Sozialetik kenduta.
- b) Gainontzeko zenbatekoa, Elkar-lankidetzako Fondo Zentralerako ekarpena kalkulatzeko oinarriaren % 20ra heldu arte, EFZren aldeko arrisku-linea batera zuzentzen da: bai mailegutan, bai MONDRAGON korporazioko entitateen kapitalari ekarpenak eginez. Hala ere, Entitate Nagusiak kaudimengabeziak hornitzeko erabiliz gero, zenbateko hori kendu egiten da horniduraren beharra sortzen den ekitaldiko diru-laguntzatik.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Entitatearen estatutuei jarraiki, EFZrako urteko ekarpena ekitaldiko emaitzak banatzearen bidez gauzatuko da (4. oharra), Kooperatiba arteko Fondo Sozialaren bitartez. Zuzeneko inbertsioaren ekarpen-modalitateak 76.851 mila euroko erabili gabeko muga du (69.885 mila eurokoa 2014an).

Caja Laboral Popular Taldeak eta haren Erakunde Partaidetuek —aurrerantzean Taldea edo Laboral Kutxa Taldea— osatzen duten Erakunde Partaidetuen Taldeko Entitate Nagusia da Caja Laborala. Hortaz, Entitate Nagusia behartuta dago, urteko kontu indibidualez gain, Taldearen urteko kontu bateratuak egitera; kontu indibidualak ere ikuskatu egiten dira. Kontu horietan, mendeko sozietateetako eta erakunde taldeaniztunetako partaidetzak eta elkartutako erakundeetako inbertsioak sartuko dira, baldin badaude. Taldeko erakundeek jarduera-esparru ugari ukitzen dituzte.

2015eko abenduaren 31n, Entitate Nagusiaren guztizko aktiboen eta ondare garbiaren ehunekoak honako hauek dira, hurrenez hurren, Taldearen atal horietako datuak kontuan hartuta: % 97,05ekoa, % 96,21ekoa eta % 94,94koa (2014ko abenduaren 31n, % 97,45ekoa, % 95,91koa eta % 93,63koa).

Ondoren, 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietan Entitate Nagusiak zituen balantze indibiduala, galdu-irabazien kontu indibiduala, ondare garbiko aldaketen egoera-orri indibiduala eta eskudiru-fluxuen egoera-orri indibiduala aurkeztuko ditugu. Horiek guztiak Erakunde Nagusiaren urteko kontu indibidualak egiteko erabili behar diren kontabilitate-printzipio eta -arau eta balioztapen-irizpide berberak aplikatuz egin dira:

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

a) Balantze indibiduala, 2015eko abenduaren 31koa:

AKTIBOA	2015	2014 (*)
Kutxa eta banku zentraletako gordailuak	183.177	143.456
Negoiazio-zorria	258.346	288.223
Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak	4.121.780	5.927.653
Kreditu-inbertsioak	13.913.947	14.613.017
Epemugako inbertsio-zorria	1.057.032	1.618.104
Estaldura-deribatuak	232.753	303.066
Korronteak ez diren aktiboak salgai	346.824	341.465
Partaidetzak	114.879	115.117
Aktibo materiala	352.761	374.652
Aktibo ukiezina	-	-
Aktibo fiskalak	306.405	312.291
Gainerako aktiboak	60.069	57.848
Aktiboa guztira	20.947.973	24.094.892
PASIBOA ETA ONDARE GARBIA	2015	2014 (*)
Negoiazio-zorria	3.430	10.230
Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan	18.871.060	21.998.803
Estaldura-deribatuak	114.798	133.082
Hornidurak	201.210	183.219
Pasibo fiskalak	108.430	117.616
Gizarte Ekintzarako Fondoa	11.765	11.430
Gainerako pasiboak	61.206	89.585
Ageriko kapital errenboltsagarria	-	-
Pasiboa guztira	19.371.899	22.543.965
Fondo propioak:	1.469.960	1.418.291
Kapitala	708.403	695.962
Erreserbak	693.717	657.776
Ekitaldiko emaitza	97.581	95.611
Ken: dibidenduak eta ordainsariak	(29.741)	(31.058)
Balioztapenagatiko doikuntzak	106.114	132.636
Ondare garbia guztira	1.576.074	1.550.927
Pasiboa eta ondare garbia guztira	20.947.973	24.094.892
PRO MEMORIA		
Arrisku kontingenteak	273.561	298.466
Konpromiso kontingenteak	1.005.181	920.052

(*) Alderatzeko helburuarekin aurkeztu dugu soilik.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

b) Galdu-irabazien kontu indibiduala, 2015eko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa:

	2015	2014 (*)
Interesak eta antzeko errendimenduak	371.201	508.160
Interesak eta antzeko zamak	80.752	160.081
Ageriko kapital errenboltsagarriaren ordainketa	-	-
Interesen marjina	290.449	348.079
Kapital-tresnen errendimendua	22.780	16.575
Jasotako komisioak	95.174	102.758
Ordaindutako komisioak	4.870	6.606
Finantza-eragiketen emaitzak (garbiak)	13.122	13.929
Kanbio-aldeak (garbiak)	993	987
Beste ustiapen-produktu batzuk	31.468	23.245
Beste ustiapen-zama batzuk	27.071	32.221
Marjina gordina	422.045	466.746
Administrazio-gastuak	196.194	203.870
Amortizazioa	19.192	19.407
Hornikuntzetarako zuzkidurak (garbiak)	32.256	80.653
Finantza-aktiboen narriaduraren ondoriozko galerak (garbiak)	39.111	30.327
Ustiapen-jardueren emaitza	135.292	132.489
Gainerako aktiboen narriaduraren ondoriozko galerak (garbiak)	25.706	11.653
Korronteak ez diren aktiboak salgai epigrafean sailkatu gabeko aktiboen bajako irabaziak (galerak)	88	2.965
Etendako eragiketa moduan sailkatu ez diren, korronteak ez diren eta salgai dauden aktiboen irabaziak (galerak)	588	(13.222)
Zerga aurreko emaitza	110.262	110.579
Mozkinen gaineko zerga	5.143	7.796
Obra eta fondo sozialetarako nahitaezko zuzkidura	7.538	7.172
Etengabeko eragiketetatik datorren ekitaldiko emaitza	97.581	95.611
Etendako eragiketen emaitza (garbia)	-	-
Ekitaldiko emaitza	97.581	95.611

(*) Alderatzeko helburuarekin aurkeztu dugu soilik.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

c) Sarrera eta gastu onartuen egoera orri indibiduala, 2015eko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa:

	2015	2014 (*)
EKITALDIKO EMAITZA	97.581	95.611
ONARTUTAKO BESTELAKO SARRERAK ETA GASTUAK	(26.522)	20.467
Emaizetara birsailka daitezkeen partidak	(26.522)	20.467
Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak	(36.836)	28.479
Balioztapenagatiko irabaziak/(galerak)	(60.415)	40.808
Galdu-irabazien kontura transferitutako zenbatekoak	23.579	(12.329)
Eskudiru-fluxuen estaldurak	-	(53)
Balioztapenagatiko irabaziak/(galerak)	-	(53)
Mozkinen gaineko zerga	10.314	(7.959)
ONARTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA	71.059	116.078

(*) Alderatzeko helburuarekin aurkeztu dugu soilik.

d) Ondare garbiko aldaketen egoera orri indibiduala, 2015eko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa:

2015eko ekitaldiko aldakuntza

	Fondo propioak	Balioztapenagatiko doikuntzak	Ondare garbia guztira
Azken saldoa 2014ko abenduaren 31n	1.418.291	132.636	1.550.927
Kontabilitate-irizpideak aldatzearen ondoriozko doikuntzak	-	-	-
Erroneengatiko doikuntzak	-	-	-
Doitutako hasierako saldoa	1.418.291	132.636	1.550.927
Onartutako sarrerak eta gastuak guztira	97.581	(26.522)	71.059
Ondare garbiaren beste aldakuntza batzuk			
- Kapital-gehikuntzak	22.278	-	22.278
- Kapital-murrizketak	(9.759)	-	(9.759)
- Bazkideen ordainketak	(47.672)	-	(47.672)
- Ondare garbiko partiden arteko intsuldaketak	-	-	-
- Negozio-konbinazioen ondoriozko gehikuntzak (murrizketak)	-	-	-
- Obra eta fondo sozialetarako hautazko zuzkidura	(10.759)	-	(10.759)
- Ondare garbiaren gehikuntzen (murrizketen) gainerakoa	-	-	-
Ondare garbiaren beste aldakuntza batzuk guztira	(45.912)	-	(45.912)
Amaierako saldoa 2015-12-31n	1.469.960	106.114	1.576.074

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

2014ko ekitaldiko aldakuntza

	Fondo propioak	Balioztapenagati ko doikuntzak	Ondare garbia guztira
Azken saldoa 2013ko abenduaren 31n	1.381.092	112.169	1.493.261
Kontabilitate-irizpideak aldatzearen ondoriozko doikuntzak	-	-	-
Erroreengatiko doikuntzak	-	-	-
Doitutako hasierako saldoa	1.381.092	112.169	1.493.261
Onartutako sarrerak eta gastuak guztira	95.611	20.467	116.078
Ondare garbiaren beste aldakuntza batzuk			
- Kapital-gehikuntzak	20.450	-	20.450
- Kapital-murrizketak	(21.129)	-	(21.129)
- Bazkideen ordainketak	(47.696)	-	(47.696)
- Ondare garbiko partiden arteko intsuldaketak	-	-	-
- Negozio-konbinazioen ondoriozko gehikuntzak (murrizketak)	-	-	-
- Obra eta fondo sozialetarako hautazko zuzkidura	(9.983)	-	(9.983)
- Ondare garbiaren gehikuntzen (murrizketen) gainerakoa	(54)	-	(54)
Ondare garbiaren beste aldakuntza batzuk guztira	(58.412)	-	(58.412)
Amaierako saldoa 2014-12-31n (*)	1.418.291	132.636	1.550.927

(*) Alderatzeko helburuarekin aurkeztu dugu soilik.

e) Eskudiru-fluxuen egoera orri indibiduala, 2015eko abenduaren 31n bukatutako ekitaldikoa:

	2015	2014 (*)
Ustiapen-jardueren eskudiru-fluxuak:	(508.888)	(973.769)
Ekitaldiko emaitza	97.581	95.611
Ustiapen-jardueren eskudiru-fluxuak lortzeko doikuntzak	146.799	188.061
Ustiapen-aktiboan igoera/jaitsiera garbia	2.474.961	(1.131.951)
Ustiapen-pasiboan igoera/jaitsiera garbia	(3.225.188)	(123.779)
Mozkinen gaineko zergengatiko kobrantzak/(ordainketak)	(3.041)	(1.711)
Inbertsio-jardueren eskudiru-fluxuak:	594.521	1.041.667
Ordainketak	(25.101)	(26.946)
Kobrantzak	619.622	1.068.613
Finantzaketa-jardueren eskudiru-fluxuak	(45.912)	(58.412)
Kanbio-tasen aldaketan eragina	-	-
Eskudiruaren eta antzekoen igoera/jaitsiera garbia	39.721	9.486
Eskudirua eta antzekoak ekitaldiaren hasieran	143.456	133.970
Eskudirua eta antzekoak ekitaldiaren amaieran	183.177	143.456

(*) Alderatzeko helburuarekin aurkeztu dugu soilik.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

2. Urteko kontu bateratuak aurkezteko oinarriak

2.1 Egoera zehaztasunez

Taldearen urteko kontu bateratuak emateko, Europar Batasunak 2015eko abenduaren 31n onartu dituen Finantza Informaziorako Nazioarteko Arauek —aurrerantzean, FINA-EB— ezarritakoa hartu da oinarritzat. Bestalde, Espainiako Bankuaren 2004ko abenduaren 22ko 4/2004 Zirkularra eta ondorengo aldaketak ere hartu dira aintzat, Europar Batasunak onartutako Finantza Informaziorako Nazioarteko Arauak garatu eta Espainiako kreditu-erakundeen sektorerara egokitzen baitituzte.

Txosten honetan, KNA eta FINA laburdurak erabili ditugu Kontabilitate Nazioarteko Arauak eta Finantza Informaziorako Nazioarteko Arauak izendatzeko, eta FINAIB eta SIC Finantza Informaziorako Nazioarteko Arauen Interpretazio Batzordea eta aurreko Interpretazio Batzordea izendatzeko. Guztiak Europar Batasunak onetsi zituen, eta horien arabera egin ditugu urteko kontu bateratu hauek.

Urteko kontu bateratuak egiteko, kontabilitate-printzipio eta -arau guztiez gain, horietan eragina duten eta nahitaez aplikatzekoak diren balioztapen-irizpideak ere erabili ditugu. Ondorioz, 2015eko abenduaren 31n Taldeak zuen ondarearen eta finantza-egoeraren berri ematen dute, egun horretan amaitutako ekitaldiari dagozkion eragiketen emaitza bateratuak, ondare garbi bateratuan izandako aldaketak eta eskudiru-fluxu bateratuak ahaztu gabe.

Taldearen 2015eko ekitaldiko urteko kontu bateratuak egiteko erabili ditugun kontabilitate-printzipio eta -arau eta balioztapen-irizpide esanguratsuenak 13. oharrean laburbildu ditugu.

Urteko kontu bateratuak Entitatearen eta Taldeko gainerako erakundeen kontabilitate-erregistroetan oinarrituz osatu ditugu. Dena den, gerta liteke Taldearen 2015eko ekitaldiko urteko kontu bateratuak egiteko aplikatu diren kontabilitate-printzipio eta -arauak eta balioztapen-irizpideak bat ez etortzea Taldeko zenbait erakundek erabilitakoekin. Hori dela eta, kontabilitate-printzipio eta -arauak eta balioztapen-irizpideak homogeneizatzeko eta Entitateak aplikatutako FINA-EB arauetara egokitzeko beharrezko doikuntza eta birsailkapenak egin ditugu baterakuntza-prozesuan.

Urteko kontu bateratu hauetan jaso den informazioa Taldeko Entitate Nagusiko administratzaileen erantzukizuna da.

Taldearen 2015eko ekitaldiko urteko kontu bateratuak Kontseilu Errektorearen 2016ko otsailaren 29ko bileran formulatu zituzten Entitate Nagusiko administratzaileek. Orain, Batzar Nagusiaren onespeneraren zain daude, eta espero da aldaketa esanguratsurik egin gabe onetsiko dituela.

Urteko kontu bateratuok, kontrakorik esaten ez bada, mila eurokotan aurkeztu dira.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

2.2 Bateratzeko printzipioak

Taldearen definizioa Europar Batasunak erabakitako Finantza Informaziorako Nazioarteko Arauetan (FINAetan) ezarritakoaren arabera egin da. Erakunde mendeko, taldeaniztun eta elkartuek osatzen dute erakunde partaidetuen multzoa.

2.2.1) Mendeko erakundeak

Taldeak kontrola ditzakeenak hartzen dira mendeko erakundetzat. Egoera hori gertatzen da, Taldeak eskubidea duenean partaidetuan duen inplikazioaren ondoriozko mozkin aldakorrak jasotzeko eta erakunde horren gainean duen boterearen bidez mozkin horietan eragiteko gaitasuna duenean.

Kontrola dagoela onartzeko, bat etorri behar dute hauek:

- Botereak: inbertitzaileak partaidetuaren gainean boterea du, baldin eta jarduera garrantzitsuak, hau da, partaidetuaren etekinetan eragin esanguratsua duten haiek, zuzentzeko gaitasuna ematen dioten eskubideak baditu indarrean.
- Mozkinak: inbertitzaileak partaidetuan duen inplikazioaren ondorioz mozkin aldakorrak jasotzeko eskubidea du, baldin eta inplikazio horrengatik jasotzen dituen irabaziak aldatu egin badaitezke partaidetuaren ekonomia-bilakaera dela eta. Inbertitzailearen mozkinak positiboak soilik, negatiboak soilik edo aldi berean positiboak eta negatiboak izan daitezke.
- Boterearen eta mozkinen arteko erlazioa: Inbertitzaileak partaidetua kontrolatzen duela esango dugu, baldin eta, partaidetuaren gainean boterea izateaz gain, eskubidea badu partaidetuan duen inplikazioagatik irabazi aldakorrak jasotzeko eta botere hori partaidetuan duen inplikazioagatik mozkinetan eragiteko erabil badezake.

Gainera, Taldeak aintzat hartzen ditu kontrola dagoen ala ez zehazteko ebaluazioan eragin dezaketen gertakari edo inguruabarrak eta erreferentziazko arautegia aplikatzeko gidaliburuetan deskribatutako azterketak ere —adibidez, Taldeak ebaluatzen den erakundearen boto-eskubideen % 50etik gorako zuzeneko nahiz zeharkako partaidetza badu—.

Mendeko erakundeetako partaidetzei buruzko 2015eko eta 2014ko abenduaren 31ko informazio garrantzitsua l. eranskinean jaso da.

Mendeko erakundeen urteko kontuak Entitatearenekin bateratzeko, integrazio globalaren metodoa erabili dugu. Ondorioz, metodo honen bidez bateratutako erakundeen artean egindako transakzioen ondoriozko saldo esanguratsu guztiak kendu egin dira bateratze-prozesutik. Bestalde, hirugarrenen partaidetza honela aurkezten da hauetan:

- Taldearen ondare garbia, balantze bateratuko ondare garbiko “Interes minoritarioak” atalean.
- Ekitaldiko emaitza bateratuetan, galdu-irabazien kontu bateratuko “Interes minoritarioei egotzitako emaitza” atalean.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Taldeak ekitaldian eskuratutako mendeko erakundeen emaitzak bateratzeko, eskurapen-egunetik ekitaldi-itxierara bitarteko epealdiko datuak bakarrik jasotzen dira. Bestalde, Taldeak ekitaldian besterendutako mendeko erakundeek sortutako emaitzak bateratzeko, ekitaldiaren hasieratik besterentze-egunera bitarteko epealdiko datuak bakarrik jasotzen dira.

Konpainien arteko eragiketak, saldoak eta Taldeko erakundeen arteko transakzioetako sarrera-gastuak kendu egin dira. Kendu egin dira, halaber, talde barruan egindako eta aktibo moduan aitortutako transakzioen galera-irabaziak ere. Mendeko erakundeen kontabilitate-politikak aldatu egin dira, Taldeak erabiltzen dituen politikekiko uniformetasuna bermatzeko beharrezkoa izan denean.

Mendeko erakundeez gain, IM Caja Laboral 1, ATF; IM Caja Laboral 2, ATF eta IM Caja Laboral Empresas 1, ATF titulizazio-fondoak ere sartu ditu Entitate Nagusiak. Hipoteka-maileguak titulizatu eta gero titulizazio-bonuak jaulkitzeko sortu dira erakunde horiek (ikusi 2.2.6 oharra).

Negozio-konbinazioak kontabilizatzeko, eskurapen-metodoa aplikatzen du Taldeak. Mendeko erakunde bat erosteagatik transferitzen den kontraprestazioa honako hauei dagokie: transferitutako aktiboen arrazoizko balioari, erositako erakundearen aurreko jabeekin egindako pasiboei eta Taldeak jaulkitako ondareko partaidetzei. Transferitutako kontraprestazioan, kontraprestazio kontingenteko akordio batek eragindako edozein aktiboren edo pasiboren arrazoizko balioa sartzan da. Eskuratutako aktibo identifikagarriak eta negozio-konbinazio batean onartutako pasiboak eta pasibo kontingenteak, hasiera batean, arrazoizko balioan balioztatzen dira, eskurapen-datan. Negozio-konbinazio bakoitzean, Taldeak arrazoizko balioaren arabera edo eskuratutako erakundearen aktibo garbien zenbateko aitortuetan nagusi ez den partaidetzaren zati proportzionalaren arabera balioetsi dezake eskuratutako erakundearen nagusi ez den edozein partaidetza.

Eskurapenarekin zerikusia duten kostuak dagokien ekitaldiko gastutzat hartzen dira.

Negozioren konbinazioa etapaka egiten bada, aurrez eskuratzailleak zuen eskuratutakoaren ondare garbiko partaidetzaren eskurapen-datako arrazoizko balioa berriro ere arrazoizko balioan balioztatzen da, eskurapen-datan, ekitaldiko emaitzaren bidez.

Taldeak transferitu beharreko edozein kontraprestazio kontingente arrazoizko balioan jasotzen da, eskurapen-datan. Aktibotzat edo pasibotzat hartzen den kontraprestazio kontingenteari arrazoizko balioan gertatzen zaizkion aldaketak, emaitzetan jasotzen dira, edo ondare garbiaren aldaketatzat hartzen, KNA 39aren arabera. Ondare garbitzat sailkatzen den kontraprestazio kontingentea ez da berriro balioesten, eta haren ondorengo likidazioa ondare garbian kontabilizatzen da.

Merkataritza-fondoa honela balioesten da, hasiera batean: transferitutako kontraprestazioaren soberakin gisa eta nagusi ez den partaidetzak erositako aktibo identifikagarrien eta onartutako pasiboen arabera duen arrazoizko balio gisa. Kontraprestazio hori erositako mendeko erakundearen aktibo garbien arrazoizko balioa baino txikiagoa bada, aldea emaitza bateratuetan jasotzen da.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Taldeko aseguru-erakundeak hainbat organismok gainbegiratu eta arautzen dituzte. Jurisdikzio guztietan indarrean dauden legeek, kapitaleko gutxieneko eskakizun batzuk betetzeko beharrak eta gainbegiraleen jarduerak erakunde horiek fondoak eskudirutan, dibidendutan, mailegutan edo aurrerakinetan transferitzeko duten gaitasunari eragin diezaiokete.

2.2.2) Mendeko erakundeen jabetzako partaidetza-aldaketak, kontrol-aldaketarik gabekoak

Nagusi ez diren partaidetzekin egindako transakzioak, kontrolaren galera eragiten ez badute, ondareko transakzioetat kontabilizatzen dira, hau da, jabeekin egindako transakzioetat. Ordaindutako kontraprestazioaren arrazoizko balioaren eta mendeko erakundearen aktibo garbier kontabilitate-balio edo -zenbatekotik erosi den proportzioaren arteko aldea ondare garbieran erregistratzen da. Nagusi ez diren partaidetzak besterentzeagatiko irabaziak edo galerak ere ondare garbieran jasotzen dira.

2.2.3) Mendeko erakundeak besterentzea

Taldeak mendekoaren kontrola izateari uzten dionean, erakundeak gordetako edozein partaidetza kontrola galdu zen eguneko arrazoizko balioan balioesten da, berriro, eta kontabilitate-balioko aldaketa emaitzetan jasotzen da. Arrazoizko balioa honako hau da: erakunde, baterako negozio edo finantza-aktiboaren partaidetza bakoitzarentzat hasieran ezartzen den kontabilitate-balioa, gerora kontabilitatean jasotzen dena. Gainera, erakunde horren inguruan aurretiaz "Ondare garbierko balioztapenagatiko doikuntzak" epigrafean aitortzen den edozein zenbateko Taldeak aktibo edo pasiboak zuzenean saldu balitu bezala kontabilizatzen da. Beraz, litekeena da ondare garbieran aurretiaz aitortutako zenbatekoak emaitza-kontu bateratuan birsailkatu behar izatea.

2.2.4) Elkarrekiko negozioak - Erakunde taldeaniztunak

Elkarrekiko negozioetan, partaide izeneko erakunde bik edo gehiagok kontratu bidezko akordio bat sinatzen dute, eta jarduera ekonomiko bati ekiten diote. Jarduera horri baterako kontrola ezartzen zaio, hau da, kontratu bidezko hitzarmen baten menpe jartzen da, eta entitate baten edo jarduera ekonomiko baten finantza- eta ustiapen-politikak zuzentzeko boterea partekatzen da, erakunde edo jarduera haren eragiketetatik onura atzeratzeko. Halakoetan, kontrola partekatzen duten eta aktibo garbieran eskubideak dituzten partaide guztiek ados egon behar dute, jarduera garrantzitsuen gaineko erabakiak hartzeko.

"Elkarrekiko negozio"tzat hartzen dira, halaber, mendekoak ez izan arren elkarren artean loturarik ez duten erakunde bik edo gehiagok kontrolatzen dituzten erakundeetako partaidetzak ere.

Bateratzeko prozesuan, partaidetzaren prozedura erabili dugu Baterako negozioen - Erakunde taldeaniztunen urteko kontuetarako, kontabilitate-arautegian ezarritakoari jarraiki.

Elkarrekiko negozioetako - Erakunde taldeaniztunetako partaidetzei buruzko 2015eko eta 2014ko abenduaren 31ko informazio garrantzitsua I. eranskinean jaso da.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

2.2.5) Elkartutako erakundeak

Erakunde partaidetuak dira erakunde elkartekideak ere, eta horietan Taldeak zeresan handia du. Zeresan horren erakusle dugu, baina ez bakarria, zuzenean edo zeharka, beste erakunde partaidetu baten edo hainbaten bidez, sozietate partaidetuko boto-eskubideen % 20ko edo gehiagoko partaidetza izatea.

Baterakuntza-prozesuan, partaidetzaren metodoa aplikatu da erakunde elkartekideetan ere, hain zuzen ere KNA 28an zehaztu denari jarraiki. Hortaz, erakunde elkartekideetako partaidetzak balioztatzeke, Taldeak haren kapitalean duen partaidetzaren zatia hartzen da, baina jasotako dibidenduak eta beste ondare-ezabapen batzuk kontuan hartu ondoren. Erakunde elkartekideekin egindako transakzioen emaitzak Taldearen partaidetzaren proportzioaren arabera kentzen dira. Erakunde elkartekide batek galerak izaten baditu eta horren ondorioz kontabilitate-ondarea negatiboa bada, Taldearen balantze bateratuan balio nuluarekin agertuko da, baldin eta Taldeak hari estaldura finantzarioa emateko betebeharra ez badu.

Dena dela, 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n, Taldeak % 20tik gorako partaidetza du hainbat sozietatetan, baina horiek ez dira erakunde elkartekide moduan hartu, Taldeak uste duelako horietan ez duela behar adinako eragina, Mondragón Inversioesek salneurri finko batean partaidetza horiek erosteko konpromiso irmoa duelako. 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n, hurrenez hurren 6.105 mila euroko eta 6.723 mila euroko kontabilitate-balioa zuten partaidetza horiek (25. oharra).

Erakunde elkartekideetako partaidetzei buruzko 2015eko eta 2014ko abenduaren 31ko informazio garrantzitsua l. eranskinean jaso da.

Gerta liteke Taldearen 2015eko eta 2014ko ekitaldietako urteko kontu bateratuak egiteko aplikatu diren kontabilitate-printzipio eta -arauak eta balioztapen-irizpideak bat ez etortzea Taldeko zenbait erakunde mendeko, taldeaniztun eta elkartuk erabilitakoekin. Hori dela eta, kontabilitate-printzipio eta -arauak eta balioztapen-irizpideak homogeneizatzeko beharrezko doikuntza eta birsailkapenak egin dira baterakuntza-prozesuan.

2015eko eta 2014ko abenduaren 31n, Taldeko entitate batek ere ez zuen kapitalaren edo boto-eskubideen % 5eko edo gehiagoko partaidetza, Espainiako edo nazioarteko beste kreditu-erakunderen batean.

Orobat, 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n, Espainiako edo atzerriko kreditu-erakunde batek ere edo Espainiako edo atzerriko kreditu-erakunderen bat barne hartzen duen talde batek ere —Balore Merkatuen Legearen 4. artikuluan jasota dagoenaren arabera— ez zuen kapitalaren edo boto-eskubideen % 5eko edo gehiagoko partaidetza, Taldeko kreditu-erakunderen batean.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

2.2.6) Erakunde egituratuak

Taldeak erakundeetan parte hartzen duenean edo, arriskuak transmititzeko, bestelako helburu batzuetarako edo bezeroei inbertsio jakin batzuetara sartzea ahalbidetzeko, erakundeak eraten dituenean, aurrez azaldutakoari jarraiki kontrolik dagoen eta, beraz, bateratu beharrik dagoen ala ez zehazten da, arautegietan ezarritakoa aintzat hartuta. Zehazki, Taldeak arrakasta-komisiorik sortzen duen eta azpiko aktiboen kudeatzaileak atzera botatzeko aukerarik duen hartzen da aintzat. Erakunde horien artean daude "Aktiboak titulizatzeko fondoak". Horiek bateratu egiten dira, aurreko analisiaren arabera Taldeak kontrolatu egin dituela erabakitzen denean.

2015eko eta 2014ko abenduaren 31n, erakunde egituratu bateratuei finantza-sostengua emateko kontratu bidezko akordioak bat datoz titulizazioen merkatuan erabilera arruntekoak diren laguntza-mekanismoekin, eta ez dago kontratu bidez ezarritakoaz bestelako finantza-sostengu esanguratsurik. Urteko kontu bateratuen 26. oharrean, entitate egituratu bateratuei lotutako saldoen berri ematen da.

Taldeak kudeatutako borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeek eta inbertsio- eta pentsio-fondoek ez dituzte betetzen erakunde egituratutzat jotzeko arautegi-eskakizunak, eta gainerako mendeko erakundeen irizpide berberekin aztertzen dira. Esan beharra dago, kasurik gehienetan pertsonalitate juridikorik gabeko txikizkako fondoak izaten direla eta kudeatutako ondarearen jabetza ematen dieten unitate inbertitzaileek.

Buruaskiak dira, beraien jardueri dagokienez, erakunde eta fondo horiek, hots, ez dira finantza-sostengu gehigarririk gabe beren jarduerak egitea galaraziko liekeen kapital egitura baten mendeko. Galdu-irabazi bateratuen kontuko "Jasotako komisioak" epigrafean (50. oharra) daude erregistratuta Taldeak ekitaldian erakunde eta fondo horiei emandako zerbitzuengatik (funtsean, ondareak kudeatzeko zerbitzuengatik eta zorroak gordailutzeagatik) sortutako komisioak, hirugarren batzuen zorroak gordailutzeagatik sortutako komisioekin batera.

2.2.7) Bateratze-perimetroko aldakuntzak

Bateratze-perimetroko aldakuntzak 2015ean

2015eko ekitaldian, ISGA Inmuebles SAk Taldeko higiezinaren sozietateak (Clarim Álava SL, Clarim Navarra SL eta Clarim Valladolid SL) xurgatu ditu. Era berean, 2014ko ekitaldian zehar ISGA Inmuebles SAk xurgatu zuen Fomenclarrek partaidetutako higiezinaren sei sozietate xurgatu ditu. Xurgapen horren ondorioz, Taldeak galdu egin du sozietate horietan zuen zuzeneko partaidetza.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA **(Mila eurokotan adierazita)**

Bateratze-perimetroko aldakuntzak 2014an

Era berean, 2014 ekitaldian, Fomenciar SL eta horren beste 15 higiezinaren sozietate partaidetu xurgatu zituen ISGA Inmuebles SAK. Horren ondorioz, sozietate horien aktiboen eta pasiboen kontrola hartu zuen Taldeak.

2.3 Informazioaren konparagarritasuna

2015eko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiko kontabilitate-informazioa Europar Batasunak onartutako Finantza Informaziorako Nazioarteko Arauetako irizpideei jarraiki jaso da, eta 2014koaren parean jarri da, alderatu ahal izateko.

3. Aldaketak eta erroreak kontabilitate-irizpide eta -estimazioetan

Urteko kontu bateratu hauetan jaso den informazioa Entitate Nagusiko administratzaileen erantzukizuna da. Urteko kontu bateratu hauetan zenbait aktibo, pasibo, sarrera, gastu eta konpromiso balioztatzeko erabili diren estimazioak Entitate Nagusiko eta erakunde partaidetuen Goi-mailako Zuzendaritzako kideek egin eta administratzaileek berretsi dituzte. Honako hauek hartu dira kontuan estimazio horietan:

- Zenbait aktibo narriatzeagatiko galerak (13 h oharra).
- Aktibo materialeko eta aktibo ukiezinako elementuei aplikatutako balio-bizitza (13 q eta 13 r oharra).
- Kotizatu gabeko zenbait aktiboren arrazoizko balioa (13 e oharra).
- Horniduretan eta pasibo kontingenteetan espero den kostua eta bilakaera (13 u oharra).
- Aseguruengatiko pasiboak kalkulatzeko erabilitako hipotesiak (13 t oharra).
- Enplegu ondoko ordainketen ondoriozko konpromisoak eta pasiboak kalkulatzeko erabilitako hipotesi aktuarialak (13 o oharra).
- Fomenciar SLren higiezinaren sozietateen negozio-konbinazioan eskuratutako aktiboen arrazoizko balioa kalkulatzeko erabilitako hipotesiak (13 aa eta 68. oharra).
- Kreditu fiskal aktibatuen berreskuragarritasunaren bilakaera (13 p oharra).

2015eko abenduaren 31n unean uneko partidari buruz eskuragarri genuen informaziorik onena erabili dugunez estimazioak egiteko, gerta liteke etorkizuneko gertakarien ondorioz horiek aldatu behar izatea hurrengo ekitaldietan. Edozein modutan ere, aldaketa hori prospektiboa izango da, eta estimazio-aldaketaren eraginak dagokion galdu-irabazien kontuan jasoko dira.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

a) Kontabilitate-irizpideen aldaketak

Transakzio edo jazoera jakin bat arautzen duen kontabilitate-arauren bat aldatzen denean edo Entitate Nagusiaren Kontseilu Errektoreak, behar bezala justifikatutako arrazoiak tarteko, kontabilitate-irizpideak aldatzea erabakitzen duenean, aldaketok atzeraeraginez aplikatzen dira, baldin eta:

- Ezinezkoa ez bada aurreragoko gertaerako alderatze-informazioan kontabilitate-irizpide bat aldatzeak gertaera bakoitzean sortuko dituen eraginak zehaztea. Kasu horretan, atzeraeraginez aplikatzea posible den azken ekitaldiaren hasieratik aplikatuko da kontabilitate-irizpide berria. Ezinezkoa ez bada kontabilitate-irizpide berria aurreko ekitaldi guztiei aplikatzeagatik uneko ekitaldian metatuko den eragina zehaztea. Kasu horretan, aplikatzea posible den datarik urrunekoenetik aurrera aplikatuko da irizpide berria.
- Irizpidea aldatu edo ezartzen duen xedapenak edo arauak noiztik aplikatu behar den esaten ez badu.

Taldeari aplikagarri zaion kontabilitate-araudian hainbat aldaketa izan dira 2015eko ekitaldian zehar, aurreko ekitaldian aplikatuarekin alderatuta. Ondoren, aldaketarik esanguratsuenen berri emango dugu:

i) 2015eko urtarrilaren 1ean hasitako ekitaldietan nahitaez erabili beharreko arau, aldaketa eta interpretazioak

- FINAIB 21 “Zamak”

2014ko ekainaren 13an, Europako Batzordeak 634/2014 Arautegia jaulki zuen. Horren bidez, Finantza Informaziorako Nazioarteko Arauen Interpretazio Batzordearen 21. interpretazioa (FINAIB 21), zamei buruzkoa, onartu zen. Interpretazio horrek administrazio publikoek irabazien gaineko zergaz gain eta legea ez betetzearen ondoriozko zigorrez eta isunez gain ezarritako zamen kontabilitate-tratamendua lantzen du. Hauxe da gai nagusia: Entitateak noiz aitortu behar duen KNA 37 aruari jarraiki kontabilizatzen den zama bat ordaintzeko betebeharraren ondoriozko pasiboa. Benetako egutegia eta zenbatekoa dituen zama baten ordainketagatiko pasibo baten kontabilitate-tratamendua ere lantzen du.

Arautegi horren 2. artikuluari jarraiki, entitateek 2014ko ekainaren 17tik aurrerako lehen ekitaldia abiatzean aplikatuko dute, beranduenez, FINAIB 21 Zamak interpretazioa. Dena delarik ere, interpretazio hori lehen aldiz 2014ko ekitaldian aplikatzea erabaki zuen Taldeak, aurrez aplikatzeko aukera ematen zion eta.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

- FINA arauen urteko hobekuntzak, 2011-2013 zikloan

2013ko abenduan, FINA araei 2011-2013 zikloan aplikatu beharreko Urteko Hobekuntzak argitaratu zituen IASBk. Urteko Hobekuntza horietan egindako aldaketak 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietan aplikatuko dira oro har, baina aldez aurretik ezartzea ere onartzen da. Aldaketa nagusietan arau hauek ukitzen dira:

- FINA 3 “Negozio-konbinazioak”: baterako negozioen hedadurarako salbuespenak.
- FINA 13 “Arrazoizko balioa balioestea”: FINA 13 arauan eskura dagoen “zorroko salbuespenaren norainokoa.
- KNA 40 “Ondasun higiezinetakako inbertsioak”: FINA 40 eta KNA 3 arauen arteko harremana, higiezin bat ondasun higiezinetakako inbertsio moduan edo ugazabak okupatutako higiezin moduan sailkatzen denean.

Ez dugu espero aldaketa berriek eragin handirik izango dutenik Taldearen urteko kontu bateratuetan.

ii) Oraindik indarrean sartu ez diren baina 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako ekitaldien aurretik erabil daitezkeen arau, aldaketa eta interpretazioak

Urteko kontu bateratu hauek formulatzeko egunean, IASB eta IFRS Interpretations Committee erakundeek jarraian azalduko ditugun arau, aldaketa eta interpretazioak argitaratu zituzten. Horiek 2016ko ekitalditik aurrera aplikatzekoak dira, baina Taldeak ez ditu aldez aurretik ezarri.

- FINA arauen urteko hobekuntzak, 2010-2012 zikloan

2013ko abenduan, FINA araei 2010-2012 zikloan aplikatu beharreko Urteko Hobekuntzak argitaratu zituen IASBk. Urteko Hobekuntza horietan egindako aldaketak 2015eko otsailaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietan aplikatuko dira oro har, baina aldez aurretik ezartzea ere onartzen da. Aldaketa nagusietan arau hauek ukitzen dira:

- FINA 2 “Akzioetan oinarritutako ordainketak”: emakida ezeztatzina izateko baldintza zehaztea.
- FINA 3 “Negozio-konbinazioak”: negozio-konbinazioetan kontraprestazio kontingente bat kontabilizatzea.
- FINA 8 “Ustiapen-segmentuak”: entitateko aktiboen bidez informazioa ematen den segmentuen esleitutako aktibo guztien ustiapen- eta berdinkatze-segmentuak gehitzeari buruz eman beharreko informazioa.
- KNA 16 “Ibilgetu materiala” eta KNA 38 “Aktibo ukiezinak”: errebalorizazioaren eredia erabiltzen denean metatutako amortizazioa proportzionalki berradieraztea.
- KNA 24 “Alde lotuei buruz eman beharreko informazioa”: alderdi lotu moduan zuzendaritzako funtsezko langileen zerbitzuak ematen dituzten erakundeak.

Ez dugu espero aldaketa berriek eragin handirik izango dutenik Taldearen urteko kontu bateratuetan.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

- KNA 19 (aldaketa) "Prestazio-plan mugatuak: langileen ekarpenak"

KNA 19 arauak (2011n berrikusiak) emandako zerbitzuarekin zerikusia dutenak eta ez dutenak bereizten ditu langileen ekarpenetan. Egungo aldaketarekin, zerbitzuari sortu diren ekitaldian lotutako ekarpenak eta zerbitzuari ekitaldi batean baino gehiagoan lotutakoak ere bereizten dira. Aldaketari esker, zerbitzuari lotuta dauden eta zerbitzuaren iraupenaren arabera aldatzen ez diren ekarpenak kendu egin daitezke zerbitzua eman den ekitaldian sortutako prestazioen kostutik. Bestalde, zerbitzuari lotuta dauden eta zerbitzuaren iraupenaren arabera aldatzen diren ekarpenak zerbitzua emateko epealdian zehar hedatu behar dira, prestazioei aplikatzen zaien esleipen-metodo bera erabiliz. Aldaketa hori 2015eko otsailaren 1etik aurrera hasten diren urteko ekitaldietan aplikatu behar da, atzeraeraginez aplikatu ere. Dena den, aurrez ere aplika daiteke.

Ez dugu espero aldaketa berriek eragin handirik izango dutenik Taldearen urteko kontu bateratuetan.

- KNA 16 (aldaketa) eta KNA 41 (aldaketa) "Nekazaritza: landare ekoizleak"

Aldaketa hori dela medio, ibilgetu materiala bezala kontabilizatu behar dira fruituak eskuratzeko edukitzen diren landareak, gainerako aktibo biologikoak ez bezala. Honenbestez, KNA 41 arauaren ordean, KNA 16 arauaren eskumenean jartzen dituzte aldaketek landare horiek. Landare horietan hazten diren produktuek KNA 41 arauaren barruan jarraituko dute. Aldaketa horiek 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldi guztietan aplikatuko dira, baina aldean aurretik ezartzea ere onartzen da. Oro har, aldaketak atzeraeraginez ezarriko dira. Dena den, FINA arauak aplikatzen dituzten eta ekoizpen-plantak balioztatzeako arrazoizko balioari salmenta-kostuak kentzen dizkieten entitateek aukera izango dute, horien arrazoizko balioa erabiltzeko, aldaketok lehen aldiz aplikatzen diren ekitaldiaren hasieran egotzitako kostutzat.

Ez dugu espero aldaketa berriek eragin handirik izango dutenik Taldearen urteko kontu bateratuetan.

- FINA 11 (aldaketa) "Baterako eragiketarako partaidetza-eskurapenak kontabilizatzea"

Negozio bat osatzen duen baterako eragiketa bateko partaidetza erosten duen inbertitzaileari negozio-konbinazio bat kontabilizatzeako printzipioak aplikatu behar zaizkiola dio. Zehazki, arrazoizko balioan balioztatu beharko ditu aktibo eta pasibo identifikagarriak; gastutzat hartu eskurapenarekin lotutako kostuak; zerga geroratua aitortu, eta merkataritza-fondo gisara aitortu hondarra. Aplikatu beharrekoak dira negozio-konbinazio bateko gainerako kontabilizazio-printzipio guztiak, FINA 11 arauarekin gatazkan ez badaude behintzat. Aldaketa hori 2016ko urtarrilaren 1etik aurrerako ekitaldietan aplikatuko da, baina aurretik ere aplikatzeko aukera dago.

Ez dugu espero aldaketa berriek eragin handirik izango dutenik Taldearen urteko kontu bateratuetan.

- KNA 16 (aldaketa) eta KNA 38 (aldaketa) "Amortizaziorako onargarriak diren metodoak argitzea"

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Aldaketa horrek argitzen duenez, ez da bidezkoa sarrera arruntetan oinarritutako metodoak erabiltzea aktiboen balio-galera kalkulatzeko, aktiboen erabilera barne hartzen duten jardueren sortutako sarrera arruntek aktibooi atxikitako diru-irabazien kontsumoaz bestelako faktoreak adierazten baitituzte. IASBk argitzen duenez, halaber, sarrera arruntak oinarri desegokia dira aktibo ukiezin bati atxikitako diru-irabazien kontsumoa balioztatzen. Aldaketa horrek 2016ko urtarrilaren 1etik aurrerako ekitaldietarako izango du indarra, eta aurrera begira aplikatuko da. Aldaketa aldeztatik aplikatzea baimenduta dago.

Ez dugu espero aldaketa berriek eragin handirik izango dutenik Taldearen urteko kontu bateratuetan.

- 2012-2014 zikloko hobekuntzen proiektua

Aldaketek FINA 5, FINA 7, KNA 19 eta KNA 34 arauetan izango du eragina eta 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietan aplikatu behar dira, EBk onartzen baditu. Aldaketa nagusietan arau hauek ukitzen dira:

- FINA 5 "Korronteak ez diren eta saltzeko eutsi zaien aktiboak eta jardueren etengabeak". Aldaketak besterentzeko metodoetan.
- FINA 7 "Finantza-tresnak: eman beharreko informazioa": administrazio-kontratuetako inplikazio jarraitua.
- KNA 19 "Langileen ordainsariak": enplegu ondoko ordainketen ondoriozko obligazioetan deskontu-tasa zehaztea.
- KNA 34 "Bitarteko finantza-informazioa": bitarteko finantza-informazioan beste leku batean aurkeztutako informazioa.

Ez dugu espero aldaketa berriek eragin handirik izango dutenik Taldearen urteko kontu bateratuetan.

- KNA 1 (aldaketa) "Eman beharreko informazioari buruzko ekimena"

KNA 1 arauaren aldaketek, berriz, finantzetako egoera-orrietan zer informazio azaldu erabakitzeke irizpide profesionala erabiltzera bultzatzen ditu enpresak. Aldaketek argitzen dutenez, finantzetako egoera-orri guztiei aplikatu behar zaie materialtasuna, eta informazio ez-materiala txertatzeak galarazi egin dezake finantza-informazioaren baliagarritasuna. Bestalde, aldaketek argitzen dutenez, erakundeek irizpide profesionala erabili behar lukete, finantzetako egoera-orrietan informazioa non eta zer ordenatan aurkeztu behar den zehazteko.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

KNA 1 aruari egindako aldaketak nahitaez aplikatu beharko dira 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietan.

Ez dugu espero aldaketa horrek eragin handirik izango duenik Taldearen urteko kontu bateratuetan.

- KNA 27 (aldaketa) “Finantzetako egoera-orri bereizietan parte hartzeko metodoa”

KNA 27 araua aldatu egin da, mendekoetako, baterako negozioetako eta elkartuetako inbertsioak kontabilizatzeko berriro partaidetzaren metodoa erabili ahal izateko, erakunde batetik bereizitako finantzetako egoera-orrietan. Bereizitako finantzetako egoera-orrien definizioa ere argitu egin da. Partaidetzaren metodora aldatzea aukeratzen duen entitateak 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren urteko ekitaldietarako aplikatuko ditu aldaketak, KNA 8 “Kontabilitate-politikak, estimazioen aldaketak eta erroreak” arauaren arabera. Dena den, aurrez ere aplikatu daitezke.

Ez dugu espero aldaketa horrek eragin handirik izango duenik Taldearen urteko kontu bateratuetan.

iii) Aurrez erabaki ezin diren edo Europako Batasunak bere egin ez dituen arauak, aldaketak eta interpretazioak

Urteko kontu bateratu hauek formulatzeko egunean, IASB eta IFRS Interpretations Committee erakundeek jarraian azalduko ditugun arau, aldaketa eta interpretazioak argitaratuak zituzten, baina Europar Batasunak ez ditu oraindik bere egin:

- FINA 14 “Kontu arautzaile geroratuak”

Araututako tarifadun jardueretatik sortutako zenbait saldoen kontabilitate-tratamenduari buruzko bitarteko araua da. FINA 1 araua lehenengoz bere egiten duten entitateetan aplikatuko da soilik. Aukera izango dute, halaber, tarifen inguruko arautegiarekin zerikusia duten zenbatekoak FINA arauak aplikatzen hasi aurreko kontabilitate-politiken arabera aitortzen jarraitzeko. Hala eta guztiz ere, FINA aplikatzen hasita dauden eta zenbateko horiek aitortzen ez dituzten erakundeekiko alderagarritasuna sendotzarren, tarifa-erregulazio horren eragina beste partida batzuetan bereizita aurkeztea eskatzen du arauak. Finantzetako egoera-orriak FINA arauari jarraiki aurkezten dituen entitateak ezin du arau hori ezarri. Arau hori 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko da, baina aldeztatik aurretik ezartzea ere onartzen da.

Ez dugu espero arau horrek eragin handirik izango duenik Taldearen urteko kontu bateratuetan.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

- FINA 15 “Bezeroekiko kontratuetatik datozen sarrera arruntak”

2014ko maiatzean, baterako arau bat plazaratu zuten IASBk eta FASBk, bezeroekiko kontratuetatik datozen sarrera arrunten aitortza dela eta. Arau hori dela eta, saldutako ondasunaren edo zerbitzuaren kontrola eskuratzean aitortzen dira sarrerak, hots, ondasunaren edo zerbitzuaren erabilera gidatzeko eta haien irabaziak bereganatzeko ahalmena duenean bezeroak. Sarrerak denboran zehar edo une jakin batean aitortu behar diren zehazteko gida bat erantsi du FINA horrek. Informazio zabala eskatzen du FINA 15 arauak, bai onartutako sarrerei, bai lehendik dauden kontratuak direla eta gerora onartzea espero den sarrerei buruz. Halaber, onartzen diren sarrerak zehazteko Zuzendaritzak emandako irizpide nabarmenei buruzko informazio kuantitatiboa eta kualitatiboa ere eskatzen du, bai eta irizpide horien gaineko aldaketei buruzkoa ere. FINA 15 araua 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietarako egongo da indarrean, baina aldez aurretik ezartzea ere onartzen da.

Taldea aztertzen ari da arauak Taldearen urteko kontu bateratuetan izan dezakeen eragina, Europar Batasunak bere egiten badu.

- FINA 9 “Finantza-tresnak”

Aktibo eta pasibo finantzarioen sailkapenez, balioztapenez eta onarpenaz dihardu. FINA 9 arauaren bertsio osoa 2014ko uztailean argitaratu zen, eta finantza-tresnen sailkapenari eta balioztapenari buruzko KNA 39 arauaren gida ordeztzen du. Balioespen mistoko ereduari eutsi egiten dio FINA 9 arauak, baina hura sinplifikatuta, eta finantza-aktiboak balioztatzeke hiru kategoria nagusi ezartzen ditu: amortizatutako kostuan; arrazoizko balioan, emaitzetan aldaketak dituztela; eta arrazoizko balioan, beste emaitza orokor batean aldaketak dituztela. Erakundearen negozio-ereduaren eta finantza-aktiboen kontratuzko eskudiru-fluxuaren ezaugarrien arabera da sailkapen-oinarria. Ondare garbiko tresnetako inbertsioak arrazoizko balioan balioztatu behar dira, emaitzetan aldaketak dituztela, baina arrazoizko balioko aldaketak beste emaitza orokor ez-birziklagarri batean aurkezteko aukera emanez hasieran, betiere tresnari negoziatzeko ez bazaio eusten. Negoziatzeko eusten bazaio ondare-tresnari, emaitzetan aurkeztu behar dira arrazoizko balioko aldaketak. Finantza-pasiboei dagokienez, ez da aldaketarik egon sailkapenean eta balioztapenean. Salbuespen bakarra dago: norberaren kredituaren arriskuko aldaketak beste emaitza orokor batean onartu behar dira, arrazoizko balioan izendatu diren eta emaitzetan aldaketak dituzten pasiboetan. Balio-narriaduragatiko galeren eredu berri bat dago FINA 9 arauan: espero ziren kreditu-galeren eredu. Horrek KNA 39 arauo narriaduragatiko galeren eredu ordeztzen du, eta galeren onarpena KNA 39 arauarekin egiten zena baino lehen egitea ekarriko du. FINA 9 arauak lasaitu egin ditu estalduraren eraginkortasunerako eskakizunak. KNA 39 arauaren baitan, estaldurak oso eraginkorra izan behar du, hala geroari nola iraganari begira. FINA 9 arauak ordezkatu egin du lerro hori, eta harreman ekonomikoa eskatzen du estalitako partidaren eta estaldura-tresnaren artean, eta estalitako ratioa entitateak arriskua kudeatzen duena izan dadila. Egungo dokumentazioak beharrezko izaten jarraitzen du, baina ez da KNA 39 arauaren pean prestatzen zen bera. Azkenik, informazio zabala eskatzen da, tartean dela espero ziren kreditu-galerak —hipotesiak eta datuak— hornitzeko hasierako eta amaierako zenbatekoen berdinkatzea, eta KNA 39 arauaren garaiko jatorrizko sailkapen-kategorien eta FINA 9 arauaren sailkapen-kategoria berrien arteko trantsizioaren berdinkatzea.

FINA 9 araua 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietarako egongo da indarrean, baina aldez aurretik ezartzea ere onartzen da. FINA 9 araua atzeraeraginez

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

aplikatuko da , baina ez da eskatuko zifra konparatiboak berriro adierazteko. Erakunderen batek FINA 9 araua aldeztetik aplikatzea erabakitzen badu, betekizun guztiak aldi berean aplikatu behar ditu. Araua 2015eko otsailaren 1a baino lehen aplikatzen duten erakundeek, berriz, araua faseka aplikatzeko aukera izaten jarraitzen dute.

2015eko ekitaldian zehar, Taldeak aztertu egin ditu bai arau berria bai horrek 2018an izango dituen inplikazioak, hala zorroen sailkapenean nola finantza-tresnak balioztatzeke ereduetan, eta, bereziki, finantza-aktiboaren nariadura espero den galeraren arabera kalkulatzeko modeloetan.

2016an, kontabilitate-politikak zehazten eta araua ezartzen jarraituko du Taldeak. Arauaren eragina, finantzetako egoera-orri bateratuetan ez ezik, funtzionamenduan (arriskuaren onarpen eta segimenduan, sistemen aldaketetan, gestioaren neurkeran...) eta, azkenik, finantzetako egoera-orri bateratuak aurkezteko ereduetan ere sumatzen da.

Urteko kontu bateratu hauek formulatzeko egunean, ez dugu oraindik arau hori indarrean sartzean 2018ko urtarrilaren 1ean izango duen inpaktua zenbatetsita. Taldeak espero du 2017ko ekitaldian zehar inpaktu hori zenbatetsita izatea, araua aplikatzeko lehen egunean behin betiko kopuruak eta aurreko ekitaldiarekiko konparaketa aurkeztu ahal izateko.

- FINA 10 (aldaketa) eta KNA 28 (aldaketa) "Inbertitzaile baten eta haren elkartuen edo baterako negozioen arteko aktiboaren salmenta edo ekarpena"

Inbertitzaile baten eta haren elkartuen eta baterako negozioen arteko aktibo-salmenten eta -ekarpenen kontabilitate-tratamendua argitu egiten dute aldaketa horiek. Erakunde elkartuari edo baterako negozioari saldutako edo ekarritako aktibo ez-monetarioak negozio diren ala ez, horren arabera da tratamendua. Aktibo ez-monetarioak negozio badira, irabazi edo galera osoa aitortu behar du inbertitzaileak. Aktiboak ez badatoz bat negozioaren definizioarekin, beste inbertitzaile batzuen interesen arabera aitortu behar ditu inbertitzaileak irabaziak edo galerak. Kasu honetan bakarrik aplikatu behar dira aldaketak: inbertitzaile batek bere elkartuari edo baterako negozioari aktiboak ekartzen edo saltzen badizkio. Jatorrian, FINA 10 eta KNA 28 aldaketa horiek 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako ekitaldietarako izango zuten indarra, eta aurrera begira aplikatuko ziren. Dena delarik ere, horien indarraldia atzeratzeko erabakia hartu zuen IASBk, 2015eko urtearen amaieran, baina ez zuen data zehatza finkatu. Zergatik hartu zuen erabaki hori? Berrikuspen zabalagoa ari delako prestatzen, halako eragiketen kontabilitatea eta erakunde elkartekideen eta baterako negozioen beste alderdi batzuk erraztu ahal izateko.

Taldea aztertzen ari da aldaketak Taldearen urteko kontu bateratuetan izan dezakeen eragina, Europar Batasunak bere egiten badu.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

- FINA 10 (aldaketa), FINA 12 (aldaketa) eta FINA 28 (aldaketa) "Inbertsio-erakundeak: bateratzeari salbuespena aplikatuz"

Aldaketa horiek inbertsio-erakundeentzako errekerimendua, mendekoak bateratu beharrean arrazoizko balioan balioztatzekoa, aplikatzeari buruzko hiru alderdi argitzen dituzte. Proposatutako aldaketek:

- Berretsi egin dute, finantzetako egoera-orri bateratuak aurkezteko salbuespenaren arabera, inbertsio-erakunde bateko mendekoak erakunde nagusiak direla.
- Argitu egin dute inbertsio-erakunde nagusiek noiz bateratu behar luketen inbertsioarekin lotutako zerbitzuak eskaintzen dituen mendekoa, mendeko hori arrazoizko balioan balioztatu beharrean.
- Sinplifikatu egin dute berez inbertsio-erakunde ez diren baina inbertsio-erakunde den elkartu batean partaidetza duten erakundeek baliokidetzaren metodoa aplikatzeko modua.

2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietarako sartuko dira indarrean, baina aurretik ere aplikatzeko aukera dago.

Taldea aztertzen ari da aldaketak Taldearen urteko kontu bateratuetan izan dezakeen eragina, Europar Batasunak bere egiten badu.

- FINA 16 "Errentamenduak"

2016ko urtarrilean, KNA 17 "Errentamenduak" araua indargabetzen duen arau berria argitaratu zuen IASBk errentamenduen gainean, FASBrekiko baterako proiektu baten ondorioz. IASBk eta FASBk ondorio berberak atera dituzte errentamendu-kontratuak kontabilizatzearekin zerikusia duten arlo askotan, baita errentamenduaren definizioan, errentamenduak balantzean islatzeko eskakizunean eta errentamenduen ondoriozko pasiboak balioztatzeko eran ere. Errentatzailearen kontabilizatze moduan aldaketa handirik ez egitea ere erabaki zuten IASBk eta FASBk, eta, beraz, lehen zeudenetan geratu ziren aurreko arautegiko baldintzak. IASBren eta FASBren artean desadostasunak daude, oraindik ere, errentamenduen gastuak emaitza-kontuan eta eskudiru-fluxuen egoera-orrian aitortzeari eta aurkezteari dagokienez.

FINA-IASBren arabera, FINA 16 araua nahitaez aplikatu beharko da 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera. Badago aurretik ezartzerik ere; baina, horretarako, FINA 15 "Bezeroekiko kontratuetatik datozen sarrera arruntak" ere aplikatu beharko da. FINA 16 araua ez du oraindik onartu EBk.

Taldea aztertzen ari da arauak Taldearen urteko kontu bateratuetan izan dezakeen eragina, Europar Batasunak bere egiten badu.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

- KNA 12 (aldaketa) “Egin gabeko galerengatiko zerga geroratuaren ondoriozko aktiboak aitortzea”

Aldaketa horren bidez, arrazoizko balioan balioztatutako zor-tresnetako inbertsioekin zerikusia duten zerga geroratuaren ondoriozko aktiboak nola kontabilizatu zehaztu da. Arrazoizko balioan balioztatutako tasa finkoko zor-tresna baten kontabilitate-balioa kostua baino beherago uzten bada, oinarri fiskala kostuan dagoelarik, denborazko alde kengarriak sortzen dira. Etorkizunean izan daitezkeen mozkin probableak zenbatesterakoan, entitatearen aktibo batzuk kontabilitate-balioaren gainetik berreskuratzea ere sar daiteke, behar adinako ebidentzia badago. Horixe gerta daiteke, adibidez, entitateak zor-tresna bat bere zorroan tasa finkoan izatea eta kontratuzko eskudiru-fluxuak jasotzea espero duenean.

Aldaketa 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietarako egongo da indarrean, baina alde zuzenetik ezartzea ere onartzen da. Orokorrean, atzeraeraginez aplikatuko da. Dena den, aldaketaren hasierako aplikazio-datan, aldaketa konparatzeko epealdiko ondarean erregistratzeko aukera dago, metatutako irabaziengatiko erreserbaren hasierako saldoaren kontra.

Taldea aztertzen ari da aldaketak Taldearen urteko kontu bateratuetan izan dezakeen eragina, Europar Batasunak bere egiten badu.

- KNA 7 (aldaketa) “Eman beharreko informazioari buruzko ekimena – KNA 7 arauaren aldaketak”

-

Irismen mugatuko aldaketa horretan, finantzetako egoera-orrietan aparteko banakapena egiteko baldintza dago erantsita. Horren bidez, finantzaketa-jardueren ondoriozko pasiboetako aldaketak ebaluatzeko aukera dute finantzetako egoera-orrien erabiltzaileek. Horretarako, aldaketak hauek adierazi behar dira pasiboetan: i) finantzetako eskudiru-fluxuetan sortutako aldaketak; ii) mendekoak edo beste negozio batzuk lortu edo galtzearen ondoriozko aldaketak; iii) kanbio-tasetako aldaketen eragina; iv) arrazoizko balioetako aldaketak; eta v) beste aldaketak batzuk.

Aldaketa 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren ekitaldietarako egongo da indarrean, baina alde zuzenetik ezartzea ere onartzen da. Entitate batek aldaketa lehen aldiz ezartzen duenean, ez du zertan aurkeztu aurreko epealdietako informaziorik alderatzeko.

Taldea aztertzen ari da aldaketak Taldearen urteko kontu bateratuetan izan dezakeen eragina, Europar Batasunak bere egiten badu.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

b) Erroreak eta aldaketak kontabilitate-estimazioetan

Kontabilitate-erroreak

Urteko kontu bateratuak egitean aurreko ekitaldietan sortutako erroreak ez-egiteen edo zehaztasun-falten ondorio dira. Horiek epealdi horietarako urteko kontu bateratuak egitean eskura zegoen eta Entitate Nagusiak egoera-orri bateratuok egitean erabili behar zukeen informazio fidagarriaren erabilerako hutsegiteek ekarri dituzte.

Aurreko ekitaldietako erroreak horiek aurkitu ondorengo lehen urteko kontu bateratuetan zuzentzen dira atzeraeraginez, inoiz egin izan ez balira bezala, eta:

- erroreak eragindako eta txosten bateratuko oharretan txertatutako finantzetako egoera-orri bateratuen partidetako zenbatekoak berriro ematen dira, alderatzeko urteko kontu bateratuetan argitaratu ostean, errorea gertatu den ekitaldikoak edo hurrengoetakoak badira, eta, dagokionean,
- informazioa dugun ekitaldirik zaharrenaren irekiera-balantze bateratua berriro ematen da, baldin eta alderatzeko aurkezten diren finantzetako lehen egoera-orri bateratuak baino lehenago gertatu bazen errorea.

Aurreragoko ekitaldi batean alderatzeko emandako informazioa okerra izateak ekitaldi bakoitzean duen eragina zehaztea ezinezkoa denean, kopuruak berritzeko aukera ematen duten ekitaldirik zaharrenetako hasierako saldoak zuzentzen dira. Aurreko ekitaldi guztietan gertatutako erroreak uneko ekitaldiaren hasieran metatu duen eragina zehaztea ezinezkoa denean, berriz, alderatzeko emandako informazioa berriro ematen da, eta, beraz, errorea etorkizunerako zuzenduta geratzen da, egin daitekeen datarik zaharrenetik aurrera.

Ondare garbi bateratuari eragiten dioten aurreko ekitaldietako erroreak horiek aurkitzen diren ekitaldian zuzentzen dira, kasuan kasuko ondare garbi bateratuaren kontua erabiliz, betiere. Aurreko ekitaldietako erroreak ez dira sekula horiek aurkitu direneko ekitaldiko galdu-irabazien kontu bateratua erabiliz zuzenduko. Garrantzi erlatiborik ez izatea eta, aurreko paragrafoan adierazitakoari jarraiki, erroreak eragina zehaztea ezinezkoa izatea dira salbuespen bakarrak.

Aldaketak kontabilitate-estimazioetan

Kontabilitate-zenbatespenean aldaketak egitea, doikuntzak egitea da, hain zuzen ere aktibo edo pasibo baten kontabilitate-balioan edo aktibo baten aldizkako kontsumoan doikuntzak egitea. Horretarako, elementuaren egungo egoera, etorkizunean espero diren mozkinak eta kasuan kasuko aktibo eta pasiboetako lotutako betebeharrak hartzen dira kontuan.

Kontabilitate-zenbatespenetan aldaketak egin ahal izateko, aparteko informazioa edo gertakari berriak lortu behar dira, eta, beraz, aldaketak ez dira erroreen zuzenketak. Aldaketa horiek modu prospektiboan aitortzen dira, ekitaldiko edo aldaketak eragina izango duen etorkizuneko ekitaldiko edo ekitaldietako galdu-irabazien kontu bateratuan.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

2015eko eta 2014ko ekitaldietan ez da aurreko ekitaldiei dagokien errore-zuzenketa esanguratsurik egin. Bestalde, kontabilitate-estimazioetan ere ez da egin ekitaldi horiei eragiten dien edo etorkizuneko ekitaldiei eragin ahal dien aldaketa esanguratsurik.

4. Ekitaldiko soberakinaren aplikazioa

Kreditu Kooperatibei buruzko 13/1989 Legearen arabera —Kooperatiben Erregimen Fiskalari buruzko 20/1990 Legeak aldatu zuen—, Nahitaezko Erreserba Fondora eta Heziketako eta Sustapeneko Fondora bideratzen ez diren zenbatekoak Batzar Nagusiaren esanera jarri behar dira. Batzarrak honela bana ditzake:

- Bazkideei banatu edo itzulita.
- Borondatezko Erreserba Fondora bideratuta.

Entitate Nagusiaren estatutu sozialetan ezarrita dagoenez, soberakin erabilgarria honela banatuko da, nahitaezko kapitalari edo kaudimen-koefizienteari erantzuteko sortzen diren obligazioak betetakoan:

- % 50, gutxienez, Nahitaezko Erreserba Fondora.
- % 25, gehienez, sustapen-behar sozialetara eta kooperatiba artekoetara. Zehazki, gutxienez % 10 Heziketako eta Sustapeneko Fondorako izango da eta gehienez % 15 Kooperatiba arteko Fondo Sozialerako.
- Gainerakoa Batzar Nagusiaren esku geratuko da, eta hark honela banatu ahal izango du: bazkideentzako itzulkinetarako, Borondatezko Erreserba Fondoetarako edo antzekoetarako.

Kooperatibaren itzulkinetarako zenbatekoa erdibanatu egingo da lan-bazkideen eta gainerako bazkideen artean.

Entitate Nagusiaren estatutuen arabera, lan-bazkideek beren lan-aurrerakinen arabera jasoko dute bazkideentzako itzulkina, eta gainerako bazkideek Entitatearekin egindako eragiketen arabera.

Entitate Nagusiaren 2015eko ekitaldiko emaitzen soberakina banatzeko proposamena, Entitate Nagusiko Kontseilu Errektoreak Batzar Nagusiari onesteko aurkeztuko diona, eta 2014rako onetsita dagoena, hauxe da:

	<u>2015</u>	<u>2014</u>
Banaketa:		
- Kapital sozialera egindako ekarpenen ondoriozko ekitaldiko soberakin gordina aplikatzearen kontura banatutako interes gordinak	29.741	31.058
Kapital soziala		
- Nahitaezko Erreserba Fondoa	37.689	35.863
- Heziketako eta Sustapeneko Fondoa (*)	-	-
- Itzulkin kooperatiboak	18.845	17.931
- Kooperatiba arteko Fondo Soziala	<u>11.306</u>	<u>10.759</u>
Ekitaldiko emaitza	<u>97.581</u>	<u>95.611</u>

(*) Heziketako eta Sustapeneko Fondorako zenbatekoa nahitaezko minimoari dagokio, eta 2015ean 7.538 mila eurokoa eta 2014an 7.172 mila eurokoa izan da (63. oharra).

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

5. Negozio-segmentuen araberako informazioa

Batik bat txikizkako banku-jardueran egiten du lan Taldeak, eta ez dago beste negozio-linea esanguratsurik, negozio autonomoa izango balitz bezala eta baliabide propio independenteak balitu bezala sailkatu edo banakatu behar denik. Seguros Lagun Aro Vida SA eta Seguros Lagun Aro SA mendeko erakundeen aseguru-negozioa da salbuespen bakarra. Ondoren, sozietate horiek 2015ean eta 2014an balantze bateratuari eta galdu-irabazien kontu bateratuari egindako ekarpenik esanguratsuenak emango ditugu, Taldeko erakundeekin egindako transakzioen eragina kontuan hartu gabe:

	<u>2015</u>	<u>2014</u>
Galdu-irabazien kontu bateratua:		
Aseguruen jarduerak marjina gordinari ekarritakoa	39.533	46.051
Administrazio-gastuak	23.054	26.051
Ekitaldiko emaitza	12.224	15.270
Balantze bateratua:		
Aktiboak guztira	735.096	720.367

Ez da geografia-alderik ikusi Taldearen jarduera-eremuen artean (Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Nafarroaren eta Estatuko gainerako lurraldeen artean), eta, beraz, ez dago irizpide horren arabera informazioa bereizi eta zatikatu beharrik.

6. Gutxieneko baliabide propioak

Basileako Banku Ikuskaritzako Batzordeak zuzentzen du nazioarteko finantza-arauketaren harmonizazioa. Batzorde horrek hartutako erabakien bidez, kreditu-erakundeetarako lehen arautegia finkatu zen. Bertan, arrisku guztien gaineko % 8ko gutxieneko kapitala zehaztu zen —Basilea I, 1988—. Ondoren, 2004an, Basilea IIk arriskua zenbatesteko mekanismoen sentiberatasuna hobetu eta beste oinarri bi ekarri zituen: entitate bakoitzaren kapitalaren eta arriskuen autoebaluazioa (II. oinarria) eta merkatu-diziplina (III. oinarria). 2010eko abenduan, arau-esparru berria (Basilea III) onetsi zuen Batzordeak. Kalitate handiagoko tresnen bidez kapital-eskakizunak handitzen ditu, eta trinkotasuna eta entitateen eta herrialdeen artean aplikazio homogeneoa bilatzen ditu. Kapital-akordio berriak kapital-ratioen gardentasuna eta alderagarritasuna hobetzen ditu. Gainera, zuhurtziazko tresna berriak ekartzen ditu, likideziaren eta palanka-efektuaren alorretan.

Europar Batasunak bere ordenamendu juridikora eraman zituen Basilea III akordio horiek, 2019ko urtarrilaren 1era arte faseka sartzeko eredu baten —phase-in— pean. Horretarako, bi arau hauek erabili zituen: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko ekainaren 26ko 2013/36/EE Zuzentaraua, kreditu-erakundeei lotutako jardunbideetarako sarbideari eta kreditu-erakundeen eta inbertsio-enpresen zuhurtziazko gainbegiratzeari buruzkoa, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko ekainaren 26ko 575/2013/EE Arautegia (CRR), 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatzekoak diren Europako Erkidegoen Egunkari Ofizialeko kreditu-erakundeen eta inbertsio-enpresen zuhurtziazko baldintzei buruzkoa.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Ordenamendu juridiko nazionala nazioartean ezartzen diren arautegi-aldaketetara egokitzeko asmoarekin, 2014ko ekainaren 26ko 10/2014 Legea, kreditu-erakundeentzako antolamenduari, ikuskapenari eta kaudimenari buruzkoa, onetsi zen. Horrela, jarraipena eman zitzaion 2013ko azaroaren 29ko 14/2013 Errege Lege Dekretuak eta Espainiako Bankuaren 2/2014 Zirkularrak, trantsizio-epealdian aplikagarriak diren eskakizunen aukerak ezartzen dituenak, abiatutako transposizioari. Indarreko arautegiak (I. oinarriak) ezartzen dituen gutxieneko baliabide propioak kalkulatzeko, Taldearen kreditu-arriskua, truke-arriskua, negoziazio-zorroaren arriskua, merkatu-arriskua eta eragiketa-arriskua hartzen dira kontuan. Bestalde, arriskuen kontzentrazio-mugak bete behar ditu Taldeak.

2015eko otsailaren 13ko 84/2015 Errege Dekretuak, kreditu-erakundeentzako antolamenduari, gainbegiratzeari eta kaudimenari buruzko 2014ko ekainaren 26ko 10/2014 Legea garatzen duenak, lege horren arau-garapena osatzen du eta berori argitaratu arte kreditu-erakundeentzako antolamenduari eta diziplinari buruz egin diren eta arautegi-maila duten arau guztiak testu bakar batean biltzen ditu.

Era berean, azpimarratzekoa da 2015ean arau berriak argitaratu direla CRR arautegia osatzeko, fondo propioei, likidezari, I. oinarriko arriskuei eta kapital-errekerimenduei buruzko gaietan.

Bestalde, 2016ko otsailaren 2an, 2/2016 Zirkularra onartu zuen Espainiako Bankuak. Horren helburu nagusia da, kreditu-erakundeei dagokienez 2013/36/EB Zuzentarauaren transposizioa osatzea Espainiako ordenamendu juridikora. Horrez gain, 575/2013 zenbakidun Erregelamenduak (EBrenak) nazio-agintari eskudunei egozten dien aukeretako bat jasotzen du, Espainiako Bankuak 2/2014 Zirkularrean erabilitakoen osagarria.

Bestalde, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2011ko azaroaren 16ko 2011/89/EB Zuzentarauaren transposizioaren alderdi batzuk ere garatzen ditu Zirkular horrek. Zuzentarauak 98/78/EE, 2002/87/EE, 2006/48/EE eta 2009/138/EE Zuzentarauak aldatu zituen, finantza-konglomeratu batean dauden finantza-erakundeentzako aparteko gainbegiratzeari dagokionean. Zuzentzarau horren zati nagusiak transposizio bidez jasota daude, 10/2014 Legeak eta 84/2015 Errege Dekretuak egindako aldaketentzako bidez. Hain zuzen ere, honako arau hauek aldatzen dituzte, hurrenez hurren: 5/2005 Legea, 2005eko apirilaren 22koa, finantza-konglomeratuen gainbegiratzeari buruzkoa eta finantza-sektoreko beste lege batzuk aldatzen dituenak, eta lege hori garatzen duen 1332/2005 Errege Dekretua.

CRR arautegian ezarritako eskakizunei jarraiki, kreditu-erakundeek % 8ko kapital-ratioa izan beharko dute, une oro, guztira. Dena den, kontuan izan behar da, arau-esparru berriak ematen dizkien botereak erabil ditzaketela arautzaileek eta aparteko kapital-mailak izatea eska diezaieketela entitateei.

Zentzu horretan, Entitate Nagusiak jakinarazpen bat jaso zuen Espainiako Bankutik, Entitate Nagusian aplikagarriak diren zuzentzarauak gutxieneko errekerimenduei buruzko erabakiaren gainean. Horren arabera, Laboral Kutxak izan beharreko Common Equity Tier 1 (CET 1) ratioa % 10,25ekoa da, phased-in kapital erregulatorioaren gainean neurtua. Baldintza horrek barne hartzen du 1. oinarriak eskatutako gutxienekoa eta 2. oinarriaren errekerimendua, baita kapital-kontserbazioaren koltxoia ere.

Hona hemen Entitatearen Taldearen Zuzendaritzak baliabide propioen kudeaketaren inguruan finkatutako helburu estrategikoak:

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

- Gutxienerako baliabide propioen inguruan aplikatzekoa den araudia une oro betetzea, bai banaka bai taldean.
- Baliabide propioen kudeaketan efizientziarik handiena bilatzea, errentagarritasuneko eta arriskuko beste aldagai batzuekin batera baliabide propioen kontsumoa funtsezko aldagaitzat hartu dadin, Taldeko inbertsio-erabakiak hartzeko egiten diren analisietan.

Helburu horiek betetzeko, baliabide propioak kudeatzeko hainbat politika eta prozesu ditu Taldeak ezarrita. Hauek dira horien jarraibideak:

- Taldeak jarraipeneko eta kontroleko unitate bat du, Entitatearen Arriskuen Zuzendaritzaren menpean. Espainiako Bankuak baliabide propioez ezarrita duen arautegia zenbateraino ari den betetzen aztertzen du.
- Taldearen antolamendu estrategiko eta komertzialean, horiek Taldearen baliabide propio konputagarrietan duten eragina eta kontsumoaren, errentagarritasunaren eta arriskuaren arteko erlazioa gakotzat hartzen dira erabakiak hartzeko orduan.
- Taldearen kaudimen-egoerari eta etorkizuneko plangintzari etengabeko jarraipena eginez monitorizatzea. Bi agertoki hartzen dira kontuan: nagusia, datozen hiru ekitaldietarako gertagarriena den hipotesiarekin, eta hainbat estres-agertoki, askotariko aurkako egoerak gainditzeko duen finantza-gaitasuna ebaluatzeko helburuarekin.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Taldearen baliabide propioen kudeaketa lehen deskribatu dugun kaudimenari buruzko arautegi berrian xedatutakoari lotzen zaio, definizio kontzeptualei dagokienean:

	2015	2014
<u>1. mailako kapital arrunta (CET 1)</u>		
Kapitala	708.397	657.624
Emitza onargarriak	61.739	60.300
Erreserbak	723.234	689.734
Balioztapenagatiko doikuntzak	135.290	166.311
(-) Beste kenketa batzuk	(58.833)	(56.884)
(-) CET1 doikuntzak, zuhurtziazko iragazkiak direla eta	(91.950)	(146.977)
	<u>1.477.877</u>	<u>1.370.108</u>
<u>1. mailako kapital gehigarria</u>		
Kapital-tresna onargarriak	-	-
	-	-
<u>2. mailako kapitala</u>		
Kapital-tresnak eta mendeko maileguak	-	-
Kreditu-arriskueterako estaldura osagarria metodo estandarraren bidez	78.002	76.864
Balioztapenagatiko doikuntzak	-	-
Heziketako eta Sustapeneko Fondoa	-	-
(-) Doikuntza iragankorrak	-	-
	<u>78.002</u>	<u>76.864</u>
Beste kontzeptu eta kenketa batzuk	-	-
Fondo propio konputagarriak guztira	<u>1.555.879</u>	<u>1.446.972</u>
Gutxieneko fondo propioak guztira	<u>781.824</u>	<u>808.040</u>
Arriskuen arabera haztatutako aktiboak	<u>9.772.796</u>	<u>10.100.495</u>

Hona hemen 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n Taldeak zituen gutxieneko baliabide propio konputagarrien daturik garrantzitsuenak:

	2015	2014 (*)
1. mailako kapital arruntaren ratioa (CET 1)	% 15,12	% 13,56
1. mailako kapitalaren ratioa	% 15,12	% 13,56
Kapital-ratioa guztira	<u>% 15,92</u>	<u>% 14,33</u>

1. mailako gutxieneko kapital arruntaren ratioa % 4,5koa da, eta 1. mailako gutxieneko kapital-ratioa % 6,0koa.

Urteko kontu bateratu hauek egitean, Taldeak bete egiten du arautegi hori.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

7. Entitateko administratzaileen eta Goi-mailako Zuzendaritzaren ordainsariak

a) Estatutuetako ezarpenak

Lan-bazkideek ez dute inolako ordainsaririk jaso Kontseilu Errektoreko kide izateagatik, ez finkoa ez aldakorra, Entitate Nagusian bete ohi duten lanpostuan jarduteagatik jasotzen dutenaz gain. Era berean, Kontseilu Errektoreko gainerako kideek ere ez dute inolako ordainsaririk jaso kontseilari izateagatik.

Caja Laboral Popularrek ordaindu egiten du lehendakariaren lana, eta, zehaztutako prozeduren bitartez, Caja Laboral Popular Coop. de Crédito finkatutako ordainsariei buruzko irizpideak aplikatzen ditu.

Jarraian, Kontseilu Errektoreko lehendakariak jasotako ordainsariak ageri dira.

	Epe laburrerako ordainsariak eta dietak	
	2015	2014
Kontseilu Errektoreko lehendakaria	158	159
	158	159

b) Kontseilu Errektorearen eta Goi-mailako Zuzendaritzaren beste ordainsari batzuk

Hona hemen Entitate Nagusiaren Kontseilu Errektoreko 5 lan-bazkide kideek beren lanpostuetan jaso dutena, 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n:

	Epe laburrerako ordainsariak eta dietak	
	2015	2014
Kontseilu Errektoreko kideak	353	353
	353	353

Era berean, Entitate Nagusiko 9 lagun hartu dira Goi-mailako Zuzendaritzako kideztat — 2014an 9 izan ziren—. Entitate Nagusiko Batzorde Betearazlea osatu dute horiek 2015eko abenduaren 31n.

Taula honetan, talde horrek jasotakoak bildu ditugu, aurrez zehaztu ditugun eran:

	Epe laburrerako ordainsariak eta dietak	
	2015	2014
Goi-mailako Zuzendaritza	1.304	1.180
	1.304	1.180

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Bestalde, 2015eko eta 2014ko ekitaldietan, Entitate Nagusiko Kontseilu Errektoreko eta Goi-mailako Zuzendaritzako kideek 264,7 mila euro eta 291,9 mila euro jaso dituzte, hurrenez hurren, konturako kapital-ordainketengatik (interesengatik) eta erabilgarri dagoen soberakinaren (kooperatiba-itzulkinen) banaketa osagarriagatik.

Adierazi ditugun Entitate Nagusiko Kontseilu Errektoreko kideen eta Goi-mailako Zuzendaritzako kideen alde ekitaldian sortutako ordainsariez gain, beste sarrera eta gastu batzuk ere erregistratu dira 2015eko eta 2014ko galdu-irabazien kontuan, hain zuzen ere Entitate Nagusiaren Kontseilu Errektoreko eta Goi-mailako Zuzendaritzako kideekin egindako eragiketenak, eta horien xehetasunak aurkeztuko ditugu jarraian:

	Finantza-sarrerak		Finantza-gastuak		Komisioen sarrerak	
	2015	2014	2015	2014	2015	2014
Kontseilu Errektoreko eta Goi-mailako Zuzendaritzako kideak	11	20	4	6	5	5

Taldeko erakunde partaidetuen administrazio-kontseiluetan Entitate Nagusiaren izenean jarduten duten Goi-mailako Zuzendaritzako kideek ez dute, 2015eko eta 2014ko ekitaldietan, inolako ordainsaririk jaso erakunde partaidetu horietako kontseilari izateagatik.

- c) Entitate Nagusiko Kontseilu Errektoreko eta Goi-mailako Zuzendaritzako kideekiko mailegu, kreditu, eperako gordailu, abal eta konpromisoak

Entitateko Kontseilu Errektoreko eta Goi-mailako Zuzendaritzako kideekin egindako eragiketen ondorioz 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n balantzean erregistratu diren aktiboko eta pasiboko saldoen xehetasuna eskainiko dugu jarraian:

	Aktiboa - emandako maileguak (zenbateko gordina)		Aktiboa - kreditu-kontuak (zenbateko gordina)		Pasiboa - ageriko eta eperako gordailuak		Abalak eta konpromisoak	
	2015	2014	2015	2014	2015	2014	2015	2014
Kontseilu Errektoreko eta Goi-mailako Zuzendaritzako kideak	2.462	2.569	-	-	951	1.018	-	-

8. Agentzia-kontratuak

1245/1995 Errege Dekretuaren 22. artikuluekin bat, kreditu-erakundeen jarduerako ohiko eragiketak Entitate Nagusiaren izenean eta kontura bezeroekin negoziatzeko edo formalizatzeko 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n ahaldunduta dituen pertsona fisikoen zerrenda dator, II. eranskinean.

Zerrenda hori behar bezala jakinarazi zaio Espainiako Bankuari, 2015eko abenduaren 31n.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

9. Ingurumenarekiko inpaktua

Taldearen eragiketa globaletan, besteak beste, ingurumena eta langileen segurtasuna eta osasuna babesteko legeak zaintzen dira. Taldeak uste du funtsean betetzen dituela legeok eta badituela haiek betetzen direla bermatzeko prozedurak diseinatuta.

Taldearen iritzian, beharrezko neurriak hartu ditu ingurumena babestu eta hobetzeko eta, dagokionean, ingurumen-eragina minimizatzeko, betiere indarrean dagoen araudia betez. Horren haritik, 2001ean ISO 14001 Arauaren arabera Ingurumen Kudeaketaren Ziurtagiria lortu zuen Entitate Nagusiak, eta oraindik ere indarrean du. 2015eko eta 2014ko ekitaldietan zehar, Taldeak ez du inolako hornikuntzarik egin ingurumen-arrisku eta -gastuetarako, Entitate Nagusiko Kontseilu Errektorearen iritziz ez dagoelako urteko kontuetan eragin nabarmenik izan dezakeen era horretako kontingentziarik.

10. Gordailuak Bermatzeko Fondoak

10.1 Suntsiarazpen Fondo Nazionala

11/2015 Legeak, 2015eko ekainaren 18koak, eta hori garatzen duen 1012/2015 Errege Dekretuak, 2015eko azaroaren 6koak, 2014ko maiatzaren 15eko 2014/59/EB Zuzentaraua ordenamendu juridiko nazionalen transposizioz jasotzea arautzen dute. Araudi horrek kreditu-entitateak eta inbertsio-zerbitzuetako enpresak suntsiarazteko esparru berria finkatu du, eta 2014ko uztailaren 15eko 806/2014 Erregelamenduak (EBrenak) sortutako Suntsiarazpen Mekanismo Bakarra eratzen lagundu du.

Lege horrek Suntsiarazpen Fondo Nazionalaren sorrera arautzen du. Fondo horren finantza-baliabideek, Espainian kokatuta dauden kreditu-erakundeek eta inbertsio-zerbitzuetako enpresen ekarpenen bidez, bermaturiko gordailuen % 1era iritsi behar dute, 2024ko abenduaren 31 baino lehen.

2015eko ekitaldian, erakunde horri egindako ekarpenaren gastua 4.005 milioi eurokoa izan da (55. oharra). Gastu hori FINAIB 21 arauaren arabera kontabilizatu da, Gordailuak Bermatzeko Fondoak aitortutako gastua bezalaxe.

10.2 Gordailuak Bermatzeko Fondoak

Entitate Nagusia Kreditu Erakundeek Gordailuak Bermatzeko Fondoan dago sartuta.

1996ko abenduaren 20ko 2606/1996 Errege Dekretuan, 2015eko azaroaren 6ko 1012/2015 Errege Dekretuak aldatu zuenean, ezarritakoaren arabera, Gordailuak Bermatzeko Fondoaren Gestio Batzordeak finkatuko ditu Kreditu Erakundeek Gordailuak Bermatzeko Fondoari atxikitako erakundeek urteko ekarpenak. 2015eko ekitaldian, 2015eko abenduaren 31n bermatutako gordailuen milako 1,6ko ekarpena xedatu du Gestio Batzordeak, bai eta data horretan zaintzapean dauden baloreen eta beste finantza-tresna batzuen milako 2koa ere.

Aurreko paragrafoan aipatu ditugun ohiko ekarpenen gastua FINAIB 21 arauaren arabera sortzen da, ordaintzeko betebeharra dagoenean (betebehar hori urte bakoitzeko abenduaren 31n gauzatuko da).

2012ko uztailaren 30ean, Gordailuak Bermatzeko Fondoaren Gestio Batzordeak berari atxikitako entitateen artean aparteko derrama bat egitea erabaki zuen: entitate bakoitzak urteko hamar kuota berdinduko ditu. Entitate Nagusiaren derramaren zenbatekoa

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

35.277 mila eurokoa da: 3.522 mila euroko urteko hamar kuota. Dagokionean Entitate Nagusiak ordaintzen duen urteko ohiko ekarpenetik kenduko dira kuota horiek, ohiko ekarpen horren zenbatekoraino. 2015eko abenduaren 31n, Entitate Nagusiak erregistratuta du, oraindik, 24.660 mila euroko (2014ko abenduaren 31n 28.182 mila euroko) konpromiso hori, hain zuzen balantzeko aktiboko “Gainerako aktiboak - Beste periodokatze batzuk” epigrafean (35. oharra) eta balantze bateratuko pasiboko “Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan – Beste finantza-pasibo batzuk” epigrafean (36. oharra).

6/2013 Errege Lege Dekretuan ezarri zen, Kreditu Erakundeen Gordailuak Bermatzeko Fondoaren ondarea indartzeko asmoz, Kreditu Erakundeen Gordailuak Bermatzeko Fondoari buruzko 1996ko abenduaren 20ko 2606/1996 Errege Dekretuaren 3. artikuluan aurreikusitako urteko ekarpena, atxikitako erakundeek 2012ko abenduaren 31ko gordailuen gainean egin beharrekoa, beste milako hiruan handituko zela, salbuespen gisa eta behin bakarrik.

Gehikuntza hori bi zatitan gauzatu zen:

- a) Lehen zatia, guztizkoaren bi bostenen parekoa, 2013ko abenduaren 31tik aurrerako 20 egun baliodunetan ordaindu behar zen. Zati hori murriztu egin zen, arautegian aurreikusitako kenketen ondorioz, eta 7.693 mila euroko zenbatekoarekin gastu moduan erregistratu zen, 2013ko ekitaldiko emaitza-kontuan.
- b) Bigarren zatia, gainerako hiru bostenen parekoa (24.455 mila eurokoa), 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera Gestio Batzordeak zehazten zuen egutegiaren arabera ordaindu behar zen, gehienez ere 7 urteko epearen barruan. FINAIB 21ean ezarritakoari jarraiki, 2013ko martxoaren 22ko Errege Lege Dekretu hori indarrean sartzekoan sortutakotzat jo zen gastua, batetik Entitate Nagusiaren etorkizuneko jardueraren mende ez zegoen ekarpena zelako eta bestetik osotasunean pasibo gisa aitortu behar zelako egun horretan, noiz sortu zen aintzat hartu gabe. 2014ko irailaren 30ean, 3.494 mila euro abonatu zituen Entitateak. Bestalde, 2014ko abenduaren 17an, arautegi horrek emandako gaikuntzaren barruan, ekarpenaren bigarren zati horren gainerako zatia kopuru bereko bi tartetan ordaintzea erabaki zuen Kreditu Erakundeen Gordailuak Bermatzeko Fondoaren Gestio Batzordeak: 2015eko ekainaren 30ean lehena eta 2016ko ekainaren 30ean bigarrena. 2015eko ekainaren 30ean, 10.480 mila euro abonatu ditu Entitateak, eta, beraz, 2015eko abenduaren 31n 10.480 mila euro geratzen dira ordaintzeko. 2016ko ekainaren 30ean gauzatuko da ordainketa.

2015eko ekitaldian, erakunde horri egindako ekarpen guztien gastu osoa 20.033 mila eurokoa izan da (28.592 mila eurokoa, 2014ko ekitaldian), eta honi atxikitako galdu-irabazien kontuan jaso ditugu, “Beste ustiapen-zama batzuk” epigrafean (55. oharra).

11. Ikuskaritzako zerbitzu-sariak

Kanpo-ikuskaritzaren eta ikuskaritzari lotutako beste zerbitzu batzuen ondorioz, Taldeak 442 eta 39 mila euro ordaindu behar izan ditu, hurrenez hurren, 2014ko ekitaldian (hurrenez hurren 488 eta 105 mila euro, 2014koan). Bestalde, 2015eko ekitaldian, 162 mila eurokoa izan da Taldeari emandako beste zerbitzu batzuen kostua (371 mila eurokoa 2014an).

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

12. Ondorengo gertakariak

2015eko abenduaren 31tik urteko kontu bateratu hauek egin bitarteko epealdian ez da Taldeari nabarmen eragiteko moduko gertakaririk jazo.

13. Aplikatutako kontabilitate-printzipio eta -arauak eta balioztapen-irizpideak

Ondoren, urteko kontu bateratu hauek egiteko erabili ditugun kontabilitate-printzipio eta -arau eta balioztapen-irizpide esanguratsuenak azalduko ditugu:

a) Jarduneko enpresaren printzipioa

Urteko kontu bateratuak egitean, Taldeko erakundeen jarduerak etorkizunean ere jarraitu egingo duela hartu da kontuan. Hortaz, kontabilitate-arauak aplikatzearen helburua ez da izan ondare garbi oso bateratua edo zati bat transmititzeari begira horren balioa ezartzea edo likidazioa eginez gero emango lukeen zenbatekoa finkatzea.

b) Sortzapen-printzipioa

Urteko kontu bateratu hauek, eskudiru-fluxuen egoera-orri bateratuekin zerikusia duten gaietan salbu, ondasun eta zerbitzuen korrante errealearen arabera prestatu dira, noiz ordaindu edo kobratu diren kontuan hartu gabe.

c) Beste printzipio orokor batzuk

Urteko kontu bateratuak kostu historikoaren ikuspegiari jarraiki egin dira. Dena den, 2004ko urtarrilaren 1ean eta 13.q oharrean adierazitakoaren arabera lursailei eta eraikuntzei aplikatutako errebalorizazioa ere sartu da, bai eta saltzeko prest zeuden finantza-aktiboak eta finantza-aktibo eta -pasiboak ere (deribatutak barne), arrazoizko balioan.

Urteko kontu bateratuak egiteko, kontabilitateko zenbait balioespen erabili behar dira. Bestalde, Taldearen kontabilitate-politikak aplikatzeko prozesuan bere iritzia erabili behar du Zuzendaritzak. Balioespenok eragina izan dezakete aktibo eta pasiboen zenbatekoan eta aktibo eta pasibo kontingenteen banakapenean, urteko kontu bateratuen egunean, eta sarrera eta gastuen zenbatekoan, urteko kontuoi dagokien epealdian. Balioztapenak Zuzendaritzaren egungo eta etorkizuneko gorabeheren ezagutzan oinarritzen badira ere, azken emaitzak bestelakoak izan daitezke.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

d) Finantza-deribatuen izaera eta funtzionamendua

Finantza-deribatuek, galera edo irabazia emateaz gain, saldoei eta transakzioei lotutako kreditu- eta/edo merkatu-arrisku guztiak edo batzuk konpentsa ditzakete, zenbait baldintzatan. Horretarako, interes-tasak, zenbait indize, balore batzuen prezioak, hainbat dibisaren kanbio-tasa gurutzatuak edo antzeko beste erreferentzia batzuk erabiliko dituzte azpiko elementu gisa. Taldeak merkatu antolatuetan negoziatutako finantza-deribatuak erabiltzen ditu, edo, bestela, antolatutako merkatuetatik —OTC— kanpo alderdi kontrarioarekin negoziatuak.

Eskatzen dituzten bezeroekin negoziatzeko erabiltzen dira finantza-deribatuak, bai eta Taldearen posizioen arriskuak kudeatzeko (estaldura-deribatuak) eta horien salneurrien aldaketei onura ateratzeko ere. Estaldura-eragiketatzat hartu ezin diren finantza-deribatuak negoziazio-deribatutzat hartzen dira. Hauek dira estaldura-kontabilitatea aplikatu ahal izateko baldintzak:

- i) Finantza-deribatuak honako arrisku hauek estali behar ditu: interes-tasak eta/edo kanbio-tasak gorabeherak izatearen ondorioz aktiboen eta pasiboen balioan aldaketak izatekoa (arrazoizko balioen estaldura); jatorria finantza-aktibo eta -pasiboetan, konpromisoetan eta aurreikusitako transakzio oso probableetan duten eskudiru-fluxu balioetsietan gorabeherak izatekoa (eskudiru-fluxuen estaldura); eta atzerriko negoziatutako inbertsio garbiarena (atzerriko negoziatutako inbertsio garbien estaldura).
- ii) Estaldura-epean zehar, finantza-deribatuak eraginkortasunez deuseztatu behar du estalitako elementu edo posizioaren berezko arriskuren bat. Hortaz, eraginkortasuna izan behar du: prospektiboa, erretrospektiboa eta estaldura baldintza normaletan kontratatzen den unekoa. Bermatu behar du, estalitako elementu edo posizioaren bizitza osoan iraungo duela estalduarak.

Estalduren eraginkortasuna prospektiboa eta erretrospektiboa dela ziurtatzeko, eraginkortasun-testak erabiltzen ditu Taldeak. Horren bidez frogatzen du, estaldura-tresnaren arrazoizko balioaren gorabehera oso bat datorrela estalitako elementuaren arrazoizko balioaren aldaketarekin. Horrela, bada, indarreko arautegiari jarraiki, estaldura eraginkortzat jotzeko, estaldura-tresnaren arrazoizko balioaren aldakuntzak estalitako elementuaren arrazoizko balioaren aldakuntzaren % 80 eta % 125 bitartekoa izan behar du. Deribatu batek hasieran eraginkortasun-testa betetzen badu, baina aurrerago utzi egiten badio betetzeari, kontabilitatean negoziazio-deribatutzat hartuko da une horretatik, eta estalduarak eteteko araua aplikatuko zaio.

- iii) Finantza-deribatua saldo edo transferentzia jakin batzuk estaltzeko kontratatu zela eta estaldura eraginkorra nola lortu eta neurtu nahi zen jaso behar da, betiere bat badator Taldeak arrisku propioak kudeatzeko duen moduarekin.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Elementu edo saldo indibidualak nahiz finantza-aktiboen eta -pasiboen zorroa estal daitezke. Azken kasu horretan, estaliko ditugun finantza-aktiboek edo -pasiboek arrisku-tasa bera izan behar dute. Baldintza hori betetzeko, elementu indibidualetan estalitako arriskuak aldaketarekiko duen sentikortasunak antzekoa izan behar du.

Estaldurak gauzatzeko, hainbat izaeratako deribatuak erabiltzen ditu Entitate Nagusiak: interes-tasena, errenta aldakorrekokoak, dibisetakoak..., estali nahi den elementuaren azpiko arrisku-tasaren arabera. Horrela, bada, erabiltzeko moduko estaldura-tresna ugari dago: Interest Rate Swapak (IRS), Call Money Swapak (CMS), FRAk, interes-tasena gaineko etorkizunak, bonuen gaineko etorkizunak, errenta aldakorreko indizeen gaineko etorkizunak, akzioen gaineko etorkizunak, eperako dibisen salerosketa, interes-tasena gaineko aukerak, errenta aldakorreko indizeen gaineko aukerak, akzioen gaineko aukerak, dibisen gaineko aukerak, interes-tasena egituren gaineko aukerak, errenta aldakorreko egituren gaineko aukerak eta Equity Swapak.

Taldeak kontratatutako eta tresna deribatuekin egindako estaldura-eragiketak arrazoizko balioko estalduratzat hartzen dira, oro har. Estaltzen dute, batetik, Entitate Nagusiak jaulkitako zenbait pasiboren edo gordailuren arrazoizko balioak interes-tasena gorabeherengatik izan dezakeen aldaketa-arriskua eta, bestetik, saltzeko prest dauden finantza-aktiboen zorroko kapital-tresna eta zor-balore adierazgarri batzuen arrazoizko balioa.

Beste finantza-tresna edo kontratu nagusi batzuen baitan dauden finantza-deribatuak bereizita erregistratzen dira, horien arriskuak eta ezaugarriak bat ez datozenean kontratu nagusienekin, eta kontratu nagusi horiek ez badaude galdu-irabazietan aldaketak dituzten "Negoziazio-zorroa" eta "Beste finantza-aktibo edo -pasibo batzuk arrazoizko balioan" epigrafeetan sailkatuta.

Ohar honetako e) atalean, finantza-aktiboei dagokienean, finantza-deribatuen balioztapen-irizpideak daude azalduta.

e) Finantza-aktiboak

Sailkapena

Finantza-aktiboak balantze bateratuan sailkatzeko, irizpide hauek erabiltzen dira:

- i) Kutxa eta banku zentraletako gordailuak: Espainiako Bankuko eta beste banku zentral batzuetako eskudirua eta saldoak sartzen dira.
- ii) Negoziazio-zorroa: epe laburrera egiteko eskuratu diren finantza-aktiboak hartzen ditu barne. Elkarrekin kudeatzen diren finantza-tresna identifikatuen zorroko —epe laburrera irabaziaz lortzeko eguneratu berri da— zati bat dira edo, bestela, kontabilitateko estaldura-tresnatzat hartu ez diren tresna deribatuak.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

- iii) Galdu-irabazietan aldaketak dituzten beste finantza-aktibo batzuk arrazoizko balioan: hor sartzen dira, batetik, negoziazio-zorrokoak ez diren, finantza-aktibo hibridotzat jotzen diren eta arrazoizko balioan balioztatzen diren finantza-aktiboak; eta, bestetik, aseguru-kontratuaren ondoriozko pasiboekin —arrazoizko balioan balioztatuta— edo arrazoizko balioan ahalik eta aldaketa gutxien izateko helburua duten nahiz interes-tasaren arriskua nabarmen murrizteko finantza-pasiboekin eta deribatuekin kudeatzen diren finantza-deribatuekin batera kudeatzen direnak.
- iv) Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak: batetik, zor-balore adierazgarriak hartzen dituzte barne, ez badaude sailkatuta epemugako inbertsio gisa, galdu-irabazietan aldaketak dituzten eta arrazoizko balioan balioztatu diren beste finantza-aktibo batzuk gisa, kreditu-inbertsio gisa edo negoziazio-zorro gisa; eta, bestetik, elkartuak edo taldeaniztunak ez diren erakundearen kapital-tresnak, baldin eta negoziazio-zorroaren eta galdu-irabazietan aldaketak dituzten eta arrazoizko balioan balioztatu diren beste aktibo batzuen kategorietan sartu ez badira.
- v) Kreditu-inbertsioak: merkatu aktiboan negoziatu ez arren eta arrazoizko balioan balioztatu beharrik ez izan arren, eskudiru-fluxuen zenbatekoa zehaztua edo zehazgarria duten finantza-aktiboak sartzen dira, baldin eta despoltsapena berreskuratzeko aukera ematen badiote Taldeari, zordunaren kaudimenari egoztekoak diren arrazoiak alde batera utzita. Ohiko kreditu-jardueraren ondoriozko inbertsioa ez ezik, esate baterako, bezeroek maileguetan erabili duten eta oraindik amortizatu gabe dagoen eskudirua eta beste erakunde batzuei mailegatutako gordailuak, edozein izaera juridiko dutela ere, atal honetan sartzen dira, halaber, kotizatu gabeko zor-balore adierazgarriak eta ondasun-erosleekin nahiz zerbitzu-erabiltzaileekin egindako zorrak ere, Taldearen negozioaren ondoriozkoak badira.
- vi) Epemugako inbertsio-zorroa: muga-egun finkoa eta zenbateko zehatzeko eskudiru-fluxuak dituzten zor-balore adierazgarriei dagokie, Taldeak erabaki duenean, hasieratik eta geroago ere, horiei amortizatu arte eustea, gaitasun finantzarioa duelako edo horri lotutako finantzaketa duelako.
- vii) Makro-estalduren ondoriozko finantza-aktiboaren doikuntzak: galdu-irabazien kontu bateratuan ordaindutako zenbatekoen kontrapartidari dagokio, baldin eta zenbatekoak finantza-tresnen zorroaren balioztatapenean badute jatorria eta zorro horiek arrazoizko balioko estaldura-deribatuen bidez interes-tasaren arriskutik eraginkortasunez babestuta badaude.
- viii) Estaldura-deribatuak: Taldeak eskuratu edo jaulkitako finantza-deribatuak hartzen ditu barne, kontabilitate-estaldurakotzat hartzeko kualifikatzen direnak alegia.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

- ix) Korronteak ez diren finantza-izaerako aktiboak salgai: partida indibidualen kontabilitate-balioa jartzen da, partidok erabilera-talde batean daudenean, besterentzeko asmoa dagoen negozio-unitate batekoak (etendako eragiketak) direnean eta, uneko egoera kontuan hartuta, urteko kontuetatik urte bateko epean salduko direla espero denean. Hortaz, besterentzen direnean jasotzen den diruarekin berreskuratuko da, seguruenik, finantza-izaerako partida horien kontabilitate-balioa. Korronteak eta finantzarioak ez diren beste aktibo batzuk salgai: horien kontabilitate-tratamendua 13.v oharrean zehaztu dugu.
- x) Partaidetzak: erakunde elkartekideetako eta baterako negozioetako nahiz taldeaniztunetako kapital-tresnak hartzen dituzte barne.
- xi) Pentsioei lotutako aseguru-kontratuak: aseguru-erakundeei dirua itzultzea eskatzeko eskubideak sartzen dira. Aseguru-polizek planeko aktibo izateko baldintzak betetzen ez dituztenean, zehaztutako prestazioaren ondoriozko obligazioa baliogabetzeko eskatzen den ordainketa osoa edo zati bat itzultzea eskatu daiteke.
- xii) Berraseguruen ondoriozko aktiboak: hirugarrenekin dituen berraseguru-kontratuengatik Taldeak jasotzeko eskubidea duen zenbatekoak sartzen dira, bai eta, zehazki, Taldean mendeko erakunde moduan sartuta dauden aseguru-erakundeek eraturako hornidura teknikoetan berraseguruak duen partaidetza ere.

Erregistroa eta balioztapena

Finantza-aktiboak arrazoizko balioaren arabera erregistratzen dira hasieran, eta, kontrako ebidentziarik ezean, eskurapen-kostuan izango da. Kontabilitate-itxiera bakoitzeko balioespena egiteko, honako irizpide hauek hartzen dira kontuan:

- i) Finantza-aktiboak arrazoizko balioaren arabera balioztatzen dira. Arau horretatik kanpo daude Kreditu-inbertsioak; epemugako inbertsio-zorroa; arrazoizko balioa behar bezalako objektibotasunez zehaztu ezin zaien kapital-tresnak; eta azpiko aktibotzat kapital-tresna horiek dituzten eta horiek entregatuta likidatzen diren finantza-deribatuak.
- ii) Finantza-aktibo batek egun jakin batean duen arrazoizko balioa da, alderdi interesdunek independentziaz egindako transakzioan batak besteari egoki informatuta emateko aktibo horrek duen prezioa. Merkatu aktibo batean, hau da merkatu antolatu, garden eta sakon batean, aktiboan duen kotizazio-balioa da arrazoizko balioa kalkulatzeko biderik garbiena.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Finantza-aktiboak merkatuko preziorik ez duenean, antzeko tresnekin egin diren transakzioetan erabilitakora jotzen da arrazoizko balioa kalkulatzeko, eta, bestela, behar bezala egiaztatutako balioztapen-ereduetara. Orobat, balioztatu nahi dugun aktiboaren bereizgarriak hartu behar dira kontuan, eragiten dioten arrisku motak batik bat. Halere, garatutako balioztapen-ereduen mugak eta eredu horiek eskatzen dituzten datuen zehaztasun-falta direla eta, gerta liteke modu horretan ateratako arrazoizko balioa ez bat etortzea balioztapen-egunearan erosi edo saltzeko izango lukeenarekin.

- iii) Merkatu aktibo batean kotizazio-balioa duten finantza-deribatuen arrazoizko balioa eguneko kotizazio-prezioa da. Aparteko arrazoiren bategatik egun jakin bateko kotizazioa zehaztu ezin bada, OTC finantza-deribatuak balioztatzeko erabiltzen diren antzeko metodoetara jotzen da.

OTC finantza-deribatuen arrazoizko balioa ateratzeko, jatorria tresnan duten eta balioztapen-egunearan deskontatu diren etorkizuneko kaxako fluxuak batzen dira, finantza-merkatuetan aitortzea duten metodoen bidez.

- iv) Kreditu-inbertsioak eta Epemugako inbertsio-zorroa amortizatutako kostuan balioztatzen dira, eta interes-tasa efektiboaren metodoa erabiltzen da hori finkatzeko. Amortizatutako kostua ateratzeko, finantza-aktiboaren eskurapen-kostua hartzen da oinarri. Horri, baina, zuzenketa batzuk egiten zaizkio tronkotik ateratako diru-kopuruekin eta galdu-irabazien kontuan sartutako zatiarekin, interes-tasa efektiboaren metodoa erabiliz. Hasierako kostuaren eta muga-eguneko errenboltso-balioaren arteko aldea ere hartzen da kontuan. Gero, aktiboaren zenbatekoa murriztu dela zuzenean edo balioa zuzentzeko kontu baten bidez aitortzen duen narriaduragatiko balio-murrizketa kentzen zaio. Arrazoizko balioa estaltzeko eragiketetan estaldura duten kreditu-inbertsioen kasuan, estaldura-eragiketa horietan estalita dauden arriskuen ondorioz arrazoizko balioan izaten dituzten aldakuntzak erregistratzen dira.

Interes-tasa efektiboa da finantza-tresna baten balioa tresna horri balio-bizitzan estimatu zaizkion eskudiru-fluxuekin parekatzen duen eguneratze-tasa. Kontratuko baldintzak hartzen dira oinarri horretarako, amortizazio aurreraturako aukerak esaterako, baina etorkizuneko kreditu-arriskuengatik galerak kontuan hartu gabe. Interes-tasa finkoa duten finantza-tresnetarako, eskuratu zirenean kontratuan ezarri zen interes-tasa da interes-tasa efektiboa, baina izaeragatik interes-tasen antzekoak diren komisioak eransten zaizkio, baldin badaude. Interes-tasa aldakorra duten finantza-tresnetarako, berriz, interes-tasari egiten zaion lehen berrikuspena arte kontzeptu guztiengatik indarrean dagoen errendimendu-tasa izango da interes-tasa efektiboa.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

- v) Arrazoizko balioa behar bezalako objektibotasunez zehaztu ezin zaien beste erakunde batzuen kapitaleko partaidetzak eta azpiko aktibotzat tresna horiek dituzten eta horiek entregatuz likidatzen diren finantza-deribatuak eskurapen-kostuan jasotzen dira, baina behar denean narriaduragatik izan dituzten galerak kontuan hartuta.

Finantza-aktiboen kontabilitate-balioetan gertatzen diren aldaketak, oro har, galdu-irabazien kontu bateratuan kontrapartida jasoz erregistratzen dira. Horretarako, bereizi egiten dira jatorria interesen sortzapenean eta antzeko kontzeptuetan dutenak, eta beste arrazoi batzuk dituztenak. Lehenak "Interesak eta antzeko errendimenduak" epigrafean jasotzen dira eta bigarrenak galdu-irabazien kontuko "Finantza-eragiketen emaitzak (garbiak)" epigrafean.

Dena den, "Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak" epigrafeko tresnen kontabilitate-balioaren gorabeherak "Ondare garbi bateratua balioztatzeagatiko doikuntzak" epigrafean jasotzen dira aldi baterako, baldin eta finantza-aktibo monetarioen kanbio-aldeen ondoriozkoak ez badira. "Balioztapenagatiko doikuntzak" epigrafeko zenbatekoak ondare garbi bateratua osatzen dute, harik eta horien jatorri den aktiboari baja ematen zaion arte balantzean; une horretan, galdu-irabazien kontu bateratuaren kontra kitatzen dira.

Estalitako partida eta kontabilitateko estaldurako partida gisa hartzen diren finantza-aktiboetan, honako irizpide hauek kontuan hartuta erregistratzen dira balioztapen-aldeak:

- i) Arrazoizko balioaren estalduretan, galdu-irabazien kontuan jasotzen dira, zuzenean, estalitako arriskuaren motari dagokionez estaldura-elementuetan eta estalitako elementuetan gertatzen diren aldeak.
- ii) Eskudiru-fluxuen estaldura-eragiketetan eta atzerriko negozioetako inbertsio garbietan eraginkorra ez den zatiaren balioztapen-aldeak galdu-irabazien kontuan sartzen dira zuzenean.
- iii) Eskudiru-fluxuen estalduretan, ondare garbiko "Balioztapenagatiko doikuntzak" epigrafean jasotzen dira, aldi baterako, estaldura-elementuen estalduran eraginkorra den zatiaren balioztapen-aldeak.
- iv) Atzerriko negozioetako inbertsio garbien estalduretan, ondare garbiko "Balioztapenagatiko doikuntzak" epigrafean jasotzen dira, aldi baterako, estaldura-elementuen estalduran eraginkorra den zatiaren balioztapen-aldeak.

Azken bi kasu horietan, balioztapen-aldeak ez dira emaitza gisa jasotzen, harik eta estalitako elementuaren galerak edo irabaziak galdu-irabazien kontu bateratuan erregistratzen diren arte edo estalitako elementuaren muga-egunera arte.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Finantza-tresnen zorroen arteko birsailkapena

Finantza-tresnen zorroen birsailkapenetan, honako baldintza hauek beteko dira:

- i) Ondorengo iv) puntuan adierazitako aparteko salbuespenetan izan ezik, “Galdu-irabazietan aldaketak dituzten arrazoizko baliodun finantza-tresnak” erosi, jaulki edo eskuratu eta gero, ezin dira birsailkatu finantza-tresnen kategorian.
- ii) Asmoak edo finantza-gaitasuna aldatu izanaren ondorioz, finantza-aktibo bat “Epemugako inbertsio-zorroa” multzotik kanpo geratzen bada, birsailkatu eta “Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak” kategorian sartuko da. Kasu horretan, birsailkatutako finantza-aktiboaren zenbatekoa esanguratsua bada epemugako inbertsio-zorroan sartutako aktiboen kopuruari begira, zorro horretan sailkatutako finantza-tresna guztiei tratamendu bera emango zaie, baldin eta birsailkapena arautegi aplikagarriak baimendutako supostuetan ez badago, hau da, salmentak epemugatik oso gertu ez badaude, finantza-aktiboaren tronko ia osoa kobratu ez bada etab.

2015eko eta 2014ko ekitaldietan zehar, ez da egin “Epemugako inbertsio-zorroa” multzoko finantza-aktiboei buruzko araudi aplikagarrian onartu gabeko inolako salmentarik.

- iii) Taldearen asmoak edo finantza-gaitasuna aldatzen bada edo “Epemugako inbertsio-zorroa” multzoko finantza-aktiboen salmentari buruzko araudi aplikagarrian finkatzen diren bi zehapen-ekitaldiak igarotzen badira, “Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak” kategoriako zor-tresnak “Epemugako inbertsio-zorroa” kategorian birsailkatu ahal izango dira. Entitatearen asmoak edo finantza-gaitasuna aldatzen bada, horrelakoetan, finantza-tresnei eskualdatzedatan dagokien arrazoizko balioa kostu amortizatutzat hartuko da, eta zenbateko horren eta itzulketa-balioaren arteko aldea galdu-irabazien kontu bateratuan adieraziko da, tresnaren hondar-bizitzako interes-tasa efektiboaz baliatuz.

2015eko eta 2014ko ekitaldietan zehar, ez da egin aurreko paragrafoan azaldutakoak moduko birsailkapenik.

- iv) Finantza-tresna deribatuak ez diren finantza-aktiboak negoziazioen eta saltzeko prest dauden finantza-aktiboen zorrotik kanpo sailkatu ahal izango dira, epe laburrean saltzeko edo berrerosteko asmoa bertan behera geratuz gero. Halaber, ezinbestekoa izango da honako baldintza hauetako bat betetzea:
 - a. Aparteko egoera bereziren bat egokitzea. Salbuespen bakarrak kreditu-inbertsioen kategorian sartzeko moduko aktiboak dira. Zeharo ezohikoak diren gertakari bitxiak hartzen dira aparteko egoeratzat, eta etorkizun aurreikusgarrian errepikatzeke aukerak oso urriak izaten dira.
 - b. Taldeak finantza-aktiboari etorkizun aurreikusgarrian edo muga-egunera arte eusteko asmoa eta finantza-gaitasuna izatea, betiere hasierako aitortpenean kreditu-inbertsioari lotutako definizioa bete bada.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Halako egoeretan aktiboaren birsailkapena egiteko, birsailkapen-eguneko arrazoizko balioa erabiliko da, emaitzak itzuli gabe eta balio hori kostu amortizatutzat hartuz. Birsailkatutako aktiboak inondik inora ezingo dira sartu berriro “Negoziazio-zorroa” kategorian.

2015eko eta 2014ko ekitaldietan zehar, Negoziazio-zorroko eta Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak ataleko finantza-aktiboak ez dira birsailkatu.

f) Finantza-pasiboak

Sailkapena

Finantza-aktiboak balantze bateratuan sailkatzeko, irizpide hauek erabiltzen dira:

- i) Negoziazio-zorroa: epe laburrera berriro eskuratzeko jaulki diren finantza-aktiboak hartzen ditu barne. Elkarrekin kudeatzen diren finantza-tresna identifikatuen zorroko —epe laburrera irabaziak lortzeko eguneratu berri da— zati bat dira, edo kontabilitateko estaldura-tresnatzat hartu ez diren tresna deribatuak, edo aldi baterako eskuratu edo mailegutuan hartu diren finantza-aktiboen salmenta irmoak sortuak.
- ii) Galdu-irabazietan aldaketak dituzten arrazoizko baliodun beste finantza-pasibo batzuk: Taldeak hasierako azterketan edo horiek izendatzean informazio esanguratsuagoa lortzen denean izendatutako finantza-pasiboak dira.
 - Horrela, deuseztatu edo murriztu egiten dira, nabarmen, irizpide desberdinak erabiliz aktiboak edo pasiboak balioztatetik edo haien irabaziak edo galerak aitortzetik sortuko lirakekeen inkoherentziak.
 - Finantza-pasiboen edo finantza-aktibo eta -pasiboen talde bat kudeatu eta haren errendimendua arrazoizko balioa oinarri harturik ebaluatzen denean, arriskua kudeatzeko edo inbertsio dokumentatuko estrategia baten arabera, eta talde horri buruzko informazioa, arrazoizko balioan hori ere, Zuzendaritzako gako-langileei ematen zaienean.
- iii) Amortizatutako kostudun finantza-pasiboak: balantze bateratuko gainerako ataletan sartu ezin direnak dira, finantza-erakundeen fondo-atzipeneko ohiko jardueren ondoriozkoak, eta berdin dio nola gauzatzen diren eta zer muga-egun duten.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

- iv) Makro-estalduren ondoriozko finantza-pasiboen doikuntzak: galdu-irabazien kontu bateratuan ordaindutako zenbatekoen kontrapartidari dagokio, baldin eta zenbatekook finantza-tresnen zorroen balioztapenean badute jatorria eta zorro horiek arrazoizko balioko estaldura-deribatuen bidez interes-tasen arriskutik eraginkortasunez babestuta badaude.
- v) Estaldura-deribatuak: Taldeak eskuratu edo jaulkitako finantza-deribatuak hartzen ditu barne, kontabilitate-estaldurakotzat hartzeko kualifikatzen direnak alegia.
- vi) Korrontek ez diren eta salgai dauden aktiboei dagozkien pasiboak: jatorria "Korrontek ez diren aktiboak salgai" epigrafean duten saldo hartzekodunenak dira.
- vii) Aseguru-kontratuen ondoriozko pasiboak: ekitaldi-amaieran indarrean dauden aseguru-kontratuen ondoriozko erreklamazioak estaltzeko Taldeak sortutako hornidura teknikoak dira.
- viii) Ageriko kapital errenboltsagarria: Taldeak jaulkitako finantza-tresnen zenbatekoa hartzen du barne. Kapitalaren izaera juridikoa dute, baina ez dituzte betetzen ondare garbian sartzeko baldintzak. Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan atalekoak moduan balioztatzen dira, baldin eta Taldeak Finantza-pasiboak arrazoizko balioan multzoan sartu ez baditu, horretarako baldintzak bete eta gero.

Entitate Nagusiaren estatutuetan ezarri da, bazkideen ekarpenak itzultzeko nahitaezkoa izango dela Entitate Nagusiaren Kontseilu Errektoreak aldeko erabakia hartzea eta errenboltsoa egin ondoren gutxieneko kapital soziala, baliabide propioak edo kaudimen-koefizientea behar adina estalita geratzea.

Erregistroa eta balioztapena

Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan erregistratzen dira, hain zuzen ere, 13.e oharrean finantza-aktiboentzat zehaztu den eran. Baina badira salbuespenak:

- i) "Negoziazio-zorroa" eta "Galdu-irabazietan aldaketak dituzten beste finantza-pasibo batzuk arrazoizko balioan" epigrafeetako finantza-pasiboak arrazoizko balioan balioztatzen dira, 13.e oharrean finantza-aktiboentzat zehaztu den eran. Arrazoizko balioa estaltzeko eragiketetan estalitako finantza pasiboen kasuan, estaldura-eragiketa horietan estalita dagoen arriskuaren ondorioz arrazoizko balioan izaten dituzten aldaketak erregistratzen dira, finantza-pasibo horiei dagokien "Mikroestaldurako eragiketak" atalean.
- ii) Arrazoizko balioa behar bezalako objektibotasunez zehaztu ezin zaien kapital-tresnak azpian dituzten eta horiek entregatuz likidatzen diren finantza-deribatuak eskurapen-kostuan jasotzen dira.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Finantza-pasiboen kontabilitate-balioan gertatzen diren aldaketak, oro har, galdu-irabazien kontu bateratuan kontrapartida jasoz erregistratzen dira. Horretarako, bereizi egiten dira jatorria interesen eta antzeko kontzeptuen sortzapenean dutenak, eta beste arrazoi batzuk dituztenak. Lehenak "Interesak eta antzeko errendimenduak" epigrafean jasotzen dira eta bigarrenak galdu-irabazien kontuko "Finantza-eragiketen emaitzak (garbiak)" epigrafean.

Estalitako kontu-sail eta kontabilitateko estaldurako kontu-sail gisa hartzen diren finantza-pasiboetan, 13.e oharrean finantza-aktiboetarako adierazi diren irizpideak kontuan hartuta erregistratzen dira balioztapen-aldeak.

g) Finantza-tresnak transferitzea eta balantze bateratutik baja ematea

Finantza-tresnen transferentziak kontabilizatzeko, transferitutako finantza-tresnaren arriskuak eta mozkinak nola intsuldatu diren hartzen da kontuan, betiere irizpide hauei jarraiki:

- i) Arriskuen eta mozkinen funtsezko intsuldaketa egiten bazaie hirugarrenei, transferitutako finantza-tresnari baja ematen zaio balantze bateratuan, eta,aldi berean, transferentziaren ondorioz atxikitako edo sortutako edozein eskubide edo obligazio aitortzen da. Eragiketa mota horietan sartzen dira: baldintza gabeko salmentak; berrerosteko egunean arrazoizko balioan berrerosteko ituna duten salmentak; finantza-aktiboen salmentak, dirua alde batera utzita erosteko aukera eskuratua edo saltzeko aukera emana dutenak; aktiboen titulazioak, lagatzaileak ez dituenen mendeko finantzaketarik atxikitzen eta ez dienean titular berriei kreditu-hobekuntzarik eskaintzen; eta abar.
- ii) Transferitutako tresnari dagozkion arriskuen eta mozkinen funtsezko atxikipena egiten bada, transferitutako finantza-tresnari ez zaio baja ematen balantze bateratuan, eta transferentziaren aurretik erabiltzen ziren irizpide berberekin balioztatzen jarraitzen da. Eragiketa mota horietan sartzen dira: salneurri finkoarekin edo salmenta-prezioari interes bat erantsita berrerosteko ituna duten finantza-aktiboen salmentak; baloreak mailegatzeko kontratuak, mailegu-hartzaileak horiek edo antzeko aktiboak itzultzeko obligazioa duenean eta abar. Halarik ere, finantza-pasiboa kontabilitatean jasotzeko, kontraprestazioaren kopurua —amortizatutako kostuan balioztatzen da—, transferitu den baina baja eman ez zaion finantza-aktiboaren sarrerak eta finantza-pasibo berriaren gastuak hartzen dira kontuan.
- iii) Transferitutako tresnari dagozkion arriskuen eta mozkinen funtsezko transferentzia eta atxikipena egiten ez bada, bi aukera daude. Eragiketa mota horietan sartzen dira finantza-aktiboen salmentak, diruaren barruan nahiz kanpoan sakonki ez dauden erosteko aukera eskuratua edo saltzeko aukera emana dutenak; titulazioak, lagatzaileak transferitutako aktiboaren zati batean bere gain hartzen duenean mendeko finantzaketa edo beste kreditu-hobekuntza batzuk...
 - Taldeak ez badio transferitutako finantza-tresnaren kontrolari eusten, baja ematen zaio balantze bateratuan eta transferentziaren ondorioz atxikitako edo sortutako edozein eskubide edo obligazio aitortzen da.
 - Taldeak eutsi egiten badio transferitutako finantza-tresnaren kontrolari, balantzean jasotzen jarraitzen du, balio-aldaketen eraginpean jartzeari

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

dagokion zenbatekoan, eta jasotako kontraprestazioaren pareko kopuruko finantza-pasiboa aitortzen da. Pasibo hori amortizatutako kostuan balioztatuko da gerora, baldin eta galdu-irabazietan aldaketak dituzten arrazoizko balioko finantza-pasibo moduan sailkatzeko baldintzak betetzen ez baditu. Gaur egun betebeharra ez denez, finantza-pasibo horren zenbatekoa kalkulatzeko, finantza-aktiboak eskualdatu zaizkion Entitatearentzat finantzaketa-iturri diren finantzaketa-tresnen (adibidez, titulizazio-bonu eta maileguen) zenbatekoa deduzitu egingo da, finantza-tresna horiek eskualdatutako aktiboak finantzatzeko erabiltzen diren heinean. Transferitutako aktiboaren eta horri lotutako pasiboaren zenbateko garbia atxikitako eskubide eta obligazioen kostu amortizatu izango da, baldin eta transferitutako aktiboa amortizatutako kostuan neurtzen bada, eta atxikitako eskubide eta obligazioen arrazoizko balioa, baldin eta transferitutako aktiboa arrazoizko balioan neurtzen bada.

Beraz, finantza-aktiboak bi kasutan bakarrik geratuko dira balantze bateratutik at: sortutako eskudiru-fluxuak agortzen direnean edo arrisku eta etekin gehienak hirugarrenen esku uzten direnean. Halaber, finantza-pasiboari egoera-balantze bateratutik baja emateko, sortzen dituzten obligazioak agortuta egon behar dira, edo, bestela, berriro kitatu edo birkokatzeko helburuarekin eskuratu behar dira.

2015eko eta 2014ko ekitaldietako urteko kontu bateratuetan, IM Caja Laboral 1 ATF, IM Caja Laboral 2 ATF eta IM Caja Laboral Empresas 1 ATF titulizazio-fondoak sartu ditu Taldeak, integrazio global bidez, izan ere, zenbait mailegu transferitu zizkion 2006ko, 2008ko eta 2011ko ekitaldietan (26. eta 36. oharra).

Dena den, Taldeak ez ditu jaso 2004ko urtarrilaren 1aren aurretik egin diren transakzioen ondoriozko finantza-aktibo eta -pasiboak, baldin eta deribatuak ez badira, aurretik aplikatzen zen arautegiaren indarrez balantze bateratutik baja emanda badaude eta geroagoko transakzio edo gertaeraren baten emaitza direlako jaso beharrekoak ez badira.

h) Finantza-aktiboen balioaren narriadura

Finantza-aktiboen kontabilitate-balioa, oro har, galdu-irabazien kontuaren kargu bateratura zuzentzen da, narriaduragatik galera izan dela objektiboki esan dezakegunean. Kasu hauetan gertatzen da hori:

- i) Zor-tresnen (zor-kreditu eta -balore adierazgarrien) kasuan, hasierako aitortenaren ondorengo gertaeraren baten edo hainbat gertaeraren konbinazioaren ondorioz, etorkizuneko eskudiru-fluxuek okerrera egiten badute.
- ii) Kapital-tresnen kasuan, hasierako aitortenaren ondorengo gertaeraren baten edo hainbat gertaeraren konbinazioaren ondorioz kontabilitate-balioa berreskuratu ezin bada.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Eskuarki, finantza-tresnen kontabilitate-balioaren narriaduraren ondoriozko zuzenketa narriadura gertatu den epealdiko galdu-irabazien kontu bateratuaren kargura egiten da. Aurretik erregistratu diren narriaduraren ondoriozko galeren berreskuratzea, berriz, narriadura deuseztatu edo murrizten den epealdiko galdu-irabazien kontu bateratuan aitortzen dira. Erregistratutako narriaduraren ondoriozko edozein zenbateko berreskuratzeak aukera oso txikia bada, kendu egiten da balantze bateratutik. Edozein modutan, Taldeak beharrezko eguneratzeak egin ahal izango ditu, horiek kobratzen saiatzeko, harik eta, preskripzioa, barkamena edo beste edozein arrazoi dela medio, eskubideak erabat galtzen dituen arte.

Amortizatutako kostuan balioztatutako zor-tresnen kasuan, horien liburuko balioaren eta etorkizunerako estimatu zaizkien eskudiru-fluxuen egungo balioaren arteko alde negatibo da narriaduragatiko galeren zenbatekoa. Kotizatutako zor-tresnen kasuan, merkatu-balioa erabili daiteke etorkizuneko eskudiru-fluxuen egungo balioaren ordez, betiere behar bezain fidagarria bada, Taldeak berreskuratu dezakeen balioaren parekotzat jotzeko.

Zor-tresna bati estimatutako etorkizuneko eskudiru-fluxuetan, tresnaren bizitzan zehar Taldeak lortzeko asmoa duen zenbateko guztiak (tronkoa eta interesak) sartzen dira. Estimazio horretan, finantzetako egoera-orri bateratuak egitean eskura dagoen informazio esanguratsu guztia hartzen da kontuan, baldin eta kontratuko eskudiru-fluxuak etorkizunean kobratzeko aukerari buruzko datuak ematen badu. Era berean, berme errealdun tresnen etorkizuneko eskudiru-fluxuen estimazioan, finantza-tresnen muga-egunen antzintasuna eta berme erreal horiek emango lituzketen fluxuak hartzen dira kontuan, baina horiek lortzearen eta gero saltzearen kostuak kenduta; bermea exekutatzeko aukera ez da aintzat hartzen.

Estimatutako etorkizuneko eskudiru-fluxuen egungo balioa kalkulatzeko, kontratuko tasa finkoa bada, tresnaren jatorrizko interes-tasa efektiboa erabiltzen da eguneratze-tasa moduan, eta, aldakorra denean, finantzetako egoera-orri bateratuen datako interes-tasa efektiboa, kontratuko baldintzen arabera zehaztua.

Zor-tresnen eta arrisku nahiz konpromiso kontingenteen zorroak, titularra, bideratzeko modua edo bermea edozein dutela ere, aztertu egiten dira, Taldeak zenbaterainoko kreditu-arriskuari aurre egin behar dion zehazteko eta haien balioaren narriadura estaltzeko premiarik dagoen balioesteko. Finantzetako egoera-orriak prestatzeko, kreditu-arriskuaren arabera sailkatzen ditu Taldeak eragiketak, eta, horretarako, bereizita aztertzen ditu bezeroari egoztekoa den kaudimengabezia-arriskua eta eragiketoi dagokien herrialde-arriskua.

Narriaduraren ebidentzia objektiboa banan-banan zehaztuko zaie esanguratsuak diren zor-tresnei eta banan-banan eta taldean banaka esanguratsuak ez diren zor-tresnen taldeei. Arrisku-ezaugarri antzekoak dituzten aktiboen talde batean ere sartu ezin den tresna bere aldetik aztertuko da, narriatuta dagoen ikusteko eta narriaduraren ondoriozko galera balioesteko.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Finantza-aktiboen talde baten narriaduraren ondoriozko galerak kalkulatzeko, honela egiten da ebaluazioa:

- i) Zor-tresnak antzeko kreditu-arriskua duten taldeetan sartzen dira. Kreditu-arriskuaren mailak erakutsiko du zordunek zenbaterainoko gaitasuna duten zenbateko guztiak (tronkoa eta interesak) kontratuko baldintzen arabera ordaintzeko. Hona hemen, besteak beste, aktiboak multzokatzeko kontuan hartzen diren kreditu-arriskuaren ezaugarriak: tresna mota, zordunaren jarduerasektorea, jardueraren eremu geografikoa, berme mota, mugaeguneratutako zenbatekoen antzintasuna eta etorkizuneko eskudiru-fluxuak kalkulatzeko esanguratsua den beste edozein alderdi.
- ii) Zor-tresnen talde bakoitzeko etorkizuneko eskudiru-fluxuak kalkulatzeko, berriz, Taldeak kreditu-arrisku antzekodun tresnetan izandako galerak hartzen dira kontua, baina datu historikoei beharrezko doikuntzak egiten zaizkie, merkatuaren egungo balditzetara egokitze.
- iii) Talde bakoitzaren narriaduraren ondoriozko galera ateratzeko, taldeko zor-tresna guztien kontabilitate-balioaren eta estimatutako etorkizuneko eskudiru-fluxuen egungo balioaren arteko aldea ateratzen da.

Galdu-irabazien kontuan aldaketak dituzten eta arrazoizko balioan balioztatu ez diren zor-tresnak eta arrisku eta konpromiso kontingenteak honela sailkatzen dira, bezeroari edo eragiketari egoztekoa den kaudimengabezia-arriskuaren arabera: arrisku normalekoak, estandarraz azpiko arriskudunak, bezeroaren berankortasunagatiko zalantzako arriskudunak, bezeroaren berankortasuna ez beste arrazoiren batengatik zalantzako arriskudunak eta arrisku hutseginekoak. Arrisku normalekotzat sailkatu ez diren zor-tresnetan, Taldearen eta sektorearen eskarmentuan oinarrituz kalkulaten dira narriaduraren ondoriozko beharrezko estaldura espezifikoak. Horretarako, ordaindu gabeko zenbatekoen antzintasuna, ekarritako bermeak eta bezeroaren eta, behar denean, bermatzaileen egoera ekonomikoa hartzen dira aintzat. Taldearen esperientzian eta sektoreko informazioan oinarrituz egindako berankortasun-egutegien arabera egiten da, eskuarki, balioztapen hori.

Antzera batean, galdu-irabazien kontuan aldaketak dituzten eta arrazoizko balioan balioztatu ez diren zor-tresnak eta arrisku kontingenteak, bezeroa edozein delarik ere, herrialde-arriskuaren ondoriozko kreditu-arriskua zehazteko aztertzen dira: Herrialde-arriskutzat hartzen da, ohiko merkataritza-arriskua ez den beste arrazoiren batengatik herrialde jakin bateko bezeroek duten arriskua.

Lehen aipatu ditugun narriaduraren ondoriozko estaldura espezifikoek gain, Taldeak estaldura kolektibo bat osatzen du, galdu-irabazien kontuan aldaketak dituzten eta arrazoizko balioan balioztatu ez diren zor-tresnek eta arrisku kontingenteek (arrisku normalekotzat jotakoek) sortutako berezko galerak estaltzeko. Estaldura kolektibo hori bat dator galera estatistikoarekin, eta eskarmentu historikoa eta ebaluazioaren garaiko gainerako inguruabarrak kontuan hartuta egiten da. Horien artean ditugu, finantzetako egoera-orriak egitean eragiketa zehatzei egozteko dauden berezko galerak, prozedura estatistikoez kalkulaten direnak.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Zentzu horretan, Taldeak Espainiako Bankuak ezarritako parametroak erabili ditu, ez baitu nahikoa eskarmentu historiko eta estatistiko gai horretan. Espainiako Bankuak bere esperientzian eta sektoreko informazioan oinarrituz finkatzen ditu parametroak, eta arrisku normalekotzat jotako zor-tresnen eta arrisku kontingenteen narriaduraren ondoriozko berezko galerak estaltzeko erabiliko diren metodoa eta zenbatekoa finkatzen dute. Aldian behin, moldatu egiten dira, aipatutako datuon bilakaeraren arabera. Zor-tresnen narriaduragatiko berezko galerak nola estali zehazteko metodoan, ehuneko bat aplikatzen zaie arrisku normalekotzat jotako arrisku kontingenteei eta galdu-irabazien kontuan aldaketak dituzten eta arrazoizko balioan balioztatu ez diren zor-tresnei. Ehunekoak aldatu egiten dira, arrisku normalaren barruan zor-tresnekin egindako sailkapenaren arabera. Hauek dira azpikategoriak: arrisku hautemangarriak gabeak, arrisku baxudunak, arrisku ertain baxukoak, arrisku ertainekoak, arrisku ertain altukoak eta arrisku altukoak. Kreditatuaren jarduera-sektoreak ere badu zeresana.

Kontratuan zehaztutako interesen sortzapena ez da galdu-irabazien kontu bateratuan jasotzen, narriatutaz jotako zor-tresnetan eta hiru hilabetetik gorako antzinatasuneko zenbateko mugaeguneratuak izateagatik narriaduraren ondoriozko galerak kalkulatu zaizkien taldeetan.

Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak epigrafeko zor-balore adierazgarrien eta kapital-tresnen narriaduragatiko galerak kalkulatzeko, eskurapen-kostuari tronkoaren amortizazioak kentzen zaizkio, lehenengo. Gero, arrazoizko balioaren eta aurrez galdu-irabazien kontuan jasotako narriaduragatiko galera guztien arteko kenketa egiten da. Bi eragiketetatik ateratako kopuruen arteko alde positiboa izango da galera horien kopurua.

Ebidentzia objektiboak ditugunean, eta, beraz, garbi dakigunean arrazoizko balioa narriaduragatik txikitu dela, zuzenean ondare garbi bateratuko "narriaduraren ondoriozko doikuntzak" epigrafean jaso diren ezkutuko minusbalioak galdu-irabazien kontuan erregistratzen dira berehala. Aurrerago narriaduraren ondoriozko galera batzuk edo guztiak berreskuratzen badira, kopuru hori berreskurapen-epeko galdu-irabazien kontu bateratuan jasoko da, zor-balore adierazgarrien kasuan, eta ondare garbiko "Balioztapenagatiko doikuntzak" epigrafean, kapital-tresnen kasuan.

Taldearen ustez, "Saltzeko prest dauden finantza-aktibo"tzat sailkatutako kapital-tresnak narriatuta dauden zantzuak daude, baldin eta behaketa egin den unean % 40tik gorako minusbalio etengabeak gertatu badira, 18 hilabetean jarraian.

"Korronteak ez diren aktiboak salgai" epigrafean sailkatuta dauden zor- eta kapital-tresnetan, aurrez ondare garbi bateratuan erregistratutako galerak egindakotzat jotzeko, galdu-irabazien kontu bateratuan jasotzen dira sailkapena egiten den egunean.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak eta/edo Negoziazio-zorroa epigrafean sailkatutako zor-balore adierazgarrien kasuan, Taldearen ustez narriadura dago, tronkoan edota kupoian 90 egunetik gorako ez-ordaintzea gertatzen bada, edota kostuan eta kreditu-sailkapenean % 40tik gorako minusbalioa badago.

Eskurapen-kostuan balioztatutako kapital-tresnen narriaduragatiko galerak, horien liburuko balioaren eta etorkizunerako espero diren eskudiru-fluxuen egungo balioaren arteko aldea aterata kalkulatzeko dira, baina antzeko beste balore batzuek merkatuan duten errentagarritasun-tasarekin eguneratuta. narriaduraren ondoriozko galera horiek, gertatzen diren epealdiko galdu-irabazien kontu bateratuan erregistratzen dira, zuzenean finantza-aktiboaren kostua txikitzeko moduan, eta kopuru hori ezin izaten da berreskuratu, baldin eta tresna horiek saltzen ez badira.

Mendekoak, elkartuak edo taldeaniztunak diren erakundeetako partaidetzen kasuan, narriaduraren ondoriozko galerak ateratzeko, berreskuratu daitekeen zenbatekoa eta kontabilitate-balioa alderatzen ditu Taldeak. Narriaduraren ondoriozko galera horiek, gertatzen diren epealdiko galdu-irabazien kontu bateratuan erregistratzen dira, eta ondorengo berreskurapenak, horiek gertatzen diren epeko galdu-irabazien kontu bateratuan.

i) Kontuen balioztapena atzerriko dibisan

Euroa da Taldeak bere jardunean erabiliko duen dibisa. Beraz, eurotan ez dauden saldo eta transakzio guztiak atzerriko diruarekin egindakotzat joko dira.

Ondoren, Taldeak 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n atzerriko dibisan guztira dituen aktiboen eta pasiboen kontrabalioa agertzen da eurotan:

	2015		2014	
	Aktiboak	Pasiboak	Aktiboak	Pasiboak
AEBko dolarrak	60.917	26.101	63.558	20.445
Libera esterlinak	11.805	1.108	11.850	2.216
Yen japoniarrak	2.598	202	426	284
Franko suitzarrak	3.062	198	2.649	141
Bestelakoak	915	538	609	284
	79.297	28.147	79.092	23.370

Ondoren, Taldeak 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n atzerriko dibisan guztira dituen aktiboen eta pasiboen kontrabalioa agertzen da mila eurokotan, izaeraren arabera sailkatuta:

	2015		2014	
	Aktiboak	Pasiboak	Aktiboak	Pasiboak
Kutxa eta banku zentraletako gordailuak	1.567	-	914	-
Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak	54.497	-	56.158	-
Kreditu-inbertsioak	23.233	-	22.020	-
Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan	-	27.013	-	21.690
Estaldura-deribatuak	-	-	-	-
Arrisku kontingenteetarako hornidurak	-	1.134	-	1.680
	79.297	28.147	79.092	23.370

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Hasierako erregistroan, eurotara bihurtzen dira atzerriko dibisan dauden saldo zordun eta hartzekodunak. Helburu horretarako, erregistroaren eguneko eskurako kanbio-tasa erabiltzen da, hau da, berehala entregatzeko kanbio-tasa. Hasierako erregistroaren ondoren, honako arau hauek erabiltzen dira, atzerriko dirutan dauden saldoak eurotara bihurtzeko:

- i) Izaera monetarioko aktiboak eta pasiboak itxierako kanbio-tasara bihurtzen dira. Finantzetako egoera-orrien datako eskurako eragiketen batez besteko kanbio-tasa hartzen da itxierako kanbio-tasatzat.
- ii) Kostu historikoan balioztatutako partida ez-monetarioak eskurapen-eguneko kanbio-tasarekin bihurtzen dira.
- iii) Arrazoizko balioan balioztatutako partida ez-monetarioak arrazoizko balio hori zehazten den eguneko kanbio-tasarekin bihurtzen dira.
- iv) Sarrerak eta gastuak bihurtzeko, berriz, eragiketaren eguneko kanbio-tasa aplikatzen da. Dena den, epealdiko eragiketa guztietan batez besteko kanbio-tasa bera erabiltzen da, aldaketa esanguratsurik izan ez badu, behinik behin. Amortizazioak dagokien aktiboari aplikatutako kanbio-tasarekin bihurtzen dira.

Atzerriko dibisan dauden saldo zordun eta hartzekodunak bihurtzean sortutako kanbio-aldeak galdu-irabazien kontu bateratuan erregistratzen dira, oro har. Halarik ere, arrazoizko balioan balioztatu diren eta arrazoizko balio horretara egindako doikuntza ondare garbi bateratuko "Balioztapenagatiko doikuntzak" epigrafean jasotzen zaien partida ez-monetarioetan kanbio-aldeak daudenean, kanbio-tasaren osagaia bereizi egiten da monetarioa ez den elementuaren errebalorizaziotik.

Ohiko jardueran euroa erabiltzen ez duten erakunde partaidetuetan, urteko kontuetako saldoak eurotara bihurtzen dira honela:

- i) Aktibo eta pasiboak bihurtzeko, ekitaldi-amaierako kanbio-tasa aplikatzen da.
- ii) Sarrerak eta gastuak eta altxortegiko fluxuak bihurtzeko, ekitaldiko batez besteko kanbio-tasak aplikatzen dira.
- iii) Ondare garbia kanbio-tasa historikoekin bihurtzen da.

Jarduneko diru moduan euroa erabiltzen ez duten erakunde partaidetuen urteko kontuak bihurtzerakoan sortutako kanbio-aldeak "Ondare garbi bateratua balioztatzeagatiko doikuntzak" epigrafean erregistratzen dira.

Erakunde partaidetuek ohiko jardueran erabiltzen dituzten dibisen artean bat bera ere ez da oso ekonomia inflazionistakotzat jo, gai horren inguruan ezarrita dauden irizpideen arabera. Beraz, 2015eko eta 2014ko ekitaldien kontabilitate-itxieran ez da beharrezkoa izan erakunde partaidetuetan finantzetako egoera-orriak doitzea, inflazioaren eraginak zuzentzeko.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

j) Sarrerak eta gastuak erregistratzea

Interesen eta antzeko kontzeptuen ondoriozko sarrerak eta gastuak sortzapen-epearen arabera eta interes-tasa efektiboaren metodoaren bidez erregistratzen dira, oro har, kontabilitatean. Beste erakunde batzuetatik jasotako dibidenduak sarrera gisa jasotzen dira, horiek eskuratzeko eskubidea sortzen den unean.

Finantza-zerbitzuengatik ordaindutako eta kobratutako komisioak, kontratuan duten izendapena gorabehera, honela sailkatzen dira, eta sailkapen horren arabera egotziko zaizkio galdu-irabazien kontu bateratuari:

- i) Finantza-komisioak: finantza-eragiketen errendimendu edo kostu efektiboaren barruan sartzen dira, eta kostu edo errendimendu efektibo horri egindako doikuntza gisa galdu-irabazien kontu bateratuari egozten zaizkio, eragiketari kalkulatu zaion bizitzan zehar. Aktiboko produktuen irekiera-komisioak, kredituetan gainditutako gaineko komisioak eta pasiboko kontuen zorpeko-komisioak nabarmendu daitezke horien artean. 2015ean, 8.418 mila euroko finantza-komisioak sortu dira (2014an, 7.088 mila eurokoak).

Aurreko paragrafoan adierazitakoaren haritik, ekitaldi bakoitzeko eragiketen finantza-komisioak geroratu egiten dira, eragiketen zuzeneko kostuak konpentsatzeko ez direnean. Formalizatutako eragiketen zuzeneko kostuak konpentsatzeko 2015eko eta 2014ko ekitaldietan emaitzetara egotzitako komisioen zenbatekoa galdu-irabazien kontu bateratuko "Beste ustiapen-produktu batzuk" epigrafean sartzen da (54. oharra).

- ii) Komisio ez-finantzarioak: zerbitzuak ematearen ondoriozkoak dira, eta epealdi jakin batean ematen den zerbitzuaren burutzapenean eta egintza berezi batean gauzatzen den zerbitzuan sor daitezke (ikus 50. eta 51. oharra).

Komisioen eta antzeko zerbitzu-sarien ondoriozko sarrerak eta gastuak galdu-irabazien kontu bateratuan jasotzen dira, oro har, irizpide hauei jarraiki:

- i) Galdu-irabazietan aldaketak dituzten eta arrazoizko balioan balioztatu diren finantza-aktibo eta -pasiboekin zerikusia dutenak, kobratzean erregistratzen dira.
- ii) Epealdi batean egiten diren transakzio edo zerbitzuei dagozkienak transakzio edo zerbitzu horien epealdian erregistratzen dira.
- iii) Egintza berezietan exekututzen diren transakzio edo zerbitzuei dagozkienak horiek sortu dituen egintza gertatzen denean erregistratzen dira.

Sarrera eta gastu ez-finantzarioak sortzapen-printzipioaren arabera jasotzen dira kontabilitatean. Urte betetik gora atzeratutako kobrantza eta ordainketak kontabilitatean erregistratzeko, aurreikusitako eskudiru-fluxuak merkatu-tasekin eguneratzearen ondoriozko kopuruak hartzen dira kontuan.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

k) Saldoak konpentsatzea

Kontratuaren edo Legezko Arau baten ondorioz konpentsatzeko aukera duten transakzioen saldo zordun eta hartzekodunak zenbateko garbiarekin jasotzen dira balantze bateratuan, baldin eta horiek zenbateko garbiarekin likidatzeko edo aldi berean aktiboa egin eta pasiboa ordaintzeko asmoa badago.

l) Finantza-bermeak

Finantza-bermedun kontratuetan, jaulkitzaileak honako konpromiso hau hartzen du hartzekodunarekin: zordun jakin batek ordaintzeko betebeharra betetzeari uzten badio, kasuan kasuko zor-tresnaren jatorrizko baldintzetan edo baldintza eraldatuetan hitzartutakoa hautsiz, jaulkitzaileak ordainketa jakin batzuk egingo dizkio hartzekodunari galerak konpentsatzeko. Zor-tresnaren forma juridikoa edonolakoa izan daiteke: besteak beste, fidantza, finantza-abala, aseguru-kontratua edo kredituaren deribatua.

Finantza-bermedun kontratuen erakunde jaulkitzaileek “Beste finantza-pasibo batzuk” partidari jaso behar dituzte horrelakoak. Bertan, arrazoizko balioa gehi jaulkipenari zuzenean dagozkion transakzio-kostuak zehaztu behar dira, aseguru-entitateek egindako kontratuetan izan ezik.

Hasieran, kontrako ebidentziarik egon ezean, loturarik ez duen hirugarren baten alde, eragiketa isolatu batean eta erabateko independentziaz jaulkitako finantza-bermeko kontratuen arrazoizko balioa hau da: jasotako hobaria gehi, dagokionean, jaso beharreko eskudiru-fluxuen egungo balioa, Entitateak antzeko epearekin eta arriskuarekin emandako finantza-aktiboaren interes-tasa bertsua erabiliz. Era berean, etorkizunean hartuko diren eskudiru-fluxuen balio eguneratua aktiboaren kreditutzat hartuko da, lehen aipatutako interes-tasa erabiliz.

Hasierako aitortpenaren ondoren, kontratuak irizpide hauen arabera erregistratzen dira:

- i) Finantza-bermeen ondorioz jaso beharreko komisio edo primen balioa eguneratzeko, aldeak galdu-irabazien kontu bateratuan adierazten dira finantza-sarrerara gisa.
- ii) Zalantzak ez diren finantza-bermedun kontratuen balioa honela kalkulatu da: pasiboan hasieran zehaztutako zenbatekoaren eta bermearentzat aurreikusitako bizitzan zehar galdu-irabazien kontu bateratuan linealki jasotako zenbatekoaren arteko kenketa eginez. Ildo horretan, linealki jasotako zenbatekoaren ordez beste irizpide bat ere erabil daiteke, bermearen ekonomia-efektuak eta -arriskuak zehatzago islatzeko balio badu behintzat.

Finantza-bermedun kontratuak zalantzakotzat hartzen direnean, birsailkatu eta “Arrisku eta konpromiso kontingenteetarako zuzkidurak” atalean sartu behar dira nahitaez. Balioztapenari dagokionez, aurreko 13.h oharrean adierazitakoa aplikatzen da.

m) Errentamenduak

Eragiketaren ekonomia-fondoaren arabera aurkezten dira errentamendu-kontratuak, edozein egitura juridiko dutelarik ere, eta finantza- edo eragiketa-errentamendu gisa sailkatzen dira hasieratik.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

- i) Kontratuko aktiboaren jabetzari atxikitako arrisku eta mozkinen funtsezko transferentzia egiten denean hartzen dira errentamenduak finantza-errentamendutzat.

Taldeak ondasunak errentan ematen dituenean, errentariak emango dizkion zenbatekoen egungo balioen eta bermatutako hondar-balioaren arteko batura hirugarrenei emandako finantzaketa gisa erregistratzen da, eta, beraz, balantze bateratuko "Kreditu-inbertsioak" epigrafean sartzen da, errentariaren izaeraren arabera. Bermatutako hondar-balioa kontratua amaitzen denean errentariak erosteko aukera erabiltzearen prezioa izan ohi da.

Bestalde, Taldeak errentari gisa diharduenean, errentan hartutako aktiboen kostua erregistratzen da balantze bateratuan, kontratuko ondasunaren izaeraren arabera. Aldi berean, zenbateko bereko pasiboa jasotzen da egoera-balantzean. Idazpena egiteko, errentan hartutako ondasunaren arrazoizko balioaren, eta errentatzaileari ordaindu beharreko kopuruaren egungo balioen batura, gehi, behar denean, erosteko aukera erabiltzearen prezioaren arteko kopururik txikiena hartzen da. Erabilera propioko aktibo materialetan aplikatzen direnen antzeko irizpidez amortizatzen dira aktibo horiek.

Jatorria kontratu horietan duten finantza-sarrerak eta -gastuak galdu-irabazien kontu bateratuan ordaindu eta kargatzen dira hurrenez hurren, kontratuen bizitzan zehar errendimendua konstantea izateko moduan.

- ii) Finantza-errentamendutzat hartzen ez diren errentamendu-kontratuak eragiketa-errentamendu gisa sailkatzen dira.

Taldea denean errentatzailea, errentan emandako ondasunen eskurapen-kostua "Aktibo materiala" epigrafean erregistratzen da. Erabilera propioko antzeko aktibo materialetan erabiltzen diren politiken arabera amortizatzen dira horiek, eta errentamendu-kontratuen ondoriozko sarrerak linealki jasotzen dira galdu-irabazien kontu bateratuan.

Beste alde batetik, Taldeak errentari jarduten duenean, galdu-irabazien kontu bateratuan jasotzen dira errentamendu-gastuak gehi, behar denean, errentatzaileak emandako pizgarriak.

- n) Kudeatutako ondareak

Taldeak kudeatzen dituen hirugarrenen jabetzako ondareak ez dira balantzean sartzen. Jarduera honek emandako komisiok galdu-irabazien kontu bateratuko "Jasotako komisiok" epigrafean erregistratzen dira (50. oharra).

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

ñ) Taldeak kudeatutako inbertsio-fondoak eta pentsio-fondoak

Taldeak kudeatutako inbertsio-fondoak, pentsio-fondoak eta BGAEak ez dira balantze bateratuan erregistratuta aurkezten, horietako ondarea hirugarren batzuen delako (65. oharra). Taldeak fondo horiei emandako zerbitzuen —ondareak kudeatzeko zerbitzuak, zorroen gordailuak...— ondoriozko ekitaldiko komisioak galdu-irabazien kontu bateratuko "Jasotako komisioak" epigrafean erregistratzen dira (50. oharra).

o) Pertsonal-gastuak eta enplegu ondoko ordainketak

Enplegu-epea bukatutakoan likidatzen diren langile-ordainsariei esaten zaie enplegu ondoko ordainketa. Enplegu ondoko ordainketak, pentsioen barruko nahiz kanpoko fondoez estalitakoek ere bai, ekarpen-plan mugatu edo prestazio-plan mugatu gisa sailkatzen dira, obligazioen baldintzen arabera. Hartutako konpromiso guztiak hartzen dira kontuan, langileekin formalki hitzartutakoaren barruan nahiz kanpoan hartuak.

Enplegu ondoko ordainketak honela jasotzen dira:

- i) Galdu-irabazien kontu bateratuan: langileek emandako zerbitzuaren kostua (ekitaldi horretakoa nahiz aurreko ekitaldietakoa baina beraietan aitortu gabea), horniduraren (aktiboaren) gaineko interes gordina eta likidatzeko unean gertatzen den irabazia edo galera.
- ii) Ondare garbi bateratuko aldaketen egoera-orrian: irabazi edo galera aktuariaren ondorioz horniduraren (aktiboaren) gaineko interes garbian sartu ez diren planaren aktiboaren errendimenduaren ondorioz egin diren horniduraren (aktiboaren) balioztapen berriak, eta Taldearentzat erabilgarri dauden fluxuen balioan izandako aldaketen ondorioz egungo balioak izan dituen aldaketak, baldin eta horniduraren (aktiboaren) gaineko interes garbian sartuta ez badaude. Ondare garbiko aldaketen egoera-orrian aitortutako zenbatekoak ez dira hurrengo ekitaldi bateko galdu-irabazien kontu bateratuan birsailkatzen.

Horrela, prestazio-plan mugatuak galdu-irabazien kontu bateratuan jasotzen dira, irizpide hauei jarraiki:

- a) Indarrean dagoen aldiko zerbitzuen kostua, pertsonal-gastutzat.
- b) Horniduraren gaineko interes garbia, interes eta antzeko zamatzat.
- c) Aktiboaren gaineko interes garbia, interes edo antzeko errendimendutzat.
- d) Iragandako zerbitzuen kostua, hornikuntzetarako zuzkiduratzat (garbitzat).

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Plantillak Dinamizatzeko II. Plana

Salbuesenez, Caja Laboralak eta Ipar Kutxak bat egitearen ondorioz —ikus 1. oharra—, Entitate Nagusiak Plantillak Dinamizatzeko II. Plana formalizatu zuen, 2012ko ekitaldian. Plan hori lehengo Caja Laboralaren Kontseilu Errektoreak onartu zuen eta lehengo Caja Laboralaren lan-bazkideen kolektibo zehatz bati zuzenduta zegoen. 2013ko urtarrilaren 1ean hasi zen eta 2018ko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean. Aurreko plana bezala, berri hau ere borondatezkoa da, eta helburu duen taldean aplikatuko da soilik. Horretarako, bazkide langileak idatziz jakinarazi behar du planean sartzeko gogoia.

Hona hemen plan berriaren ezaugarri nagusiak:

- i) 1953an eta 1954an jaiotako bazkideei aukera ematen zaie, 60 edo 61 urte betetakoan jarduera uzten dutenean kontraprestazio edo laguntza ekonomiko bat jasotzeko, kontratua sinatzerakoan hautatu duten aukeraren arabera. 1955ean jaiotakoek ere izango dute modalitate hori aukeratzeko aukera. Dena den, horretarako, jarduera 60 urterekin utzi beharko dute, hau da, bazkide horiek ezin izango dira 61 urterekin erretiratu.
- ii) 1953 eta 1957 bitartean jaio diren eta 2013ko urtarrilaren 1etik 4ra bitartean izena eman duten bazkideei aukera emango zaie lan-baldintza berezi batzuk eskuratzeko eta kontraprestazio edo laguntza ekonomiko bat jasotzeko, bazkideak zerbitzu emateari uzten dion egunera arte.

2015eko eta 2014ko ekitaldien amaieran sortutako betebeharra balantze bateratuko "Hornidurak - Pentsio-fondoak eta antzeko betebeharrak" epigrafean dago jasota (38. oharra).

Kaleratzearen ondoriozko kalte-ordainak

Indarrean dagoen legeriaren arabera, bidezko arrazoirik gabe kaleratzen diren enplegatuei kalte-ordaina eman behar die Taldeak. Pertsonala murrizteko asmorik ez dagoenez, ez da beharrezkoa horretarako zuzkidurarik sortzea.

- p) Mozkinen gaineko zerga

Sozietateen gaineko zerga gastutzat hartzen da, eta galdu-irabazien kontu bateratuko "Mozkinen gaineko zerga" epigrafean erregistratzen da.

Ordaindu behar den zergak mugatzen du "Mozkinen gaineko zerga" epigrafeko gastua. Hori kalkulatzeko, ekitaldiko zerga-oinarria hartzen da kontuan, ekitaldi horretan denbora-aldeek, dedukzioen eta hobarien ondoriozko kredituek eta zerga-oinarri negatiboek eragindako gorabeherak aintzat hartu ondoren. Gerta liteke ekitaldiko zerga-oinarria ez bat etortzea galdu-irabazien kontu bateratuan aurkeztutako emaitza garbi bateratuarekin. Izan ere, beste ekitaldi batzuetan kargatzekoak edo deduzitzekoak diren partidak eta kargatzen eta deduzitzen ez diren partidak kanpoan uzten ditu.

Finantzetako egoera-orrietako aktiboen eta pasiboen kontabilitateko zenbatekoen eta horien zerga-oinarrien arteko aldeetatik ordaindu edo berreskuratzea espero diren zergak sartzen dira zerga geroratuen ondoriozko aktiboetan eta pasiboetan. Balantze bateratuan kontabilizatzen dira pasiboaren metodoa erabiliz, eta berreskuratu edo likidatzea espero den karga-tasari dagokion denbora-aldea edo kreditua aplikatuz kuantifikatzen dira.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Zerga geroratuaren ondoriozko aktiboa, aurreratutako zerga, dedukzioen eta hobariaren ondoriozko kreditua eta zerga-oinarri negatiboen ondoriozko kreditua aitortzeko, horiek efektibo egiteko adina irabazi fiskal lortzeko itxaropena izan behar du Taldeak. Esan dezakegu Taldeak etorkizunean behar adina irabazi fiskal lortzeko itxaropena izango duela kasu hauetan:

- i) Dauden zerga geroratuaren ondoriozko pasiboak kita daitezkeenean, zerga geroratuaren ondoriozko aktiboa gauzatu den ekitaldian bertan edo aurreratutako zenbatekoak eragindako zerga-oinarri negatiboa konpentsatzeko aukera ematen dion beste ekitaldi batean.
- ii) Zerga-oinarri negatiboak sortu dituzten arrazoiak nekez errepikatzeak direnean.

Aurrekoa gorabehera, erakunde mendeko, taldeaniztun eta elkartuetako inbertsioen kontabilitate-erregistroan sortzen den zerga geroratuaren ondoriozko aktiboa aitortuko da, baldin eta hori etorkizunean gauzatzeko asmoa badago, eta etorkizunean behar adina irabazi fiskal izateko itxaropena badago, aktibo hori efektibo egiteko. Hasieran negozio-konbinazioa ez den ondare-elementu bat erregistratzen denean ere ez da aitortzen, baldin eta aitortenaren unean emaitza kontableari eta fiskalari eragin ez badio.

Zerga geroratuaren ondoriozko pasiboak beti jasotzen dira kontabilitatean, merkataritza-fondo bat aitortzen denean edo pasibook mendekoak, taldeaniztunak edo elkartuak diren erakundearen inbertsioak kontabilizatzean sortzen direnean izan ezik. Baldintza da, Taldea gai izatea denbora-aldearen lehengoratzeko-unea kontrolatzeko eta alde hori ez lehengoratzea aurreikusteko moduko etorkizunean. Hasieran negozio-konbinazioa ez den ondare-elementu bat erregistratzen denean ere ez da aitortzen zerga geroratuaren ondoriozko pasiboa, baldin eta aitortenaren unean emaitza kontableari eta fiskalari eragin ez badio.

Kontabilitate-itxiera bakoitzean, erregistratutako zerga geroratu aktibo eta pasiboak berrikusten dira, indarrean dauden ikusteko eta beharrezko zuzenketak egiteko.

q) Aktibo materiala

Erabilera propioko aktibo materialean sartzen dira, batetik, Taldeak erabilera jarraitua emango diola uste den ibilgetu materiala eta, bestetik, finantza-errentamenduaren bidez eskuratzen den ibilgetu materiala. Eskurapen-kostuaren arabera balioztatzen da, baina kenketa batzuk eginda: lehenengo, metatutako amortizazioa kentzen zaio, eta, gero, behar denean, elementu bakoitzaren balio garbia eta berreskuratu daitekeen zenbatekoa alderatzeetik ateratzen den narriaduragatiko galera. Erabilera propioko eta libreko aktibo materialeko elementu batzuen eskurapen-kostua horiek 2004ko urtarrilaren 1ean arrazoizko balioan balioztatuta ateratzen da, 4/2004 Zirkularraren Lehen Xedapen Iragankorrean ezarritakoari jarraiki. 2004ko urtarrilaren 1eko arrazoizko balio hori aditu independenteek egindako tasazioetan oinarrituta lortu da.

Esleitutako aktiboen kasuan, horien esleipenaren truke emandako finantza-aktiboen zenbateko garbia da eskurapen-kostua.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Amortizazioak metodo lineala erabiliz kalkulatzen dira. Elementuen erabilera-bizitzako urteak aplikatzen zaizkio aktiboen eskurapen-kostuari, eta, gero, hondar-balioa kendu. Eraikinak eta bestelako eraikuntzak dauden lursailen kasuan, bizitza mugagabea dutela ulertzen da, eta, beraz, ez dira amortizatzen. Aktibo materiala amortizatzeko urteko zuzkidurak galdu-irabazien kontu bateratuaren kargura erregistratzen dira, eta elementu guztiei batez beste estimatzen zaizkien balio-bizitzako urteen arabera kalkulatzen dira.

	<u>Balio-bizitzako urteak</u>
Eraikinak eta urbanizazioak	33 - 50
Altzariak	7 - 10
Instalazioak	7 - 10
Makineria, ekipamendu elektronikoa eta beste batzuk	4 - 6

Kontabilitatearen itxiera bakoitzean, Taldeak azterketa egiten du ikusteko ea, barruan nahiz kanpoan, zerbaitek erakusten duen aktibo materialeko elementuen balio garbia handiagoa dela zenbateko berreskuragarria baino. Kasu horretan, elementu horren kontabilitate-balioa zenbateko berreskuragarriaraino murrizten du Taldeak, eta etorkizuneko amortizazioagatik karguak doitu egiten ditu, kontabilitate-balio berriaren eta geratzen zaion balio-bizitza berriaren arabera, baldin eta berriro kalkulatu beharra badago. Bestalde, elementu jakin baten balioa berreskuratu dela garbi dagoenean, aurreko epealdietan kontabilizatutako narriaduraren ondoriozko galeraren itzulketa erregistratzen du Taldeak, eta amortizazioagatik etorkizunearan egin beharreko karguak doitzen ditu. Elementu baten narriaduragatik galeraren itzulketa gertatzen denean, elementuaren kontabilitate-balioa ezin da handiagoa izan, aurreko ekitaldietan narriaduragatik galerak aitortu ezean izango lukeena baino.

Taldeak, ekitaldi bakoitzaren amaieran behinik behin, erabilera propioko aktibo materialeko elementuen balio-bizitza berrikusten du, horietan aldaketa esanguratsurik dagoen ikusteko. Halako aldaketarik badago, doitu egiten ditu; horretarako, dagozkion zuzketak egiten ditu, balio-bizitza berriaren arabera amortizatu behar denaren zuzkidura etorkizuneko ekitaldietako galdu-irabazien kontu bateratuan erregistratzean.

Erabilera propioko aktibo materialak zaindu eta mantentzeagatik gastuak, egiten diren ekitaldiko galdu-irabazien kontu bateratuan erregistratzen dira.

Aktibo materialeko ibilgetuetako inbertsioetan, Taldeak dituen lursail, eraikin eta beste eraikuntza batzuen balioa sartzen da, baina dagokien amortizazio metatua kenduta. Ondasun horiek alokairu bidez ustiatzeko edo salmentarekin (etorkizunearan merkatuko prezioetan izaten diren igoeren ondorioz) gainbalioa lortzeko ditu Taldeak.

Taldeak erabilera propioko aktibo materialetan erabiltzen dituen irizpide berberak aplikatzen ditu errentamendu operatiboan emandako aktiboen eskurapen-kostua aitortzeko, amortizatzeko, horien balio-bizitzak kalkulatzeko eta narriaduraren ondoriozko galderak erregistratzeko.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

r) Aktibo ukiezina

Irudi fisikorik gabeko aktibo ez-monetario identifikagarriak dira aktibo ukiezinak. Aktibo ukiezinak identifikagarriak direla esaten dugu, beste aktibo batzuegandik bereizi daitezkeenean, banaka besterendu, errentan eman edo erabili daitezkeelako, edo kontratu edo bestelako negozio juridikoren baten ondorioz sortzen direnean. Aktibo ukiezina aitortzekoan, aurreko definizioa betetzeaz gain, Taldeak horren ondorioz mozkin ekonomikoak lortzeko asmoa izan behar du, eta haren kostua modu fidagarrian kalkulatzeko aukera egon behar da.

Kostuaren arabera aitortzen dira, hasieran, aktibo ukiezinak. Eskurapeneko edo produktiko izan daiteke kostu hori. Aurrerantzean, kostu horri amortizazio metatua eta narriaduragatik galerak kentzen zaizkio, behar denean.

Merkataritza-fondoan, eskuratutako erakunde baten aktiboen etorkizuneko mozkin ekonomiko deribatuengatik Taldeak egindako ordainketa aurreratua sartzen da, baldin eta mozkinok banan-banan eta bereizita identifikatzekoak edo aitortzekoak badira. Erakundea negozio-konbinazio batean eta kostu bidezko tituluz eskuratu bada bakarrik aitortzen da fondo hori.

Erakunde taldeaniztun eta elkartuen kapitalerako partaidetzen kostuaren eta hartutako balio teoriko eta kontabilitatekoen arteko alde positiboak, lehen baterakuntza-egunean doituak, honela egozten dira.

- i) Eskuratutako erakundeen ondare-elementu jakin batzuei badagozkie, aktiboen balioa handituz edo pasiboen balioa murriztuz egozten dira, kontuan hartuta haien merkatuko balioa hurrenez hurren handiagoa edo txikiagoa den dagozkien balantzeetan dituzten kontabilitate-balio garbiak baino, eta horien kontabilitate-tratamendua Taldeko aktiboek eta pasiboek dutenaren antzekoa den.
- ii) Aktibo ukiezinei esleitzekoak badira, balantze bateratuan aitortzen dira, eskurapen-eguneko arrazoizko balioa modu fidagarrian finka badaiteke.
- iii) Egotzi ezin diren gainerako aldeak, eskudirua sortzen duen unitate espezifiko bati edo gehiagori esleitzen zaion merkataritza-fondo moduan erregistratzen dira.

Erakunde taldeaniztun eta elkartuen kapitalerako partaidetzen kostuaren eta hartutako balio teoriko eta kontabilitatekoen arteko alde negatiboak, berriz, lehen baterakuntza-egunean doituak, honela egozten dira.

- i) Eskuratutako erakundeen ondare-elementu jakin batzuei badagozkie, aktiboen balioa handituz edo pasiboen balioa murriztuz egozten dira, kontuan hartuta haien merkatuko balioa hurrenez hurren handiagoa edo txikiagoa den dagozkien egoera-balantzeetan dituzten kontabilitate-balio garbiak baino, eta horien kontabilitate-tratamendua Taldeko pasiboek edo aktiboek dutenaren antzekoa den.
- ii) Egotzi ezin diren gainerako kopuruak kapitala eskuratu den ekitaldiko galdu-irabazien kontu bateratuan erregistratzen dira.

Gainerako aktibo ukiezinek balio-bizitza mugagabea edo mugatua izan dezakete. Mugagabea dela esaten da, faktore esanguratsu guztiak aztertu ondoren erabakitzen denean, ez dagoela mugarik Taldearen alde eskudiru-fluxu garbiak sortzen jarraitzeko.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Balio-bizitza mugagabeko aktibo ukiezinak ez dira amortizatzen, baina, kontabilitate-itxiera bakoitzean, horiei geratzen zaien balio-bizitza berrikusten du Taldeak, mugagabeak izaten jarraitzen dutela ziurtatzeko edo beharrezko aldaketak egiteko. Bizitza mugatuko aktibo ukiezinak bizitza horren arabera amortizatzen dira, eta aktibo materialekoen antzerako irizpideak erabiltzen dira.

Edozein modutan ere, aktibo horientzat erregistratu den balioan narriaduragatik gertatzen diren galerak galdu-irabazien kontuan kontrapartida eginez erregistratze dira kontabilitatean. Aktibo horien narriaduragatik galerak eta, behar denean, aurreko ekitaldietan erregistratutako narriaduragatik galeren berreskuratzeak aitortzeko irizpideak aktibo materialean erabilitakoen antzekoak dira.

s) Izakinak

Izakinak aktibo ez-finantzarioak dira, eta hiru egoeratan egon daitezke: Taldeak negozioaren ohiko jardunean saltzeko prest, produkzio-, eraikuntza- edo garapen-prozesuan (saltzeko asmoz) edo produkzio-prozesuan edo zerbitzuak ematean kontsumitzeko. Izakinek, besteak beste, Taldeak higiezinaren sustapenaren jardueran saltzeko dituen lursailak eta gainerako jabetzak sartzen dira.

Kostu-balioaren, zuzeneko nahiz zeharkako gainerako kostuen eta burutzapen-balio garbiaren arteko zenbatekorik txikienarekin balioztatzen dira. Kostu-balioan, izakina erosi eta eraldatzean sortutako kostuak sartzen dira. Gainerako kostuak, berriz, izakienei egungo baldintzak eta kokapena ematean sortutakoak dira. Negozioaren ohiko jardunean izakinek duten salmenta-prezioaren estimazioa hartzen da burutzapen-balio garbitzat, betiere produkzioa amaitzeko eta salmenta egiteko behar diren zenbatekoak kenduta.

Ohi bezala trukaterik ez dagoen izakinen eta proiektu jakin batzuetarako ekoitzi eta segregatutako ondasun eta zerbitzuen kostua zehazteko, banakako kostuak bereizten dira. Gero, gainerako izakinen kosturako, lehen sarrera lehen irteera metodoa aplikatzen da.

Izakinen balioztapenagatik edozein doikuntzaren zenbatekoa, hala nola, kalteen, zaharkitzearen eta salmenta-prezioa txikitzearen ondoriozkoa, eta beste kontzeptu batzuegatiko galerak gastu moduan erregistratzen dira, narriadura edo galera gertatu den ekitaldiko galdu-irabazien kontu bateratuan. Ondorengo balio-berreskuratzeak, ostera, gertatzen diren ekitaldiko galdu-irabazien kontu bateratuan aitortzen dira.

Izakinen kontabilitate-balioari balantze bateratuan ematen zaio baja, eta salmentaren ondoriozko sarrera aitortzen den ekitaldiko gastu-irabazien kontu bateratuan erregistratzen da gastu moduan. Gastu hori galdu-irabazien kontu bateratuko "Beste ustiapen-zama batzuk" epigrafean sartzen da.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

t) Aseguru-eragiketak

Aseguru-entitate diren mendeko erakundeek galdu-irabazien kontu bateratuan sartzen dituzte jaulkitzen dituzten primen zenbatekoak, eta galdu-irabazien kontu bateratuan kargatzen dute azken likidazioa egiten denean aurre egin behar dieten ezbeharren kostua. Bestalde, ekitaldiaren amaieran periodokatzen dira bai galdu-irabazien kontu bateratuan ordaindu diren baina egun horretan sortu gabe dauden zenbatekoak, bai galdu-irabazien kontu bateratuan kargatu ez diren kostuak, nahiz eta sortuta egon.

Ondoren, zuzeneko aseguruaren jarduerari dagozkion hornidura teknikorik esanguratsuenak azalduko ditugu:

- i) Kontsumitu gabeko primetarako hornidura teknikoak: segurtasuneko errekarua kendu ondoren etorkizuneko ekitaldiei egoztekota den tarifa duen primari dagokio.
- ii) Uneko arrisku-eragiketarako hornidura teknikoak: Kontsumitu gabeko primetarako hornidura teknikoak osatzen du, hau da, itxierako egunean oraindik geratzen den estaldura-epean estali beharreko arriskuen eta gastuen balioztapena egiteko behar adinakoa ez bada.
- iii) Prestazio-eragiketarako hornidura teknikoak: ekitaldi-itxiera baino lehen gertatutako ezbeharren ondorioz oraindik bete gabe dauden obligazioei egindako balioztapenak dira. Likidatu edo ordaindu gabe dauden ezbeharren eta aitortzeko daudenak sartzen dira hornidura tekniko horretan. Bete gabeko obligazioak kalkulatzeko, egindako konturako ordainketak kendu eta ezbeharren kanpoko eta barruko likidazio-gastuak hartzen dira kontuan. Behar denean, izapidetze luzeko ezbeharren balioztapen-desbiderapenak estaltzeko beharrezko aparteko hornidurak ere hartzen dira aintzat.
- iv) Bizi-aseguruaren hornidura teknikoak:
 - Estaldura-epea ekitaldi batekoa edo txikiagoa duten bizi-aseguruaren, kontsumitu gabeko primetarako hornidura teknikoak etorkizuneko ekitaldiei egoztekota den ekitaldian kobratutako tarifadun primari dagokio. Hornidura tekniko hori nahikoa ez denean, hori osatzeko Uneko arrisku-eragiketarako hornidura teknikoak kalkulatu behar dira; itxierako egunean oraindik geratzen den estaldura-epean estali beharreko arriskuen eta gastuen balioztapena estaltzen du.
 - Urtebetetik gorako estaldura-epea duten bizi-aseguruaren hornidura tekniko matematikoa kalkulatzeko, etorkizuneko obligazioen eta aseguruaren hartzaileren obligazioen egungo balio aktuarialaren arteko aldea ateratzen da. Ekitaldian sortutako inbentario-prima hartzen da kalkulu-oinarritzat, eta hori ateratzeko, prima garbiari administrazio-gastuetarako errekarua erantzen zaio, oinarri teknikoaren arabera.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

- Inbertsioaren arriskua aseguruaren hartzaileek bere gain hartzen duten bizi-aseguruetan, eskubideen balioa zehazteko kontuan hartu beharreko aktiboen arabera finkatzen da hornidura teknikoak.
- v) Mozkinetako partaidetzetarako eta estornuetarako hornidura teknikoak: aseguruaren hartzaileek, aseguratzailerek edo onuradunek sortutako mozkinen eta aseguruaren hartzaileei itzuli beharreko primen mozkinen dagokie. Hartzaileari prima horiek itzultzea, aseguraturako arriskuaren portaeraren menpe egongo da, eta partaideei banan-banan esleitu ez bazaizkie gertatuko da.
- vi) Egonkortzeko erreserbak: ekitaldi bakoitzean aseguru-adar batzuen segurtasun-errekargu espezifikoaren zenbatekoarekin zuzkitutakoari dagokio; oinarri teknikoetan ezarrita dagoen muga hartu beharko da aintzat, eta metakorra izango da.

Onartutako berraseguruaren hornidura teknikoak kalkulatzeko, zuzeneko aseguruetan aplikatzen diren antzeko irizpideak erabiltzen dira. Oro har, erakunde lagatzaileak emandako informazioa hartzen da oinarri.

Zuzeneko aseguruaren eta onartutako berraseguruaren hornidura teknikoak balantze bateratuko "Aseguru-kontratuen ondoriozko pasiboak" epigrafean sartzen dira. Dena den, ekitaldi-amaieran indarrean dauden aseguru-kontratuen ondoriozkoak ez diren etorkizuneko erreklamazioetarako hornidura teknikoak (egonkortzeko erreserba, adibidez) ez dira balantze bateratuko "Aseguru-kontratuen ondoriozko pasiboak" epigrafean jasotzen.

Taldeak berraseguru-kontratuengatik jasotzeko eskubidea duen zenbatekoak balantze bateratuko "Berraseguruaren ondoriozko aktiboak" epigrafean erregistratzen dira. Indarreko kontratuen arabera zuzeneko aseguruetarako erabilitako irizpide beren arabera zehazten dira aktibo horiek. Aktibo horiek narriatuta dauden begiratzen du Taldeak; hala bada, galera galdu-irabazien kontu bateratuan jasotzen du, zuzenean epigrafe horren kargura.

u) Hornidurak eta pasibo kontingenteak

Iraganeko gertaeren ondorioz sortutako egungo obligazioak hartzen dira horniduratzat. Horien izaera argi eta garbi zehaztuta dago finantzetako egoera-orrien egunean, baina zenbatekoa edo kitatzeko unea ez. Horiek kitatzeko, mozkin ekonomikoak ematen dituzten baliabideak besterendu beharko ditu muga-egunean Taldeak. Obligazio horiek iturri ugari izan ditzakete:

- i) Lege- edo kontratu-xedapen bat
- ii) Obligazio inplizitu edo isilbidezkoa, hirugarrenen aurrean ardura batzuk hartzeari buruz Taldeak sortutako baliozko igurikimenean jatorria duena. Igurikimenean sortzen dira, Taldeak jendaurrean hartzen dituzten ardurak, iraganeko portaeren ondorioz edo jabari publikoko enpresa-politikan oinarrituta.
- iii) Arautegiek alderdi jakin batzuetan duten bilakaera ia segurua, zehazki, Taldeak nahitaez bete behar dituen arautegi-proiektuak.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Iraganeko gertaeren ondorioz sortutako obligazio posibleak dira pasibo kontingenteak, eta Taldearen borondatearekin zerikusirik ez duten etorkizuneko gertaera bat edo gehiago gertatzearen edo ez gertatzearen menpe egoten dira. Taldearen egungo obligazioak sartzen dira pasibo kontingenteetan, hain zuzen ere, kitatuz gero mozkin ekonomikoak ematen dituzten baliabideak murriztea ekarriko ez dutenak eta behar adinako fidagarritasunez zehazteko moduko zenbatekoa dutenak, kasu oso arraroetan izan ezik.

Hornidurak eta pasibo kontingenteak probableak, posibleak eta aukera txikikoak izan daitezke. Probableak dira gertatzeko egiantz handiagoa dagoenean ez gertatzekoa baino. Posibleak dira aurrekoan baino egiantz txikiagoa dagoenean gertatzeko ez gertatzeko baino. Eta aukera txikikoak dira haiek agertzea oso arraroa denean.

Taldeak hornidura eta pasibo kontingente esanguratsu guztiak sartzen ditu urteko kontu bateratuetan, alegia, obligazioari erantzun behar izateko aukera handiagoa denean ez erantzutekoa baino. Posibleztat jotako pasibo kontingenteak ez dira urteko kontu bateratuetan jasotzen. Besterik gabe horien berri ematen da, baldin eta ez bada mozkin ekonomikoak ematen dituzten baliabideak galtzeko aukerarik ikusten.

Hornidurak kuantifikatzeko, horiek sortu dituen gertaeraren ondorioei buruzko informaziorik onena hartzen da kontuan, eta kontabilitate-itxiera guztietan balioztatzen dira. Dagozkien obligazioei aurre egiteko erabiltzen dira, eta, obligazio horiek desagertu edo txikitu egiten badira, kopuru osoa edo zati bat itzuli egiten da.

2015eko eta 2014ko abenduaren 31n, bere jardueren ohiko garapenean sortutako hainbat auziri, erantzukizuni eta obligaziori erantzun beharra izan zezakeen Taldeak. Taldeko lege-aholkularien eta administratzaileen ustetan, prozedura eta erreklamazio horiek ez dute eragin handirik izango, ez behintzat egindako hornidura baino handiagoa, mugaeguneratzen diren ekitaldietako urteko kontu bateratuetan.

v) Korronteak ez diren aktiboak salgai eta Korronteak ez diren eta salgai dauden aktiboek lotutako pasiboak

Balantze bateratuko “Korronteak ez diren aktiboak salgai” epigrafean era guztietako aktiboak sartu dira, honako hauek izan ezik: ustiapen-jardueretatik kanpo daudelarik aurreikuspenen arabera urtebeteko gauzatze- edo berreskuratze-epea dutenak, epigrafe honetan sailkatu zirenetik.

Salbuespenez aurreikusitako salmenta-epea urtebetetik gorakoa bada, Taldeak balio eguneratua erabiliko du salmenta-kostua finkatzeko. Balioak denboran zehar izandako gorakada galdu-irabazien kontu bateratuko “Etendako eragiketa moduan sailkatu ez diren, korronteak ez diren eta salgai dauden aktiboen irabaziak (galerak)” epigrafean jasotzen da.

Hortaz, besterentzen direnean jasotzen den diruarekin berreskuratuko da, seguruenik, partida horien kontabilitate-balioa. Partidok izaera finantzariokoak eta ez-finantzariokoak izan daitezke.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Beraz, zordunek Taldeari zor osoak edo horien zati bat ordaintzeko emandako aktibo higiezinak edo korronteak ez diren beste aktibo batzuk, korronteak ez diren eta salgai dauden aktibotzat hartzen dira, baldin eta Taldeak horiek etengabe erabiltzea erabaki ez badu.

Bestalde, Korronteak ez diren eta salgai dauden aktiboei lotutako pasiboak epigrafean, Taldeko erabilera-taldeekin edo etendako eragiketekin zerikusia duten saldo hartzekodunak sartzen dira.

“Korronteak ez diren aktiboak salgai” epigrafeko aktiboak aitortzeko, oro har, kopururik txikiena hartzen da, aitortzen diren unean duten kontabilitate-balioaren eta arrazoizko balioaren artean; azken horri, baina, aktibooi estimatu zaizkien salmenta-kostuak kentzen zaizkio, finantza-izaerakoak salbu, horiek 13.e.ix oharrean ezarritakoaren arabera balioztatzen dira eta. “Korronteak ez diren aktiboak salgai” epigrafean sailkatzen diren bitartean, izaeraz amortizagarriak diren aktibo material eta ez-materialak ez dira amortizatzen.

Erabilitako egitura juridikoa gorabehera, zorrak ordaintzeko esleitu edo jasotako aktibo higiezinak erregistratzeko, bi hauen artean kopuru txikiena duena hartuko da aintzat: 1) aplikatutako finantzetako aktiboen kontabilitate-balioa, hau da, amortizatutako kostua, balioetsitako narriadura kontuan hartuta (gutxienez % 10) eta 2) jasotako aktiboak egun duen tasazio-balioa salmentarako balioesten zaizkion kostuak kenduta —egun duen tasazio-balioaren % 10ekoak izango dira gutxienez—.

Prozesuko gastu guztiak esleipen-epealdiko galdu-irabazien kontuan aitortzen dira, berehala. Erregistroko gastuak eta likidatutako zergak hasieran aitortutako balioari erantsi ahal izango zaizkio, baldin eta batura tasazio-balioari aurreko paragrafoan azaldutako salmentarako balioetsitako kostuak kendu ostean atzeratzen den kopurua baino handiagoa ez bada.

Kontabilitate-balioa handiagoa bada arrazoizko balioa baino (salmenta-kostuak kendu ondoren), Taldeak doikuntza egiten du aktiboen kontabilitate-balioan. Horrela, bada, sobera hori galdu-irabazien kontu bateratuko “Etendako eragiketa moduan sailkatu ez diren, korronteak ez diren eta salgai dauden aktiboen irabaziak (galerak)” epigrafean kontrapartida eginez jasotzen da. Aktiboen arrazoizko balioa hazi egiten bada aurrerago, Taldeak itzuli egiten ditu aurrez kontabilizatuta dituen galerak, eta aktiboen kontabilitate-balioa handitzen du, narriatu aurreko zenbatekoaren mugarekin eta galdu-irabazien kontu bateratuko “Etendako eragiketa moduan sailkatu ez diren, korronteak ez diren eta salgai dauden aktiboen irabaziak (galerak)” epigrafean kontrapartida eginez.

Etendako eragiketatzat hartzen diren Taldeko osagaiak ekitaldian zehar sorrarazitako emaitzak galdu-irabazien kontu bateratuko “Etendako eragiketen emaitzak (garbiak)” atalean jasotzen dira, Entitatearen osagaia jadanik aktibotik kanpo egon ala ez egon (ekitaldiaren bukaeran bertan jarraitzen badu). Etendako eragiketatzat hartu ondoren, eragiketa jarraitutzat hartzea erabakiz gero sarrerak eta gastuak, unean uneko galdu-irabazien kontu bateratuan ez ezik, urteko kontuetan argitaratutako ekitaldi konparatiboan ere jasotzen dira, kasuan kasuko ezaugarrien arabera dagozkien partidetan.

Esleitutako higiezinaren narriaduraren ondoriozko galerak zenbatesteko, arrazoizko balioa ken salmenta-kostuak eta kontabilitate-balioa hartzen dira aintzat, besteak beste. Arrazoizko balioa kalkulatzeko, Espainiako Bankuaren erregistro berezian inskribatutako sozietate tasatzaileek egindako tasazioak erabiltzen ditu Entitateak.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

w) Eskudiru-fluxuen egoera-orri bateratua

Eskudiru-fluxuen egoera-orri bateratuan erabiltzen diren kontzeptuak honela definitzen dira:

- i) Eskudiru-fluxuak: eskudiruaren eta antzekoen sarrerak eta irteerak. Likidezia handia eta balio-aldaketak izateko arrisku txikia duten epe laburrerako inbertsioak sartzen dira eta antzekoak sartzen dira.
- ii) Ustiapen-jarduerak: Taldearen ohiko jarduerak eta inbertsio edo finantzaketak hartu ezin diren beste jarduera batzuk, eta jasotako edozein finantzaketarengatik ordaindutako interesak, finantzaketa-jardueratzat sailkatutako finantza-pasiboak egokitu arren.
- iii) Inbertsio-jarduerak: beste bitarteko batzuek epe luzerako aktiboak eta eskudiruan eta antzekoetan sartu ez diren beste inbertsio batzuk eskuratu, besterendu edo erabiltzearenak. Honako hauek sartzen dira: aktibo materialak, aktibo ukiezinak, partaidetzak, korronteak ez diren aktiboak eta salgai dauden lotutako pasiboak, inbertsio estrategikoak diren eta saltzeko gertu dauden kapital-tresnak eta muga-egunean inbertsio-zorroan sartutako finantza-aktiboak.
- iv) Finantzaketa-jarduerak: ondare garbi bateratuaren eta ustiapen-jardueretan sartzen ez diren pasiboan tamainan eta osaeran aldaketak eragiten dituzten jarduerak.

Taldeak eskudiru eta parekotzat hartzen ditu balantze bateratuko "Kutxa eta banku zentraletako gordailuak" epigrafean sartutako saldoak.

x) Heziketako, Prestakuntzako eta Kooperatiba Sustapeneko Fondoa (HSF)

Heziketako eta Sustapeneko Fondoa balantze bateratuko "Gizarte Ekintzako Fondoa" epigrafean erregistratzen dira.

Kooperatiben Legearen eta Entitate Nagusiaren estatutuen arabera fondo horretara nahitaez egiten diren zuzkidurak ekitaldiko gastu gisa jasotzen dira, nahiz eta kuantifikazioa egiteko ekitaldiko emaitza hartzen den oinarri. Beharraren arabera zuzkitzen diren zenbatekoak ekitaldiko emaitzaren aplikazio gisa aitortuko dira.

Legeari jarraiki Heziketako eta Kooperatiba Sustapeneko Fondoari lotuta dauden diru-laguntzak, dohaintzak eta gainerako laguntzak, eta kooperatibak bazkideei ezarritako zigor ekonomikoen ondoriozko fondoak, arautegiaren arabera fondo horri lotuta badaude, kooperatibaren sarreratzat hartuko dira, eta fondo horretan sartuko dira.

Heziketako, Prestakuntzako eta Kooperatiba Sustapeneko Fondoa dagokion helbururako erabiltzen denean, baja emango zaio eta, normalean, altxortegiko kontuetan egingo da ordainketa. Bestalde, aplikazioa kreditu-erakundearen ohiko jardueren bidez gauzatzen bada, Heziketako, Prestakuntzako eta Kooperatiba Sustapeneko Fondoari dagokion zenbatekoa kenduko zaio eta kreditu-kooperatibaren galdu-irabazien kontuan sartuko da, jarduera horietarako merkatuan ohikoak diren baldintzen arabera.

Heziketako eta Sustapeneko Fondoari loturiko ibilgetu materiala "Aktibo materialak" epigrafean agertzen da. Horren zenbatekoa zehazteko, eskurapen-kostu eguneratua — aurreko r ataleko arauen arabera — hartu da, eta metatutako amortizazioak kendu zaizkio.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Ibilgetuko elementuen amortizazioa, kostu-balioen edo kostu eguneratuaren gainean egiten da, elementu-talde bakoitzari estimatu zaion balio-bizitzan zehar metodo lineala erabiliz eta aurreko q atalean agertzen diren koefizienteak erabiliz.

- y) Ondare garbiko aldaketen egoera-orri bateratua eta onartutako sarrerren eta gastuen egoera-orri bateratua

Urteko kontu bateratu hauetan aurkeztu ditugun egoera-orri horiek ekitaldian zehar ondare garbi bateratuak izan dituen aldaketen berri ematen dute. Segidan, bi egoera-orriotako informazioaren ezaugarri nagusiak zehaztuko ditugu:

- i) Onartutako sarrera eta gastuen egoera-orria bateratua

Egoera-orri honetan, Taldeak ekitaldian zehar bere jarduerarekin sortutako sarrera eta gastuak aurkezten dira, baina bereizita: batetik, ekitaldiko galdu-irabazien kontu bateratuan emaitza moduan erregistratutakoak eta, bestetik, indarreko arautegian xedatutakoari jarraiki zuzenean ondare garbian erregistratutako gainerako sarrera eta gastuak.

Hortaz, egoera-orri horretan hauek aurkeztu ditugu:

- a) Ekitaldiko emaitza bateratua.
- b) Ondare garbi bateratuan aldi baterako balioztapenagatiko doikuntza moduan aitortutako sarrerren eta gastuen zenbateko garbia.
- c) Ondare garbi bateratuan behin betiko aitortutako sarrerren eta gastuen zenbateko garbia.
- d) Aurreko b) eta c) literaletan adierazitako kontzeptuengatik sortutako mozkinen gaineko zerga.
- e) Onartutako sarrera eta gastua guztiak, aurreko puntuak batuta kalkulatuta.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Ondare garbi bateratuan balioztapenagatiko doikuntza moduan aitortutako sarreretan eta gastuetan egondako aldaketak honela banakatzen dira:

- a) Balioztapenagatiko irabaziak (galerak): zuzenean ondare garbi bateratuan aitortutako sarreren zenbatekoa biltzen du, baina ekitaldian sortutako gastuak kenduta. Ekitaldian partida honetan aitortutako zenbatekoei bertan eutsiko zaie, nahiz eta ekitaldi horretan galdu-irabazien kontu bateratura intsuldatu, beste partida batean birsailkatzen diren aktibo nahiz pasiboen hasierako balioan.
- b) Galdu-irabazien kontura transferitutako zenbatekoak: aurretik —ekitaldian bertan izan daiteke— ondare garbi bateratuan aitortutako balioztapenagatiko irabazien edo galeren zenbatekoa biltzen du; horiek galdu-irabazien kontu bateratuan onartzen dira.
- c) Estalitako partiden hasierako baliora transferitutako zenbatekoa: aurretik —ekitaldian bertan izan daiteke— ondare garbian aitortutako balioztapenagatiko irabazien edo galeren zenbatekoa biltzen du, baldin eta eskudiru-fluxuen estalduraren ondorioz aktiboen edo pasiboen hasierako balioan aitortzen badira.
- d) Beste birsailkapen batzuk: balioztapenagatiko doikuntzako partiden artean ekitaldian egindako intsuldaketen zenbatekoa biltzen du, indarreko arautegian ezarritako irizpideei jarraiki.

Partida horietako zenbatekoak gordinak dira, eta horien zerga-eragina egoera-orriko “Mozkinen gaineko zerga” ataletan jaso da.

ii) Ondare garbi bateratuko aldaketen egoera-orria guztira

Egoera-orri honetan, ondare garbi bateratuan izandako mugimendu guztiak aurkezten dira, kontabilitate-irizpideen aldaketetan eta errore-zuzenketetan jatorria dutenak barne hartuta. Hortaz, ekitaldiaren hasieran eta amaieran ondare garbi bateratua osatzen duten partida guztien kontabilitate-balioaren berdinkatzea jaso da egoera-orri honetan. Mugimenduak izaeraren arabera multzokatu dira partida hauetan:

- a) Kontabilitate-irizpideak aldatzearen ondoriozko doikuntzak eta errengatiko doikuntzak: kontabilitate-irizpideen aldaketetan eta errore-zuzenketetan jatorria duten finantzetako egoera-orrietako saldoak atzeraeraginez berriro ematearen ondorioz ondare garbi bateratuan gertatutako aldaketak hartzen ditu barne.
- b) Ekitaldian onartutako sarrerak eta gastuak: lehenago adierazi dugun “Onartutako sarreren eta gastuen egoera-orri bateratu”an erregistratutako partida guztiak biltzen ditu.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

- c) Ondare garbiko beste aldakuntza batzuk: ondare garbi bateratuan erregistratutako gainerako partidak biltzen ditu, hala nola, kapitalaren gehikuntzak edo murrizketak, emaitzen banaketa, norberaren kapital-tresnez egindako eragiketak, kapital-tresnen bidezko ordainketak, ondare garbi bateratuko partiden arteko intsuldaketak eta ondare garbiko beste edozein gehikuntza edo murrizketa.

aa) Negozio-konbinazioak

Entitate edo batasun ekonomiko bi edo gehiago entitate edo sozietate talde bakarrean bateratzen dituen eragiketari esaten zaio negozio-konbinazioa.

Negozio-konbinazioaren ondorioz entitate bakarra sortzen denean eta bateratutako entitate bi edo gehiagoren bazkideei partaidetzak jaulkitzen zaizkienean, aurretik zegoen entitateetako bat eskuratzaille moduan hartuko da eta entitate batek beste bat eskuratzen duenean moduan kontabilizatuko da transakzioa.

Negozio-konbinazioak kontabilizatzeko, eskurapen-metodoa aplikatzen du Taldeak. Beste sozietate bat eskuratzegatik transferitzen den kontraprestazioa honako hauei dagokie: transferitutako aktiboen arrazoizko balioari, eskuratutako erakundearen aurreko jabeekin egindako pasiboei eta Entitateak jaulkitako ondareko partaidetzei. Transferitutako kontraprestazioan, kontraprestazio kontingenteko akordio batek eragindako edozein aktiboren edo pasiboren arrazoizko balioa sartzen da. Eskuratutako aktibo identifikagarriak eta negozio-konbinazio batean onartutako pasiboak eta pasibo kontingenteak, hasiera batean, arrazoizko balioan balioztatzen dira, eskurapen-datan. Negozio-konbinazio bakoitzean, Entitateak arrazoizko balioaren arabera edo eskuratutako erakundearen aktibo garbien zenbateko aitortuetan nagusi ez den partaidetzaren zati proportzionalaren arabera balioetsi dezake eskuratutako erakundearen nagusi ez den edozein partaidetza.

Eskurapenarekin zerikusia duten kostuak dagokien ekitaldiko gastutzat hartzen dira.

Entitateak transferitu beharreko edozein kontraprestazio kontingente arrazoizko balioan jasotzen da, eskurapen-datan. Aktibotzat edo pasibotzat hartzen den kontraprestazio kontingenteari arrazoizko balioan gertatzen zaizkion aldaketak, emaitzetan jasotzen dira, edo ondare garbiaren aldaketatzat hartzen, KNA 39aren arabera. Ondare garbi bateratutzat sailkatzen den kontraprestazio kontingentea ez da berriro balioesten, eta haren ondorengo likidazioa ondare garbian kontabilizatzen da.

Merkataritza-fondoa honela balioesten da, hasiera batean: transferitutako kontraprestazioaren soberakin gisa eta nagusi ez den partaidetzak erositako aktibo identifikagarrien eta onartutako pasiboen arabera duen arrazoizko balio gisa. Kontraprestazio hori erositako mendeko erakundearen aktibo garbien arrazoizko balioa baino txikiagoa bada, aldea emaitzetan jasotzen da.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Negozio-konbinazioaren datatik aurrera, urtebeteko epea (“neurketa-epea”) ezartzen da, aitortutako behin-behineko zenbatekoak doi ditzan eskuratzailleak, negozio-konbinazioaren ondorengo lehen urteko kontu bateratuak formulatzeko unean beharrezkoak diren zenbatespenak egin ostean.

ab) Merkataritza-fondoa

Negozio-konbinazioen kostuaren eta arrazoizko balioari eskuratutako erakundeen aktibo eta pasibo kontingenteak kenduta ematen duen eskurapen-ehunekoaren arteko alde positiboak, merkataritza-fondo moduan erregistratzen dira balantze bateratuko aktiboan. Horrela, merkataritza-fondoan, eskuratutako erakunde baten aktiboen etorkizuneko mozkin ekonomiko deribatuengatik Taldeak egindako ordainketa aurreratua sartzen da, baldin eta mozkinok banan-banan eta bereizita identifikatzekoak edo aitortzekoak badira. Erakundea negozio-konbinazio batean eta kostu bidezko tituluz eskuratu bada bakarrik aitortzen da fondo hori. Merkataritza-fondo horiek ez dira amortizatzen. Kontabilitate-itxieretan, horien arrazoizko balioa erregistratutako kostu garbitik behera murriztuko duen narriaduraren bat egon den balioesten da. Baiezkoan, saneatu egiten dira, galdu-irabazien kontu bateratuaren kontra.

Merkataritza-fondoak narriadura-zantzurik duen ikusteko, balioztapenak egiten dira, banatutako mozkinen deskontuaren metodoa erabiliz, batez ere. Metodo horretan, parametro hauek hartzen dira kontuan:

- Negozioaren funtsezko hipotesiak. Hipotesi horietan oinarritzen dira balioztapenean jasotako eskudiru-fluxuen proiektzioak. Finantza-jarduera duten negozioetan hainbat aldagai proiektatzen dira, hala nola: kredituaren, berankortasunaren, bezeroen gordailuen eta interes-tasen bilakaera, aurreikusitako agertoki makroekonomiko zehatz baten eta kapital-eskakizun zehatz baten arabera.
- Aldagai makroekonomikoen zenbatespena, eta beste finantza-balore batzuk.
- Proiektzioen epea. Eskuarki, 5 urteko proiektzio-epea erabiltzen da. Hortik aurrera, etekina nahiz errentagarritasuna errepikari bihurtzen dira. Ondorio horietarako, balioztapena egiteko uneko agertoki ekonomikoa hartzen da kontuan.
- Deskontu-tasa. Etorkizuneko dibidenduen gaur egungo balioa, erabilera-balioa lortzeko erabiltzen dena, kalkulatzeko, entitatearen kapital-kostua (Ke) hartzen da deskontu-tasa gisa, merkatuko partaide baten ikuspegitik. Hori zehazteko, CAMP metodoa erabiltzen da, honako formula honen arabera: “ $Ke = R_f + \beta =$ sozietatearen arrisku sistemikoaren koefizientea, $R_m =$ espero den merkatu-errentagarritasuna eta $\alpha =$ arrisku ez-sistemikoagatik prima”.
- Eskudiru-fluxuen proiektzioak aurreikuspenik berriek estaltzen dituzten alditik harago estrapolatu ahal izateko erabiltzen den hazkunde-tasa. Magnitude makroekonomiko nagusien eta negozioaren funtsezko aldagaien epe luzerako zenbatespenetan oinarritzen da, eta, une oro finantza-merkatuen egoera kontuan hartuta, betiko % 1eko hazkunde-tasa zenbatesten da.

Merkataritza-fondoaren narriaduragatik galerak ez dira geroago itzultzen.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA (Mila eurokotan adierazita)

14. Bezeroen arreta

Zerbitzu honek bezeroen kontsulta, kexa eta erreklamazioei erantzutea du helburu; horretarako, hainbat bide dituzte bezeroek.

Idazkia jasotzen denetik 2 hilabeteko epe ofiziala dago erantzuteko; dena den, Taldeak ahalik eta bizkorren erantzuteko konpromisoa du hartuta, hau da, lehen aipatutako epea baino lehen.

Entitate Nagusiaren, Caja Laboral Gestión SGIIC SAre eta Caja Laboral Pensiones SAGFPren Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuaren jarduerari dagokionez, 2015ean zehar, 2.868 espediente ireki dira guztira (2014an 3.784). Horietatik, 2.753 tramitatu eta erantzun dira (2014an 3.779). Aurkeztutako kexak eta erreklamazioak baztertzeko Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuaren Arautegian jasota dauden zenbait arrazoi tarteko, 115 espediente izapidetu gabe geratu ziren (2014an beste 5).

	2015	2014
Irekitako espediente kopurua		
- Idatziak: liburuxka/gutuna	1.818	2.145
- Internet bidezkoak	927	1.178
- Telefono bidezkoak	4	5
- Erakunde publikoak: KIUB / gobernu autonomikoak	119	456
	2.868	3.784
	2.753	3.779

Izapidetutako espediente kopurua

Espedienteen izaera

- Kexak	2.054	2.875
- Erreklamazioak	434	553
- Kontsultak	14	15
- Iradokizunak	7	4
- Zorionak edo eskerrak emateko gutunak	4	6
- Hainbat eskaera	355	331
	2.868	3.784

Erreklamaturako kopuruak

	2015	2014
- Erakundearen alde ebatzitako espedienteen zenbatekoa	86	270
- Bezeroaren alde ebatzitako espedienteen zenbatekoak	157	30
. Entitateak indemnitzatutako kopuruak	156	12
. Hirugarren batzuek indemnitzatutako kopuruak	-	-
. Bezeroari itzulitako zenbatekoak, Entitateak berreskuratuak	1	18
	243	300

Espedienteak irekitzeko arrazoiari dagokionez, jarduera-esparru hauek bereiz daitezke:

	2015	2014
Baldintza ekonomikoak	% 17	% 29
Komisioak eta gastuak	% 26	% 23
Informazioa falta da edo okerra da	% 20	% 13
Bezeroentzako zerbitzuak	% 10	% 9
Bulegoak, elementu objektiboengatik	% 2	% 4
Beharren estaldura	% 3	% 3
Bezeroekin harremanak izateko elementuak	% 2	% 3
Kanpainak, oro har	% 2	% 1
Bestelakoak:	% 18	% 15
- Arintasuna eta eraginkortasuna bulegota	% 3	% 2
- Arintasuna eta eraginkortasuna kutxazainetan	% 3	% 3
- Hainbat	% 11	% 8
- Arintasuna tramitazioan	% 1	% 2
	% 100	% 100

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Erreklamaturako zenbatekoen ehunekoak, berriz, hauek dira:

	<u>2015</u>	<u>2014</u>
= < 10 €	% 0,19	% 0,24
> 10 <= 60 €	% 1,55	% 1,91
> 60 <= 100 €	% 0,56	% 0,56
> 100 <= 250 €	% 2,37	% 2,16
> 250 <= 1.000 €	% 12,68	% 7,96
> 1.000 €	% 82,65	% 87,17

Seguros Lagun Aro Vida SAREN Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuak, berriz, 22 kexa eta erreklamazio jaso ditu 2015eko ekitaldian (30 2014an), eta horietako 27 espediente izapidetu dira (2014an 32). Erreklamazio edo kexen arrazoiari dagokionez, kalte-ordainarekin eta erreskatearekin ados ez egotearen ondoriozkoak izan dira batik bat. 2015eko eta 2014ko ekitaldietan izapidetzeko irekita dauden espedienteetatik izapidetutakoaren emaitzak hauek dira:

	<u>2015</u>	<u>2014</u>
Bezeroaren aldekoak	15	10
Entitatearen alde	12	20
Bestelakoak	-	2
	<u>27</u>	<u>32</u>

Guztira, bezeroaren aldeko erreklamazio eta kexek 22.258 euroko gastua ekarri diote Entitateari 2015ean (16.722 eurokoa 2014an). 9 egunekoa izan da erreklamazio eta kexei erantzuteko batez besteko epea (10 egunekoa 2014an).

Seguros Lagun Aro SAREN Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuak, berriz, 706 kexa eta erreklamazio jaso ditu 2015eko ekitaldian (693 2014an), eta horietako 688 espediente izapidetu dira (2014an 714). Erreklamazio edo kexen arrazoiari dagokionez, kalte-ordainekin, zerbitzuko atzerapenekin eta aseguruaren prezioarekin ados ez egotearen ondoriozkoak izan dira batik bat.

2015eko eta 2014ko ekitaldietan izapidetzeko irekita dauden espedienteetatik izapidetutakoaren emaitzak hauek dira:

	<u>2015</u>	<u>2014</u>
Bezeroaren aldekoak	267	308
Entitatearen alde	386	382
Bestelakoak	35	24
	<u>688</u>	<u>714</u>

Guztira, bezeroaren aldeko erreklamazio eta kexek 40.014 euroko gastua ekarri diote Taldeari 2015ean (34.945 eurokoa 2014an). 2015ean 10 egunekoa izan da erantzuteko batez besteko epea (10 egunekoa 2014an).

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Caja Laboral Bancaseguros OBSV SLUren Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuak, berriz, 9 kexa eta erreklamazio jaso ditu ekitaldian (9 2014an), eta 2015ean 12 espediente izapidetu dira (9 2014an). Erreklamazio edo kexen arrazoiari dagokionez, kalte-ordainekin, zerbitzuko atzerapenekin eta aseguruaren prezioarekin ados ez egotearen ondoriozkoak izan dira batik bat.

2015eko eta 2014ko ekitaldietan izapidetzeko irekita dauden espedienteetatik izapidetutakoen emaitzak hauek dira:

	<u>2015</u>	<u>2014</u>
Bezeroaren aldekoak	7	7
Entitatearen alde	5	2
Bestelakoak	-	-
	<u>12</u>	<u>9</u>

Guztira, bezeroaren aldeko erreklamazio eta kexek 0 euroko gastua ekarri diote Taldeari 2015ean eta 2014an. 2015ean 10 egunekoa izan da erantzuteko batez besteko epea (8 egunekoa 2014an).

15. Kreditu-arriskua

Alderdi kontrarioak Entitate Nagusiari zor dizkion guztiak edo batzuk ez ordaintzearen nahiz hitzartutako epeetatik kanpo ibiltzearen ondorioz egon daitekeen galera-arriskua da kreditu-arriskua. Kudeaketaren ikuspegitik, bi arrisku mota bereizten ditugu Laboral Kutxan: altxortegiko eta kapital-merkatuko jardueren —finantza-erakundeak eta errenta finko pribatua— ondoriozkoa eta ohiko inbertsio-jardueraren ondorioz administrazio publikoekin, partikularrekin eta enpresekin sortzen dena.

Azken arrisku horietarako, Laboral Kutxako Kontseilu Errektoreak arrisku-maila jakin bat Zuzendaritza Nagusiaren eskutan dauka utzita. Zuzendaritza Nagusiak, bere aldetik, Arriskuen Arearen esku utzi du kreditu-arriskua kudeatzeko eta kontrolatzeko eginkizuna, eta Area hori arduratuko da bulego-sarean arriskua esleitzeko mailen norainokoa ezartzeaz. Sareko berrespen-ahalmena arrisku-mailaren eta alerta-sistema baten arabera da; arriskuaren bolumena, produktu mota eta eragiketaren marjina hartzen dira kontuan.

Arriskuen Area hori zuzendari nagusiaren menpe dago, eta Arriskuen Kudeaketaren, Jarraipenaren eta Berreskurapenen Departamentua, Arriskuaren Kontrol Globalaren Departamentua eta Aholkularitza Juridikoarena biltzen ditu, eta kreditu-arriskua onartu, jarraitu eta berreskuratzeko prozesuetan efizientzia handitzea ekarri du, bai eta Entitate Nagusiaren arriskuen kontrol integralean sakontzea ere.

Alderdi horiek guztiak Laboral Kutxaren Kontseilu Errektoreak azken eguneratzea 2015eko urriaren 2an onetsi zion Arrisku-politikari buruzko eskuliburuan eta horri lotutako beste dokumentu batzuetan daude zehaztuta; hauek dira beste dokumentu horiek: Kreditu-arriskuari buruzko Eskuliburua – Laburpena eta Jardunbide egokiei buruzko Eskuliburua, etxeko eta mikroenpresen, autonomoen eta ETE-en arriskuak emateari dagokionez.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Dokumentu horietan, kreditu-arriskuak eman, kontrolatu eta jarraitzearen alorreko prozedurak zehazten dira, bai eta erabil daitezkeen eredu prediktiboen, horien aldagaien, haztapenen, arriskuen zehapenerako eskudantzia eta irizpideen, onarpen-prozesuaren eta arriskuak arindu eta murrizteko politiken azalpena ere.

Entitate Nagusiak politika, metodo eta prozedura horiei jarraipen eraginkorra egiteko ezarritako kontrol-mekanismoak Entitate Nagusian ezarri diren Arrisku Globalaren Kontrolerako Sistemetan euskarritzen dira eta Barne Ikuskaritzako Departamentuaren ikuskapen independentean oinarritu, arriskua onartzeko eta kudeatzeko sistemen kalitatea bermatuz.

Arriskuen Kudeaketaren Departamentua zorroan sartutako enpresak onartu eta horiei jarraipena egiteaz arduratzen da. Jarraipenaren eta Berreskurapenen Departamentuak, berriz, zorroan sartu gabeko enpresetako berandutze aurreko alertei lotutako protokoloak kudeatzea eta adiskidetasunezko konponketako faseko (< 75 eguneko ez-ordaintzeetako) eta auzi aurreko faseko (> 75 eguneko ez-ordaintzeetako) eragiketetan ahalik eta berreskurapen gehien lortzea du helburu. Arriskuak Kontrolatzeko Departamentuak, bere aldetik, barne-ereduak sortu eta mantentzea du zeregin, eta interes-tasen eta likideziaren inguruko egiturazko arriskuak eta merkatu- eta eragiketa-arriskuak neurtu eta kontrolatzea ere bai. Bukatzeko, Aholkularitza Juridikoa arrisku-eragiketetan aholkularitza eta estaldura dokumental juridikoa emateaz arduratzen da, hala hasierako eragiketetan, nola zorraren birfidantzamendu edo berregituratzeetan. Enpresa Sarea berreskuratzeko auzia kudeatzea eta bezeroen eta hirugarrenen erreklamazioen aurrean Entitate Nagusiari defentsa juridikoa ematea ere haren ardura da.

Eragiketen kreditu-arriskua ebaluatzeko, Laboral Kutxak bere rating- eta scoring-ereduak garatu ditu, bezeroak (rating) eta eragiketak (scoring) bakoitzaren arrisku-mailaren arabera bereizteko. Horrela, arriskuaren onarpen erreaktiborako prozesuari scoring lotesleen bidez erantzuten zaio Partikularretan. Horrekin batera, gainera, ratingean oinarritutako aurrez emandako kontsumorako mailegu proaktiboak eskaintzen dira, eta bezeroak automatikoki beregana ditzake, eskura dituen kanalen bidez. Enpresan, bestalde, analisia/kudeaketa binomioan oinarritutako eskema erabiltzen da onarpen-prozesuetarako. Bezero analistak zorroan sartzen dira, eta analistek barruko ratingak eta berandutze aurreko alerten eredu bat erabiltzen dituzte erabakiak hartzeko. Barneko ereduak, hortaz, oinarrizkoak dira arriskua emateari begira, eta, gainera, espero daitekeen galera eta eragiketa bakoitzari esleitutako kapital erregulatorioa kalkulatzeko aukera ematen diote Entitate Nagusiari.

Arriskuaren Kontrol Globalaren Departamentuak sortutako barruko ereduak, beraz, erabakitze-prozesuetan ez ezik, datu-base integratuak eraiki eta garatzeko ere erabiltzen dira. Basileako Kapital Hitzarmen Berriaren eskakizunen barruan zorrotasunak, espero diren galerak, kapital kontsumoa etab. kalkulatzeko erabiltzen dira datu-base horiek. Bestalde, bai scoring-ereduek bai rating-ereduek partikularren eta enpresaren areetako eragiketetan espero den galera eta pricinga balioesteko aukera ematen diote Entitate Nagusiari.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Arriskua arintzeko eta murrizteko politikei dagokienez, helburu horrekin hainbat bide erabiltzen dira:

- Onarpen-prozesuan, mailegu-hartzaileek ordaintzeko duten gaitasuna hartzen da oinarrizko irizpidetzat. Gaitasun hori finkatzerakoan, barruko ereduak funtsezkoak dira. Bermeak, berriz, berreskuratzeko bigarren bidea dira. Inbertsio-jardueraren zati nagusiak etxebizitza finantzatzeko helburua duela kontuan izanda, hipoteka-bermea da berme nagusia. Hipoteka-bermean, eragiketen LTV ratioa balioesten da, bereziki. Abalen bidez emandako bermea ere garrantzi handikoa da. Diru-gordailuen eta finantza-aktiboen bermeek, ordea, pisu espezifikoa dute.
- Jarraipen-prozesuan, berandutze aurreko barne-ereduak erabiltzen ditu Entitate Nagusiak. Horien bidez, ez-ordaintzei aurrea hartzen zaie, eta ez-ordaintzeak gertatzeko aukera handiak proaktibotasunez kudeatzen dira.
- Berreskuratzeen kudeaketari dagokionez, prozedura bat dago finkatuta. Hainbat eragilek hartzen dute parte berandutzea berreskuratzen, berandututako eragiketa zer fasetan dagoen aintzat hartuta. Testuinguru horretan, berreskurapena kudeatzen barruko eragileek (bulegoak, Tebankak, auzi-aurreak eta auziak) eta kanpokoek (birkobrantsa-agentziek) hartzen dute esku.

Entitate Nagusiak, oro har, berme errealak ondasun higiezin moduan balioztatzen ditu, tasazio-balioan. Gainera, higiezin balioa eguneratzeko politika finkatu du, Espainiako Bankuaren arautegian ezarritako betekizunei jarraiki.

Altxortegiaren eta kapital-merkatuaren alorretan, finantza-erakundeekiko kreditu-arriskuari eta errenta finko pribatuaren arriskuari dagokienez, alderdi kontrarioaren arabera mugak, erreferentziaren nahiz gestorearen eta herrialdearen arabera kontzentraziokoak, finkatzen dira urtero. Horretarako, mugak finkatzeko prozedura ezarri da, kanpoko ratingak eta alerta-sistema oinarri hartuta.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA (Mila eurokotan adierazita)

Ondoren, Taldearen Bezeroei emandako kredituaren kontrako alderdiagatik 2015eko eta 2014ko abenduaren 31ko xehakapena aurkeztuko dugu. Berme nagusietako bakoitzak estaltzen duen zenbatekoa zehazteaz gain, berme errealeko finantzaketan banaketaren berri ere ematen dugu, finantzaketan kontabilitate-balioak eskura dugun bermearen azken tasazioaren edo balioztapenaren zenbatekoaren gainean duen ehunekoaren arabera.

2015

	Guztira (kontabilitate- balio- garbia)	Bertan: higiezin- bermea	Bertan: gainerako berme errealak	Berme errealeko kreditua. Loan to value				
				% 40koa edo txikiagoa	% 40 baino handiagoa eta % 60koa edo txikiagoa	% 60 baino handiagoa eta % 80koa edo txikiagoa	% 80 baino handiagoa eta % 100koa edo txikiagoa	% 100 baino handiagoa
Administrazio publikoak	343.284	40.357	589	293	14.755	4.238	2.894	18.766
Beste finantza-erakunde batzuk	77.762	-	390	-	-	-	-	390
Finantzarioak ez diren sozietateak eta banakako enpresaburuak	2.369.597	846.912	355.740	446.632	248.269	167.208	57.395	283.148
– Eraikuntza eta higiezin sustapena (a)	84.009	74.026	7.232	12.345	11.193	20.273	6.271	31.176
– Obra zibila	60.126	6.650	2.086	3.690	1.561	257	2.044	1.184
– Gainerako helburuak	2.225.462	766.236	346.422	430.597	235.515	146.678	49.080	250.788
Enpresa handiak	212.265	33.762	5.429	9.579	-	-	-	29.612
ETEak eta banakako enpresaburuak	2.013.197	732.474	340.993	421.018	235.515	146.678	49.080	221.176
Gainerako etxeak eta FZIAGEak	11.016.727	10.370.411	65.395	2.763.023	3.065.888	3.276.496	793.859	536.540
– Etxebizitzak	10.419.844	10.173.514	37.833	2.650.109	3.010.552	3.242.888	786.105	521.693
– Kontsumoa	360.202	51.997	1.943	36.399	10.472	4.459	682	1.928
– Beste helburu batzuk	236.681	144.900	25.619	76.515	44.864	29.149	7.072	12.919
Ken: aktiboak nariatzeagatik balio-zuzenketak, eragiketa zehatzei egotzi gabeak	(87.959)	-	-	-	-	-	-	-
GUZTIRA	13.719.411	11.257.680	422.114	3.209.948	3.328.912	3.447.942	854.148	838.844
PRO MEMORIA Birfinantzaturako eta berregituraturako birfinantzate- eragiketarak	864.483	675.021	2.780	176.620	156.300	151.036	57.166	136.679

(a) Partida horretan, eraikuntzarekin eta higiezinaren sustapenarekin zerikusia duten jarduerak sartzen dira, baita higiezinaren sustapenerako lurzorua finantzatzeari ingurukoak ere.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA (Mila eurokotan adierazita)

2014

	Guztira (kontabilitate -balio -garbia)	Bertan: higiezin- bermea	Bertan: gainerako berme errealak	Berme errealeko kreditua. Loan to value				
				% 40koa edo txikiagoa	% 40 baino handiagoa eta % 60koa edo txikiagoa	% 60 baino handiagoa eta % 80koa edo txikiagoa	% 80 baino handiagoa eta % 100koa edo txikiagoa	% 100 baino handiagoa
Administrazio publikoak	345.534	30.644	-	1.787	4.708	7.390	2.859	13.900
Beste finantza-erakunde batzuk	235.538	-	-	-	-	-	-	-
Finantzarioak ez diren sozietateak eta banakako enpresaburuak	2.558.676	1.282.664	29.426	448.797	361.367	172.203	93.051	236.672
– Eraikuntza eta higiezin sustapena (a)	216.020	207.124	20	11.165	37.514	47.666	19.723	91.076
– Obra zibila	58.200	9.058	42	3.051	2.428	443	97	3.081
– Gainerako helburuak	2.284.456	1.066.482	29.364	434.581	321.425	124.094	73.231	142.515
Enpresa handiak	255.250	46.375	2.961	5.204	528	-	2.961	40.643
ETEak eta banakako enpresaburuak	2.029.206	1.020.107	26.403	429.377	320.897	124.094	70.270	101.872
Gainerako etxeak eta FZIAGEak	11.386.685	10.816.498	43.926	2.734.361	3.097.307	3.463.231	1.072.751	492.774
– Etxebizitzak	10.788.396	10.569.631	39.273	2.615.752	3.036.228	3.424.520	1.056.998	475.406
– Kontsumoa	201.336	44.613	1.792	27.926	8.528	6.113	2.083	1.755
– Beste helburu batzuk	396.953	202.254	2.861	90.683	52.551	32.598	13.670	15.613
Ken: aktiboak narriatzeagatik balio-zuzenketak, eragiketa zehatzei egotzi gabeak	(119.462)	-	-	-	-	-	-	-
GUZTIRA	14.406.971	12.129.806	73.352	3.184.945	3.463.382	3.642.824	1.168.661	743.346
PRO MEMORIA								
Birfinantzatutako eta berregituratutako birfinantzate- eragiketak	923.438	709.393	3.348	154.908	157.534	129.757	77.064	193.478

(b) Partida horretan, eraikuntzarekin eta higiezinaren sustapenarekin zerikusia duten jardura guztiak sartzen dira, baita higiezinaren sustapenerako lurzorua finantzatzearen ingurukoak ere.

Ondoren, 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n berme nagusiek estalita dituzten Entitate Nagusiaren kreditu-arriskuen gehienezko zenbatekoaren xehetasuna emango dugu:

		2015							
		Higiezin- bermea	Pignorazio- bermea	Beste berme erreal batzuk	Abaldun edo asegurudun berme pertsonala	Abalik gabeko berme pertsonala	Sailkatu gabea	Balioztapena- gati- doikuntzak	Guztira
Bezeroei emandako kredituak									
Saldo erabilia		11.545.489	27.488	468.730	603.299	1.718.680	(16.674)	(612.994)	13.734.018
Bermearen balioa		29.763.051	31.614	1.986.38	603.299	187.890	-	-	32.572.235
		2014							
		higiezin- bermea	Pignorazio- bermea	Beste berme erreal batzuk	Abaldun edo asegurudun berme pertsonala	Abalik gabeko berme pertsonala	Sailkatu gabea	Balioztape- na- gati- doikuntzak	Guztira
Bezeroei emandako kredituak									
Saldo erabilia		12.045.784	28.703	599.504	631.073	1.696.088	(144.821)	(730.888)	14.415.085
Bermearen balioa		31.489.135	32.777	2.456.54	631.073	152.212	-	-	34.761.745

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Eraikuntza eta higiezinaren sustapena finantzatzeko, etxebizitzaren erosketak eta zorrak ordaintzeko eskuratutako aktiboak finantzatzeko eta merkatuetako finantzaketa-beharrak balioztatzen erabili beharreko gardentasunaz Espainiako Bankuak emandako gomendioei jarraiki eta Espainiako Bankuaren 2011ko azaroaren 30eko 5/2011 Zirkularrean ezarritako banakapen-ereduak aintzat hartuta, Taldeak argibide hauek eman ditu:

a) Eraikuntzaren eta higiezinaren sustapenaren sektorearekiko esposizioa

Eraikuntzari eta higiezinaren sustapenari zuzendutako finantzaketa eta estaldura hauek dira, 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n:

	2015		
	Zenbateko gordina	Bermearen balioaren gaineke sobera	Aktiboen narriaduraren ondoriozko balio- zuzenketak. Estaldura espezifikoa
Eraikuntzari eta higiezinaren sustapenari zuzendutako finantzaketa (Espainiako negozioak)	344.847	196.274	204.510
Zalantzazkoa	306.557	170.511	200.371
Azpiestandarra	21.194	9.186	4.139
Pro memoria:			
Aktibo kobraezinak	241.265		
		Kontabilitate- balioa	
Pro memoria:			
- Administrazio publikoei ez beste bezeroei emandako kreditua guztira (Espainiako negozioetan)		13.335.549	
- Aktiboa guztira (negozioak guztira)		21.584.975	
- Estaldura osagarria guztira (negozioak guztira)		92.316	
			2014
	Zenbateko gordina	Bermearen balioaren gaineke sobera	Aktiboen narriaduraren ondoriozko balio- zuzenketak. Estaldura espezifikoa
Eraikuntzari eta higiezinaren sustapenari zuzendutako finantzaketa (Espainiako negozioak)	505.534	275.531	289.422
Zalantzazkoa	448.668	240.728	284.842
Azpiestandarra	23.470	8.458	4.580
Pro memoria:			
Aktibo kobraezinak	207.116		
		Kontabilitate- balioa	
Pro memoria:			
- Administrazio publikoei ez beste bezeroei emandako kreditua guztira (Espainiako negozioetan)		14.033.162	
- Aktiboa guztira (negozioak guztira)		24.724.675	
- Estaldura osagarria guztira (negozioak guztira)		125.606	

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA (Mila eurokotan adierazita)

Jarraian, 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n eraikuntzarako, higiezinaren sustapenerako eta etxebizitza eskuratzeko erabilitako finantzaketaren xehapena aurkeztuko dugu:

	Eraikuntzari eta higiezinaren sustapenari zuzendutako finantzaketa	
	Zenbateko gordina	
	2015	2014
Hipoteka-bermerik gabe	6.347	25.398
Hipoteka-bermearekin	338.500	480.136
Bukatutako eraikinak	157.802	219.736
Etxebizitza	121.835	174.239
Gainerakoak	35.967	45.497
Eraikitzen ari diren eraikinak	35.164	43.041
Etxebizitza	34.534	41.552
Gainerakoak	630	1.489
Lurzorua	145.534	217.359
Lursail urbanizatuak	11.527	32.398
Gainerako lurzorua	134.007	184.961
Guztira	344.847	505.534

Etxebizitza eskuratzeko emandako kredituen zenbatekoaren xehapena honako hau da, 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n:

	2015		2014	
	Zenbateko gordina	Zalantzazkoa	Zenbateko gordina	Zalantzazkoa
Etxebizitza eskuratzeko kreditua	10.106.210	240.623	10.476.624	260.504
Hipoteka-bermerik gabe	197.017	1.947	223.314	2.545
Hipoteka-bermearekin	9.909.193	238.676	10.253.310	257.959

Hauek dira etxebizitza erosteko familiei emandako hipoteka-bermedun kredituaren xehapenak, 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n eskura dagoen azken tasazioaren gainean arrisku osoak duen ehunekoaren arabera:

	Eskura dagoen azken tasazioaren gaineko arriskua (loan to value)					
	2015					
	% 40koa edo txikiagoa	% 40 baino handiagoa eta % 60koa edo txikiagoa	% 60 baino handiagoa eta % 80koa edo txikiagoa	% 80 baino handiagoa eta % 100ekoa edo txikiagoa	% 100 baino handiagoa	Guztira
Zenbateko gordina	2.493.096	2.886.035	3.184.025	800.865	545.172	9.909.193
Zalantzazkoa	18.112	29.301	50.810	41.406	99.047	238.676

	Eskura dagoen azken tasazioaren gaineko arriskua (loan to value)					
	2014					
	% 40koa edo txikiagoa	% 40 baino handiagoa eta % 60koa edo txikiagoa	% 60 baino handiagoa eta % 80koa edo txikiagoa	% 80 baino handiagoa eta % 100ekoa edo txikiagoa	% 100 baino handiagoa	Guztira
Zenbateko gordina	2.459.099	2.913.183	3.355.814	1.031.874	493.340	10.253.310
Zalantzazkoa	14.438	30.413	54.481	63.662	94.965	257.959

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA (Mila eurokotan adierazita)

Hona hemen zorrak ordaintzeko jasotako aktiboen xehetasuna, 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n:

	2015		2014	
	Kontabilitate-balio garbia	<i>Bertan: Aktiboen narriaduraren ondoriozko balio-zuzenketak</i>	Kontabilitate-balio garbia	<i>Bertan: Aktiboen narriaduraren ondoriozko balio-zuzenketak</i>
Eraikuntzako eta higiezinaren sustapeneko enpresetarako finantzaketetatik datozen aktibo higiezinak	291.049	303.479	278.161	323.081
Bukatutako eraikinak	31.792	11.141	17.626	26.565
Etxebizitza	29.601	10.858	15.526	25.629
Gainerakoak	2.191	283	2.100	936
Eraikitzen ari diren eraikinak	47.208	32.531	35.814	23.153
Etxebizitza	47.208	32.531	35.814	23.153
Gainerakoak	-	-	-	-
Lurzorua	212.049	259.807	224.721	273.363
Lursail urbanizatuak	24.540	41.165	24.490	40.973
Gainerako lurzorua	187.509	218.642	200.231	232.390
Etxebizitza eskuratzeko familiei emandako hipoteka-finantzaketetatik datozen aktibo higiezinak	36.502	4.240	28.604	2.784
Zorrak ordaintzeko jasotako gainerako aktibo higiezinak	15.961	2.175	13.360	2.109
Aktibo horiek dituzten sozietateen kapital-tresnak, partaidetzak eta finantzaketak	-	-	-	-
Guztira	343.512	309.894	320.125	327.974

Sektore sustatzailearen arrisku arazotsuaren kudeaketa

Aldez aurretiko oharrak

Taldeak egun darabilen politika murriztailea da.

Jarraian, onarpenerako irizpideak azalduko ditugu:

- Indarreko arriskuei buruzkoak
 - Ordaingabeak dituzten sustatzaileekin eta enbargatzeko arriskuan edo konkurtsoan daudenekin harturiko arriskuak berreskuratzea, esleipen-tresna erabiliz aktiboak erostearen (adiskidetasunezko konponbidearen) edo auzi-jarduerak irekitzearen bidez.
 - Zorra berrantolatzea, jarduketa horrek hasierako egoera hobetzea badakar (esposizioa txikitzen delako edo bermeak hobetzen direlako) eta zuzkidura gehigarriak eragiten ez baditu.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

- Arrisku-eskaera berriei dagokienez:
 - Zoruak. Ez dugu zoru-erosketarik finantzatzen. Gehienez ere, LKren aktiboak dituen sozietateak sustatzaile fidagarriei lurra saltzeko eragiketetara mugatzen gara.
 - Eraikuntza. Kreditatuak eta finantzaketa-proiektuak baldintza zorrotzak bete behar dituzte, bideragarritasuna bermatzeko.
 - Kaudimena frogatuta duten sustatzaileentzat soilik. Ezinbestekoak izango dira: sektorean esperientzia izatea, finantza-balantze saneatua edukitzea, zor-bolumena iraunkorra izatea eta proiektuak bideragarriak izatea balantzean.
 - Proiektuei eskatu beharreko baldintzak:
 - Kargarik gabeko eta guztiz ordaindutako lurzorua ekarpena egitea; hau da, ez du izan behar ordaindu gabeko kopururik, erosketari lotutako ebazpen-baldintzarik edo abalik, trukerik...
 - Sustatzaileak proiektuaren kostu osoaren % 30 jarri behar du gutxienez, edo lurzorua balioa, kostu handiagoa bada. Lurra erosi berria bada, zergarik gabeko erosketa-balioaren eta tasazioaren arteko txikiena hartuko da baliotzat. Beraz, LK-k kostuaren % 70 jarriko du gehienez, orubearen kostua barne.
 - Merkaturatze-maila, aurresalmentak. Erosketa-kontratua sinatu ondoren, salmenta-bolumenaren % 70 hartuko da, gutxienez, aurresalmentatzat. Bestela, eman beharreko maileguaren % 100era iritsi beharko dute, gutxienez, sustapenen proposamenean.
 - Gutxi gorabehera, 2-3 urteko epea, obraren egikaritze-epearen eta merkaturatzeko zentzuzko epearen baitan.
 - Kopuruak. Obrako arkitekto zuzendariak sinatutako obra-ziurtapenaren % 100ekoak izan daitezke gehienez, baldin eta zorra tasazio-balioaren % 70 baino txikiagoa bada.

8/2012 Legeak xedatutakoa betez, 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n Taldeak aktiboak kudeatzeko hainbat sozietatetan ditu eraikuntza eta higiezinaren sustapena finantzatzetik datozen aktibo higiezinak. Horien xehetasuna eta partaidetzaren ehunekoa urteko kontu bateratu hauen txostenaren I. eranskinean azaltzen da.

2015eko eta 2014ko abenduaren 31n, hurrenez 787.412 eta 790.097 mila eurokoak ziren sozietate horietako aktiboen esleipen-balioa. 2015eko abenduaren 31n, sozietate horiei zuzendutako finantzaketaren eta bazkideen kapitalaren edo ekarpenen saldoa 787.412 eta 5.030 mila eurokoa da, hurrenez hurren (790.097 eta 17.263 mila eurokoa, hurrenez hurren, 2014ko abenduaren 31n). Data horretan, saldo horien narriaduragatik balio-zuzenketa 505.364 eta 4.060 mila eurokoa da, hurrenez hurren (509.810 eta 16.295 mila eurokoa, hurrenez hurren, 2014ko abenduaren 31n).

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

b) Birfinantzatze-eragiketak

Entitate Nagusiak arriskuak berrantolatzeko onetsitako politikaren arabera, arriskuak adiskidetasunean oinarritutako berreskurapen bidez kudeatzeko tresna bat da eragiketen berrantolaketa. Horrela, bada, bi eragiketa mota bereizten dira: birfinantzatze-eragiketak, aurretik dagoen eragiketa bat kitatzeko eragiketa berria abiaraztea eskatzen dutenak, eta berregituratutako edo berritutako eragiketak, irekita dauden eragiketen baldintza bat edo hainbat aldatzeko aukera ematen dutenak.

Politika horretan, halaber, halako eragiketak berresteko ahalmenak ezarri dira, horiek ordaindu gabeko kuotak (berankorrak) izan ala ez. Ahalmen hori Arriskuen Areak (Arriskuen Kudeaketa, Jarraipena eta Berreskurapenak) izango du beti.

Berrantolatutako inbertsioa sailkatzeko eta behar izanez gero hornitzeko irizpideari dagokionez, berrantolaketa guztiak azpiestandar moduan sailkatzen dira, eta erabilitako saldoaren % 15eko hasierako hornidura aitortzen zaie, baldin eta normaltzat edo zalantzazkotzat sailkatzeko baldintzak betetzen ez badituzte.

- Berrantolaketa normaltzat hartuko da, honako baldintza hauek betetzen baditu:
 - Ordaintzeko dauden interes arruntak arriskua areagotu barik kobratzea.
 - Kontuak zorraren % 100 estaltzen duten berme eraginkorrak edo fidatzaile kaudimentsuak edukitzea.
 - Gabealdia 12 hilabete baino laburragoa izatea.
 - Dirua itzultzeko behar adinako ahalmena.
 - Aurreko berrantolaketaren baten ondorioa ez izatea.

- Berrantolaketa zalantzazkotzat joko da, honako baldintza hauek betetzen baditu:
 - Interesak ez kobratzea edo berme eraginkorrak ez eskaintzea.
 - 30 hilabetetik gorako gabealdia izatea, edo HBMetan 30 urtetik gorako epea izatea, edota gainerako bermeetan 10 urtetik gorako epea izatea.
 - Aurreko berrantolaketa baten ondorioa izatea, berrantolaketa hori normaltzat jo ez bada.

Zalantzazkotzat jotako berrantolatutako eragiketetan, hasierako gutxieneko hornidura % 25ekoa izango da, baldin eta sailkapen hori eragiketa berrantolatu aurretik ez bazuen. Kasu horretan, berrantolaketaren egunean berankortasunagatik zegokion hornidura-ehunekoa gehituko zaio.

Halako eragiketei jarraipena egiteaz Jarraipenaren eta Berreskurapenen Departamentua arduratuko da. Hilean behin, horien bilakaera aztertuko dute, komeni bada sailkapena eta beharrezko zuzkidura-ehunekoa aldatzeko.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA (Mila eurokotan adierazita)

Eragiketak birfinantzatzeko, birfinantzatutako eta berregituratutako artean sailkatzeko irizpideak zehazten dituen 2012ko irailaren 28ko 6/2012 Zirkularrak ekarritako aldaketak betetzeko asmoz eta Entitate Nagusiak horren inguruan finkatuta dituen politikei jarraiki, 2015eko eta 2014ko abenduaren 31ko birfinantzatzeko, birfinantzatutako eta berregituratutako eragiketen berri emango dugu jarraian.

2015eko ekitaldia

	ARRUNTA						AZPIESTANDARRA						ZALANTZAKOIA						GUZTIRA					
	Erabateko higiezin bidezko hipoteka-bermea		Gainerako berme errealak		Berme errealik gabe		Erabateko higiezin bidezko hipoteka-bermea		Gainerako berme errealak		Berme errealik gabe		Estdadura espezifikoa	Erabateko higiezin bidezko hipoteka-bermea		Gainerako berme errealak		Berme errealik gabe				Estdadura espezifikoa		
	Eragiketa kopurua	Zenbateko gordina	Eragiketa kopurua	Zenbateko gordina	Eragiketa kopurua	Zenbateko gordina	Eragiketa kopurua	Zenbateko gordina	Eragiketa kopurua	Zenbateko gordina	Eragiketa kopurua	Zenbateko gordina		Eragiketa kopurua	Zenbateko gordina	Eragiketa kopurua	Zenbateko gordina	Eragiketa kopurua	Zenbateko gordina	Eragiketa kopurua	Zenbateko gordina		Eragiketa kopurua	Zenbateko gordina
1. Administrazio publikoak	4	299	6	9.110	12	59.249	-	-	-	-	-	-	-	1	7.600	-	-	-	-	-	114	23	76.258	114
2. Gainerako pertsona juridikoak eta banakako enpresariak	871	86.287	104	9.718	1.312	46.571	65	22.436	9	3.707	170	59.601	13.925	601	150.086	265	263.427	573	44.650	278.099	3.970	686.483	292.024	
Bertan: Eraikuntzari sustapenari zuzendutako finantzaketa	4	1.810	4	774	-	-	12	6.848	6	3.479	-	-	2.008	96	66.175	105	159.600	5	1.083	155.162	232	239.769	157.170	
3. Gainerako pertsona fisikoak	3.454	268.082	466	21.275	1.032	10.296	50	6.627	6	264	82	825	1.149	802	71.616	406	44.108	644	5.943	34.149	6.942	429.036	35.298	
4. Guztira	4.329	354.668	576	40.103	2.356	116.116	115	29.063	15	3.971	252	60.426	15.074	1.404	229.302	671	307.535	1.217	50.593	312.362	10.935	1.191.777	327.436	

2014ko ekitaldia

	ARRUNTA						AZPIESTANDARRA						ZALANTZAKOIA						GUZTIRA				
	Erabateko higiezin bidezko hipoteka-bermea		Gainerako berme errealak		Berme errealik gabe		Erabateko higiezin bidezko hipoteka-bermea		Gainerako berme errealak		Berme errealik gabe		Estdadura espezifikoa	Erabateko higiezin bidezko hipoteka-bermea		Gainerako berme errealak		Berme errealik gabe				Estdadura espezifikoa	
	Eragiketa kopurua	Zenbateko gordina	Eragiketa kopurua	Zenbateko gordina	Eragiketa kopurua	Zenbateko gordina	Eragiketa kopurua	Zenbateko gordina	Eragiketa kopurua	Zenbateko gordina	Eragiketa kopurua	Zenbateko gordina		Eragiketa kopurua	Zenbateko gordina	Eragiketa kopurua	Zenbateko gordina	Eragiketa kopurua	Zenbateko gordina	Eragiketa kopurua	Zenbateko gordina		Eragiketa kopurua
1. Administrazio publikoak	4	1.922	2	5.524	10	35.466	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	16	42.912	-
2. Gainerako pertsona juridikoak eta banakako enpresariak	810	80.131	107	15.008	1.326	85.179	79	22.531	43	11.669	417	59.453	14.791	486	176.363	470	351.217	619	62.201	331.818	4.357	863.752	346.609
Bertan: Eraikuntzari sustapenari zuzendutako finantzaketa	5	1.962	3	640	-	-	15	8.382	2	1.174	-	-	1.853	127	108.262	159	218.929	9	4.305	217.360	320	343.654	219.213
3. Gainerako pertsona fisikoak	2.888	233.553	479	20.364	1.076	10.581	83	10.244	15	1.322	152	1.482	1.949	733	70.486	361	36.553	661	6.133	25.776	6.448	390.718	27.725
4. Guztira	3.702	315.606	588	40.896	2.412	131.226	162	32.775	58	12.991	569	60.935	16.740	1.219	246.849	831	387.770	1.280	68.334	357.594	10.821	1.297.382	374.334

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Jarraian, birfinantzatu edo berregituratu ostean zalantzazkotzat sailkatutako eragiketen zenbateko gordin osoa (2015eko eta 2014ko abenduaren 31koa) dago xehatuta:

	2015		
	Zenbateko gordina		
	Erabateko higiezin bidezko hipoteka-bermea	Gainerako berme errealak	Berme errealik gabe
Administrazio publikoak	-	-	-
Gainerako pertsona juridikoak eta banakako enpresariak	6.779	2.089	3.725
<i>Bertan: Eraikuntzari eta sustapenari zuzendutako finantzaketa</i>	-	-	-
Gainerako pertsona fisikoak	16.283	6.720	493
	2014		
	Zenbateko gordina		
	Erabateko higiezin bidezko hipoteka-bermea	Gainerako berme errealak	Berme errealik gabe
Administrazio publikoak	-	-	-
Gainerako pertsona juridikoak eta banakako enpresariak	13.844	13.197	6.551
<i>Bertan: Eraikuntzari eta sustapenari zuzendutako finantzaketa</i>	2.551	1.470	-
Gainerako pertsona fisikoak	16.901	6.183	446

16. Likidezia-arriskua

Likidezia-arriskuak bi definizio ditu:

- Fondoan likidezia-arriskua: Entitate Nagusia gai ez izatea egungo eta etorkizuneko aurreikusitako eta ezusteko kutzako fluxuei eta ordainketa-obligazioen ondoriozko berme-ekarpenei eraginkortasunez erantzuteko, eguneroko jardunari edo finantza-egoerari kalterik eragin gabe.
- Merkatuko likidezia-arriskua: merkatuan sakontasunik ez izatearen edo distortsioak egotearen ondorioz finantza-erakundeek posizio bat merkatuko prezioetan konpentsatu edo desegiteko gaitasunik ez izateari egiten dio erreferentzia.

Entitate Nagusiak helburu estrategikotzat jo izan du, beti, likidezia; ondorioz, sistematikoki kudeatu eta kontrolatu izan du, azken bi hamarkadetan. Testuinguru horretan, likidezia-arriskuaren inguruko politika eta prozeduren eskuliburua du Caja Laboralak, bere Kontseilu Errektoreak onartuta. Basileako Banku Ikuskaritzako Batzordearen “Likidezia-arriskua egoki kudeatu eta gainbegiratzeko printzipioak” jasotzen ditu —2008ko iraileko dokumentua—, eta, hainbat likidezia-helburu ez ezik, alerta-mailak eta jarduera-protokoloak jasotzen dituen kontingentzia-plana ere finkatu ditu. Ildo horretatik, Recovery Plana egiten ari da Entitate Nagusia, likidezia-krisialdiko egoeretarako alerta-maila eta jarduketa-protokolo horiek eguneratzeko. Ondorioz, eskuliburua berrikusi egingo da.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Prozeduretan ezarritako zereginen barruan, likideziaren kudeaketak kontrol-sistema bat du euskarri. Horren bidez, batetik, epe ertainerako hileko likidezia-helburuak ezartzen dira eta, bestetik, helburuak zenbateraino bete diren sistematikoki kontrolatu. Helburu horiek guztiak altxortegi-plan batean jaso dira. Bertan, inbertitzeko moduko baliabideen, kreditu-inbertsioaren eta handizkako finantzaketaren bilakaerari eta ratio batzuen bilakaerari buruzko aurreikuspenak jaso dira, eta hileroko eguneratzen da. Horrela, epe ertainean likideziari aurreikusten zaion bilakaerari buruzko informazioa etengabe eguneratuta izateko aukera du Aktiboen eta Pasiboen Batzordeak (APBak). Horrela, agregatuaren bilakaeran likidezian eragiten duten desorekak zuzentzeko ekintzak bidera ditzake APBak, behar adinako aurrerapenez. Likidezia-helburuen artean, aktibo likido eskuragarriak eta hainbat likidezia-ratio daude. 2014an, LCR ratioa ere erantsi zen, eta, 2015eko ekitaldia ixtean, Entitateak maila altua zuen bertan; izan ere, aise bete du arautzaileak 2016ko urtarrilaren 1erako ezarritako muga.

Zehazki, 2015eko itxieran, Entitate Nagusiak honako hauek ditu:

- % 309ko LCR ratioa.
- Haircutak aplikatu ostean, 4.916 milioi euroko aktibo likido deskontagarriak (eta erabilgarriak), Europako Banku Zentralean (EBZn), ezusteko kontingentziei aurre egiteko. Zenbateko horretatik, 1.637 milioi euro EBZren polizan daude eskuragarri, eta 3.279 milioi euro EBZko aktibo aukeragarriak dira, pignorazioaren bidez eskuratzeko modukoak. Entitateak likidezia-maila positiboari eutsi dio urtean zehar. Bestalde, ez dago EBZren TLTRO zenbatekorik.
- % 88,2ko Loan to Deposits ratioa.
- Entitateak zuhertasun-politika erabili duen handizkako finantzaketa:
 - 2.092 milioi euroko zenbatekoa bildu du, balantze osoaren % 10ekoa. Zenbateko horretan ez daude autozorrorako zedulak eta titulizazioak sartuta, merkatuan birfinantzatzeko premiarik ez dutelako.
 - Finantzaketa-iturrietan dibertsifikazioa erabili du. Horrela, Caja Laboralak honako hauek ditu, ekitaldiaren amaieran: 1.825 milioi euroren hipoteka-zedulen jaulkipenak (autozorroa kanpo utzita) (36. oharra) eta KOIren 30 milioi euroren finantzaketa bitartekotua. Bestalde, 237 milioi euroko merkatuko finantzaketa du, hipoteka-partaidetzen titulizazioaren bidez (Entitateak berak eskuratutako bitarteak deskontatuta) (36. oharra), nahiz eta, lehen esan dugunez, muga-eguneari ez dute birfinantzatzeko premiarik.
 - Muga-egunetan dibertsifikazioa erabili du. Horrela, bada, hipoteka-zedulak eta KOI finantzaketa 2016az geroak dira, dibertsifikatuak gainera.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Entitate Nagusiaren finantzaketa-egitura honela dago banatuta:

Finantzaketa-egitura	2015	
	Miloi eurokotan	%
Bezeroen gordailuak	14.674	% 70,05
Hipoteka-zedulak (1)	1.825	% 8,71
EBZtik hartua	-	% 0,00
Titulizazioak (1)	237	% 1,13
KOI finantzaketa	30	% 0,15
Aktiboa guztira	20.948	

(1) Autozorrotza ez da sartzen.

Handizkako finantzaketaren muga-egunen arabera banaketari dagokionez, 2016tik aurrera gertatu dela esan beharra dago. Hona hemen zehaztasunak:

Handizkako jaulkipenen muga-egunak	Miloi eurokotan			
	2016	2017	2018	>2018
Hipoteka-bonu eta -zedulak	600	-	-	1.225
Lurralde-zedulak	-	-	-	-
Senior zorra	-	-	-	-
Estatuak abala emandako jaulkipenak	-	-	-	-
Mendekoak, lehentasunezkoak eta bihurturriak	-	-	-	-
Hirugarrenei saldutako titulizazioak	28	26	24	159
EBZtik hartua	-	-	-	-
KOI finantzaketa	11	6	4	9
	639	32	28	1.393

Epe ertainerako likidezia-beharrak finantzaketa-gaitasunek estaltzen dituzte, sobera estali ere. Horrela, bada, haircutak eta Entitate Nagusiaren jaulkipen-gaitasuna aplikatu ostean eskuragarri dauden aktibo likido garbiak aurkeztuko ditugu ondorengo tauletan.

	Miloi eurokotan	
	2015-12-31	
	Erabilia	Erabilgarria
Aktibo likido garbiak (2)	-	4.916

(2) Espainiako Bankuaren likideziaren egoera-orrietako irizpideak (errenta aldatokorra kanpo utzita).

Jaulkipen-gaitasuna	Miloi eurokotan
Hipoteka-zedulak jaulkitzeko gaitasuna	2.947
Lurralde-zedulak jaulkitzeko gaitasuna	223
Estatuak abala emandako jaulkipenetatik erabilgarri dagoena	-
	3.170

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOAK (Mila eurokotan adierazita)

Bestalde, taula honetan Entitate Nagusiaren aktiboen eta pasiboen azterketa jaso da (milioi eurokotan), Espainiako Bankuak igorritako egoera-orrien likideziari buruzko irizpideei jarraiki, hondar-epemuga kontuan hartuta —kanpo utzi dira mugaeguneratutako saldoak, zalantzazko kreditu-inbertsioa, esleituak eta kobraezinak—:

2015

AKTIBOEN ETA PASIBOEN BANAKETA MUGA-EGUNEKO TARTEEN ARABERA

	Milioi eurokotan							
	Saldoa guztira	Agerikoak	Hilabetera bitartekoak	1 eta 3 hilabete bitartekoak	3 eta 6 hilabete bitartekoak	6 hilabete eta urtebete bitartekoak	1 eta 5 urte bitartekoak	5 urtetik gorakoak
Sarrerak GUZTIRA	18.292	12	726	838	1.315	1.225	5.155	9.021
Irteerak GUZTIRA	(18.328)	(10.493)	(1.392)	(1.213)	(1.393)	(2.065)	(1.010)	(762)
Garbia	(36)	(10.481)	(666)	(375)	(78)	(840)	4.145	8.259

2014

AKTIBOEN ETA PASIBOEN BANAKETA MUGA-EGUNEKO TARTEEN ARABERA

	Milioi eurokotan							
	Saldoa guztira	Agerikoak	Hilabetera bitartekoak	1 eta 3 hilabete bitartekoak	3 eta 6 hilabete bitartekoak	6 hilabete eta urtebete bitartekoak	1 eta 5 urte bitartekoak	5 urtetik gorakoak
Sarrerak GUZTIRA	21.252	14	1.818	1.507	873	1.425	6.144	9.471
Irteerak GUZTIRA	(21.205)	(9.102)	(1.593)	(3.208)	(1.207)	(3.269)	(1.480)	(1.346)
Garbia	47	(9.087)	225	(1.701)	(334)	(1.844)	4.664	8.125

17. Interes-tasaren arriskua

Interes-tasetan kontrako mugimendu bat izatearen ondorioz Entitate Nagusiaren emaitza-kontuan eta ondare-balioan sor daitezkeen galerei dagokie interes-tasaren arriskua.

Kontseilu Errektoreak Aktibo eta Pasiboen Batzordearen (APBaren) esku du utzita arrisku hori kontrolatu eta kudeatzeko zeregina, eta Kontseilu Errektoreak finkatutako mugen barruan jarduten du; mugok urtean behin berrikusten dira. Merkatuko eta kontrako egoera bateko interes-tasen artean gehienez onar daitekeen galeraren arabera ezartzen dira mugok.

APBak sistematikoki aztertzen du interes-tasaren arriskuaren eragina, eta, kudeaketa aktiboaren bidez, merkatuko interes-tasen bilakaera kaskarrek epe ertainera galdu-irabazien kontuan izan dezaketen eragin negatiboari aurrea hartzen saiatzen da. Erabaki bat edo beste bat hartzeko, APB simulazioetan oinarritzen da. Simulazioek balantzeko eta balantzetik kanpoko egiturazko posizioak aztertu eta interes-tasa ezberdinen aurrean Entitate Nagusiak epe luzera izango dituen emaitzak neurtzen dituzte.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA (Mila eurokotan adierazita)

Honekin batera doan taulan, interes-tasekiko sentiberak diren partidaren gap estatikoa jasota da. Interes-tasen gorabeheren aurrean Entitate Nagusiak duen arriskuari lehen hurbilpena egin zaio horrekin. Halere, gaparen berezko supostuen mugak kontuan hartuta, Euskadiko Kutxak arrisku hori neurtzeko erabili izan duen teknika, aurreko paragrafoan azaldu dena, ez da egokia.

	Milioi eurokotan								
	Balantzeko saldoa 15-12-31n	Hilabetera bitartekoak	1 eta 3 hilabete bitartekoak	3 hilabete eta urtebete bitartekoak	1 eta 2 urte bitartekoak	2 eta 3 urte bitartekoak	3 eta 4 urte bitartekoak	4 eta 5 urte bitartekoak	5 urteko gorakoak
Aktibo sentiberak	19.435	4.274	4.091	7.775	614	1.142	615	450	474
Diru-merkatua	296	274	-	22	-	-	-	-	-
Kreditu-merkatua	14.444	3.082	3.574	6.086	457	238	164	135	708
Balore-merkatua	4.695	918	518	1.668	157	903	450	315	(234)
Pasibo sentiberak	18.520	3.699	4.308	6.072	994	673	675	672	1.427
Handizkako merkatua	2.639	759	828	926	8	6	6	6	100
Gainerako hartzekodunak	15.881	2.940	3.480	5.146	986	667	669	666	1.327
GAP arrunta		575	(216)	1.703	(380)	468	(61)	(222)	(953)
Pasibo Osoarekiko %a		% 3	(% 1)	% 9	(% 2)	% 2	(% 0)	(% 1)	(% 5)
GAP metatua		575	359	2.063	1.683	2.151	2.090	1.869	915
Pasibo Osoarekiko %a		% 3	% 2	% 11	% 9	% 11	% 11	% 10	% 5

	Milioi eurokotan								
	Balantzeko saldoa 14-12-31n	Hilabetera bitartekoak	1 eta 3 hilabete bitartekoak	3 hilabete eta urtebete bitartekoak	1 eta 2 urte bitartekoak	2 eta 3 urte bitartekoak	3 eta 4 urte bitartekoak	4 eta 5 urte bitartekoak	5 urteko gorakoak
Aktibo sentiberak	22.401	6.139	4.733	7.307	2.040	454	1.059	311	358
Diru-merkatua	477	455	-	22	-	-	-	-	-
Kreditu-merkatua	14.911	3.494	3.395	6.140	589	318	150	108	717
Balore-merkatua	7.013	2.191	1.338	1.145	1.451	136	909	202	(359)
Pasibo sentiberak	21.609	6.207	3.981	7.305	1.096	629	574	585	1.232
Handizkako merkatua	6.346	3.776	971	1.456	13	9	8	7	106
Gainerako hartzekodunak	15.263	2.432	3.010	5.849	1.083	620	566	577	1.125
GAP arrunta		(68)	752	2	944	(175)	485	(274)	(874)
Pasibo Osoarekiko %a		(% 0)	% 3	% 0	% 4	(% 1)	% 2	(% 1)	(% 4)
GAP metatua		(68)	684	686	1.630	1.455	1.940	1.666	792
Pasibo Osoarekiko %a		(% 0)	% 3	% 3	% 7	% 6	% 9	% 7	% 4

Kontratuen interes-tasa bat ezarrita duten partidak interes-tasekiko sentikorrek dira, eta, beraz, gapean jasotzen dira. Gainerakoak kanpoan geratzen dira, hau da, balioztapenagatikoa doikuntzak, kreditu sailkaezina, kutxa, ibilgetua (esleitutakoak barne), deribatuak, hainbat kontu eta periodokate-kontuak, gizarte-ekintzarako fondoa, fondo bereziak, kapitala eta erreserbak eta ekitaldiko emaitzak.

Gap horretan, sentikortzat jotako partidak dagokien denbora-tarteetan banatzen dira, ondoren adierazten ditugun irizpideei jarraiki. Interes-tasa aldakorrekiko produktuak interes-tasa berrikusten (birbaloratzea) zaien denbora-tartean kokatzen dira. Bestalde, interes-tasa finkoko partidak hondar-epemugaren arabera banatzen dira. Ageriko produktueterako, saldoen aldakortasun-estimazioak kontuan hartuta, haien portaerari buruzko hipotesiak eman ditu Entitate Nagusiak. Muga-egun jakin bat ez duten kontuetan (ordaindu gabeko kontuetan, administratuetan eta erreferentziadunetan) azterketa ekonometrikoak egin dira, horien interes-tasak eta merkatukoak izan duten bilakaera aintzat hartuta.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA **(Mila eurokotan adierazita)**

Entitate Nagusiak Gainbegiralearentzat egiten dituen inpaktu-azterketen arabera, interes-tasek oinarrizko 200 puntu behera eginez gero, interesen marjina % 2,69 inguru txikituko litzateke, lehen urtean. Gainbegiratzailerak azterketa horiek prestatzeko ezarri dituen irizpideak honako hauek dira, funtsean: hasierako saldoei eta balantze-egiturari eustea, interes-tasen bilakaera merkatuaren aurreikuspenen arabera zehaztea eta 4 urteko iraunaldia ezartzea ordainketarik gabeko kontu korranteetarako.

Halaber, balio ekonomikoa aldatuz gero, interes-tasetako oinarrizko 200 puntuko gorakada horrek 4,2 milioi euroko murrizketa eragingo luke Entitate Nagusiaren balio ekonomikoan, hau da, baliabide propioen % 0,27 ingurukoa. Ondare-balioa kalkulatzeko, interes-tasaren gaparen atalean aipatutako irizpide berberak erabili dira.

18. Merkatuko beste arrisku batzuk

Finantza-merkatuei dagokienez, aktibo mota nagusiek errentagarritasun xumeak, edo are negatiboak ere, eman zituzten 2015eko urtean, eta, aurreko ekitaldian gertatu zen moduan, lehengaiekin lotutako aktiboen eta eremu geografikoen portaera negatiboa nabarmendu da.

Ekitaldian bi fase identifika daitezke. Lehen urte-erdian, aurreko ekitaldian eragina izan zuten faktoreen (Europako eta Japoniako banku zentralen QEaren) inertziari, Europako hazkundearen ezusteko positiboa (aurreikusitakoa baino indar handiagoarekin hasi baitzen ateratzen atzeralditik) eta petrolioaren prezioen egonkortzea/susperraldia gehitu zaizkio. Testuinguru horretan, errenta aldakorreko merkatuek eta, oro har, arrisku- aktiboek oso portaera ona izan dute. Bestalde, bigarren urte-erdian, inbertitzaileen sentimenduan eragin dute hainbat faktore negatibok, eta lehen seihilekoan pilatutako gainbalio gehienak ezerezean utzi dituzte. Txinatik kapitalak etengabe ateratzearen ondorioz hango yuana devaluatzeak eta beste hainbat faktorek areagotu egin dituzte Txinaren hazkundera moteltzeari buruzko beldurrak. FED, bestalde, diru-politika normalizatzen hasi da, zero tasen aldi luze baten ondoren interes-tasak igotzearen bidez. Azkenik, petrolioaren prezioek behera egin dute berriro. Hori elementu desegonkortzaile gisa hartu da, herrialde produktorentzat eta AEBn sortutako industria berriarentzat dituen efektuengatik, hedapenezko ondorioak eta kate-erreakzioak izan daitezkeelako.

Esparru makroekonomikoan, hazkunde globala aurreko urtekoa baino zertxobait handiagoa izan da, eta herrialde garatuen eta garatzeko bidean dauden hazkunde-tasak hurbildu egin dira pixka bat. AEB aurreko ekitaldian baino hamarren bat gehiago hazi da: % 2,5eraino. Europak, bestalde, bloke garatuen arteko azeleraziorik handiena izan du: % 1,4koa, hain zuzen ere. Garatzeko bidean dauden herrialdeen artean, barne-eskariaren mendeko ekonomiaranzko eredu-trantsizioan jarraitu du Txinak, eta % 7 baino gutxiago hazi da, azken 15 urteetan lehen aldiz. Alde negatiboan, Brasil nabarmendu da. Atzeraldi larrian murgilduta, -% 4,5eko tasetara iritsi da.

Bestalde, inflazioak maila apalean geratu dira ekonomia nagusietan, deflazioaren mehatxua oraindik erabat desagertu ez delarik.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Azken urteotan merkatuetan horrenbesteko garrantzia izan duen banku zentralen jardunari dagokionez, banku zentral nagusien diru-politiketan gertatutako *decoupling* deiturikoa izan da 2015ko ezaugarri nagusia. Hala, AEBko Erreserba Federalak, merkatuak hainbat eta hainbat hilabetez mezu gutxi-asko esplizituekin prestatu ondoren, abenduan interes-tasak igo ditu (% 0,25) lehengoz, aurrekoa egin zuenetik ia hamar urte igaro eta zazpi urtez % 0an eduki eta gero. Horrela, bada, diru-politika oso pixkanaka normalizatuko dela eta aldagai makroekonomikoen ebaluazioaren mende egongo dela aurreikusten da. Beste aldean, Japoniako Bankuak eta Europako Banku Zentralak beren QE programak ezartzen jarraitu dute. EBZren kasuan, zehazki, programok handitu egin dira, abenduan neurri gehigarriak iragarri dituenen. Hala ere, lehen aldiz, Mario Draghik ez ditu bete neurri gogorragoak iragarri zituzten merkatuen itxaropenak.

Azkenik, arlo geopolitikoan, Greziako krisiaren konponketa nabarmendu behar da, alde batetik. Tsiprasek berriro hauteskundeak irabazi dituen arren, men egin behar izan die Troikak ezarritako baldintzei. Eta, bestetik, Espainiako parlamenturako hauteskundeek gobernagarritasun-panorama konplikatu utzi dute. Amaitzeko, Saudi Arabiak apustu ausarta egin du, petrolioaren merkatuan bere kuota defendatzeko, eta, lehendik ere gehiegizko eskaintza izan arren, handitu egin du produkzioa. Horrek eragin handia izan du petrolio gordinaren prezioan (berriz ere erori egin da ekitaldiaren bigarren erdian), eta krisi-beldurra areagotu egin du, herrialde produktoreetan eta erlazionatutako sektoreetan.

Egoera horrek hainbat ondorio izan ditu merkatuetan:

1. Lehenik eta behin, lehen aipatu dugunez, bi fase desberdin egon dira ekitaldian. Lehen urte-erdiak oso aldeko portaera izan du arrisku-aktibo gehienetan; bigarrenak, berriz, oso negatiboa. Horregatik, urte-amaiera neutroa izan da, edo are negatiboa ere, zenbait kasutan.
2. Bigarrenik, hegakortasunak handitu egin dira, batez ere urtearen bigarren erdian.
3. Banku zentralen diru-politikaren zikloa oso asimetrikoa izan da: FEDek interes-tasak igo ditu eta EBZ-BOJ QE betean egon da. Ondorioz, dolarraren balioak gora egin du dibisa gehienen aurrean, ala herrialde garatuetakoen aurrean (% 10 euroarekiko eta yenarekiko) nola garatzeko bidean dauden herrialdeetakoen aurrean (% 16 dibisa-saski batekiko).
4. Merkatu garatu nagusietako burtsa-indizeek balio-handitze oso txikiekin edo negatiboekin amaitu dute. Honako hauek nabarmendu dira, portaera onenetik txarrenerako ordenan: Nikkei (+% 9), Eurostoxx50 (+% 4), S&P500 (-% 1) eta IBEX (-% 7). Garatzeko bidean dauden burtsa gehienek, salbuespenak salbuespen, negatiboan amaitu dute. MSCI Emerging Markets indizeak, adibidez, % 8ko beherakada izan du, tokiko dirutan.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

5. Azkenik, errenta finkoko merkatuetan ere errentagarritasun gehienak oso baxuak izan dira: bonu subiranoek portaera zertxobait positiboa izan dute eta inbertsio mailako errenta finko pribatuko bonuek zertxobait negatiboa. Nabarmentzekoa da, halaber, gordailuak egiteko erraztasunaren tasa gero eta maila negatiboagoan finkatzeko EBZk hartu duen neurriaren eragina. Horrek herrestan eraman du eurotako interes-tasen kurba osoa, horrenbestera ino ezen, urte-amaieran, 9 hilabeterainoko Euribor-tasek fixing negatiboak finkatu baitituzte eta core herrialde nagusietako altxor-bonuek errentagarritasun negatiboak eskaini baitituzte 5 urteko epera bitartean. Espainian, urtebeterako altxor-letrak $-\% 0,05$ ean kotizatu dute.

Merkatuak egoera hori bizi zuela, saltzeko prest zegoen aktibo finantzarioen zorroko tituluek merkatuaren bilakaeraren arabera portaera izan dute, eta balioztapenagatiko doikuntzen kontuetan agertzen diren gainbalioen eta minusbalioen saldoan islatu da.

19. Eragiketa-arriskua

Prozesuetan, pertsonalean nahiz barruko sistemetan gertatutako desegokitasunaren edo akatsen, edo kanpoko faktoreen ondorioz Entitateak izan ditzakeen galerei buruzkoa da eragiketa-arriskua.

Laboral Kutxak metodo estandarra erabiliz informatzen du, hain zuzen ere, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko ekainaren 26ko 575/2013 Arautegian deskribatutako metodologiaren arabera.

Ikuspegi kualitatiboari begira, departamentu guztien arrisku-mapak ditu Entitateak. Arriskuak urtero ebaluatzen dira, eta, ondoren, arriskurik larrienak arintzeko ekintza-planak taxutzen dira.

Entitate Nagusiak 57 koordinatzaileko eta 30 balidatzaileko sarea du, sistemak eskatzen dituen zereginak (autoebaluazioak eta ekintza-planak) gauzatu ahal izateko. 2015eko abenduan, bederatzigarren autoebaluazioa ari dira amaitzen, eta, horren ostean, ekintza-plan gehiago bideratuko dira.

Ikuspegi kuantitatibotik, 2002tik eragiketetan galdutako datu-basea du Entitate Nagusiak. Galera bakoitza Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko ekainaren 26ko 575/2013 Arautegiak zehaztutako gertaera mota eta negozio-linea bati dago esleituta.

Laboral Kutxa CERO (Consortio Español de Riesgo Operacional) taldeko partaide da. Bertan, estatuko finantza-erakunde nagusiak daude ordezkatuta, eta eragiketa-arriskuaren alorreko informazioa eta esperientziak partekatzen dira.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

20. Aseguru-eragiketen arriskua

Aseguru-kontratuak izenpetzearen ondoriozko arriskueta, aldagai batzuek eragin handia izan dezakete etorkizuneko eskudiru-fluxuetan, bai zenbatekoan bai denboran banatzeko moduan.

Hilkortasun-, baliaezintasun- eta longebitate-tasak ezbehar-tasari eragiten dioten aldagaiak dira, eta, beraz, ezbeharrak ordaintzeko eskudiru-irteeren fluxuari ere eragiten diote. Taldeak, aldian behin, egokitu egiten ditu bere oinarri teknikoak: hilkortasun- eta iraupen- taulak naziko eta nazioarteko sektorekako lantaldeek emandako daturik berrienetara eta Aseguruen eta Pentsio Fondon Zuzendaritza Orokorrek onetsitako estatistiketara moldatzen ditu.

Taldeak, Aseguruen Zuzendaritza Orokorrek ezarritako arautegiari jarraiki, PERM/F-2000 taulak aplikatu dizkio 2000ko urriaren 15etik aurrerako produkzio berriari. Produkzio berriko heriotza-arriskuetaarako PASEM-2010 taulak eta ezintasun-arriskuetaarako PEAIM-2007 taulak erabiltzen dira. Bestalde, taulak aplikatzeko egunean indarrean zegoen zoroko defizita xurgatu egin zen 2007an, nahiz eta indarreko arautegiaren arabera 15 urteko epea zegoen 1999ko urtarrilaren 1etik zenbatzen hasita.

Aseguru Pribatuaren Ordenazio eta Gainbegiratzeari buruzko Arautegia —1998ko azaroaren 20ko 2486/1998 ED—, aurrerantzean Arautegia, ezarri aurretik interes-tasa tekniko indarrean zuten polizetarako, Arautegi horretako Bigarren Xedapen Iragankorrean ezarritakoari lotzen zaio Taldea. Egiaztatu behar izaten du, poliza horiei atxikitako inbertsioen errendimendu garbia handiagoa den polizetako interes-tasa tekniko bano.

Arautegia indarrean sartu ostean jaulkitako indarreko poliza gehien hornidura matematikoa kalkulatzeko, urtero Aseguruen Zuzendaritza Orokorrek ezarritako gehienezko interes-tasaren pareko interes-tasa tekniko, edo txikiagoa, erabili du Taldeak urtero. Zentzu horretan, Arautegiaren 33.1 artikuluan ezarritakoari lotu zaio Taldea. Aktibo mota horiei zorro bat eta finantza-inbertsioak esleitu dizkie, eta aktiboen benetako errentagarritasuna hornidura matematikoaren batez besteko errentagarritasuna bano handiagoa den begiratu du urtero.

Taldeak orokorrean Arautegiaren 33.2 artikuluan ezarritakoari men egiten ez badio ere, batera monitorizatzen ditu aktiboko eta pasiboko fluxuen proiektzioak. Horretarako, hilkortasun- eta baliaezintasun-tasak, erreskatea eta gastuak kalkulatzeko barne-hipotesien ondoriozko proiektzioak aplikatzen ditu eta, hipotesi horietan oinarrituz, finantza-informazioak konprometitutako pasiboetara egokitzen diren egiaztatzen du.

Espaniako legeria aplikatuz, Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak, Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren menpe dagoenak, bere egindako hondamen-arriskuen ondorioak estalita ditu Taldeak bere kontratuetan.

Beste alde batetik, kontratuetan ezbehar-tasaren arriskua murriztu ahal izateko, berraseguru-kontratuak erabiltzen ditu Taldeak.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Ezin da esan arrisku-kontzentrazio handiegirik dagoenik; izan ere, Taldearen aseguruaren negozioa partikularren arrisku pertsonalak aseguratzean oinarritzen da batik bat, eta, beraz, arrisku maila txikia du, hondamendi-arriskua alde batera utzita —Aseguruak Konpentsatzeko Partzuergoak estaltzen du hori—.

Prestazioetarako hornidura kalkulatzeko, Aseguru Pribatuen Ordenazio eta Gainbegiratzeari buruzko Arautegian ezarritakoa betetzen da.

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009ko azaroaren 25eko 2009/138/EE Zuzentaraua, bizitza-aseguruari eta aseguru- eta berraseguru-jardueran hasi eta aritzeari buruzkoa (aurrerantzean Kaudimena II Zuzentaraua), argitaratu zenean, entitate aseguratzaile eta berraseguratzaileen antolamendu-, gainbegiratze- eta kaudimen-araubide berria eratu zen. 2016ko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean.

Indarreko arautegian aurreikusitako ezarpen-egutegiari jarraiki, Seguros Lagun Aro SA eta Seguros Lagun Aro Vida SA 2016ko maiatzaren 19ra arte ez daude behartuta, arautegi berria indarrean sartzeko datari, hau da, 2016ko urtarrilaren 1ari, buruzko behin betiko datuak Erakunde Arautzaileari igortzera.

Urteko kontu bateratu hauek formulatu ditugunean, aurretiazko informazioa emateko aukera aztertzen ari da sozietate horietako bakoitzeko Administrazio Kontseilua, data horretan ez baitu behin betiko informaziorik.

Halere, poliki-poliki Kaudimena II Zuzentaruaren ezarritako araubide berrira egokitzeko denborazko neurriak direla eta, Administrazioaileek ez dute aurreikusten Entitatearen eragiketekin jarraitzea oztopa dezakeen inolako eragozpen esanguratsurik araubide berria betetzeko.

Edonola ere, araubide berriak denborazko xedapen iragankorrak ditu ezarrita, ez-betetzereen bat gertatuz gero bertan ezarritako neurriak arintzeko.

21. Arriskuen kontzentrazioa

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 575/2013 Arautegiaren eta kaudimen-eskakizunen gainean ondoren egin zaizkion aldaketen arabera, arrisku handietan —baliabide propioen % 10 gainditzen dutenak dira— pertsona edo talde batekin ezin da baliabide propioen % 25 baino gehiago arriskatu. Salbuespenezko kasuren batean muga hori gainditzen bada, Entitateak zenbateko horren berri eman beharko die, berehala, agintari eskudunei. Horiek, inguruabarren arabera egokia iruditzen bazaie, denbora-tarte bat emango diote, mugatik behera egiteko. Entitatearen arriskuak onartzeko politikak kontuan hartzen ditu muga eta irizpide horiek, eta eskakizun horiei dagozkien alderdi kontrarioaren arrisku-mugak eta soberak kontrolatzeko prozedurak ezarri dira.

2015eko eta 2014ko abenduaren 31n, MONDRAGON kooperatibekiko arriskua, arriskuen unitate ekonomiko gisa hartzen dena, bakarrik jo daiteke “arrisku handizat”, baliabide propioen % 10 gainditzen du eta.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA (Mila eurokotan adierazita)

Taldearen arriskuen kontzentrazioak eta horien kontabilitate-balioak hauek izan dira, 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n, arriskuari dagokion geografia-sektorea eta kontrako alderdien motak kontuan hartuta:

2015

	Guztira kontabilitate- balioa (a)	Espainia	Europar Batasuneko gainerako herrialdeak	Amerika	Munduko gainerako herrialdeak
Kreditu-erakundeak	1.722.909	1.098.153	608.670	7.185	8.901
Administrazio publikoak	4.504.423	4.477.285	27.138	-	-
– Administrazio zentrala	3.965.264	3.938.473	26.791	-	-
– Gainerakoak	539.159	538.812	347	-	-
Beste finantza-erakunde batzuk	620.108	313.230	247.223	55.991	3.664
Sozietate ez-finantzarioak eta banakako enpresariak	2.681.631	2.591.148	85.414	2.325	2.744
– Eraikuntza eta higiezinaren sustapena	101.685	101.685	-	-	-
– Obra zibila	73.327	73.231	96	-	-
– Gainerako helburuak	2.506.619	2.416.232	85.318	2.325	2.744
Enpresa handiak	365.201	283.269	79.302	-	2.630
ETEak eta banakako enpresaburuak	2.141.418	2.132.963	6.016	2.325	114
Gainerako etxeak eta FZIAGEak	11.040.459	11.023.681	13.248	1.798	1.732
– Etxebizitzak	10.420.070	10.404.098	12.650	1.633	1.689
– Kontsumoa	360.202	359.971	169	33	29
– Beste helburu batzuk	260.187	259.612	429	132	14
Ken: aktiboak narriatzeagatiko balio-zuzenketak, eragiketa zehatzei egotzi gabeak	(90.489)				
GUTZIRA	20.479.041	19.503.497	981.693	67.299	17.041

2014

	Guztira kontabilitate- balioa (a)	Espainia	Europar Batasuneko gainerako herrialdeak	Amerika	Munduko gainerako herrialdeak
Kreditu-erakundeak	2.430.501	1.721.563	693.247	10.174	5.517
Administrazio publikoak	6.164.242	6.140.288	23.954	-	-
– Administrazio zentrala	5.652.949	5.628.995	23.954	-	-
– Gainerakoak	511.293	511.293	-	-	-
Beste finantza-erakunde batzuk	837.040	500.796	272.935	58.607	4.702
Sozietate ez-finantzarioak eta banakako enpresariak	2.902.999	2.817.115	80.848	1.168	3.868
– Eraikuntza eta higiezinaren sustapena	250.467	250.467	-	-	-
– Obra zibila	76.703	76.703	-	-	-
– Gainerako helburuak	2.575.829	2.489.945	80.848	1.168	3.868
Enpresa handiak	414.559	335.248	75.715	-	3.596
ETEak eta banakako enpresaburuak	2.161.270	2.154.697	5.133	1.168	272
Gainerako etxeak eta FZIAGEak	11.456.265	11.439.338	13.867	1.724	1.336
– Etxebizitzak	10.788.396	10.772.385	13.176	1.534	1.301
– Kontsumoa	201.336	201.074	170	57	35
– Beste helburu batzuk	466.533	465.879	521	133	-
Ken: aktiboak narriatzeagatiko balio-zuzenketak, eragiketa zehatzei egotzi gabeak	(123.083)				
GUTZIRA	23.667.964	22.619.100	1.084.851	71.673	15.423

(a) Arriskuaren definizioak balantzeko partida hauek hartzen ditu: Kreditu-erakundeen gordailuak, Bezeroei emandako kreditua, Zor-balore adierazgarriak, Kapital-tresnak, Negoziatio-deribatuak, Estaldura-deribatuak, Partaidetzak eta Arrisku kontingenteak.

Mailegu-hartzaileen, balio-jaulkitzaileen eta deribatuen eta arrisku kontingenteen kontrako alderdiak zer herrialdetan edo autonomia-erkidegotan dauden kontuan hartuta banatuko da jarduera eremu geografikoetan.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA (Mila eurokotan adierazita)

2015

Espainiako jarduera	AUTONOMIA ERKIDEGOAK				
	Guztira (kontabilitate -balio garbia) (a)	EAE	Nafarroa	Madril	Gainerakoak
Kreditu-erakundeak	1.098.153	11.327	-	1.030.821	56.005
Administrazio publikoak	4.477.285	314.191	98.319	121.343	3.943.432
– Administrazio zentrala	3.938.473	-	-	-	3.938.473
– Gainerakoak	538.812	314.191	98.319	121.343	4.959
Beste finantza-erakunde batzuk	313.230	175.989	127	123.792	13.322
Sozietate ez-finantzarioak eta banakako enpresariak	2.591.148	1.606.603	298.038	216.022	470.485
– Eraikuntza eta higiezinaren sustapena	101.685	57.866	13.425	2.752	27.642
– Obra zibila	73.231	20.314	3.066	44.954	4.897
– Gainerako helburuak	2.416.232	1.528.423	281.547	168.316	437.946
Enpresa handiak	283.269	151.490	14.249	68.601	48.929
ETEak eta banakako enpresaburuak	2.132.963	1.376.933	267.298	99.715	389.017
Gainerako etxeak eta FZIAGEak	11.023.681	6.453.039	1.347.965	315.567	2.907.110
– Etxebizitzak	10.404.098	6.057.260	1.267.411	302.575	2.776.852
– Kontsumoa	359.971	290.998	21.404	6.577	40.992
– Beste helburu batzuk	259.612	104.781	59.150	6.415	89.266
Ken: aktiboak narriatzeagatiko balio-zuzenketak, eragiketa zehatzei egotzi gabeak	(90.206)				
GUZTIRA	19.413.291	8.561.149	1.744.449	1.807.545	7.390.354

2014

Espainiako jarduera	AUTONOMIA ERKIDEGOAK				
	Guztira (kontabilitate -balio garbia) (a)	EAE	Nafarroa	Madril	Gainerakoak
Kreditu-erakundeak	1.721.563	13.923	-	1.558.589	149.051
Administrazio publikoak	6.140.288	264.926	142.833	97.905	5.634.624
– Administrazio zentrala	5.628.995	-	-	-	5.628.995
– Gainerakoak	511.293	264.926	142.833	97.905	5.629
Beste finantza-erakunde batzuk	500.796	172.217	160	314.420	13.999
Sozietate ez-finantzarioak eta banakako enpresariak	2.817.115	1.758.785	325.251	272.369	460.710
– Eraikuntza eta higiezinaren sustapena	250.467	173.290	26.253	3.877	47.047
– Obra zibila	76.703	23.191	4.557	46.219	2.736
– Gainerako helburuak	2.489.945	1.562.304	294.441	222.273	410.927
Enpresa handiak	335.248	165.257	11.693	122.416	35.882
ETEak eta banakako enpresaburuak	2.154.697	1.397.047	282.748	99.857	375.045
Gainerako etxeak eta FZIAGEak	11.439.338	6.711.556	1.409.861	299.060	3.018.861
– Etxebizitzak	10.772.385	6.258.312	1.328.936	288.008	2.897.129
– Kontsumoa	201.074	137.156	21.583	4.898	37.437
– Beste helburu batzuk	465.879	316.088	59.342	6.154	84.295
Ken: aktiboak narriatzeagatiko balio-zuzenketak, eragiketa zehatzei egotzi gabeak	(122.457)				
GUZTIRA	22.496.643	8.921.407	1.878.105	2.542.343	9.277.245

(a) Arriskuaren definizioak balantzeko partida hauek hartzen ditu: Kreditu-erakundearen gordailuak, Bezeroei emandako kreditua, Zor-balore adierazgarriak, Kapital-tresnak, Negoziazio-deribatuak, Estaldura-deribatuak, Partaidetzak eta Arrisku kontingenteak.

Ondorengo oharretan, Taldearen arrisku-kontzentrazioaren xehetasunak bildu dira, eragiketa motaren, jarduera- eta geografia-eremuaren, dibisaren, arrisku-kalitatearen eta abarren arabera.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

22. Kutxa eta banku zentraletako gordailuak

Hona hemen balantze bateratuetako epigrafe honek 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n duen banakapena:

	<u>2015</u>	<u>2014</u>
Kutxa	88.463	78.688
Espainiako Bankuko gordailuak	94.709	64.764
Gainerako gordailuak	94.709	64.764
Balioztapenagatiko doikuntzak	5	4
Sortutako interesak	5	4
	<u>183.177</u>	<u>143.456</u>
Dibisaren arabera:		
Eurotan	181.610	142.542
AEBko dolarretan	1.037	473
Franko suitzarretan	147	70
Libera esterlinatan	283	228
Yen japoniarretan	11	10
Beste batzuk	89	133
	<u>183.177</u>	<u>143.456</u>

Hurrenez hurren, % 0,050ekoa eta % 0,049koa izan dira Espainiako Bankuko gordailuek 2015eko eta 2014ko ekitaldietan lortu duten urteko batez besteko interes-tasa.

Europako Banku Zentralaren 1745/2008 zenbakiko Arautegiaren (EErenaren) arabera, Europar Batasuneko estatu kideetako kreditu-erakundeek arautegi horretan zehaztutako pasibo konputagarrien % 1eko gutxieneko erreserba-koefizientea izan behar dute, hurrenez hurren, 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n. 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n, indarreko arautegiak koefiziente horri buruz ezarritako gutxienekoak betetzen zituen Laboral Kutxak.

23. Aktiboko eta pasiboko negoziazio-zorria

Hona hemen balantze bateratuetako epigrafe hauek 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n duen banakapena:

	<u>Aktiboa</u>		<u>Pasiboa</u>	
	<u>2015</u>	<u>2014</u>	<u>2015</u>	<u>2014</u>
Zor-balore adierazgarriak	255.143	278.881	-	-
Kapital-tresnak	776	1.062	-	-
Negoiazio-deribatuak	3.047	8.280	3.430	10.230
	<u>258.966</u>	<u>288.223</u>	<u>3.430</u>	<u>10.230</u>

2015eko ekitaldian zehar, negoziazio-zorria 30 milioi euro inguru murriztu da, batez ere Estatuak jaulkitako zorra eta Altxorraren Letrak eta errenta finkoko beste balore batzuk saltzearen ondorioz. 2014ko ekitaldian zehar, Estatuak jaulkitako zorraren eta Altxorraren Letren erosketa garbiak egin dira. Horren ondorioz, 100 milioi eurotik gora areagotu da zor publiko horrekiko arriskua, ekitaldi horretarako negoziazio-zorroan.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

2015eko eta 2014ko abenduaren 31n aktiboko eta pasiboko "Negoziazio-zorroa"n dauden elementuen arrazoizko balioa eta erabilitako balioztapen-teknikak 43. oharrean sartu dira.

Aktiboko eta pasiboko negozioziorroko elementuen arrazoizko balioan izandako aldaketek eragina izan dute 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietako galdu-irabazien kontu bateratuetan. Hona hemen (52. oharra):

	Onurak		Galerak	
	2015	2014	2015	2014
Zor-balore adierazgarriak	21.188	13.533	21.053	10.909
Beste kapital-tresna batzuk	18.504	19.379	21.989	17.289
Negoziazio-deribatuak	36.409	25.373	32.320	27.591
	76.101	58.285	75.362	55.789

Aktiboko eta pasiboko negozioziorroko elementuen arrazoizko balioan izandako aldaketek 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietako galdu-irabazien kontu bateratuetan eragindakoa banakatu egin dugu, arrazoizko balioa zehazteko irizpidea erabiliz, eta honako hau da banakapena:

	Onurak		Galerak	
	2015	2014	2015	2014
Arrazoizko balioa honela ateratzen zaien elementuak:				
Kotizazioak erreferentziatzen harturik (1. maila)	33.908	27.666	42.685	30.148
Honako hauetan oinarritutako teknika baten bidez:				
Merkatutik datozen datuetan (2. maila)	42.193	30.619	32.677	25.641
Merkatutik ez datozen datuetan (3. maila)	-	-	-	-
	76.101	58.285	75.362	55.789

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOAK (Mila eurokotan adierazita)

Hona hemen 2015eko eta 2014ko abenduaren 31ko balantze bateratuetako aktiboko eta pasiboko Negoziatio-zorroa epigrafeen banakapena, dibisak eta muga-egunak kontuan hartuta:

	Aktiboa		Pasiboa	
	2015	2014	2015	2014
Dibisaren arabera:				
Eurotan	258.966	288.223	3.430	10.230
	258.966	288.223	3.430	10.230
Muga-egunaren arabera:				
1 hilabetera artekoak	805	524	121	791
Hilabete 1 eta 3 bitartekoak	332	1.554	178	1.775
3 hilabete eta 1 urte bitartekoak	836	4.208	1.464	4.238
1 eta 5 urte bitartekoak	111.552	175.148	975	1.705
5 urtetik gorakoa	144.665	105.727	692	1.721
Zehaztu gabeko muga-egunekoak	776	1.062	-	-
	258.966	288.223	3.430	10.230

a) Kreditu-arriskua

Arriskuen kontzentrazioaren eta egun jakin batzuetan horiek zuten liburu-balioaren berri emango dugu jarraian, arriskuari dagokion geografia-sektorea, alderdi kontrarioen motak eta tresna motak kontuan hartuta:

	2015		2014	
	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%
Geografia-sektorearen arabera:				
Estatua	258.075	% 99,66	287.827	% 99,86
Europar Batasuneko gainerako herrialdeak	891	% 0,34	396	% 0,14
Munduko gainerako herrialdeak	-	-	-	-
	258.966	% 100,00	288.223	% 100,00
Alderdi kontrarioen motaren arabera:				
Kreditu-erakundeak	30.089	% 11,62	11.686	% 4,05
Administrazio publiko egoiliarak	226.707	% 87,54	223.877	% 77,68
Beste sektore egoiliar batzuk	2.014	% 0,78	52.298	% 18,14
Beste sektore ez-egoiliar batzuk	156	% 0,06	362	% 0,13
	258.966	% 100,00	288.223	% 100,00
Tresna motaren arabera:				
Kotizatutako obligazioak eta bonuak	255.143	% 98,52	278.881	% 96,76
Errenta finkoko beste balore batzuk	-	-	-	-
Merkatuetan negoziatu gabeko deribatutak				
Antolatuak	3.047	% 1,18	8.280	% 2,87
Akzio kotizatuak	776	% 0,30	1.062	% 0,37
	258.966	% 100,00	288.223	% 100,00

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Aktiboko negoziazio-zorroa banakatuko dugu ondoren, kalifikazio-agentzia nagusiek emandako kanpoko kreditu-kalifikazioen arabera:

	2015		2014	
	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%
A ratinga eman zaien arriskuak	27.978	% 10,80	24	% 0,01
B ratinga eman zaien arriskuak	228.817	% 88,36	281.183	% 97,56
Esleitu gabeko zenbatekoak	2.171	% 0,84	7.016	% 2,43
	258.966	% 100,00	288.223	% 100,00

b) Zor-balore adierazgarriak

Segidan, 2015eko eta 2014ko abenduaren 31ko balantze bateratuko aktiboko “Zor-balore adierazgarriak” epigrafeko saldoaren banakapena azaltzen da:

	2015	2014
Espainiako zor publikoa	212.473	223.877
Kreditu Ofizialeko Institutua	28.436	9.358
Errenta finkoko beste balore batzuk	14.234	45.646
	255.143	278.881

Hurrenez hurren, % 1,046koa eta % 1,566koa izan dira banku-negozioko “Zor-balore adierazgarriak” 2015eko eta 2014ko ekitaldietan lortu duten urteko batez besteko interes-tasa.

c) Kapital-tresnak

Balantze bateratuetako aktiboko “Beste kapital-tresna batzuk” epigrafeko saldoa, 2015eko eta 2014ko abenduaren 31koa, banakatuko dugu orain:

	2015	2014
Espainiako erakundeetako partaidetzak	-	700
Atzerriko erakundeetako partaidetzak	156	362
Inbertsio-fondoetako partaidetzak	620	-
Bestelako partaidetzak	-	-
	776	1.062

2015eko ekitaldian zehar, Entitate Nagusiak saldu egin ditu Espainiako erakunde kotizatueta (Endesa SAn eta Sacyr SAn) dituen partaidetza guztiak eta 50 mila euroko mozkin lortu du.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

d) Negoziazio-deribatuak

Hona hemen 2015eko eta 2014ko abenduaren 31ko balantze bateratuetako aktiboko eta pasiboko "Negoziazio-deribatuak" epigrafeko saldoaren banakapena:

	2015		
	Balio nozionala	Arrazoizko balioa	
		Aktiboa	Pasiboa
Muga-eguneratu gabeko dibisen salerosketa			
Erosketak	35.326	1.117	195
Salmentak	68.946	331	1.016
Baloreen eta interes-tasen gaineko etorkizunak			
Erositakoak	-	-	-
Saldutakoak	11.615	-	-
Baloreen gaineko aukerak			
Erositakoak	35.000	948	-
Saldutakoak	1.504.107	-	787
Dibisen gaineko aukerak			
Erositakoak	-	-	-
Saldutakoak	-	-	-
Interes-tasen gaineko aukerak			
Erositakoak	6.289	15	-
Saldutakoak	9.490	-	15
Interes-tasen gaineko beste eragiketa batzuk			
FRAk	-	-	-
Finantza-trukeak	15.384	139	227
Call Money Swapak (CMSak)	-	-	-
Bestelakoak	-	497	1.190
		3.047	3.430

	2014		
	Balio nozionala	Arrazoizko balioa	
		Aktiboa	Pasiboa
Muga-eguneratu gabeko dibisen salerosketa			
Erosketak	60.037	2.528	1
Salmentak	98.287	29	2.961
Baloreen eta interes-tasen gaineko etorkizunak			
Erositakoak	-	-	-
Saldutakoak	5.000	-	-
Baloreen gaineko aukerak			
Erositakoak	369.150	2.248	4.166
Saldutakoak	2.187.937	2.318	-
Dibisen gaineko aukerak			
Erositakoak	-	-	-
Saldutakoak	-	-	-
Interes-tasen gaineko aukerak			
Erositakoak	9.500	10	-
Saldutakoak	19.100	-	10
Interes-tasen gaineko beste eragiketa batzuk			
FRAk	-	-	-
Finantza-trukeak	133.631	1.085	1.118
Call Money Swapak (CMSak)	-	-	-
Bestelakoak	-	62	1.974
		8.280	10.230

Negoziazio-deribatuen kontratuetako zenbateko nozionalean eta/edo kontratukoan ez da Taldeak bere gain hartutako arriskua kuantifikatzen, posizio garbia tresna horiek konpentsatu eta/edo konbinatzen lortzen delako.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

24. Galdu-irabazietan aldaketak dituzten beste aktibo eta pasibo batzuk arrazoizko balioan

Hona hemen balantze bateratuetako epigrafe hauek 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n duten banakapena:

	Aktiboa		Pasiboa	
	2015	2014	2015	2014
Zor-balore adierazgarriak	-	1.225	-	-
Kapital-tresnak	558	903	-	-
	558	2.128	-	-

2015eko eta 2014ko abenduaren 31n atal honetan dauden elementuen arrazoizko balioa eta erabilitako balioztapen-teknikak 43. oharrean sartu dira.

Galdu-irabazietan aldaketak dituzten beste aktibo eta pasibo batzuk arrazoizko balioan atalean jasotako elementuek arrazoizko balioan izandako gorabeherak eragin hau izan dute, 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietako galdu-irabazien kontu bateratuetan (52. oharra):

	Mozkinak		Galerak	
	2015	2014	2015	2014
Zor-balore adierazgarriak	4.314	4.518	1.432	1.527
Beste kapital-tresna batzuk	14	6	10	4
	4.328	4.524	1.442	1.531

Galdu-irabazietan aldaketak dituzten beste aktibo eta pasibo batzuk arrazoizko balioan atalean jasotako elementuek arrazoizko balioan izandako gorabeherak 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietako galdu-irabazien kontu bateratuetan izandako eragina banakatu egin dugu, arrazoizko balioa zehazteko irizpidea erabiliz, eta honako hau da banakapena:

	Mozkinak		Galerak	
	2015	2014	2015	2014
Arrazoizko balioa honela ateratzen zaien elementuak:				
Kotizazioak erreferentziatzen harturik (1. maila)	4.328	858	1.442	336
Honako hauetan oinarritutako teknika baten bidez:				
Merkatutik datozen datuetan (2. maila)	-	3.666	-	1.195
Merkatutik ez datozen datuetan (3. maila)	-	-	-	-
	4.328	4.524	1.442	1.531

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA (Mila eurokotan adierazita)

Hona hemen 2015eko eta 2014ko abenduaren 31ko balantze bateratuetako galdu-irabazietan aldaketak dituzten beste aktibo eta pasibo batzuk arrazoizko balioan epigrafeen banakapena, dibisak eta muga-egunak kontuan hartuta:

	Aktiboa		Pasiboa	
	2015	2014	2015	2014
Txanponaren arabera:				
Eurotan	558	2.128	-	-
	558	2.128	-	-
Muga-egunaren arabera:				
Agerikoak	-	1.225	-	-
3 hilabete eta urtebete bitartekoak	-	-	-	-
1 eta 5 urte bitartekoak	-	-	-	-
5 urteko gorakoak	-	-	-	-
Zehaztu gabeko muga-egunekoak	558	903	-	-
	558	2.128	-	-

a) Kreditu-arriskua

Arriskuen kontzentrazioaren eta egun jakin batzuetan horiek zuten kontabilitate-balioaren berri emango dugu jarraian, arriskuari dagokion geografia-sektorea, kontrako alderdien motak eta tresna motak kontuan hartuta:

	2015		2014	
	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%
Geografia-sektorearen arabera:				
Estatua	558	% 100,00	903	% 42,43
Europar Batasuneko gainerako herrialdeak	-	-	1.225	% 57,57
Munduko gainerako herrialdeak	-	-	-	-
	558	% 100,00	2.128	% 100,00
Alderdi kontrarioen motaren arabera:				
Kreditu-erakundeak	-	-	1.225	% 57,57
Administrazio publiko egoiliarrak	-	-	-	-
Beste sektore egoiliar batzuk	558	% 100,00	903	% 42,43
Beste sektore ez-egoiliar batzuk	-	-	-	-
	558	% 100,00	2.128	% 100,00
Tresna motaren arabera:				
Kotizatutako obligazioak eta bonuak	-	-	1.225	% 57,57
Errenta finkoko beste balore batzuk	-	-	-	-
Inbertsio-fondoetako partaidetzak	558	% 100,00	903	% 42,43
	558	% 100,00	2.128	% 100,00

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Galdu-irabazietan aldaketak dituzten beste finantza-aktibo batzuk arrazoizko balioan atala banakatuko dugu ondoren, kalifikazio-agentzia nagusiek emandako kanpoko kreditu-kalifikazioen arabera:

	2015		2014	
	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%
A ratinga eman zaien arriskuak	-	-	1.225	% 57,57
B ratinga eman zaien arriskuak	-	-	-	-
Esleitu gabeko zenbatekoak	558	% 100,00	903	% 42,43
	558	% 100,00	2.128	% 100,00

b) Zor-balore adierazgarriak

Segidan, 2015eko eta 2014ko abenduaren 31ko balantze bateratuko aktiboko “Zor-balore adierazgarriak” epigrafeko saldoaren banakapena azaltzen da:

	2015	2014
Espainiako zor publikoa	-	-
Errenta finkoko beste balore batzuk	-	1.225
	-	1.225

Hurrenez hurren, % 4,15ekoa eta % 17,17koa izan dira aseguruen negozioko “Zor-balore adierazgarriak” 2015eko eta 2014ko ekitaldietan lortu duten urteko batez besteko errentagarritasuna.

c) Kapital-tresnak

2015eko eta 2014ko abenduaren 31ko balantze bateratuetako aktiboko “Kapital-tresnak” epigrafeko saldoa, berriz, Taldeak kudeatutako inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetzei dagokio.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

25. Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak

Hona hemen balantze bateratuetako epigrafe honek 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n duen banakapena:

	<u>2015</u>	<u>2014</u>
Zor-balore adierazgarriak	4.228.921	6.000.628
Espainiako zor publikoa	<u>3.494.985</u>	<u>4.883.221</u>
Altxor-letrak	317.000	1.205.361
Estatuaren obligazioak eta bonuak	3.177.985	3.677.860
Bestelako zor anotatuak	-	-
Espainiako beste administrazio publiko batzuen zorra	11.236	30.867
Atzerriko zor publikoa	13.566	7.599
Kreditu-erakundeek jaulkitakoak	<u>474.807</u>	<u>840.941</u>
Egoiliarak	243.945	595.335
Ez-egoiliarak	230.862	245.606
Errenta finkoko beste balore batzuk	<u>236.734</u>	<u>255.658</u>
Beste egoiliar batzuek jaulkitakoak	67.148	48.806
Beste ez-egoiliar batzuek jaulkitakoak	169.586	206.852
Zalantzako aktiboak	37.865	220
Aktiboen narriaduraren ondoriozko balio-zuzenketak	(40.272)	(17.878)
Mikro-estaldurako eragiketak	-	-
Kapital-tresnak	<u>387.420</u>	<u>391.071</u>
Espainiako erakundeetako partaidetzak	116.330	130.574
Atzerriko erakundeetako partaidetzak	92.020	83.926
Inbertsio-fondoetako partaidetzak	119.210	113.149
Kapital arriskuko erakundeekiko partaidetzak	56.423	59.985
Heziketako eta Sustapeneko Fondoari atxikitako baloreak	<u>3.437</u>	<u>3.437</u>
	<u><u>4.616.341</u></u>	<u><u>6.391.699</u></u>

2015eko abenduaren 31n, "Kapital-tresnak" epigrafean 6.105 mila euroko kopurua (2014ko abenduaren 31n 6.723 mila eurokoa) agertzen da. Sozietateetako partaidetzei dagozkien kopuruok. Entitate Nagusiak horiek egun jakin batean saltzeko konpromisoa du hartuta, eta salmenta-prezioa ateratzeko, eskurapen-kostuari Euriborra erreferentziazat harturik ateratako errendimendua gehituko dio.

"Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak" epigrafeko elementuen 2015eko eta 2014ko abenduaren 31ko arrazoizko balioa eta erabilitako balioztapen-technikak 43. oharrean sartu dira.

41. oharrean, 2015eko eta 2014ko abenduaren 31ko ondare garbi bateratuko "Balioztapenagatiko doikuntzak" epigrafeko saldoa banakatu dugu. Saldo hori "Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak" epigrafeko elementuen arrazoizko balioan gertatu diren aldaketek eragin dute.

2015eko eta 2014ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietan, hurrenez hurren, 9.029 mila eurori eta 7.099 mila eurori eman zaie baja ondare garbiko "Balioztapenagatiko doikuntzak" epigrafetik, eta gero galdu-irabazien kontu bateratuan jaso dira; bi zenbatekooi kendu egin zaie zerga-eragina.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

16. oharrean adierazi denez, Entitate Nagusiaren finantzaketari eta likideziari jarraipena egiteko politika aktiboarekin bat, 2014ko ekitaldian Estatuak jaulkitako zor eta Altxorraren Letra asko erosi ziren. Horren ondorioz, hurrenez hurren 1.690 eta 1.205 milioi eurotik gora areagotu zen zor publiko horrekiko arriskua, saltzeko eskuragarri dauden finantza-aktiboen zorroan.

2015eko ekitaldian zehar, 2.176 milioi euro amortizatu dira, Estatuak jaulkitako zorrean eta Altxorraren letretan. Entitateak amortizazio horietan lortutako likidezia erabili du, EBZren LTRO enkantean hartutako zenbatekoaren zati bat itzultzeko.

Hauxe da balantze bateratuetako "Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak" epigrafeak 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n zuen banakapena Dibisa eta Muga-egunaren arabera:

	2015	2014
Txanponaren arabera:		
Eurotan	4.561.844	6.335.541
AEBko dolarretan	41.943	43.122
Libera esterlinatan	10.038	10.624
Franko suitzarretan	2.516	2.412
Gainerakoak	-	-
	4.616.341	6.391.699
Muga-egunaren arabera:		
Hilabetera bitartekoak	218.264	1.207.555
1 eta 3 hilabete bitartekoak	315.395	1.012.360
3 hilabete eta urtebete bitartekoak	975.729	812.761
1 eta 5 urte bitartekoak	2.323.228	2.485.055
5 urtetik gorakoak	436.577	500.594
Zehaztu gabeko muga-egunekoak	387.420	391.070
Balioztapenagatiko doikuntzak	(40.272)	(17.878)
	4.616.341	6.391.699

Ondoren, "Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak" epigrafean 2015 eta 2014 ekitaldietan izandako mugimenduak erakutsiko ditugu:

	2015	2014
Ekitaldi-hasierako saldoa	6.391.699	3.908.757
Gehikuntzak/baja garbiak	(1.707.685)	2.435.278
Arrazoizko balioaren aldatetengatiko mugimenduak	(30.544)	45.844
Narriaduraren ondoriozko galerak (garbiak), emaitzetan kargatzekoak (59. oharra)	(37.129)	1.820
Bestelakoak	-	-
Ekitaldi-itxierako saldoa	4.616.341	6.391.699

Hurrenez hurren, % 1,707koa eta % 2,579koa izan dira banku-negozioko "Zor-balore adierazgarriak" 2015eko eta 2014ko ekitaldietan lortu duten urteko batez besteko interes-tasa. Hurrenez hurren, % 3,54koa eta % 4,25koa izan dira aseguru-en negozioko "Zor-balore adierazgarriak" 2015eko eta 2014ko ekitaldietan lortu duten urteko batez besteko errentagarritasuna.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA (Mila eurokotan adierazita)

2015eko abenduaren 31n, “Zor-balore adierazgarriak – Kreditu-erakunde ez-egoiliarrek jaulkitakoak” epigrafean bost jaulkipen daude sartuta: 192 milioi euroko zenbatekoa osatzen dute guztira —2014ko abenduaren 31n, 198 milioi euroren bost jaulkipen—. 2017an eta 2018an mugaeguneratzen dira, eta errentagarritasunerako goiko eta beheko topeak mugatu zaizkien interes-tasak hartzen dituzte erreferentziatzat.

Bestalde, 2015eko abenduaren 31n, 4.755 mila euroko mendeko beste zor-tresna batzuk zituen aktibo erabilgarrien zorroan (10.997 mila eurokoak 2014ko abenduaren 31n). 2015eko ekitaldian, “Zalantzazko aktiboak” epigrafera insuldatu dira titulu horietako 6.097 mila euro.

Kotizatu gabeko hainbat sozietateren kapitalean partaidetzak harpidetuta ditu Entitate Nagusiak, 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n. Horiek galdatu ez diren eta egiteko dauden ordainketak dituzte, 397 mila eurokoak alegia.

a) Kreditu-arriskua

Hona hemen “Zor-balore adierazgarriak” zorroko geografia-sektoreagatiko arrisku-kontzentrazioak:

	2015		2014	
	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%
Estatua	3.839.179	% 89,93	5.558.229	% 92,35
Europar Batasuneko gainerako herrialdeak	415.318	% 9,73	441.421	% 7,34
Europako gainerako herrialdeak	311	-	-	-
Munduko gainerako herrialdeak	14.385	% 0,34	18.856	% 0,31
	4.269.193	% 100,00	6.018.506	% 100,00
Balioztapenagatiko doikuntzak	(40.272)		(17.878)	
	4.228.921		6.000.628	

Zor-balore adierazgarrien banakapena honako hau da, kalifikazio-agentzia nagusiek emandako kanpoko kreditu-kalifikazioen arabera:

	2015		2014	
	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%
A ratinga eman zaien arriskuak	210.761	% 4,98	169.254	% 2,82
B ratinga eman zaien arriskuak	3.848.942	% 91,01	5.510.304	% 91,83
C ratinga eman zaien arriskuak	-	-	-	-
Ratingik gabeko zalantzazko aktiboak	37.865	% 0,90	220	-
Esleitu gabeko zenbatekoak	131.353	% 3,11	320.850	% 5,35
	4.228.921	% 100,00	6.000.628	% 100,00

2015eko ekitaldian, batez ere finantza-aktibo batzuen etorkizuneko fluxuak berreskuratzeko itzaropena, burtsa-merkatuen bilakaera, errenta finkoko jaulkipen batzuen likidezia eta diferentzialen kreditu-arriskuaren ondoriozko gorakada tarteko, Taldeak narriatutzat jo ditu “Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak” zorroko zenbait zor-tresna.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

b) Narriaduragatiko galerak

Segidan, 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldietako galdu-irabazien kontu bateratuetako “Finantza-aktiboen narriaduraren ondoriozko galerak (garbiak) – Arrazoizko balioarekin balioztatu gabeko bestelako finantza-tresnak, galdu-irabazietan aldaketak dituztenak” epigrafeko saldoa banakatu dugu (59. oharra).

	<u>2015</u>	<u>2014</u>
Zor-balore adierazgarriak	28.843	(3.869)
Kapital-tresnak	8.286	2.049
	<u>37.129</u>	<u>(1.820)</u>
Emaizten kargurako zuzkidurak		
Banaka zehaztutakoak	38.367	3.278
Taldean zehaztutakoak	(1.091)	419
Emaizetan ordaintzeko zuzkiduren berreskuratzeak	(147)	(5.517)
	<u>37.129</u>	<u>(1.820)</u>

Ondoren, “Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak” epigrafeko “Aktiboen narriaduraren ondoriozko balio-zuzenketak” ataleko saldoak 2015eko eta 2014ko ekitaldietan izandako mugimenduak erakutsiko ditugu:

	<u>2015</u>	<u>2014</u>
Ekitaldi-hasierako saldoa	17.878	21.813
Emaizetan kargatzeko/(ordaintzeko) zuzkidura/(berreskuratze) garbiak	28.843	(3.869)
Kobraezinetara intsuldatzea eratutako fondoer kargura	(6.449)	(66)
	<u>40.272</u>	<u>17.878</u>

Jarraian, “Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak” epigrafeko “Aktiboen narriaduraren ondoriozko balio-zuzenketak” ataleko saldoa, 2015eko eta 2014ko abenduaren 31koa, banakatuko dugu, zehaztapen-irizpidearen arabera:

	<u>2015</u>	<u>2014</u>
Zehazteko moduaren arabera:		
Banaka zehaztutakoa	37.741	14.256
Taldean zehaztutakoa	2.531	3.622
	<u>40.272</u>	<u>17.878</u>

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

26. Kreditu-inbertsioak

Hona hemen balantze bateratuetako epigrafe honek 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n duen banakapena:

	<u>2015</u>	<u>2014</u>
Kreditu-erakundeetako gordailuak	196.117	216.396
Bezeroei emandako kredituak	13.719.411	14.406.971
Zor-balore adierazgarriak	<u>51.535</u>	<u>51.048</u>
	<u>13.967.063</u>	<u>14.674.415</u>

Hona hemen 2015eko eta 2014ko abenduaren 31ko balantze bateratuetako "Kreditu-inbertsioak" epigrafearen banakapena, dibisak eta muga-egunak kontuan hartuta:

	<u>2015</u>	<u>2014</u>
Dibisaren arabera:		
Eurotan	14.555.470	15.380.489
AEBko dolarretan	17.936	20.001
Libera esterlinatan	1.484	998
Yen japoniarretan	2.587	416
Franko suitzarretan	400	167
Bestelakoak	826	476
Balioztapenagatiko doikuntzak	<u>(611.640)</u>	<u>(728.132)</u>
	<u>13.967.063</u>	<u>14.674.415</u>
Muga-egunaren arabera:		
Agerikoak	164.523	184.555
Hilabetera bitartekoak	360.066	536.663
1 eta 3 hilabete bitartekoak	116.464	123.557
3 hilabete eta urtebete bitartekoak	306.534	338.298
1 eta 5 urte bitartekoak	1.181.963	1.234.792
5 urtetik gorakoak	12.132.282	12.630.093
Zehaztu gabeko muga-egunekoak	316.871	354.589
Balioztapenagatiko doikuntzak	<u>(611.640)</u>	<u>(728.132)</u>
	<u>13.967.063</u>	<u>14.674.415</u>

Hurrenez hurren, % 5,04koa eta % 10,09koa izan dira Kreditu-erakundeen gordailuek 2015eko eta 2014ko ekitaldietan lortu duten urteko batez besteko interes-tasa. 2014ko ekitaldian, "Kreditu-erakundeetako gordailuak" epigrafean Depfa Bank plc.rekin kontratatutako lau gordailu zeuden, urtean batez beste % 11ko interes-tasan ordainduta. Gordailu horietako bi ekitaldi horretako otsailean eta apirilean saldu ziren.

Kreditu-inbertsioak esleitutako kanpoko nahiz barruko kreditu-sailkapenen arabera banakatzeari eta inbertsio horietako ez-ordaintzeen tasei dagokienez, kreditu-arriskuari buruzko oharrean azaldu denez, Entitate Nagusiak bere rating- eta scoring-ereduak garatu ditu, bezeroak (rating) eta eragiketak (scoring) bakoitzaren arrisku-mailaren arabera bereizteko. Arriskuaren kudeaketa hobetzea eta barruko eredu horiek Basileako eskakizunen arabera kapital erregulatorioa kalkulatzeko baliozkotzea dira helburuak.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

2015eko eta 2014ko ekitaldiak ixtean, partikularren hipoteka- eta kontsumo-eragiketetarako scoring-ereduei eta ETE-entzako rating-ereduei buruzko informazioa du Entitate Nagusiak. Dena den, Taldearen inbertsio-arriskuaren mailen gaineko informazioa emateko asmoarekin, kreditu-inbertsioen banakapena kreditu-arriskua estaltzeko erabilitako arrisku-mailen arabera sartzea erabaki da.

	2015		2014	
	Zenbatekoa	%	Zenbatekoa	%
Arrisku hautemangarririk gabeak	855.143	% 6	1.081.930	% 7
Arrisku txikikoak	8.941.517	% 64	9.110.173	% 62
Arrisku ertain-txikikoak	1.732.315	% 12	2.019.966	% 14
Arrisku ertainekoak	1.514.452	% 11	1.441.903	% 10
Arrisku ertain-handikoak	280.801	% 2	256.624	% 2
Arrisku handikoak	94.686	% 1	89.136	% 1
Estandarraz azpiko arriskua	124.673	% 1	149.819	% 1
Zalantzazko aktiboak	1.035.116	% 7	1.247.260	% 8
Esleitu gabeko zenbatekoak	-	-	5.736	-
Balioztapenagatiko doikuntzak	(611.640)	(% 4)	(728.132)	(% 5)
	13.967.063	% 100	14.674.415	% 100

Ondoren, Entitate Nagusiaren berankortasun-tasaren berri emango dugu. Hori kalkulatzeko, kontabilitatean zalantzazkotzat sailkatutako saldoen eta bezeroei emateko kredituaren saldoaren arteko erlazioa hartu da kontuan, balioztapenagatiko doikuntzak kontuan hartu gabe.

2015	2014	2013
% 7,21	% 8,23	% 9,03

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

a) Bezeroei emandako kredituak

“Kreditu-inbertsioak” epigrafeko bezeroei emandako kredituen 2015eko eta 2014ko abenduaren 31ko saldoa banakatu dugu, hainbat irizpide erabiliz:

	2015	2014
Modalitatearen eta egoeraren arabera:		
Espainiako administrazio publikoak	335.462	345.148
Kreditu komertziala	240.693	261.733
Hipoteka-bermedun zordunak	10.548.244	11.042.198
Beste berme batzuk dituzten zordunak	45.540	52.954
Eperako beste zordun batzuk	1.755.727	1.650.365
Finantza-errentamenduak	170.062	157.830
Ageriko zordunak eta beste hainbat	119.111	115.764
Aktiboak aldi baterako eskuratzea kontrapartidatun erakundeekin	41.289	235.526
Zalantza-aktiboak	1.035.116	1.247.260
Beste finantza-aktibo batzuk	41.360	28.883
Balioztapenagatiko doikuntzak	(613.193)	(730.690)
Sortutako interesak	11.475	14.828
Aktiboen narriaduraren ondoriozko balio-zuzenketak	(614.769)	(733.608)
Komisioak	(9.899)	(11.910)
	13.719.411	14.406.971
Kreditatuaren jarduera-sektorearen arabera:		
Espainiako administrazio publikoak	343.284	345.534
IM Cédulas 5, Aktiboak Titulizatzeko Fondoa	05-06-15	500.000	500.000	20-06-15
Intermoney Master Zedulak, Aktiboak Titulizatzeko Fondoa	05-12-02	-	500.000	15-12-02
IM Cédulas 7, Aktiboak Titulizatzeko Fondoa	06-03-31	625.000	625.000	21-03-31
IM Cédulas 9, Aktiboak Titulizatzeko Fondoa	06-06-09	300.000	300.000	16-06-09
		<u>1.825.000</u>	<u>2.425.000</u>	

Jaulkitako zedulen urteko interes-tasa nominala % 3,50 eta % 4,39 artekoa da, 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n. “Beste sektore egoiliar batzuk – Balioztapenagatiko doikuntzak” epigrafean 195.535 mila euro agertzen dira 2015eko abenduaren 31n (266.577 mila euro 2014ko abenduaren 31n). Funtsean, hipoteka-zedulek arrazoizko balioan izandako aldaketei dagozkio. Aldaketok interes-tasaren arriskuaren ondorioz gertatu dira, eta, esan beharra dago, arrisku horri kontabilitate-estaldura eman zaiola, 28. oharrean azaltzen denez.

2009ko apirilaren 24ko 716/2009 Errege Dekretuaren 21. artikuluan eta Espainiako Bankuaren 2010eko azaroaren 30eko 7/2010 Zirkularrean ezarritakoari jarraiki, Laboral Kutxak hipoteka-zedulak jaulkitzen dituzenez, hipoteka-zedula eta -bonuak jaulkitzen dituzten erakundeei aplikatzeko kontabilitate-erregistro bereziari buruzko informazioa txertatu dugu, urteko kontu bateratu hauen 66. oharrean.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOAK
(Mila eurokotan adierazita)

Jarraian, 2015eko eta 2014ko abenduaren 31ko balantze bateratuetan "Bezeroen gordailuak" epigrafeko saldoak duen banakapena emango dugu, dibisen eta muga-egunen arabera:

	2015	2014
Txanponaren arabera:		
Eurotan	18.255.750	17.935.238
Dolarretan	25.196	20.445
Libera esterlinatan	1.108	536
Franko suitzarretan	198	141
Yen japoniarretan	202	284
Gainerakoak	309	284
	18.282.763	17.956.928
Muga-egunaren arabera:		
Agerikoak	10.970.519	8.474.244
Hilabetera bitartekoak	1.726.928	936.030
1 eta 3 hilabete bitartekoak	1.529.435	972.703
3 hilabete eta urtebete bitartekoak	3.165.813	4.732.435
1 eta 5 urte bitartekoak	625.600	1.346.587
5 urtetik gorakoak	11.036	1.140.281
	18.029.331	17.602.280
Balioztapenagatiko doikuntzak	253.432	354.648
	18.282.763	17.956.928

d) Balore negoziagarriek ordezkaturako zorrak

Segidan, 2015eko eta 2014ko abenduaren 31ko balantze bateratuetako "Balore negoziagarriek ordezkaturako zorrak" epigrafeko saldoaren banakapena azaltzen da:

	2015	2014
Ordaindukoak eta efektuak	-	-
Bihurgarriak ez diren beste balore batzuk	-	-
Hipoteka-tituluak	1.716.333	1.745.292
Balore propioak	(1.550.000)	(1.400.000)
Balioztapenagatiko doikuntzak	-	242
	166.333	345.534

Hipoteka-tituluak

2006an zehar, titulizazio-bonuak jaulkitzeko hipoteka-mailegu batzuk ekarri zituen Taldeak IM Caja Laboral 1, ATF titulizazio-fondora. 2008ko eta 2011ko ekitaldietan ere, titulizazio-bonuak jaulkitzeko mailegu batzuk ekarri zituen Taldeak IM Caja Laboral 2, ATF eta IM Caja Laboral Empresas 1, ATF titulizazio-fondoetara, eta Taldeak guzti-guztiak harpidetu zituen. Harpidetutako bonu horiek berme kolateral gisa erabiltzeko asmoa du Taldeak, Eurosystemako kreditu-eragiketetan, hain zuzen ere.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

2015eko abenduaren 31n, 166.333 mila eurokoa da IM Caja Laboral 1, ATF titulizazio-fondoaren bitartez jaulki diren eta Taldekoak ez diren hirugarrenek harpidetu dituzten titulizazio-bonuen zenbateko efektiboa (195.292 mila eurokoa, 2014ko abenduaren 31n). Bonuok 2049ko urrian mugaeguneratuko dira IM Caja Laboral 1, ATF titulizazio-fondoarentzat. Euriborrari % 0,15 eta % 0,21 bitarteko diferentziala gehituta ateratzen den interes-tasa sortzen dute urtean.

2014ko abenduaren 31n, atal honetan 150 milioi euroko balio nominala agertzen zen erregistratuta, hipoteka-zedulen bi jaulkipenen ondorioz. Europako Inbertsio Bankuak harpidetu zituen osotasunean eta 2019an eta 2020an mugaeguneratzen dira.

2015eko ekitaldian zehar, Entitate Nagusiak exekutatu egin du Europako Inbertsio Bankutik lortutako finantzaketa kitatzearen ondorioz hipoteka-zedulen jaulkitzaileari esleitzen zaion erosteko aukera. Hortaz, 2015eko abenduaren 31n, kapitulu horrek ez du inolako saldirik, hipoteka-zedula horien balio nominala "Balore propioak" atalean jasota dagoelako.

2020an eta 2019an mugaeguneratzen diren Europako Inbertsio Bankuak harpidetutako baloreen errendimendua interes-tasa aldakorraren bidez zegoen zehaztuta, 3 hilerako Euriborrari % 5,50eko eta % 3,35eko marjina gehituta ateratzen den balio nominala aintzat hartuta, eta hiru hilean behin ordaintzen da.

Era berean, 2012ko ekitaldian Entitate Nagusiak 1.400 milioi euro jaulki zituen hipoteka-zeduletan —2016ko eta 2017ko ekitaldietan mugaeguneratzen dira—. Horiek guztiak autozorro gisa gorde dira "Balio propioak" atalean, Europako Banku Zentralarekin birdeskontuko lineak eskuratzeko berme kolateral gisa erabiltzeko.

Ondoren, "Balore negoziagarriek ordezkaturako zorrak" epigrafeak 2015eko eta 2014ko ekitaldietan izandako mugimenduak erakutsiko ditugu:

	<u>2015</u>	<u>2014</u>
Ekitaldi-hasierako saldoa	345.534	377.171
Jaulkipenak	-	-
Amortizazioak	(178.959)	(31.596)
Taldearen balore propioak	-	-
Balioztapenagatiko doikuntzak	(242)	(41)
Ekitaldi-itxierako saldoa	<u>166.333</u>	<u>345.534</u>

Segidan, 2015eko eta 2014ko abenduaren 31ko Taldearen "Balore negoziagarriek ordezkaturako zorrak" epigrafeko interesak azaltzen dira (47. oharra):

	<u>2015</u>	<u>2014</u>
Balore negoziagarriek ordezkaturako zorrak	1.247	3.105
Ordaindukoak eta efektuak	-	-
Beste balore bihurgarri batzuk	-	-
Hipoteka-tituluak	1.247	3.105
	<u>1.247</u>	<u>3.105</u>

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

37. Aseguru-kontratuen ondoriozko pasiboak

Hona hemen balantze bateratuetako epigrafe honek 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n duen banakapena:

	<u>2015</u>	<u>2014</u>
Bizi-aseguruetarako hornidura teknikoak:	458.961	446.754
Kontsumitu gabeko primetarako eta uneko arrisku- etarako hornidura teknikoak:	65.731	65.295
Zuzeneko aseguria	65.731	65.295
Hornidura tekniko matematikoak	393.230	381.459
Zuzeneko aseguria	393.230	381.459
Bizi-aseguruetarako hornidura teknikoak, inbertsioaren arriskua hartzaileek hartzen dutenean bere gain:	369	717
Zuzeneko aseguria	369	717
Prestazioetarako hornidura teknikoak:	73.776	74.232
Zuzeneko aseguria	73.776	74.232
Mozkinetako partaidetzetarako eta estornuetarako hornidura teknikoak:	198	234
Zuzeneko aseguria	198	234
Lagatako berraseguruagatik jasotako gordailuak	-	-
	<u>533.304</u>	<u>521.937</u>

38. Hornidurak

Hona hemen balantze bateratuetako epigrafe honek 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n duen banakapena:

	<u>2015</u>	<u>2014</u>
Pentsioetarako eta antzeko betebeharretarako fondoak	25.879	35.109
Pentsioetarako beste fondo batzuk	25.879	35.109
Zergetarako eta beste kontingentzia batzuetarako hornidurak	-	162
Zergetarako hornidurak	-	162
Arrisku eta konpromiso kontingente- etarako hornidurak	31.187	31.840
Arrisku kontingente- etarako hornidurak	31.187	31.840
Beste hornidura batzuk	145.590	117.472
	<u>202.656</u>	<u>184.583</u>

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Ondoren, "Hornidurak" epigrafean 2015 eta 2014 ekitaldietan izandako mugimenduak erakutsiko ditugu:

	Pentsioak eta antzeko betebeharrak	Zergetarako eta beste kontingentzia batzuetarako hornidurak	Arrisku eta konpromiso kontingenteak	Beste hornidura batzuk	Guztira
2014ko abenduaren 31n					
Ekitaldi-hasierako saldoa	31.659	4.144	26.686	52.174	114.663
Emaizten kontura egindako zuzkidura garbia:					
Hornikuntzetarako zuzkidurak	13.309	162	27.512	64.908	105.891
Horniduren erabilgarritasuna	-	-	(11.834)	-	(11.834)
Berreskurapenak	-	-	(13.404)	(5)	(13.409)
Fondoan erabilera	(9.859)	(4.144)	-	(9.983)	(23.986)
Beste mugimendu batzuk	-	-	2.880	10.378	13.258
Ekitaldi-itxierako saldoa	35.109	162	31.840	117.472	184.583
2015eko abenduaren 31n					
Ekitaldi-hasierako saldoa	35.109	162	31.840	117.472	184.583
Emaizten kontura egindako zuzkidura garbia:					
Hornikuntzetarako zuzkidurak	2.481	-	26.517	36.968	65.966
Horniduren erabilgarritasuna	-	-	(12.000)	(5.800)	(17.800)
Berreskurapenak	-	(162)	(15.295)	(453)	(15.910)
Fondoan erabilera	(11.711)	-	-	(13.439)	(25.150)
Beste mugimendu batzuk	-	-	125	10.842	10.967
Ekitaldi-itxierako saldoa	25.879	-	31.187	145.590	202.656

a) Pentsioetarako eta antzeko betebeharretarako fondoak

Entitate Nagusiak Plantillak Dinamizatzeko II. Planera atxikitzeko borondatezko erabakiaren ondoriozko etorkizuneko konpromisoak ditu bazkide batzuekin hartuta, 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n. Horrela, bada, benetan erretiratu bitartean bazkideak jasoko dituen soldata-osagaien eta beste gizarte-zama batzuen ondoriozko konpromisoei erantzuteko fondoak ditu eratuta Entitate Nagusiak. Konpromisook plana ezarri zenetik Entitate Nagusiari zerbitzu emateari uzten dioten egunera bitartean sortutakoak izango dira.

Entitate Nagusiak enplegu ondoko ordainketetan hartutako konpromisoen egungo balioa eta konpromiso horiek nola estaltzen ziren azalduko dugu jarraian:

	2015	2014
Hartutako konpromisoak	25.879	35.109
	25.879	35.109
Estaldurak		
Barruko fondoak	25.879	35.109
	25.879	35.109

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

2015eko eta 2014ko abenduaren 31n, enplegu ondoko ordainketen ondoriozko konpromisoak estaltzeari buruzko etorkizuneko prestazio-fluxuak balioztatu dira. Horretarako, proiektatutako kreditu-unitatearena hartu da kalkulua egiteko metodotzat, eta erretiratzeko eskubidea ematen duen lehena erretiratzeko adintzat.

Hona hemen balioztapen aktuarialean kontuan hartutako hipotesi finantzario-aktuariala:

	<u>2015</u>	<u>2014</u>
Deskontu-tasa	% 0,25	% 0,30
Hilkortasun-taulak	PERMF2000P	PERMF2000P
Kontsumo-aurrerakin gordinaren etorkizunerako hazkundea	% 0,0	% 0,5
Prestazioen hazkundea	% 0,0	% 1,5
KPIaren hazkundea	% 2,0	% 2,0
Erretiratzeko adina	Ahalik eta adinik txikienean	Ahalik eta adinik txikienean

Obligazioen deskonturako interes-tasa zehazteko, konpromisoaren iraupena (1,3 urtekoa) hartu da kontuan. Erreferentziatzeko kurba kalkulatzeko, berriz, 2015eko abenduaren 31ko Euro Denominated Corporate Bonds AA kurba hartu da erreferentziatzat (Iturria: Bloomberg).

b) Beste hornidura batzuk

"Hornidurak - Beste hornidura batzuk" epigrafeak gastu posibleei edo galerei aurre egiteko eta/edo abian diren erreklamazio eta auzietatik datozen erantzukizun probable edo ziurrei edo Taldearen jardueraren ondoriozko betebeharreri erantzuteko hornidurak hartzen ditu, besteak beste, bere baitan. Epigrafe horren saldoa zenbatesteko, kalkulu-prozedura zuhur eta sendoak erabili dira, estali behar dituzten betebeharrak dakarten zalantza kontuan hartuta.

39. Gizarte Ekintzarako Fondoa

Hona hemen balantze bateratuetako epigrafe honek 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n duen banakapena:

	<u>2015</u>	<u>2014</u>
Heziketako eta Sustapeneko Fondoa	11.765	11.430
Zuzkidura:	11.386	11.051
Aktibo materialari aplikatua	411	442
Beste inbertsio batzuei – Saltzeko prest dauden finantza-aktiboei aplikatua (25. oharra)	3.437	3.437
Ekitaldian konprometitutako gastuak	7.172	6.655
Uneko ekitaldiko mantentze-gastuak	(7.172)	(6.655)
Konprometitu gabeko zenbatekoa	7.538	7.172
Errebalorizazio-erreserbak	379	379
	<u>11.765</u>	<u>11.430</u>

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Gizarte Ekintzarako Fondoko saldoak mugimendu hauek izan ditu 2015 eta 2014 ekitaldietan:

	<u>2015</u>	<u>2014</u>
Ekitaldi-hasierako saldoa	11.430	10.946
Ekitaldiko soberakinaren kargura egin beharreko nahitaezko zuzkidura (63. oharra)	7.538	7.172
Ekitaldiko mantentze-gastuak	(7.172)	(6.655)
Ibilgetuaren amortizazioa (32. oharra)	(30)	(33)
Bestelakoak	(1)	-
	<u>11.765</u>	<u>11.430</u>

Kreditu-kooperatibei buruzko 13/1989 Legeak, Kooperatiben Erregimen Fiskalari buruzko 20/1990 Legeak aldatu zuena, hauxe agintzen du, 1978ko azaroaren 3ko 2860/1978 Errege Dekretuan ezarritako banaketa-irizpideei eutsiz: gutxienez soberakin garbiaren % 10 Heziketako eta Sustapeneko Fondora bideratuko da (4. oharra).

Fondo horretara egiten diren zuzkidurek kooperatibismoaren garapena, komunitateko kultura- eta asistentzia-beharrei erantzutea edo helburu horietan lagunduko duten ibilgetuak izango dituzte xede, besteak beste. Ildo horretatik, 2014ko eta 2013ko ekitaldietako nahitaezko zuzkiduratik —7.172 eta 6.655 mila eurokoak izan ziren, hurrenez hurren—, 4.767 mila euro MONDRAGON Taldeko korporazio-erakundeak finantzatzeko eta 110 mila euro Heziketako eta Kooperatiba arteko Sustapeneko Fondorako izan dira 2015ean (4.526 eta 0 mila euro, 2014an).

40. Fondo propioak

Hona hemen balantze bateratuetako epigrafe honek 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n duen banakapena:

	<u>2015</u>	<u>2014</u>
Kapitala	708.403	695.962
Erreserbak	722.703	685.013
Ken: Balore propioak	(1.359)	(1.322)
Taldeari egotzi zaion ekitaldiko emaitza	102.787	102.117
Ken: Dibidenduak eta ordainsariak (4. oharra)	(29.741)	(31.058)
	<u>1.502.793</u>	<u>1.450.712</u>

Kapitala

Entitate Nagusiaren kapital soziala lan-bazkideek, bazkide kolaboratzaileek eta elkaturiko kooperatibek eginiko eta ordaindutako ekarpenez dago osatuta. Entitate Nagusiko estatutu sozialen arabera (1. oharra), bazkide bakoitzaren ekarpenen zenbateko osoak ezin izango du kapital sozialaren % 20 gainditu, pertsona juridikoa denean, eta % 2,5, pertsona fisikoa denean. Bazkideek elkartearen zorroreko duten erantzukizuna beren ekarpenen balioari dagokiona da.

Ekitaldi bakoitzean, Kontseilu Errektoreak ekarpenei aplikatuko zaien interes-tasa proposatzen dio Batzar Nagusiari, horrek onespena eman diezaion. Kreditu Kooperatiben Legeak ezartzen duen araudiaren arabera, interes hori ezin da inoiz izan diruaren legezko interes-tasa gehi sei puntu baiño gehiago. 2015eko eta 2014ko ekitaldietan urteko interesa % 4koa izan da.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOAK
(Mila eurokotan adierazita)

Ondoren, Entitate Nagusiaren "Kapitala" epigrafeko saldoan 2015eko eta 2014ko ekitaldietan izandako mugimenduak erakutsiko ditugu:

	2015	2014
Ekitaldi-hasierako saldoak	695.962	696.703
Aurreko ekitaldiko soberakinaren banaketatik sortutako kooperatiba-itzulkinak	17.931	16.638
Uneko ekitaldiko kapital sozialari egindako ekarpenetatik kapitalizatutako ordainketak	-	-
Kapital sozialerako ekarpenak		
- Elkartutako kooperatibenak	2.311	2.840
- Bazkideenak eta beste batzuenak	1.958	910
Ken, bajengatiko ekarpenen likidazioa		
- Elkartutako kooperatibenak	(2.348)	(10.143)
- Bazkideenak eta beste batzuenak	(7.411)	(10.986)
Negozio-konbinazioen ondoriozko altak	-	-
Finantza-pasiboaren izaerako kapitalerako intsuldaketak	-	-
Ekitaldi-itxierako saldoak	708.403	695.962

2015eko abenduaren 31n, Lagun-Aro, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundea da zuzenean edo zeharka Entitate Nagusiaren kapital sozialean % 10etik gorako partaidetza duen erakunde bakarra; % 14,95ekoa da partaidetza (2014an % 14,86koa).

2013eko eta 2012ko ekitaldietan, kapital-ekarpeneko bi jaulkipen egin ditu Entitate Nagusiak:

- i) Lehenengo jaulkipena lan-bazkideei, bazkide kolaboratzaileei eta elkarturiko kooperatibei zuzendu zitzairen, eta 2012ko apiriletik urrira bitarteko harpidetze-aldia izan zuen. 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n, lehen jaulkipen horretan harpidetutako zenbatekoa 38.293 eta 38.333 mila eurokoa izan da, hurrenez hurren. Lehen jaulkipen horretan, urtean % 7,5eko ordainketa finkoa zehaztu da, 2015eko abenduaren 15era arte. Hortik aurrera, Entitateko Batzar Nagusiak gainerako ekarpen arruntetarako onartu duen "interes tasaren" pareko ordainketa ezarriko da.
- ii) Bigarren jaulkipena 2012ko abenduan abiatu zen, eta Entitatearekin lotura zehatz bat duten bezeroei zuzendu zitzairen. 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n, bigarren jaulkipen horretan harpidetutako zenbatekoa 57.766 eta 58.192 mila eurokoa izan da, hurrenez hurren. Bigarren jaulkipen horretarako, urtean % 6ko ordainketa finkoa zehaztu da, 2014ko abenduaren 30era arte. Hortik aurrera, Entitateko Batzar Nagusiak gainerako ekarpen arruntetarako onartu duen tasaren pareko ordainketa ezarriko da.

Ekarpenak (elkarte-zatiak) "inter vivos" eskualdagarriak dira, baina baldintza honekin: ekarpena jasotzen duen beste horrek bazkide izan edo bazkide bihurtu behar du, Entitate Nagusiaren estatutuetan ezarritako baldintzen arabera. Bestalde, "mortis causa" oinordetzaren bidez ere transmititu daitezke, baldin eta eskubide-hartzaileak bazkide badira edo sei hilabeteko epean bazkide egiten badira. Bazkideren batek baja hartuz gero, bazkide horrek, edo dagozkion eskubidedunek, kapital sozialari egindako ekarpenak itzultzeko eska dezakete. Kasu horretan, behin betiko baja-egunaren osteko lehen Batzar Nagusiak onartutako balantzearen arabera zehaztuko da ekarpenaren balioa, eta, bazkide izateari utzi izanaren arrazoia arabera, gerta daiteke zenbatekoa txikitzea, Kontseilu Errektoreak erabakitako ehunekoa aplikatuz. Halaber, Kontseilu Errektoreak zehaztuko du ekarpena itzultzeko epea. Kasu guztietan, baja-egunetik bost urte igaro orduko itzuli beharko da, eta, bazkidearen bajaren arrazoia heriotza bada, urtebete baino lehen, heriotza-egunetik zenbatzen hasita.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

2005eko azaroaren 4ko 1309/2005 Errege Dekretuaren Seigarren Azken Xedapenak hainbat aldaketa ekarri zituen, kreditu-kooperatiben arautegia onartu zuen 84/1993 Errege Dekretuaren 10. artikuluan, eta, horien bidez, kreditu-kooperatibek aukera dute estatutueta bazkideen kapitalerako ekarpenen itzulketa mugatzeko. Entitate Nagusiaren estatutu sozialetan ezarri da, bazkideen ekarpenak itzultzeko nahitaezkoa izango dela Kontseilu Errektoreak aldeko erabakia hartzea eta errenboltoa egin ondoren gutxienerako kapital soziala, baliabide propioak edo kaudimen-koefizientea behar adina estalita geratzea.

Entitate Nagusiaren estatutuen arabera, erabat itzuli behar den gutxienerako kapital soziala 10.000 mila eurokoa da.

2015eko eta 2014ko abenduaren 31n, Entitate Nagusiaren esku dauden mendeko erakundeen ISGA Inmuebles SA eta Caja Laboral Euskadiko Kutxa Cartera SLU kapital-tresnak, horien balio nominala eta egun horietan egin gabe dauden ordainketak honako hauek dira:

	2015			2014		
	Akzio kop.	Balio nominala (eurotan)	Egin gabe dauden ordainketak	Akzio kop.	Balio nominala (eurotan)	Egin gabe dauden ordainketak
Seguros Lagun Aro Vida SA	285.000	111,88	8.565	285.000	111,88	8.565
Seguros Lagun Aro SA	87.360	90,15	-	87.360	90,15	-
Caja Laboral Gestión, SGIIC SA	1.045.000	6,01	-	1.045.000	6,01	-
Caja Laboral Pensiones GFP SA	250.000	10	-	250.000	10	-
Caja Laboral Euskadiko Kutxa Cartera SLU	1.237.500	6	-	1.237.500	6	-
Caja Laboral Bancaseguros OBSV SLU	10.000	1	-	10.000	1	-
Sociedad Gestión Activos Caja Laboral SAU	995.889	1	-	995.889	1	-
Credilka SA	700.000	1	-	700.000	1	-
Piensos del Norte SA	100.000	1	-	100.000	1	-
Clarim Alava SL (*)	-	-	-	310	10	-
Clarim Navarra SL (*)	-	-	-	310	10	-
Clarim Valladolid SL (*)	-	-	-	310	10	-
ISGA Inmuebles SA (*)	60.000	1	-	60.000	1	-
Eco Moncayo Azul SL (*)	-	-	-	300	10	-
Promociones Maralema SL (*)	-	-	-	300	10	-
Promociones Iturmendi 2010 SL (*)	-	-	-	300	10	-
Residencial Los Doce Amigos SL (*)	-	-	-	300	10	-
Copesa Montecerrao SL	51.000	25	-	51.000	25	-
Copesa Valdecilla SL (*)	-	-	-	97.920	25	-
Interpartners Promoción Inmobiliaria Castilla y León SL (*)	-	-	-	300	10	-

(*) 2015eko ekitaldian, ISGA Inmuebles SAK Taldeko higiezin sozietateak (Clarim Álava SL, Clarim Navarra SL eta Clarim Valladolid SL) xurgatu ditu. Era berean, 2014ko ekitaldian zehar ISGA Inmuebles SAK xurgatu zuen Fomenciarrek partaidetutako higiezin sei sozietate xurgatu ditu.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Erreserbak

Balantze bateratuetako "Erreserbak" epigrafeko saldoa, 2015eko eta 2014ko abenduaren 31koa, banakatuko dugu jarraian:

	<u>2015</u>	<u>2014</u>
Erreserba (galera) metatuak:	722.817	685.112
Errebalorizazio-erreserbak:	-	-
Entitate Nagusia	-	-
Entitate Nagusiari egotzitako erreserbak (galerak):	722.817	685.112
Bestelako erreserbak	793.631	721.075
Mendeko erakundeei egotzitako erreserbak (galerak)	(70.814)	(35.963)
Partaidetzaren metodoaz balioztatutako erakundeen erreserbak (galerak):	(114)	(99)
Erakunde elkartekideak	10	25
Erakunde taldeaniztunak	(124)	(124)
	<u>722.703</u>	<u>685.013</u>

Hona hemen Erreserben saldoan 2015 eta 2014 ekitaldietan gertatutako mugimenduak:

	<u>2015</u>	<u>2014</u>
Ekitaldi-hasierako saldoa	685.013	660.247
Aurreko ekitaldiko emaitzaren banaketa	42.369	22.675
Bazkideen ekarpen garbiak	78	62
Bestelakoak	(4.757)	2.029
Ekitaldi-itxierako saldoa	<u>722.703</u>	<u>685.013</u>

1989ko maiatzaren 26ko Kreditu Kooperatiben 13/1989 Legeak —gero Kooperatiben Erregimen Fiskalari buruzko 1990eko abenduaren 19ko 20/1990 Legeak partzialki aldatu zuen— kreditua antolatzeke oinarri berriak ezarri zizkien erakunde horiei. 1993ko ekitaldian, berriz, 1989ko maiatzaren 26ko Kreditu Kooperatiben 13/1989 Legearen garapenerako arautegia onartu zen, 1993ko urtarrilaren 22ko 84/1993 Errege Dekretuaren bidez. Ekitaldian eskuragarri dagoen soberakina banatzeko irizpideak 4. oharrean jaso ditugu.

Nahitaezko Erreserba Fondoa

Entitate Nagusiaren "Bestelako erreserbak" epigrafeak Nahitaezko Erreserba Fondoaren 546.202 mila euro eta 510.261 mila euro biltzen ditu, hurrenez hurren, 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n. 13/1989 Legeak ezartzen zuenez, ekitaldiko soberakin erabilgarriaren % 50 bideratu behar zen, gutxienez, Nahitaezko Erreserba Fondo horretara. Baina, 20/1990 Legeak aldatu egin zuen aurreko araua, ekitaldian Nahitaezko Erreserba Fondora bideratu beharreko gutxienez % 20ra txikitzeko. Entitate Nagusiaren Estatutuetan ezarrita dagoen banaketa ekitaldian erabilgarri dagoen soberakinaren % 50ekoa da gutxienez, eta 4. oharrean banakatu da.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Kaudimengabezia-arriskuak aurreikusteko erreserba

13/1989 Legea indarrean sartu arte, kreditu-kooperatiba kalifikatuek gutxienez ekitaldiko soberakinaren % 15 bideratu behar zuten erreserba horretara. 13/1989 Legeak eta 20/1990 Legeak, ordea, ez dute zehazten ekitaldiko soberakinaren banaketa egitean erreserbei ezer zuzkitu behar zaienik, kaudimengabezia-arriskuak aurreikusteko.

Errebalorizazio-erreserba

Entitate Nagusiak bere egin zuen aktibo materialen errebalorizazioaz Espainiako Bankuaren 4/2004 Zirkularraren Lehen Xedapen Iragankorrak dioena. Horren arabera, 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera erakundeek aktibo materialeko edozein elementu arrazoizko balioan balioztatu dezakete, baldin eta aktiboak erabilera askekoak badira.

Borondatezko erreserbak

2011ko abenduaren 26an, baliabide propioen eta, batez ere, erreserben osaera errazte aldera, Entitate Nagusiko Kontseilu Errektoreak erreserbak aztertu zituen, eta, erreserbak osatzea eragin zuten zergatiak eta osatu zirenetik igarotako epea ikusita, honetaz ohartu zen: "Kaudimengabezia-arriskuak aurreikusteko erreserbak", "Errebalorizazio-erreserbak", "Lehen aplikazioko erreserbak eta beste batzuk" epigrafeak erabilera askeko erreserbak zirela. Hori dela eta, Caja Laboraleko Batzar Nagusiak erabilera askeko saldoak epigrafe bakar batean bateratzea onetsi zuen, 2012ko apirilaren 28an; guztira 88.947 mila euroko zenbatekoa zen. Intsuldaketa hori 2011 ekitaldiaren amaieran erregistratu zuen Entitate Nagusiak.

Hona hemen 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n mendeko erakundeei egotzitako "Erreserbak/(galerak)" epigrafearen saldoa, erakundeen arabera banakatuta:

	<u>2015</u>	<u>2014</u>
Seguros Lagun-Aro Vida SA	(4.204)	(3.459)
Caja Laboral Gestión, SGIIC SA	1.256	1.256
Caja Laboral Pensiones GFP SA	92	84
Crediges, SGIIC SAU	856	993
Clarim Alava SL	-	(5.388)
Clarim Navarra SL	-	(5.960)
Clarim Valladolid SL	-	(12.915)
Seguros Lagun-Aro SA	(4.469)	(2.126)
Caja Laboral Kutxa Cartera SLU	7.239	5.443
Caja Laboral Bancaseguros OBSV SLU	1.448	1.320
Sociedad Gestión Activos Caja Laboral SAU	(12.893)	(3.232)
ISGA Inmuebles SA	(61.781)	(12.679)
Piensos del Norte SA	894	896
Eco Moncayo Azul SL	-	-
Promociones Maralema SL	-	(146)
Promociones Iturmendi 2010 SL	-	-
Residencial Los Doce Amigos SL	-	(46)
Copesa Montecerrao SL	748	(1)
Copesa Valdecilla SL	-	-
Interpartners Promoción Inmobiliaria Castilla y León SL	-	(3)
	<u>(70.814)</u>	<u>(35.963)</u>

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Partaidetzaren metodoaren bidez balioztatutako erakundeen "Erreserbak/(galerak)" epigrafeko saldoa, 2015eko eta 2014ko abenduaren 31koa, banakatuko dugu orain:

	<u>2015</u>	<u>2014</u>
Elkartutako erakundeak:	10	25
ICR Institutional Investment Management SGIIC SA	10	25
Erakunde taldeaniztunak:	(124)	(124)
Fomenciar SL	-	-
Higiezinak sustatzeko sozietateak (ikus I. eranskina)	(124)	(124)
IK-LKS Corporate SL	-	-
	<u>(114)</u>	<u>(99)</u>

2015eko eta 2014ko abenduaren 31n Taldeari egotzitako emaitzetarako ekarpena banakatuko dugu jarraian, erakundeen arabera:

	<u>2015</u>	<u>2014</u>
Entitate Nagusia	97.727	116.546
Mendeko erakundeak:	4.982	(14.452)
Seguros Lagun Aro Vida SA	4.158	6.212
Caja Laboral Gestión SGIIC SA	1.422	1.471
Caja Laboral Pensiones GFP SA	48	81
Clarim Alava SL	-	(1.401)
Clarim Navarra SL	-	(4.998)
Clarim Valladolid SL	-	(6.526)
Seguros Lagun Aro SA	8.066	9.058
Caja Laboral Euskadiko Kutxa Cartera SLU	(13)	(9)
Caja Laboral BancaSeguros OBSV SLU	394	128
Crediges, SGIIC SAU	1	(131)
Piensos del Norte SA	(100)	(1)
Sociedad Gestión Activos Caja Laboral SAU	154	(9.132)
ISGA Inmuebles SA	(9.423)	(9.341)
Eco Moncayo Azul SL	-	(18)
Promociones Maralema SL	-	(451)
Promociones Iturmendi 2010 SL	-	(645)
Residencial Los Doce Amigos SL	-	466
Copesa Montecerrao SL	270	787
Copesa Valdecilla SL	-	(2)
Interpartners Promoción Inmobiliaria Castilla y León SL	-	-
Partaidetzaren metodoaz balioztatutako erakundeak:	83	23
- Elkartutako erakundeak:	83	23
ICR Institutional Investment Management SGIIC SA	83	23
- Erakunde taldeaniztunak:	-	-
Fomenciar SL	-	-
Higiezinak sustatzeko sozietateak (ikus I. eranskina)	-	-
IK-LKS Corporate SL	-	-
	<u>102.787</u>	<u>102.117</u>

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

41. Ondare garbiko balioztapenagatiko doikuntzak

Hona hemen balantze bateratuetako epigrafe honek 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n duen banakapena:

	<u>2015</u>	<u>2014</u>
Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak:	135.290	166.311
- Zor-balore adierazgarriak	105.043	126.312
- Kapital-tresnak	30.247	39.999
Eskudiru-fluxuen estaldurak	-	-
Partaidetzaren metodoaz balioztatutako erakundeak	-	-
	<u>135.290</u>	<u>166.311</u>

Ondare garbiko balioztapenagatiko doikuntzak - "Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak" epigrafeko saldoan, zorro horretako finantza-tresnen arrazoizko balioak izandako aldean (Taldeari egoztekoak direnen) zenbateko garbia biltzen da. Taldearen ondare garbian daude sartuta. Finantza-aktiboak saltzen direnean, aldeak galdu-irabazien kontu bateratuan jasotzen dira. Hona hemen 2015eko eta 2014ko abenduaren 31ko ondare garbiko "Balioztapenagatiko doikuntzak" epigrafearen banakapena:

	<u>2015</u>	<u>2014</u>
Ekitaldi-hasierako saldoa	166.311	126.243
Emaitzetan kargatzeko/(abonatzeko) mugimendu garbia	17.704	(8.409)
Salmentak eta amortizazioak	(9.029)	(7.099)
Narriaduraren ondoriozko galerak (garbiak), emaitzetan kargatzekoak	26.733	(1.310)
Errebalorizazio / (Minusbalio) garbiak	(48.725)	48.477
Bestelakoak	-	-
	<u>135.290</u>	<u>166.311</u>

Epigrafe honen bilakaera egoki irakurtzeko, finantza-merkatuen 2015eko eta 2014ko salbuespeneko inguruabarrak hartu behar dira kontuan; 18. oharrean azaldu dira.

Hona hemen 2015eko eta 2014ko abenduaren 31ko ondare garbiko "Balioztapenagatiko doikuntzak" epigrafeko zenbatekoaren banakapena, erakundeen arabera:

	<u>2015</u>	<u>2014</u>
Entitate Nagusia	106.114	132.636
Mendeko erakundeak:	29.176	33.675
- Seguros Lagun-Aro Vida SA	24.572	27.660
- Seguros Lagun Aro SA	4.604	6.015
Erakunde elkartekideak eta taldeaniztunak	-	-
	<u>135.290</u>	<u>166.311</u>

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

42. Egoera fiskala

Entitate Nagusiak eta erakunde partaidetuek arautegi fiskal aplikagarriaren arabera aurkezten dituzte sozietateen gaineko zergaren aitorpenak.

Gipuzkoako Kooperatiben erregimen fiskalari buruzko 2/97 Foru Arauaren arabera, kreditu-kooperatibei aplikatu beharreko zerga-tasa bakarra da, hain zuzen, % 28koa. Gainerako mendeko finantza-sozietateetan, 2015ean eta 2014an % 28koa zen aplikatu beharreko zerga-tasa.

Erakunde partaidetu nagusien 2015eko ekitaldiko sozietateen gaineko zerga likidatzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2014ko urtarrilaren 17ko 3/2014 Foru Araua edo Bizkaiko Foru Aldundiaren 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Araua aplikatu behar da, partaidetuak jarduera zer lurraldetan gauzatzen duen eta, beraz, sozietateen gaineko zergan non aurkezten duen kontuan hartuta.

Edozein modutan, Entitate Nagusiko eta Entitate partaidetuetako administratzaileek 2015eko ekitaldian zerga horri dagozkion zenbatekoak kalkulatu dituzte, baita ekitaldiaren itxieran indarrean dagoen foru-araudiaren arabera ikuskapena egiteko prest dauden ekitaldietakoak ere.

Zerga-oinarri negatiboek eta Gipuzkoako foru-arautegiaren babesean sortutako kenketek 15 urteko aplikazio-muga dute.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Hona hemen Entitate Nagusiaren 2015eko eta 2014ko ekitaldietako kontabilitate-emaizta indibidualaren eta sozietateen gaineko zergaren zerga-oinarriaren berdinkatzeari buruzko informazioa:

	<u>2015</u>	<u>2014</u>
Ekitaldiko zerga aurreko kontabilitate-emaizta	110.262	110.579
Alde iraunkorrak		
Gehikuntzak		
- Kengarriak ez diren gastuak	254	238
- Beste batzuk	573	135
Kenketak		
- Heziketako eta Sustapeneko Fondorako nahitaezko zuzkidura (39. oharra)	(7.538)	(7.172)
- Kooperatiba arteko Fondo Sozialerako zuzkidura	(10.759)	(9.983)
- Kapital sozialera egindako ekarpenen ondorioz kontuan abonaturako interes gordin kengarriak	(29.007)	(31.058)
- Nahitaezko Erreserba Fondorako nahitaezko zuzkiduraren % 50	(18.845)	(17.931)
- Ustiapenari lotutako higiezinak saltzeagatik berrinbertitutako balio-handitzeak	-	(2.058)
- Aplikaturako kenketak	(16.378)	(12.463)
- Beste batzuk	5	(580)
Zergaren kontabilitate-oinarria	<u>28.567</u>	<u>29.707</u>
Denbora-aldeak		
- Uneko ekitaldian sortutakoak	12.708	71.140
- Dinamizazio Plana	(9.404)	3.450
- Beste hornidura batzuen zuzkidurak	22.112	68.528
- Beste batzuk	-	(838)
- Aurreko ekitaldietan sortutakoak	<u>7.884</u>	<u>2.145</u>
Zerga-oinarri fiskala	<u>49.159</u>	<u>102.992</u>
Zerga-oinarri negatiboen konpentsazioa	<u>(49.159)</u>	<u>(102.992)</u>
Likidazio-oinarria	<u>-</u>	<u>-</u>
Kuota osoa (% 28)	-	-
Kenketak eta hobariak	-	-
Kuota likidoa	<u>-</u>	<u>-</u>
Kontuko atxikipenak eta ordainketak	<u>(3.041)</u>	<u>(2.546)</u>
Sartu / (itzuli) beharreko sozietateen gaineko zerga	<u>(3.041)</u>	<u>(2.546)</u>

Hona hemen Entitate Nagusiaren galdu-irabazien kontuko "Mozkinen gaineko zerga" epigrafearen osaera, 2015 eta 2014 ekitaldietan:

	<u>2015</u>	<u>2014</u>
Kontabilitate-oinarria tasa aplikagarrian	7.999	8.318
Kenketak eta hobariak	(1.213)	(714)
Beste batzuk	<u>(1.643)</u>	<u>192</u>
	<u>5.143</u>	<u>7.796</u>

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Hona hemen galdu-irabazien kontu bateratuko “Mozkinen gaineko zerga” epigrafearen osaera, 2015eko eta 2014ko ekitaldietan:

	<u>2015</u>	<u>2014</u>
Kontabilitate-oinarria tasa aplikagarrian	7.999	8.318
Kenketak eta hobariak	(1.213)	(714)
Beste batzuk	(1.643)	192
Entitate Nagusiaren mozkinen gaineko zerga	<u>5.143</u>	<u>7.796</u>
Erakunde partaidetuen mozkinen gaineko zerga:		
Kontabilitate-oinarria tasa aplikagarrian	4.110	6.897
Beste batzuk	-	-
	<u>9.253</u>	<u>14.693</u>

Galdu-irabazien kontuko “Mozkinen gaineko zergez” gain, zerga geroratuak ere sortu edo berrinbertitu dira, 2015eko eta 2014eko ekitaldietan ondare garbiko balioztapenagatik doikuntzengatik, eta zenbateko hauek izan dituzte:

	<u>2015</u>	<u>2014</u>
Balioztapenagatik doikuntzak:		
Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak	(12.064)	15.597
Eskudiru-fluxuen estaldura	-	(15)
	<u>(12.064)</u>	<u>15.582</u>

2015eko eta 2014ko abenduaren 31n, etorkizuneko ekitaldietan konpentsatzeko dauden aurreko ekitaldietako Entitate Nagusiaren zerga-oinarri negatiboak hauexek dira:

	Kompentsazioaren azken ekitaldia	<u>2015</u>	<u>2014</u>
Zerga-oinarri negatiboak	2027	<u>705.607</u>	<u>703.952</u>
		<u>705.607</u>	<u>703.952</u>

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

2015eko eta 2014ko abenduaren 31n, hauxe da etorkizuneko ekitaldietan erabiltzeko dauden Entitate Nagusiaren sozietateen gaineko zergaren kuotaren kenkari eta hobarien xehetasuna:

	Erabileraren azken ekitaldia	2015	2014
Ezarpen bikoitzagatiko kenkariak	2030	10.171	9.917
Kuotaren gaineko baterako mugadun kenkariak	2030	12.434	11.599
Kuotaren gaineko baterako mugarik gabeko kenkariak	2030	<u>3.312</u>	<u>2.552</u>
		<u>25.917</u>	<u>24.068</u>

Kuotaren gaineko baterako mugarik gabeko kenkariak Entitate Nagusiak I+G+i-an egindako inbertsioen ondoriozko kenkariei dagozkie, batez ere.

2014ko ekitaldian zehar, Entitate Nagusiak berrinbertitzearen ondoriozko salbuespenarekin egin zuen bat 2.625 mila euroko kopuruan, 4.456 mila euroko salmenta-prezioa duten aktibo ibilgetuko ondasunak saltzeagatik. Kopuru hori ekitaldi honetan aktibo ibilgetuan egindako inbertsio berrietan gorpuztu zen.

Entitate Nagusiko administratzaileen iritzian, adierazi ditugun zenbatekoak aplikatzea ahalbidetuko duten mozkin fiskalak sor daitezke etorkizunean. Horregatik, kenkari, hobari eta zerga-oinarri negatibo horiek "Aktibo fiskalak – Geroratuak" atalean aktibatu dira (34. oharra).

Indarrean dagoen legeriaren arabera, zergak ezin dira behin betiko likidatutzat jo, harik eta aurkeztu diren aitorenak aginte fiskalek ikuskatzen dituzten arte edo lau urteko iraungipen-epea iragan arte.

2015eko abenduaren 31n, Entitate Nagusiak agintari fiskalek ikuskatzeko ditu 2012tik 2015era bitarteko ekitaldiei aplikagarri zaizkien zerga nagusi guztiak.

Entitate Nagusiko administratzaileen aburuz, ikuskatzeko dauden eta preskribatu ez diren ekitaldietako pasiboek (baldin badaude) ez dute eragin handirik izango, 2015eko ekitaldiko urteko kontu bateratuetan. Halaber, Taldeak eginiko eragiketei aplikatzekoa den araudi fiskala modu askotara uler daitekeenez, zenbait pasibo fiskal kontingente sor litezke ikuskatzeko dauden urteetan. Hala eta guztiz ere, Entitate Nagusiko administratzaileen iritziz, oso zaila izango da pasibo kontingente horiek gauzatzea, eta, edozein modutan, sor lezaketen zerga-zorrak ez luke eragin handirik izango Taldearen urteko kontu bateratuetan.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

43. Balantze bateratuko aktiboen eta pasiboen arrazoizko balioa

i) Aktibo eta pasibo finantzarioen arrazoizko balioa

13. oharrean adierazten denez, Kreditu-inbertsioak, Epemugako inbertsio-zorria eta merkatuko balioa modu fidagarrian balioztatu ezin zaien Kapital-tresnak izan ezik, Entitatearen finantza-aktiboak arrazoizko balioan daude jasota, honekin batera doan balantze bateratuan. Era berean, Ageriko kapital errenboltsagarria eta kostu amortizatuko Finantza-pasiboak izan ezik, Taldearen finantza-pasiboak ere arrazoizko balioan daude jasota, honekin batera doan balantze bateratuan.

Taula honetan, 2015eko eta 2014ko ekitaldi-itxieretako arrazoizko balioak laburtu ditugu, arrazoizko balioa zehazteko Taldeak erabilitako balioztapen-metodologiaren arabera sailkatuta:

	2015				
	Guztira balantzea	Arrazoizko balioa	Arrazoizko balioaren hierarkia		
			1. maila	2. maila	3. maila
Kutxa eta banku zentraletako gordailuak	183.177	183.177	-	-	183.177
Negoiazio-zorria	258.966	258.966	256.417	2.549	-
Galdu-irabazietan aldaketak dituzten beste finantza-aktibo batzuk arrazoizko balioan	558	558	558	-	-
Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak	4.616.341	4.589.196	4.070.487	221.428	297.281
Kreditu-inbertsioak	13.967.063	13.967.063	-	-	13.967.063
Epemugako inbertsio-zorria	1.142.714	1.227.673	1.215.536	12.137	-
Estaldura-deribatua	232.753	232.753	-	232.753	-
FINANTZA AKTIBOAK GUZTIRA	20.401.572	20.459.386	5.542.998	468.867	14.447.521
Negoiazio-zorria	3.430	3.430	1.190	2.240	-
Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan	18.872.284	18.872.284	-	-	18.872.284
Estaldura-deribatua	114.798	114.798	-	114.798	-
FINANTZA PASIBOAK GUZTIRA	18.990.512	18.990.512	1.190	117.038	18.872.284
2014					
	Guztira Balantzea	Balioa Arrazoizko	Arrazoizko balioaren hierarkia		
			1. maila	2. maila	3. maila
Kutxa eta banku zentraletako gordailuak	143.456	143.456	-	-	143.456
Negoiazio-zorria	288.223	288.223	280.005	8.218	-
Galdu-irabazietan aldaketak dituzten beste finantza-aktibo batzuk arrazoizko balioan	2.128	2.128	903	1.225	-
Saltzeko prest dauden finantza-aktiboak	6.391.699	6.355.339	5.803.672	222.550	329.117
Kreditu-inbertsioak	14.674.415	14.674.415	-	-	14.674.415
Epemugako inbertsio-zorria	1.719.014	1.833.302	1.833.302	-	-
Estaldura-deribatua	303.066	303.066	-	303.066	-
FINANTZA AKTIBOAK GUZTIRA	23.522.001	23.599.929	7.917.882	535.059	15.146.988
Negoiazio-zorria	10.230	10.230	1.974	8.256	-
Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan	21.992.215	21.992.215	-	-	21.992.215
Estaldura-deribatua	133.082	133.082	-	133.082	-
FINANTZA PASIBOAK GUZTIRA	22.135.527	22.135.527	1.974	141.338	21.992.215

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Arrazoizko balioak zehazteko, irizpide hauek erabili dira:

1. maila: finantza-tresna horientzat jarduneko merkatuetan kotizatutako prezioak erabiltzea.
2. maila: antzeko finantza-tresnentzat jarduneko merkatuetan kotizatutako prezioak edo bestelako balioztapen-teknika batzuk erabiltzea (horietan, input esanguratsu guztiak zuzenean edo zeharka behatzekoak diren merkatu-datuetan oinarritzen dira).
3. maila: merkatu-datu behagarrietan oinarrituta ez dagoen input esanguratsuren bat duten balioztapen-teknikak erabiltzea.

Zehazki, honako balioztapen-teknika eta hipotesi hauek erabili dira, arrazoizko balioak zehazteko:

- Kutxa eta banku zentraletako gordailuak: Ageriko saldoak edo epe laburrera egitekoak direnez, horien arrazoizko balioa kontabilitatekoarekin bat datorrela erabaki da.
- Zor-balore adierazgarriak: Zor publikoko aktiboetarako eta kreditu-erakundeek jaulkitako errenta finkoko balore jakin batzuetarako, jarduneko merkatuetan argitaratutako kotizazioa hartu da (1. maila). Interes-tasen bilakaerari lotutako errentagarritasuna duten errenta finkoko balore batzuetarako, fluxuen deskontuan oinarritutako balioztapen-teknikak erabili dira, hain zuzen ere interes-tasen kurba eta merkatu-spreada (antzeko tresnetarako) (2. maila). Gainerako zor-balore adierazgarrietarako, kanpoko balioztapen-agente baimenduek kalkulaturako prezioak erabili dira (3. maila).
- Kapital-tresnak: Jarduneko merkatuetan argitaratutako kotizazioa hartu da aintzat (1. maila), inbertsio-fondo eta arrisku-kapitaleko fondo jakin batzuetarako salbu, horietarako kanpoko balioztapen-agente baimenduek kalkulaturako prezioak erabili baitira (2. eta 3. mailak).

Bestalde, 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n, "Saltzeko prest dagoen aktibo finantzarioen zorroan kostu historikoan sailkatutako kotizatu gabeko kapital-tresnak" (hurrenez hurren, 27.145 mila eurokoak eta 36.360 mila eurokoak) daude, eta, beraz, ez dira aurreko taulan aintzat hartu.

- Bezeroei emandako kreditua (kreditu-inbertsioak): Erabaki da ez dagoela alde handirik horien kontabilitate-balioaren eta arrazoizko balioaren artean. Izan ere, lehen Caja Laboralak emandako mailegu gehienek interes-tasa aldakorra dute erreferentziatzen edo, bestela, haien muga-eguna 12 hiletik beherakoa da. Era berean, kreditu-arriskuaren ondoriozko horniduren maila kuantifikatu da kreditu-arriskuko zorrarako, aplikagarri zaion kontabilitate-araudiari jarraiki, eta nahikotzat jo da kreditu-arrisku horri aurre egiteko.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Dena delarik ere, egun bizi dugun egoera ekonomikoaren eta finantzarioaren baitan eta finantza-aktibo horientzako merkatuak ez dagoenez, aktibo horiek alderdi interesatuen artean trukatzeko zenbatekoa erregistratutako balio garbia ez bezalakoa izan daiteke, zeren eta eskurapen-potentzialak, kontabilitate-arautegi aplikagarriari jarraiki, izandako eta kontabilizatutako galerak deskontatzeaz gain, egungo egoera ekonomikoa luzatzearen ondorioz etorkizunean izan ditzakeen galerak ere har baititzake kontuan.

- Finantza-pasiboak amortizatutako kostuan: Erabaki da ez dagoela alde handirik horien kontabilitate-balioaren eta arrazoizko balioaren artean. Izan ere, gehienek interes-tasa aldakorra dute erreferentziatza edo, bestela, haien muga-eguna 12 hiletik beherakoa da.

Finantza-tresnen arrazoizko balioaren eta kontabilitate-balioaren artean aldea egotea hainbat arrazoiren ondorio izan daiteke:

- Tasa finkoarekin jaulkitako tresnetan, horien arrazoizko balioa merkatuko interes-tasen bilakaeraren arabera aldatzen da. Tresnaren hondar-bizitza zenbat eta handiagoa, orduan eta aldakuntza handiagoa.
- Tasa aldakorrarekin jaulkitako tresnetan, erreferentziako interes-tasarekiko marjina aldatu egiten bada tresna jaulki zenetik, gerta liteke arrazoizko balioa eta kontabilitate-balioa desberdinak izatea. Marjinak aldatzen ez badira, arrazoizko balioa eta kontabilitate-balioa birbalioztatzeko datetan bakarrik etorriko dira bat. Gainerako datetan, zehaztuta dauden fluxuak interes-tasaren arriskuaren menpe egongo dira.

ii) Aktibo ez-finantzarioen arrazoizko balioa

Taula honetan, arrazoizko balioaren irizpidez balioztatzen ez diren Taldearen aktibo finantzarioek eta ez-finantzarioek 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n balantze bateratuan duten balioa jaso dugu, dagokien arrazoizko balioarekin batera, biak alderatzeko:

	2015		2014	
	Balio erregistratua	Arrazoizko balioa	Balio erregistratua	Arrazoizko balioa
Aktiboa				
Aktibo materiala				
Erabilera propiokoa eta ondasun higiezinetak				
inbertsioak	368.454	395.972	393.623	421.160
Korronteak ez diren aktiboak salgai	354.765	354.765	338.102	338.102
Izakinak	3.441	3.441	2.391	2.391

Honela zehaztu da aktibo horien arrazoizko balioa:

- 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n, "Erabilera propioko ibilgetu materiala" eta "Ondasun higiezinetak inbertsioak" epigrafeetan sartutako ondasun higiezinaren arrazoizko balioa kalkulatzeko, hurrenez hurren kontabilitate-balioaren % 51rako eta % 47rako, erakunde independenteek 2012aren eta 2015aren artean emandako tasazio-balioak hartu dira kontuan, Espainiako Bankuak ezarritako arauari jarraiki. Gainerako higiezinetak, 2011ko balioztatzeak (barruko tasazioak eta balioztatzeak) eguneratu dira. Horiei, egungo abagunea eta merkatu-igurikimenak aintzat hartuta, objektibotasunez haztatutako zuzenketa-faktore bat aplikatu die Entitateak.

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

Aktibo materialeko gainerako elementuetarako, kontabilitate-balio garbia hartu dugu, egun horietan merkatuan zuten balioaren balioespenik fidagarriena delakoan.

- Estatuan salgai dauden eta korronteak ez diren aktiboen arrazoizko balioa zenbatesteko, berreskuratzeko aukera hartu da kontuan, Espainiako Bankuaren 4/2004 Zirkularraren IX. eranskinaren IV. atalean jasotako parametroak ezarriz. Higiezinaren sustapenari lotuta zeuden aktiboen kasuan, berriz, Zirkular horren IX. eranskinaren V. atalean jasotako irizpideak erabili dira. Era berean, balio hori zehazteko, Espainiako Bankuaren Erregistroan erregistratuta dauden sozietateek egindako tasazioak erabili dira input osagarri gisa, 2003ko martxoaren 27ko ECO/805/2003 Ministerio Aginduan xedatutakoari jarraiki, bai eta higiezinaren merkatuaren eta ekonomia-zikloaren egungo egoera ere.

Entitate Nagusiak tasazio-sozietate hauen zerbitzuak erabiltzen ditu, batez ere: Sociedad de Tasación SA, Krata SA, Gesvalt Sociedad de Tasación SA, Técnicas de Tasación SA eta Servicios Vascos de Tasaciones SA.

44. Arrisku kontingenteak

Taldeak ohiko jardunean hartutako konpromisoen ondorioz ordaintzera behartuta daudenean ordaindu ezean, Taldeak berak ordaindu beharko du haien kontura, eta epigrafe honetan, 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n Taldeak kontzeptu horregatik ordaindu beharreko zenbatekoak biltzen dira:

	<u>2015</u>	<u>2014</u>
Finantza-bermeak	75.624	76.345
Bestelako abalak eta kauzioak	171.481	194.670
Dokumentu-kreditu errebokaezinak	10.450	15.120
	<u>257.555</u>	<u>286.135</u>

45. Konpromiso kontingenteak

Hona hemen epigrafe honen banaketa 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n:

	<u>2015</u>	<u>2014</u>
Hirugarrenek erabilgarriak:	<u>860.870</u>	<u>766.002</u>
Kreditu-entitateek	-	-
Administrazio publikoen sektoreak	98.849	27.730
Beste sektore egoiliar batzuek	761.374	737.848
Ez-egoiliarrek	647	424
Despoltsatzeko dauden harpidetutako baloreak	8.963	8.963
Bestelako konpromiso kontingenteak	<u>115.257</u>	<u>101.700</u>
Konpentsazio-ganberei emandako dokumentuak	<u>115.257</u>	<u>101.700</u>
	<u>985.090</u>	<u>876.665</u>

URTEKO KONTU BATERATUEN TXOSTENA, 2015EKO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO EKITALDIKOA
(Mila eurokotan adierazita)

46. Interesak eta antzeko errendimenduak

Epigrafe honek xehetasun hauek ditu 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

	<u>2015</u>	<u>2014</u>
Banku zentraletako gordailuak	70	197
Kreditu-erakundeetako gordailuak	3.339	8.338
Diru-merkatuko eragiketak	229	471
Bezeroei emandako kreditua	249.256	299.920
Zor-balore adierazgarriak	133.015	206.551
Zalantzazko aktiboak	1.346	1.312
Aseguru-jardueraren finantza-sarrerak	24.023	24.340
Estaladura-eragiketengatiko sarreren zuzenketa	(16.155)	(8.992)
Bestelako interesak	44	314
	<u>395.167</u>	<u>532.451</u>

Hona hemen Taldearen sukurtsalak 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n zuten kokapena lurraldeka:

	<u>2015</u>	<u>2014</u>
Bizkaia	103	103
Gipuzkoa	78	78
Araba	41	41
Nafarroa	47	47
Sare Berria	99	102
	<u>368</u>	<u>371</u>

47. Interesak eta antzeko zamak

Epigrafe honek xehetasun hauek ditu 2015eko eta 2014ko abenduaren 31n bukatutako ekitaldiei dagokien galdu-irabazien kontu bateratuan:

	<u>2015</u>	<u>2014</u>
Banku zentraletako gordailuak	251	5.129
Kreditu-erakundeen gordailuak	997	1.984
Diru-merkatuko eragiketak	37	109
Bezeroen gordailuak	165.967	240.123
Balore negoziagarriek ordezkaturako zorrak (36. oharra)	1.247	3.105
Laboral Kutxa Taldearen 2015eko abenduaren 31ko informazioa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 10/2014 Legea eta 2013/36/EE Zuzentaraua betetzeko emana.

Informazio hau prestatzeko, 2014ko ekainaren 27ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutako 2014ko ekainaren 26ko 10/2014 Legearen, kreditu-erakundeen antolamendu, ikuskapen eta kaudimenari buruzkoaren, 87. artikuluan eta Hamabigarren Xedapen Iragankorrean xedatutakoa bete dugu. Lege horrek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko ekainaren 26ko 2013/36/EB Zuzentarauaren, kreditu-erakundeen jardueran sartzeari eta kreditu-erakundeak eta inbertsio-zerbitzuak ematen dituzten enpresak zuhurtziaz gainbegiratzeari buruzkoaren, 89. artikulua transposatzen du. Zuzentarau horrek, berriz, 2002/87/EE Zuzentaraua aldatzen du eta 2006/48/EE eta 2006/49/EE —CRD IV izenarekin ezaguna— Zuzentarauak indargabetzen.

Arautegi horri jarraiki, kreditu-erakundeek ekitaldi bakoitzeko informazio hau argitaratuko dute urtero eta Espainiako Bankuari igorriko diote, zer herrialdetan finkatuta dauden adieraziz:

- a) Jardueraren izena, izaera eta kokapen geografikoa
- b) Negozio-bolumena
- c) Arduraldi osoko langile kopurua
- d) Zerga aurreko emaitza gordina
- e) Emaitzaren gaineko zerga
- f) Jasotako diru-laguntza edo laguntza publikoak

Horren harira, zer informazio behar den zehaztuko dugu jarraian:

- a) Jardueraren izena, izaera eta kokapen geografikoa

Caja Laboral Popular Coop. de Crédito (aurrerantzean Entitatea, Laboral Kutxa edo Caja Laborala), helbide soziala Arrasaten (Gipuzkoan) duen eta 2012ko azaroaren 2an eratu zen kreditu-kooperatiba berria da. Caja Laboral Popular Coop. de Crédito eta Ipar Kutxa Rural S. Coop. de Crédito bat eginez sortu zuten. Kooperatiba kalifikatuaren izaera du.

Entitateko estatutu sozialen arabera, bere jarduera ez dago inolako lurralde-eremutara mugatuta, eta bazkideen eta hirugarrenen finantza-beharrak kreditu-erakundeen berezko jardueren bidez asetzea du helburu. Horretarako, gainerako kreditu-erakundeei baimenduriko aktiboko, pasiboko zein zerbitzuko eragiketa guztiak burutu ditzake, xede kooperatiboak sustatu nahiz hobeto betetzeko balio dutenak barne, betiere bazkideen finantza-beharrei lehentasuna emanaz eta hirugarrenetik eragiketa aktiboetarako legezko mugak errespetatuz.

2015eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko Laboral Kutxaren kontu bateratu hauen I. eranskinean, jurisdikzio bakoitzean diharduten sozietateak xehatu ditugu, haien izena, kokapena eta jardueraren izaera zehaztuta.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO

III. ERANSKINA

- b) Negozio-bolumena, arduraldi osoko langile kopurua, zerga aurreko emaitza gordina eta emaitzaren gaineko zerga

	Negozio- bolumena (mila eurokotan)	Arduraldi osoko langile kopurua	Zerga aurreko emaitza gordina	Emaitzaren gaineko zerga
Espainia	463.897	2.511	119.578	9.253
GUZTIRA	463.897	2.511	119.578	9.253

Informazio honen eraginetarako, 2015eko abenduko emaitza-kontu bateratuaren marjina gordina hartu dugu negozio-bolumentzat. Arduraldi osoari dagozkion langileen datuak 2015eko ekitaldiaren itxierako sozietate bakoitzaren plantilla/herrialdea aintzat hartuz lortu dira.

Taldeko aktiboen etekinak, hau da, Entitate Nagusiaren emaitza garbia zati guztira dituen aktiboak, % 0,48koak dira, 2015eko abenduaren 31n.

- c) Jasotako diru-laguntza edo laguntza publikoak

Laboral Kutxa Taldeak 2015eko ekitaldian zehar jasotako diru-laguntza edo laguntza publikoen zenbatekoa ez da esanguratsua.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO

KUDEAKETA TXOSTENA, 2015 EKITALDIA

Nazioarteko jarduera ekonomikoa estua izan da 2015ean. Garatzeko bidean dauden herrialdeetako ekonomiak geldotu egin dira berriro. Ekonomia aurreratuek, berriz, susperraldi xume bat baino ez dute izan.

Munduko ekonomiaren hazkundera zalantzan dago, Txinako egoeraren, petrolioaren eta beste lehengai batzuen prezioaren eta AEBko diru-politika zorrozteko erritmoaren ondoriozko ziurgabetasunak direla eta.

Finantzen sektorean, krisialdia luzea izan da: berregituratze sakona egin behar izan da eta arazoak kaudimenean, berankortasunean eta likidezian kokatu dira. Egoera horretan, 2015eko Espainiako banku-negozioan tasak oso txikiak izan dira eta lehiakortasuna handia. Ondorioz, ohiko negozioaren marjinak are okerragoak izan dira eta sarrera errepikarien sorrera oztopatu dute. Alde onen artean, zalantzazko saldoen murrizketa aipa dezakegu, eta horren ondorioz hornidura-beharrek izandako murrizketa.

Egoera lehiakor eta zorrotz horretan, finantza-jardueraren marjinen gaineko presioa konpentsatzea lortu du Laboral Kutxak, ustiapen-gastuak kontrolatzearen bidez eta bere kreditu-zorroaren kalitate handiari esker. Horrela, bada, kaudimena oinarritzat hartuta, sendotasun handia du finantzetan.

Aldeko bilakaera horretan, lagungarria izan da espezializazioan oinarritutako gure negozio-eredua, baliabideak egoki esleitzeko aukera ematen baitu, bezeroen atxikipena eta errentagarritasuna aintzat hartuta. Ildo horretatik, entitateak posizioa finkatu du bankaseguruetako erreferentzia gisa.

Ondoren, negozioaren zifrarik garrantzitsuenak jaso ditugu.

Aktibo osoa 21.585,0 milioi eurora iritsi da, hau da, aurreko urtearen itxierakoaren aldean % 12,7ko murrizketa izan du, batez ere EBZrekiko apelazioaren 3.100 milioiak mugaeguneratzearen ondorioz.

Bezeroen gordailuak 18.282,8 milioi eurokoak dira, 2014ko itxieran baino % 1,8 handiagoak. Azpimarratzekoa da ageriko kontuek izan duten 1.510,6 milioi euroko gorakada (% 18,4koa). Hein batean, eperako ezarpenen epigrafetik fondoak ateratzeagatik gertatu da, 1.143,5 milioi txikitu baita saldoa. Ez da 600 milioiren hipoteka-zedulak mugaeguneratzearen eragina sartu.

Bestalde, bezeroei emandako kreditua 13.719,4 milioi eurokoa da, 2015eko abenduaren 31n. Aldi baterako eskurapenen eta beste finantza-aktibo batzuen aldakuntzaren eragina alde batera utzita, ohiko kreditu-inbertsioa % 3,6 txikitu da. Etxebizitza eskuratzeko, kontsumorako eta enpresentzako finantzaketako formalizazioek, berriz, gora egin dute nabarmen.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO

KUDEAKETA TXOSTENA, 2015 EKITALDIA

Berankortasun-ratioa, hau da, zalantzazkotzat emandako aktiboek “Beste sektore egoiliar batzuk” epigrafeko bezeroentzako kredituen saldoen gainean duten ehunekoa (balioztapenagatiko doikuntzak aintzat hartu gabe), 2015aren itxieran % 7,4koa da, sektoreko batez bestekoa baino askoz ere txikiagoa, % 10,2an baitago gordailu-erakundeentzako ratioa.

Saltzeko prest dauden finantza-aktiboek 4.616,3 milioi euroko kopurua erdietsi dute eta balantzean duten pisuak behera egin du. 2015ean, aktiboen % 21,4 izan dira (2014ko ekitaldian, % 25,9). 2015eko abenduaren 31n, balioztapenagatiko doikuntzen saldoan 135,3 milioi euroko balio-handitze garbiak agertzen dira.

Efizientziari eta likideziari buruzko adierazleak oso parametro eroso eta egokietan daude, bai termino absolutuetan bai erlatiboetan. Efizientzia-indizea, marjina gordinaren gaineko administrazio-gastu moduan neurtua, % 52,0an kokatu da 2015ean. Egiturazko likideziaren ratioa, emandako kredituen gaineko gordailuetan oinarritua, berriz, % 88,1koa izan da.

Kaudimenari dagokionez, Entitatearen baliabide propio konputagarriak, 2015eko abenduaren 31ko oinarri bateratuan kalkulatuak, 1.555,9 milioi eurokoak dira. CET1 (Common Equity Tier 1) ratioa, sektoreko nabarmenenetako bat, % 15,12an kokatu da, eta guztizko kaudimenarena % 15,92an. Erabateko aplikazioaren edo “fully loaded”aren terminoetan, CET1 ratioa % 16,06koa da.

Galdu-irabazien kontuan sarrera eta gastuen atal hauek nabarmentzen dira:

Zerga ondorengo emaitza 110,3 milioi eurokoa da 2015ean, eta, beraz, gainditu egin dira Entitatearen Gestio Planeko aurreikuspenak.

Interesen marjina 308,9 milioi eurora iritsi da, interes-tasak etengabe txikiak eta marjinen gaineko presioa handia izan diren testuinguruan.

Dibidenduen, komisio garbien, finantza-eragiketen emaitzen eta bestelako ustiapen-emaitza batzuen multzoak 155,0 milioi euro eman ditu 2015ean. Horren eraginez, marjina gordina 463,9 milioi eurokoa izan da.

Kostuei dagokienez, horiek aurreztu, murriztu eta arrazionalizatzeko politikari esker, administrazio-gastuen eboluzioa mugatu egin da eta 241,4 milioi euroan finkatu; beraz, % 4,8ko murrizketa gertatu da.

Narriaduragatiko galerek eta hornikuntzetarako zuzkidurek 91,8 milioi euroko inpaktua izan dute emaitza-kontuan. Kreditu-inbertsioaren eta beste finantza-tresna batzuen ondoriozko hornidurak murriztu egin dira eta gure arrisku kontingenteak ebaluatzeko oso politika zuhurrak erabiltzen jarraitu dugu.

Aseguruen negozioak 30,4 milioi euroko emaitza globalak eman dizkio Laboral Kutxa Taldeari, ekoizpen berriak gora egitearen, kobratutako primak handitzearen eta ezbehar kopuruan espero zena baino bilakaera hobea izatearen ondorioz.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO

KUDEAKETA TXOSTENA, 2015 EKITALDIA

Higiezin alorrari dagokionez, negozioa arrazionalizatzeko planteamenduari eutsi zaio, eta, beraz, bere higiezin sozietateak batzeko eta partaidetuak gutxitzeko prozesuarekin jarraitu dugu. Aurreko ekitaldietan bezalaxe, higiezin sustapen- eta eraikuntza-jarduerarekin arriskua murrizteari esker, 2015erako 228 milioitan ezarrita zegoen desinbertsio-konpromisoa bete ahal izan da.

Banku-aktiboen kalitateari buruzko zalantzekin abiatu dugu 2016a Europan, eta Europako finantza-erakundeetako ez ordaintzeak estaltzeko aseguruaren edo CDSen kostuak gora egin du. Gainera, banku arteko erreferentzia nagusia, 12 hilerako Euriborra, tasa negatiboetara iritsi da lehen aldiz.

Egoera korapilatsu horretan, interesen marjina murriztea espero da 2016an; izan ere, finantza-kostuen murrizketak ez du konpentsatuko kreditu-inbertsioak eta errenta finkoko zorroak marjinari egingo dizkieten ekarpen txikiagoak. Gastuei eusteko politika zorrotza aplikatu beharko dugu, hornidura-behar txikiagoak izango direnez, aurreko ekitaldiko emaitza gainditu ahal izateko.

Negozio-bolumenetan eta, zehazki, aktiboan, berriz, handitu egingo dira ETE-etako kreditu-inbertsioaren saldoak eta kontsumorako finantzaketa. Etxebizitzarako hipoteken formalizazioetan aurreikusita dagoen gorakada handiak ez du amortizazioen maila oraindik konpentsatuko, eta, beraz, epigrafe horretako saldoak murrizten jarraituko du. Oro har, kreditu-inbertsioa murriztu egingo da apur bat.

Pasiboaren aldetik, ohiko gordailuak (eta epe finkorako ezarpenak) murriztea eta ageriko saldoak handitzea espero dugu, eta aldi baterako lagapenen eta balantzetik kanpoko posizioen hazkundearekin konpentsatzea.

Zalantza-ratioak beherantz jarraituko du, zeren eta, 2015ean gertatu denez, berandutzean sartutakoen erritmoak txikitzen jarraituko baitu, berreskurapenak handitu ahala.

2016-2019 epealdirako hausnarketa estrategikoan, erronka hauek finkatu ditu Entitate Nagusiak: egiturak (komertzialak eta laguntzakoak) egokitzea, berrikuntzari ekitea eta teknologia berriak eta bezeroekiko harremanetarako kanal berriak geureganatzea. Horretarako, zorrotasunez egokitu beharko ditu merkataritza-jarduera sustatzeko eginkizuna duten pertsonak eta haien lan-dinamikak. Bere jarduketa sarrerak emango dituzten negozioetara bideratuko du. Horren guztiaren helburua da emaitzei eta likideziari eustea eta gure kaudimen-posizioa sendotzea.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO

KUDEAKETA TXOSTENA, 2015 EKITALDIA

Taldearen hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea 14 egunekoa izan da 2015ean, merkataritza-eragiketen berankortasunaren kontrako neurriak ezarri zituen 2010ko uztailaren 5eko 15/2010 Legeak agindutako 30 eguneko gehienezkoa baino txikiagoa. Lege hori 2014ko abenduaren 3ko 31/2014 Legeak aldatu zuen, gobernu korporatiboa hobetzeko Kapital Sozietateen Legea aldatu zuenak. Kontabilitate eta Kontuen Ikuskaritza Institutuaren 2016ko urtarrilaren 29ko Ebazpenaren Xedapen Gehigarri Bakarra ere hartu da aintzat. Batez besteko ordainketa kalkulatzeko, Lege horretan ezarritakoa hartu da aintzat.

Ondoren, indarrean dagoen legediaren arabera, Caja Laboral Popularren Gobernu Korporatiboaren Urteko Txostena aurkeztuko dugu, kudeaketa-txostenaren eranskin gisa.

II. ERANSKINA

**MERKATU OFIZIALETAN NEGOZIATZEN DIREN BALOREAK JAULKITZEN DITUZTEN
AURREZKI KUTXEN EZ BESTE ERAKUNDEEN GOBERNU KORPORATIBOARI
BURUZKO URTEKO TXOSTENA**

JULKITZAILEAREN IDENTIFIKAZIO DATUAK

ERREFERENTZIAKO EKITALDIAREN AMAIERA DATA

2015

IFK: F75076935

Sozietatearen izena:

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO

Sozietatearen helbidea:

**JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA PASEALEKUA, ZK.G. ARRASATE
GIPUZKOA
20500
ESPAINIA**

**MERKATU OFIZIALETAN NEGOZIATZEN DIREN BALOREAK
JAILKITZEN DITUZTEN AURREZKI KUTXEN EZ BESTE ERAKUNDEEN
GOBERNU KORPORATIBOARI BURUZKO URTEKO TXOSTENA**



A.- JABETZAREN EGITURA

- A.1. Zure erakundeko akziodun edo parte-hartzaile garrantzitsuenen xehetasuna, ekitaldiaren itxiera-datan:

Akziodunaren edo partaidearen izen soziala	Kapital sozialaren %-a
LAGUNARO EPSV	% 14,95

- A.2. Adieraz itzazu, hala egokituz gero, akziodun edo partaide garrantzitsuenen artean egon litezkeen familia-, merkataritza-, kontratu- edo sozietate-arloko harremanak (erakundeak ezagutzen baditu), garrantzi txikikoak eta merkataritza-trafiko edo -igorpen arruntak sortutakoak salbu utzita:

Harremana dutenen izen sozialak	Harreman mota	Azalpen laburra

- A.3. Adieraz itzazu, hala egokituz gero, akziodun edo parte-hartzaile garrantzitsuenen eta erakundearen artean egon litezkeen merkataritza-, kontratu- edo sozietate-arloko harremanak, garrantzi txikikoak eta merkataritza-trafiko edo -igorpen arruntak sortutakoak salbu utzita:

Harremana dutenen izen sozialak	Harreman mota	Azalpen laburra

- A.4. Adierazi, hala egokituz gero, boto eskubidea erabiltzeko dauden mugak, bai eta kapitalean partaidetzak erosteko edo eskualdatzeko dauden mugak ere:

Bai

Ez

Muga horien azalpena

KOOPERATIBEN LEGERIAN AGINDUTAKOAREN ARABERA, PERTSONA JURIDIKOA DEN BAZKIDE BATEK ERE EZIN DU KAPITALAREN % 20TIK GORAKO PARTAIDETZARIK ETA/EDO BOTO ESKUBIDERIK IZAN. OROBAT, PERTSONA FISIKOA DEN BAZKIDE BATEK ERE EZIN DU KAPITALAREN % 2,5ETIK GORAKO PARTAIDETZARIK ETA/EDO BOTO ESKUBIDERIK IZAN.



B.- BATZAR OROKORRA EDO PAREKO ORGANOA

- B.1 Aipa itzazu Batzar Orokorraren edo pareko organoaren eraketarako zer quorum dauden, estatutuetan ezarritakoaren arabera. Esan ezazu zertan ez duen antzik Sozietate Anonimoen Legean (SALean) aurreikusitako minimoen erregimenarekin edo aplikatu behar zaion araudiarekin.

KOOPERATIBEN LEGERIAN EZARRITAKOAREKIN BAT ETORRIZ ETA HARTU BEHARREKO ERABAKIA EDOZEIN IZANIK ERE, BATZAR NAGUSIA LEHEN DEIALDIAN BALIO OSOZ ERATUTZAT JOKO DA, BALDIN ETA BAZKIDEEN ERDIAK BAINO GEHIAGO BERTAN EDO ORDEZKATUTA BADAUDE, ETA, BIGARREN DEIALDIAN, BALDIN ETA BAZKIDEEN % 5 EDO 100 BAZKIDE GUTXIENEZ BERTARATU BADIRA.

- B.2 Azal ezazu zein den sozietate-erabakiak hartzeko erregimena. Esan ezazu zertan ez duen antzik EKLAN aurreikusitako erregimenarekin edo aplikatu behar zaion araudiarekin.

KOOPERATIBEN LEGERIA APLIKATUZ, BALIO OSOZ EMANDAKO BOTOEN ERDIA BAINO GEHIAGO BEHAR IZANGO DA ERABAKIAK ONARTZEKO. BAT EGITEAK, BANANTZEAK, OBLIGAZIOEN ETA BESTE BALORE BATZUEN JAULKIPENAK EDO TA ESTATUTUEN ALDAKETAK EGITEKO, BERTAN EDO ORDEZKATUTA DAUDEN BAZKIDEEN BOTOEN BI HERENAK BEHAR IZANGO DIRA GUTXIENEZ.

- B.3 Labur itzazu txosten honek aipagai duen ekitaldian batzar orokorrekin edo pareko organoekin hartutako erabakiak eta erabaki horien alde emandako botoen ehunekoak.

EKITALDIAN, 2015eko APIRILAREN 18ko BATZAR NAGUSIAK HONAKO ERABAKI HAUEK HARTU ZITUEN, ETA HAUEK IZAN ZIREN ALDEKO BOTOEN EHUNEKOAK:

- HIRU BAZKIDE IZENDATZEA ZEGOKION BATZARRAREN AKTA ONESTEKO (AHO BATEZ).

- ERAKUNDEARI ETA HAREN TALDE BATERATUARI BURUZKO URTEKO KONTUAK ETA GESTIO TXOSTENA ONESTE (AHO BATEZ).

- KAPITAL SOZIALERAKO INTERESAK ORDAINTZEA (AHO BATEZ).

- EKITALDIKO SOBERAKIN GARBIAK BANATZEA: % 10 HEZIKETAKO ETA SUSTAPENEN FONDORA, % 15 KOOPERATIBA ARTEKO FONDO SOZIALERA, % 25 KOOPERATIBA ITZULKINETARA ETA % 50 NAHITAEZKO ERRESERBA FONDORA (AHO BATEZ).

- HEZIKETAKO ETA SUSTAPENEN FONDOTIK % 9,5 BERTAN BANATZEA, % 10,8 BANAKETA OROKORRERAKO UZTEA ETA % 79,7 MCC-REN KOOPERATIBA ERAKUNDEAK FINANTZATZEKO ETA HEZIKETAKO ETA KOOPERATIBA ARTEKO SUSTAPENEN FONDORAKO EKARPENETARAKO ERABILTZEA (AHO BATEZ).

- BAZKIDE BERRIEK KAPITAL SOZIALARI EGIN BEHARREKO EKARPENAK ETA SARRERA KUOTAK ONESTE (AHO BATEZ).

- 2015ean KAPITAL SOZIALARI EGIN BEHARREKO EKARPENEN INTERESA 2016ko BATZAR NAGUSIAK ZEHAZTUKO DUELA FINKATZEA. DENA DEN, KONTSEILU ERREKTOREAK KONTURAKO ZENBATEKOAK ORDAINTZEKO ESKUMENA IZANGO DU (AHO BATEZ).

- 2015eko EKITALDIKO URTEKO KONTUAK IKUSKATZEKO PRICEWATERHOUSECOOPERS IZENDATZEA BERRIRO (AHO BATEZ).

- KONTSEILARIAK IZENDATZEA ARAUTZEN DUTEN BATZAR NAGUSIAREN ARAUDIAREN 24. ETA 25. ARTIKULUAK ALDATZEA (AHO BATEZ).

- KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEEEN ZATI BAT BERRITZEA (AHO BATEZ).

B.4 Adieraz ezazu zein den entitatearen webgunea eta nola iristen den gobernu korporatiboari buruzko informazioa.

ENTITATEAREN WEBGUNEKO (WWW.LABOALKUTXA.EUS) HASIERAKO ORRIALDETIK ESKURA DAITEKE GOBERNU KORPORATIBOAREN EDUKIA, WEB KORPORATIBOAREN ESTEKAREN BIDEZ ETA, HORREN BARRUAN, TXOSTEN ETA GERTAKARI GARRANTZITSUAK / GOBERNU KORPORATIBOA AUKERATUZ.

B.5 Adieraz ezazu erakundeak jaulkitako baloreen edukitzaileen sindikatuek, horrelakorik badago, bilerarik egin duten, txosten honek aipagai duen ekitaldian egindako bilerek zer xede izan duten eta zer erabaki nagusi hartu dituzten.

EZ DA ERATU ERAKUNDEAK JAULKITAKO BALOREEN EDUKITZAILEEN SINDIKATURIK.



C.- ENTITATEKO ADMINISTRAZIOAREN EGITURA

C.1 Administrazio-kontseilua edo -organoa

C.1.1 Esan ezazu zein den administrazio-organoko kontseilari edo kideen gehienezko eta gutxienezko kopurua, estatutuetan aurreikusitakoaren arabera:

Organoko kontseilarien/kideen gehienezko kopurua	15
Organoko kontseilarien/kideen gutxienezko kopurua	12

C.1.2 Bete ezazu administrazio-kontseiluko edo -organoko kideei eta haien izaerari buruzko taula hau:

ADMINISTRAZIO ORGANOKO KONTSEILARIAK/KIDEA

Administrazio-organoko kontseilariaren/kidearen izena edo izen soziala	Ordezkarria	Azken izendapenaren eguna
TXOMIN GARCIA HERNANDEZ		2015-07-29
ROBERTO RUIZ DE INFANTE AGUIRRE		2012-06-30
IÑAKI JOSU GOÑI GABILONDO		2012-06-30
JOSE MARIA BALZATEGUI JULDAIN		2012-06-30
AINHOA GALLASTEGUI MARTINEZ		2015-07-29
JOSE LUIS GARCIA GARCIA		2012-06-30
RAFAEL IDIGORAS ALBERDI		2013-09-30
MARIA CARMEN INURRIA LANDERAS		2015-07-29
JAVIER OLEAGA MENDIARACH		2015-07-29
JESUS IGNACIO PEÑA GÓMEZ		2013-04-30
ADOLFO PLAZA IZAGUIRRE		2015-07-29
JOSE JAVIER SAENZ DE BURUAGA		2012-06-30
LUIS MARIA UGARTE AZPIRI		2012-06-30
ELENA ZARRAGA BILBAO		2015-07-29

C.1.3 Aipa itzazu, hala egokituz gero, erakundearen taldeko kide diren beste erakunde batzuetan administratzaile- edo zuzendari-karguak betetzen dituzten administrazio-kontseiluko edo -organoko kideak:

Administrazio-organoko kontseilariaren/kidearen izena edo izen soziala	Taldeko erakundearen izen soziala	Kargua
TXOMIN GARCIA HERNANDEZ	SEGUROS LAGUN ARO, S.A.	ADMINISTRAZIO KONTSEILUKO LEHENDAKARIA
TXOMIN GARCIA HERNANDEZ	SEGUROS LAGUN ARO VIDA, SA	ADMINISTRAZIO KONTSEILUKO LEHENDAKARIA

C.1.4 Bete ezazu hurrengo taula administrazio-kontseilua eta haren batzordeak osatzen dituzten emakumezko kideen kopuruari buruzko informazioarekin, bai eta kopuruak azken ekitaldian izan duen bilakaerarekin ere:

	Emakumezko kontseilarien kopurua			
	2015eko ekitaldia Kopurua %	2014ko ekitaldia Kopurua %	2013ko ekitaldia Kopurua %	2012ko ekitaldia Kopurua %
Administrazio-kontseilua	3 % 21	3 % 21	3 % 20	4 % 27
Ikuskaritza-batzordea	2 % 67	2 % 67	2 % 50	2 % 50
Arrisku-batzordea	2 % 40	1 % 20	-	-
Izendapenen eta ordainsarien batzordea	0	0	-	-

C.1.5 Bete ezazu ekitaldian zehar sortutako administrazio-organoko kontseilari edo kideen ordainsari agregatuari buruzko taula hau:

Ordainketaren kontzeptua	Mila eurokotan	
	Banakakoa	Taldea
Ordainsari finkoa	131	
Ordainsari aldakorra	27	
Dietak		
Beste ordainsari batzuk		
Guztira	158	

- C.1.6 Identifika itzazu administrazio-organoko kontseilari edo kide ez diren goi-zuzendaritzako kide exekutiboak, eta adieraz itzazu ekitaldian zehar horien alde sortutako ordainsari guztiak:

Izena edo izen soziala	Kargua
JULIO GALLASTEGUI ZUBIZARRETA	ZUZENDARI NAGUSIA
CARLOS OSES IRULEGUI	ZUZENDARI NAGUSI ONDOKOA ETA PARTIKULARREN AREA KOMERTZIALEKO ZUZENDARIA
JOSU ARRAIZA MARTÍNEZ DE LAGRAN	ENPRESEN AREAKO ZUZENDARIA
XABIER EGUIBAR GAINZA	NEGOZIOA SUSTATZEKO AREAKO ZUZENDARIA
NURIA AGUIRRE UNZUETA	GESTIO SOZIALEKO ZUZENDARIA
JOSÉ ANTONIO UNANUE ETXEBERRIA	FINANTZEN AREAKO ZUZENDARIA
ROMÁN AGUIRRE BEITIA	ORDAINBIDEEN AREAKO ZUZENDARIA
ALFREDO ZABALETA BARREDO	ARRISKUEN AREAKO ZUZENDARIA
OSCAR EGUSKIZA SIERRASESUMAGA	ARRISKUEN GESTIO AREAKO ZUZENDARIA

Goi-zuzendaritzako kideezaren ordainsari guztiak (mila eurokotan)	1.304
--	--------------

- C.1.7 Esan ezazu kontseiluko estatutuek edo araudiak administrazio-organoko kontseilari edo kideentzat agintaldi mugatua ezartzen duten ala ez:

Bai Ez

Gehienezko agintaldi kopurua	
-------------------------------------	--

- C.1.8 Adieraz ezazu administrazio-kontseiluari edo -organoari onesteko aurkezten zaizkion urteko banakako kontuak eta kontu bateratuak aurrez ziurtatuta dauden ala ez:

Bai Ez

Identifika itzazu, hala egokituz gero, erakundearen urteko banakako kontuak eta kontu bateratuak ziurtatu dituzten pertsonak, kontu horiek administrazio-kontseiluak edo -organoak onets ditzan:

IFZ	Izena	Kargua

- C.1.9 Azal itzazu, horrelakorik balego, administrazio-kontseiluak edo -organoak prestatutako banakako kontuak eta kontu bateratuak Batzar Nagusian edo horren pareko organoan salbuespenekin aurkeztea eragozteko ikuskapen-txostenean ezarritako mekanismoak.

KONTSEILU ERREKTOREAREN ARAUDIAK IKUSKARITZA BATZORDE BAT ARAUTZEN DU, ETA BERARI ESLEITZEN ZAIO INFORMAZIO FINANTZARIO ARAUTUA PRESTATU ETA AURKEZTEKO PROZESUA IKUSKATZEKO EGINKIZUNA. ILDO BERETIK, HAREN EGINKIZUNA DA BARNE KONTROLERAKO SISTEMEN ERAGINKORTASUNA IKUSTATZEA.

- C.1.10. Administrazio-kontseiluko edo -organoko idazkariak kontseilari izaera du?

Bai Ez

C.1.11. Adieraz itzazu, horrelakorik balego, ikuskatzailearen, finantza-analisten, inbertsio-bankuen eta kalifikazio-agentzien independentzia babesteko ezarritako mekanismoak.

KONTSEILU ERREKTOREAREN ARAUDIAK IKUSKARITZA BATZORDEA ARAUTZEN DU, ETA BERARI ESLEITZEN ZAIO KONTU IKUSKATZAILEEKIN EDO IKUSKARITZA SOZIETATEEKIN HARREMANAK LOTU ETA EUREN INDEPENDENTZIA ARRISKUAN JAR LEZAKETEN GAIEN INGURUKO INFORMAZIOA JASOTZEKO EGINKIZUNA. HALA, URTEAN BEHIN, INDEPENDENTE DIRELA IDATZIZ BERRESTEKO ESKATZEN ZAIE.

C.2. Administrazio-kontseilu edo -organoko batzordeak

C.2.1. Zerrenda itzazu administrazio-kontseilu edo -organoko batzordeak:

Batzordearen izena	Kide kopurua
IKUSKARITZA BATZORDEA	3
IZENDAPENEN ETA ORDAINSARIEN BATZORDEA	5
ARRISKU BATZORDEA	5

C.2.2 Esan ezazu zein diren administrazio-kontseiluko edo -organoko batzorde guztiak, horien kideak eta batzordeak osatzen dituzten kontseilari exekutibo, dominikal, independente eta kanpoko beste guztien ehunekoa (kapital-sozietatearen forma juridikoa ez duten erakundeek ez dute kontseilariaren kategoria beteko eta, testuaren eremuan, kontseilari bakoitzaren kategoria azalduko dute, erakunde horien araubide juridikoaren arabera eta kontuan hartuta kontseilariak nola betetzen dituzten ikuskaritza-batzordea eta izendapenenen eta ordainsarien batzordea osatzeko baldintzak).

IKUSKARITZA BATZORDEA

Izena	Kargua	Kategoria
MARIA CARMEN INURRIA LANDERAS	LEHENDAKARIA	
ADOLFO PLAZA IZAGUIRRE	KIDEA	
ELENA ZARRAGA BILBAO	KIDEA	

Kontseilari dominikalen %-a	
Kontseilari independenteen % a	
Kanpoko beste kontseilarien %-a	
Bilera kopurua	5

Adieraz ezazu zer eginkizun dituen batzorde horrek, azal itzazu horren antolakuntza-prozedurak eta -arauak eta labur itzazu ekitaldian izan dituen jarduketarik garrantzitsuenak.

IKUSKARITZA BATZORDEAREN EGINKIZUN BEREZIAK ESTATUTUETAN (36 BEDERATZI ARTIKULUAN) JASOTAKOAK DIRA, HAU DA:

A) BATZAR NAGUSIAN ARGIBIDEAK EMATEA, BAZKIDEEK BEREN ESKUMENEN KATEGORIAN PROPOSATZEN DITUZTEN ARLOEI BURUZ.

B) KANPOKO KONTU IKUSKATZAILEEN IZENDAPENA, LUZAPENA EDO KARGU UZTEA PROPOSATZEA KONTSEILU ERREKTOREARI, BATZAR NAGUSIAK ONESPENA EMAN DIEZAIEN.

C) BARNE IKUSKARITZAKO ZERBITZUAK GAINBEGIRATZEA.

D) SOZIEATEAREN BARNE KONTROLERAKO SISTEMEN ETA INFORMAZIO FINANTZARIOAREN PROZESUA EZAGUTZEA.

E) KANPOKO IKUSKATZAILERAKIN HARREMANAK IZATEA, HORIEN INDEPENDENTZIA ARRISKUAN JAR DEZAKETEN GAIEEN INGURUAN, KONTU IKUSKARITZAREN GARAPEN PROZESUARI LOTURIKO BESTE EDOZEIN GAIEEN INGURUAN, ETA KONTU IKUSKARITZAREN LEGERIAN ETA IKUSKARITZA ARAU TEKNIKOETAN AURREIKUSITAKO GAINERAKO JAKINARAZPENEN INGURUAN INFORMAZIOA JASOTZEKO.

F) URTEAN BEHIN, KONTU IKUSKARITZAREN TXOSTENA ARGITARATU AURRETIK, KONTU IKUSKATZAILEREN EDO IKUSKARITZA SOZIEATEEN INDEPENDENTZIARI BURUZKO IRIZPENA JASOKO DUEN TXOSTENA ARGITARATZEA. TXOSTEN HORRETAN, BETIERE, AURREKO ATALEAN AIPATURIKO ZERBITZU OSAGARRIEN PRESTAZIOARI BURUZKO IRITZIA JASO BEHARKO DA.

ERA BEREAN, KONTSEILU ERREKTOREAREN ARAUDIAREN 10.3 ARTIKULUAREN ARABERA, ORGANO HORREK JOKABIDE KODEA ETA GOBERNU KORPORATIBOAREN ARAUAK BETETZEN DIRELA GAINBEGIRATZEKO ESKUMENA DU.

ESTATUTU SOZIALEN ARABERA, IKUSKARITZA BATZORDEAK BEHAR ADINA BILERA EGINGO DITU, LEHENDAKARIAK EDO EDOZEIN KIDEEK ESKATUZ GERO. KIDE BAKOITZAK BOTO BAT IZANGO DU, ERABAKIAK GEHIENGO SOILEZ HARTUKO DIRA ETA LEHENDAKARIAREN BOTOAK BERDINKETAK ERABAKITZEN DITU.

BATZORDEA OSATZEN DUTEN KONTSEILARIEN KATEGORIARI DAGOKIONEZ, MARIA CARMEN INURRIA (BATZORDEKO LEHENDAKARIA) ETA ELENA ZARRAGA "KONTSEILARI INDEPENDENTEAK DIRA" (GUZTIEN % 67) ETA ADOLFO PLAZA "LAN BAZKIDE KONTSEILARIA" (GUZTIEN % 33). BATZORDEAN EZ DAGO EZ KONTSEILARI DOMINIKALIK EZ EXEKUTIBORIK.

"LAN BAZKIDE KONTSEILARIA" ENTITATEAN GOI MAILAKO ZUZENDARITZA KARGURIK BETE GABE BERTAN LAN BAZKIDE GISA LANEAN DIHARDUEN KONTSEILARIA DA.

IKUSKARITZA BATZORDEAK 2015ean BETE DITUEN JARDUKETA GARRANTZITSUENEI DAGOKIENEZ, HONAKO HAUEK AZPIMARRA DAITEZKE:

- INFORMAZIO FINANTZARIOA LANDU ETA AURKEZTEKO PROZESUA GAINBEGIRATU DU, BARNE IKUSKARITZAKO DEPARTAMENTUAREN DESKARGUEN BIDEZ. ONDORENGO EGIAZTAPEN HAUEK NABARMENTZEN DIRA:
 - ENTITATEAK LANDUTAKO BANAKAKO KONTUAK ETA KONTU BATERATUAK BERRIKUSI DITU, BAITA DAGOZKIEN GESTIO TXOSTENAK ERE.
 - ESPAINIAKO BANKUARI BIDALITAKO BALIABIDE PROPIOEN AITORPENA BERRIKUSI DU.
 - ENTITATEAK ARGITARATURIKO ZUHURTASUNEZKO INFORMAZIO GARRANTZITSUA BERRIKUSI DU.
 - ESPAINIAKO BANKUARI BIDALITAKO FINANTZETAKO EGOERA ORRI PUBLIKOAK BERRIKUSI DITU.
- BARNE IKUSKARITZAKO DEPARTAMENTUAREN EGINKIZUNA BERRIKUSI DU, HAREN INDEPENDENTZIA ETA ERAGINKORTASUNA ZAINDUZ ETA HAREN JARDUKETEI BURUZKO ALDIZKAKO INFORMAZIOA JASOZ
- KONTSEILU ERREKTOREARI KANPO IKUSKARITZAKO KONTRATUAREN LUZAPENA PROPOSATZEA ERABAKI DU.
- KANPO IKUSKARITZAREN EMAITZAREN JARRAIPENA EGIN DU, KANPO IKUSKATZAILERAKIN BILERAK EGINEZ ETA HAREKIN BATERA ALDERDI GARRANTZITSUAK AZTERTUZ ETA BERRIKUSIZ.
- KANPO IKUSKATZAILEREN INDEPENDENTZIA EGIAZTATZEKO IRITZIA EMAN DU, IKUSKARITZA TXOSTENA PLAZARATU BAINO LEHEN.
- KONTU IKUSKARITZARI BURUZKO 2015eko UZTAILAREN 20ko 22/2015 LEGEA ONARTU IZANAK ERAGINDAKO INPLIKAZIO NAGUSIAK AZTERTU DITU.
- IKUSKARITZAKO BERRIKUSPEN ETA EBALUAZIO PROZESU (SREP) BERRIAK ERAGINDAKO INPLIKAZIO NAGUSIAK AZTERTU DITU.

Identifika ezazu kontabilitatean, ikuskaritzan edo bietan dituen ezagutza eta esperientzia direla-eta ikuskaritza-batzordeko kide izendatu duten kontseilaria, eta adieraz ezazu zenbat urte daramatzen batzordeko lehendakariak bere karguan.

Esperientzia duen kontseilariaren izena	ELENA ZARRAGA BILBAO
Lehendakariak karguan daraman urte kopurua	0

IZENDAPENEN ETA ORDAINSARIEN BATZORDEA

Izena	Kargua	Kategoria
ROBERTO RUIZ DE INFANTE AGUIRRE	LEHENDAKARIA	
TXOMIN GARCIA HERNANDEZ	KIDEA	
JOSE LUIS GARCIA GARCIA	KIDEA	
JOSE JAVIER SAENZ DE BURUAGA GABILONDO	KIDEA	
IÑAKI JOSU GOÑI GABILONDO	KIDEA	

Kontseilari dominikalen %-a	
Kontseilari independenteen % a	
Kanpoko beste kontseilarien % -a	
Bilera kopurua	4

Adieraz ezazu zer eginkizun dituen batzorde horrek, azal itzazu horren antolakuntza-prozedurak eta -arauak eta labur itzazu ekitaldian izan dituen jarduketarik garrantzitsuenak.

KONTSEILU ERREKTOREAREN ARAUDIAN (11.2. ART.) JASOTA DAUDE IZENDAPENEN ETA ORDAINSARIEN BATZORDEAREN ZEREGIN BEREZIAK. HONAKO HAUEK, ALEGIA:

- KONTSEILARIEN ETA FUNTSEZKO LANGILEEN EGOKITASUNARI BURUZKO ESKULIBURUAN ESLEITUTAKOAK.

- KONTSEILU ERREKTOREAN ORDEZKARITZARIK TXIKIENA DUEN SEXUARENTZAKO ORDEZKARITZA HELBURUA FINKATZEA ETA HELBURU HORRETARA IRISTEKO ORIENTABIDEAK LANTZEA.

- KONTSEILU ERREKTOREARI ORDAINSARIEN POLITIKA OROKORRA ETA IDENTIFIKATURIKO KOLEKTIBOAREN ORDAINSARIEN POLITIKA PROPOSATZEA.

- ORDAINSARIEN POLITIKAK BETETZEN DIRELA ZAINTEA, ZUZENDARIEI APLIKATZEN ZAIZKIENAK ALDIAN BEHIN BERRIKUSTEA ETA POLITIKA HORIEK EGOKI BETETZEN DIRELA BERMATZEKO, URTEAN BEHIN TXOSTEN BAT EGINGO DELA ZIURTATZEA.

ARAUDIAREN ARABERA, IZENDAPENEN ETA ORDAINSARIEN BATZORDEAK BEHAR ADINA BILERA EGINGO DITU, LEHENDAKARIAK EDO EDOZEIN KIDEK ESKATUZ GERO. KIDE BAKOITZAK BOTO BAT IZANGO DU, ERABAKIAK GEHIENGO SOILEZ HARTUKO DIRA ETA LEHENDAKARIAREN BOTOAK BERDINKETAK ERABAKITZEN DITU.

BATZORDEA OSATZEN DUTEN KONTSEILARIEN KATEGORIARI DAGOKIONEZ, ROBERTO RUIZ DE INFANTE (BATZORDEKO LEHENDAKARIA) ETA JOSE JAVIER SANEZ DE BURUAGA “KONTSEILARI INDEPENDENTEAK” DIRA (GUZTIEN % 40), JOSE LUIS GARCIA ETA IÑAKI JOSU GOÑI “LAN BAZKIDE KONTSEILARIAK” DIRA (GUZTIEN % 40) ETA TXOMIN GARCIA “KANPOKO BESTE KONTSEILARI BAT” DA (GUZTIEN % 20). BATZORDEAN EZ DAGO EZ KONTSEILARI DOMINIKALIK EZ EXEKUTIBORIK.

“LAN BAZKIDE KONTSEILARIA” ENTITATEAN GOI MAILAKO ZUZENDARITZA KARGURIK BETE GABE BERTAN LAN BAZKIDE GISA LANEAN DIHARDUEN KONTSEILARIA DA.

“KANPOKO BESTE KONTSEILARI BAT” KONTSEILARIEN GAINERAKO KATEGORIETAN SARTZEKO BALDINTZAK BETETZEN EZ DITUEN KONTSEILARIA DA.

IZENDAPENEN ETA ORDAINSARIEN BATZORDEAK 2015ean BETE DITUEN JARDUKETA GARRANTZITSUENEI DAGOKIENEZ, HONAKO HAUEK AZPIMARRA DAITEZKE:

- “CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITOREN ORDAINSARI POLITIKA” EGUNERATZEA, IDENTIFIKATURIKO KOLEKTIBOAN PERTSONA GEHIAGO SAR DAITEZEN PROPOSATZEA ETA PERTSONA HORIEN EGOKITASUNA EBALUATZEA.
- KONTSEILU ERREKTOREA BERRITZEKO PROZESUAREN BARRUAN, KONTSEILARI IZATEKO HAUTAGAIEN EBALUAZIOA ETA ANALISIA EGITEA, “KONTSEILARIAK ETA FUNTSEZKO LANGILEAK HAUTATZEKO ETA HORIEN EBALUAZIOA EGITEKO PROZEDURARI BURUZKO ESKULIBURUAN” AURREIKUSITAKOA BETEZ, ETA KONTSEILU ERREKTOREAREN TXOSTENA EGITEA.
- ADMINISTRAZIO KONTSEILUKO KIDEEEN, ZUZENDARITZA NAGUSIKOEN ETA FUNTSEZKO LANGILEEN EGOKITASUNARI BURUZKO ETENGABEKO EBALUAZIOA EGITEA, ETA KONTSEILU ERREKTOREAREN EZAGUTZAREN, GAITASUNAREN, DIBERTSITATEAREN ETA ESPERIENTZIAREN OREKA EBALUATZEA.
- KONTSEILU ERREKTOREKO KIDE IZATEKO HAUTAGAIK AUKERATZEKO POLITIKA PROPOSAMENA IDAZTEA, ORDEZKARITZA TXIKIENA DUEN SEXUARENTZAKO ORDEZKARITZA HELBURUA FINKATUZ.
- GOI ZUZENDARITZAKO KIDEAK AUKERATU, IZENDATU ETA ORDEZKATZEKO KONTSEILU ERREKTOREAREN POLITIKA PROPOSAMENA EGITEA .

ARRISKUEN BATZORDEA

Izena	Kargua	Kategoria
ELENA ZARRAGA BILBAO	LEHENDAKARIA	
TXOMIN GARCIA HERNANDEZ	KIDEA	
LUIS M ^o UGARTE AZPIRI	KIDEA	
RAFAEL IDIGORAS ALBERDI	KIDEA	
AINHOA GALLASTEGUI MARTINEZ	KIDEA	

Kontseilari exekutiboen %-a	
Kontseilari dominikalen %-a	
Kontseilari independenteen %-a	
Kanpoko beste kontseilarien %-a	
Bilera kopurua	7

Adieraz ezazu zer eginkizun dituen batzorde horrek, azal itzazu horren antolakuntza-prozedurak eta -arauak eta labur itzazu ekitaldian izan dituen jarduketarik garrantzitsuenak.

KONTSEILU ERREKTOREAREN ARAUDIAN (11. ART.BIS) JASOTA DAUDE ARRISKUEN BATZORDEAREN ZEREGIN BEREZIAK. HONAKO HAUEK, ALEGIA:

- KONTSEILU ERREKTOREARI AHOLKU EMATEA ENTITATEAREN GAUR EGUNGO ETA ETORKIZUNEN ARRISKU JOEREI ETA ESPARRU HORRETAKO ESTRATEGIARI BURUZ. HALATAN, ESTRATEGIA HORREN EZARPENA NAHIZ ENTITATEAK IZAN LITZAKEEN ARRISKUAK GESTIONATU, IKUSKATU ETA MURRIZTEKO POLITIKA ZEHATZAK ZAINTZEN ERE LAGUNDUKO DIO.
- BEZEROEI ESKAINTZEN ZAIZKIEN AKTIBOEN ETA PASIBOEN PREZIO POLITIKEK ENTITATEAREN ENPRESA EREDUA ETA ARRISKU ESTRATEGIA KONTUAN HARTUKO DITUZTELA ZAINTZEA. HALA EZ BALITZ, ARRISKUEN BATZORDEAK EGOERA ZUZENTZEKO PLANA AURKEZTU BEHARKO DIO KONTSEILU ERREKTOREARI.

- KONTSEILU ERREKTOREARI AHOLKU EMATEA ENTITATEAREN ARRISKU GARRANTZITSU GUZTIEN GESTIOARI ETA IKUSKARITZARI BURUZ.
- KONTSEILU ERREKTOREARI AHOLKU EMATEA ESTRES TESTAREN ETA KAPITAL PLANGINTZAREN INGURUKO ARRISKUEI BURUZ.
- ARRISKUAK GESTIONATZEKO ETA BARNE ANTOLAKUNTZA ERAGINKORRA IZATEKO BALIABIDE EGOKIAK ESLEITZEN DIRELA BERMATZEA.
- KONTSEILU ERREKTORETIK ERAKUNDERA ETA ERAKUNDETIK KONTSEILU ERREKTORERA ARRISKUEN BERRI EMATEKO INFORMAZIO BIDE ERAGINKORRAK EGONGO DIRELA BERMATZEA ETA, KONTSEILU ERREKTOREAREKIN BATERA, BATZORDEAK BERAK NAHIZ KONTSEILU ERREKTOREAK ARRISKUEN INGURUKO ZER-NOLAKO INFORMAZIOA, ZENBAT, ZER FORMATUTAN ETA ZER MAIZTASUNEKIN JASO BEHAR DUTEN ZEHAZTEA.
- AKTIBOEN BALORAZIOA, KREDITUEN KANPO KALIFIKAZIOEN ERABILERA ETA ARRISKUEI BURUZKO BARNE EREDUAK IKUSKATZEA.
- ORDAINSARIEI BURUZKO POLITIKA ETA JARDUNBIDE ZENTZUDUNAK ZEHAZTEN LAGUNTZEA. ORDAINSARI SISTEMAN AURREIKUSITAKO PIZGARRIEN POLITIKAK ARRISKUA, KAPITALA, LIKIDEZIA ETA ETEKINEN AUKERA KONTUAN HARTZEN OTE DITUEN AZTERTZEA.

ARAUDIAREN ARABERA, ARRISKUEN BATZORDEAK BEHAR ADINA BILERA EGINGO DITU, LEHENDAKARIAK EDO EDOZEIN KIDEK ESKATUZ GERO. KIDE BAKOITZAK BOTO BAT IZANGO DU, ERABAKIAK GEHIENGO SOILEZ HARTUKO DIRA ETA LEHENDAKARIAREN BOTOAK BERDINKETAK ERABAKITZEN DITU.

BATZORDEA OSATZEN DUTEN KONTSEILARIEN KATEGORIARI DAGOKIONEZ, ELENA ZARRAGA (BATZORDEKO LEHENDAKARIA) ETA RAFAEL IDIGORAS “KONTSEILARI INDEPENDENTEAK” DIRA (GUZTIEN % 40), AINHOA GALLASTEGUI “LAN BAZKIDE KONTSEILARIA” DA (GUZTIEN % 20), TXOMIN GARCIA “KANPOKO BESTE KONTSEILARI BAT” DA (GUZTIEN % 20) ETA LUIS M^a UGARTE “KONTSEILARI DOMINIKALA DA” (GUZTIEN % 20). BATZORDEAN EZ DAGO KONTSEILARI EXEKUTIBORIK.

“LAN BAZKIDE KONTSEILARIA” ENTITATEAN GOI MAILAKO ZUZENDARITZA KARGURIK BETE GABE BERTAN LAN BAZKIDE GISA LANEAN DIHARDUEN KONTSEILARIA DA.

“KANPOKO BESTE KONTSEILARI BAT” KONTSEILARIEN GAINERAKO KATEGORIETAN SARTZEKO BALDINTZAK BETETZEN EZ DITUEN KONTSEILARIA DA.

ARRISKU BATZORDEAK 2015ean BETE DITUEN JARDUKETA GARRANTZITSUENEI DAGOKIENEZ, HONAKO HAUEK AZPIMARRA DAITEZKE:

- ARRISKU GUZTIEN JARRAIPENA ETA KONTROLA, APB-AK HIRU HILEAN BEHIN EGINDAKO DESKARGUEN BIDEZ.
- ARRISKU ESKULIBURU ETA POLITIKA GUZTIEN ALDAKETAK AZTERTU ETA BALIOZKOTU DITU.
- ARRISKU MOTA GUZTIETARAKO MUGAK ETA ESKUMENAK AZTERTU ETA BALIOZKOTU DITU.
- ARRISKUAREKIKO GRINA ESPARRUA (RAF) ETA ARRISKUAREKIKO GRINAREN URTEKO AITORPENA (RAS) AZTERTU ETA BALIOZKOTU DITU.



D ERAGIKETA LOTUAK ETA TALDE BARRUKO ERAGIKETAK

D.1. Zerrenda itzazu zure taldeko entitatearen edo entitateen eta akziodunen, partaide kooperatibisten nahiz jabetza-eskubideen titularren edota entitatean pareko izaera duten beste edozeinen artean egindako eragiketak.

D.2. Zerrenda itzazu zure taldeko entitatearen edo entitateen eta administratzaileen nahiz administrazio-organoko kideen edo entitateko zuzendaritzako kideen artean egindako eragiketak.

D.3. Zerrenda itzazu talde barruan egindako eragiketak.

- D.4. Esan ezazu zein mekanismo ezarri diren entitatearen edo haren taldearen eta administrazio-organoko kontseilari edo kideen edo zuzendarien artean egon litezkeen interes-gatazkek atzeman, zehaztu eta ebazteko.

LEGEAK AUKERA EMATEN DU KONTSEILU ERREKTOREAREN ETA BATZAR NAGUSIAREN ERABAKIAK AURKARATZEKO, BAZKIDE EDO HIRUGARREN BATEN EDO BATZUEN MESEDERAKO ETA CAJA LABORALEAN INTERESEN KALTERAKO DIRENEAN. HORREZ GAIN, BEHEAN AIPATU DIREN ARAU BEREZIAK APLIKATUKO DIRA, SOR LITEZKEEN INTERES GATAZKETAN:

A) ARRISKU POLITIKARI BURUZKO ESKULIBURUAREN 7. ARTIKULUAREN ARABERA ETA IRIZPIDE OROKOR GISARA, KONTSEILU ERREKTOREKO EDO ZUZENDARITZA NAGUSIKO KIDEEK, HAIEN BIGARREN MAILARAINOKO SENIDEEK ETA LOTUTAKO SOZIJETATEEK PROPOSATUTAKO ARRISKU ERAGIKETA GUZTIEK BERRESPEN ZENTRALIZATUA ETA KONTSEILU ERREKTOREAREN ONESPENA EDO BERRESPENA BEHAR IZANGO DUTE AURRERA EGITEKO. HORREZ GAIN, ESPAINIAKO BANKUARI BAIMENA ESKATUKO ZAIO, BALDIN ETA ERAGIKETA HORIEK GAINDITZEN BADITUZTE ESPAINIAKO BANKUAREN 2/2016 ZIRKULARRAREN 35. ARAUAN, IKUSKAPENARI ETA KAUDIMENARI BURUZKOAN, EZARRITAKO MUGAK ETA BALDINTZAK. ETA, GAINDITZEN EZ BADITUZTE, BEREHALA JAKINARAZI BEHARKO ZAIKIO ERAGIKETA HORIEK.

B) KONTSEILU ERREKTOREAK AURREKO A) LETRAN ADIERAZITAKO ARRISKU ERAGIKETEI BURUZ HARTZEN DITUEN ERABAKIETAN BALDINTZA BATZUK BETE BEHAR DIRA. HONAKO HAUEK, HAIN ZUZEN:

- ERABAKIA EZKUTUKO BOTAZIO BIDEZ ONARTU BEHAR DA, GAI HORI GAI ZERRENDAN BEHAR BEZAIN ARGI ADIERAZI ONDOREN.

- ERABAKIA HARTZEKO, KONTSEILARI GUZTIEN BI HERENEN ALDEKO BOTOA BEHAR IZANGO DA GUTXIENEZ. ERAGIKETAREN EDO ZERBITZUAREN ONURADUNA KONTSEILARIA EDO ARESTIAN AIPATUTAKO HAREN SENIDE BAT BALDIN BADA, INTERES GATAZKA DAGOELA JOKO DA, ETA EZ DU BOTAZIOAN PARTE HARTZERIK IZANGO.

- EZKUTUKO BOTAZIOA EGIN ETA EMAITZA EZAGUTZERA EMAN ONDOREN, HARTUTAKO ERABAKI HORRI BURUZKO DESADOSTASUNAK EDO ZUHURTZIAK AKTAN AGERRARAZI AHAL IZANGO DIRA.

BALDINTZA HORIEK BETE BEHARKO DIRA, HALABER, CAJA LABORALAK BESTE ERAKUNDE BATZUEKIN OBLIGAZIOAK EDO ESKUBIDEAK ERATU, INDARGABETU, ALDATU, BERRITU EDO BALIOGABETU BEHAR DITUENEAN ERE, BALDIN ETA KARGUOK EDO HAIEN SENIDEAK ERAKUNDE HORIETAKO PATROIAK, KONTSEILARIAK, ADMINISTRATZAILEAK, GOI ZUZENDARIAK, AHOIKULARIAK EDO OINARRIZKO KIDEA (% 5eko EDO HORTIK GORAKO KAPITALEKO PARTAIDETZAREKIN) BADIRA.

KONTSEILARIAK IZENDATZEKO, EGOKITASUNARI BURUZKO ESKULIBURUA ERRESPETATU BEHAR DA. HAREN ARABERA, EGOKITASUN HORI EGIAZTATZEKO EZINBESTEKO BALDINTZA DA KONTSEILARIGAIK AGIRI BAT SINATZEA, ESANEZ EZ DUELA INOLAKO GATAZKA JARRAITURIK EDO EGITURAZKO GATAZKARIK CAJA LABORALAREN INTERESEKIN. ERA BEREAN, URTEAN BEHIN EGOERA HORI EGIAZTATZEN DA, BETIERE JAKINEZ KONTSEILARIAREN ARDURAPEAN DAGOELA CAJA LABORALARI BEREHALA JAKINARAZTEA BERE EGOKITASUNEAN ERAGIN LEZAKEEN EDOZEIN EGOERA SORTUKO BALITZ, ETA BERA IZANGO DELA ERANTZULEA, BALDIN ETA BERANDU JAKINARAZTEAGATIK EDO EZ JAKINARAZTEAGATIK, ENTITATEARI INOLAKO KALTERIK ERAGINGO BALITZAIO.

E ARRISKUAK KONTROLATU ETA GESTIONATZEKO SISTEMAK

- E.1. Azal ezazu zer irismen duen entitatearen Arriskua Gestionatzeko Sistemak.

ARRISKUAK GESTIONATZEKO SISTEMA ERA INTEGRALEAN EZARTZEN DA. ARRISKUEN AREAN ZENTRALIZATZEN DA OHIKO KREDITU ARRISKUA ONARTU, JARRAIPENA EGIN ETA BERRESKURATZEKO ARDURA, BAI ETA INTERES TASAREN, LIKIDEZIAREN, MERKATUAREN ETA ERAGIKETEN ARRISKUAK NEURTU ETA KONTROLATZEKO ZEREGINA ERE. HILEAN BEHIN ARRISKU GUZTIEN (ERAGIKETEN ARRISKUARENA IZAN EZIK) JARRAIPENAREN BERRI EMATEN ZAIO AKTIBOEN ETA PASIBOEN BATZORDEARI, ETA HIRU HILEAN BEHIN ERAGIKETEN ARRISKUAREN JARRAIPENAREN BERRI EMATEN ZAIO ERAGIKETEN ARRISKUAREN BATZORDEARI.

ARRISKU GUZTIEN JARRAIPENA ERA ZENTRALIZATUAN EGITEN DA. HALA, AKTIBOEN ETA PASIBOEN BATZORDEA DA HORREN ARDURADUNA, ETA ERAGIKETEN ARRISKUAREN BATZORDEA, ERAGIKETEN ARRISKUAREN KASUAN. ALTXORTEGIAREN ETA KAPITAL MERKATUAREN ARRISKUAK HORTIK KANPO GELDITZEN DIRA, BERARIAZ

UZTEN BAITA ALTXORTEGIAREN DEPARTAMENTUAREN ARDURAPEAN. ERA BEREAN, KREDITU ARRISKUA ERE KANPOAN GELDITZEN DA, BULEGOEI DAGOZKIEN ESKUMENETAN.

E.2 Adieraz ezazu zein diren Arriskuen Gestio Sistema prestatzeaz eta burutzeaz arduratzen diren entitateko organoak.

KONTSEILU ERREKTOREA: ADMINISTRAZIO ORGANORIK GORENA. ENTITATEAK HARTZEN DITUEN ARRISKUEN ZAINTZAREN ETA IKUSKAPENAREN AZKEN ERANTZULEA DA. HORI DELA ETA, ARRISKUAK ZORROTZ KONTROLATZEKO ETA ARRISKUEN INGURUKO INFORMAZIOAREN DESKARGU SISTEMATIKOA EGITEKO ESKATZEN DIO ZUZENDARITZA NAGUSIARI. ARRISKU BATZORDE JAKIN BATZUETAN PRESENTZIA ZUZENA DU.

ZUZENDARITZA NAGUSIA: KONTSEILU ERREKTOREAK HAREN GAIN UTZI DUELAKO, ARRISKU POLITIKAK EZARTZEAZ ARDURATZEN DA. HORRETARAKO, BATETIK, MERKATARITZA GESTIOKO FUNTZIOAK, ETA BESTETIK, ARRISKUEN INGURUKO ZEREGINAK BEREIZTEA IRIZPIDETZAT HARTURIK ANTOLATU DU ARRISKUEN GESTIOA.

ARRISKUEN AREAK ARRISKU GUZTIEN JARRAIPENAREN ETA KONTROLAREN BERRI EMATEN DIO HIRU HILEAN BEHIN KONTSEILU ERREKTOREARI, EZARRITAKO MUGAK ETA PROZEDURAK ZENBATERAINO BETETZEN DIREN AZPIMARRATUTA.

AKTIBOEN ETA PASIBOEN BATZORDEA: ORGANO HORI ARDURATZEN DA EGITURAZKO INTERES TASAREN ARRISKUAN (EGITURAZKOAN), LIKIDEZIAREN ARRISKUAN, MERKATUAREN ARRISKUAN ETA KREDITUAREN ARRISKUAN KONTROLA EGITEAZ. ARRISKUAREN KONTROL GLOBALAREN DEPARTAMENDUAK BERARI JAKINARAZTEN DIO, HILEAN BEHIN, ARRISKUEN JARRAIPENARI BURUZKO INFORMAZIOA, ETA BATZORDE HORRETAN HARTZEN DIRA LIKIDEZIAREN, INTERES TASAREN ETA MERKATUAREN ARRISKUEN GESTIOARI LOTUTAKO ERABAKIRIK GARRANTZITSUENAK.

ERAGIKETEN ARRISKUEN BATZORDEA: ERAGIKETEN ARRISKUAREN ALORREKO KONTROL ORGANO DA. ARRISKUAREN KONTROL GLOBALAREN DEPARTAMENDUAK BERARI EMATEN DIO, HIRU HILABETEAN BEHIN, ERAGIKETEN ARRISKUAREN JARRAIPENARI BURUZKO INFORMAZIOA, ETA BATZORDE HORRETAN HARTZEN DIRA ARRISKU HORRI LOTUTAKO ERABAKIRIK GARRANTZITSUENAK.

ARRISKUEN AREA: PARTIKULARREN ETA ENPRESEN KREDITU ARRISKUA ONARTU, JARRAIPENA EGIN ETA BERRESKURATZEKO ARDURA ZENTRALIZATZEN DU. ERA BEREAN, KREDITU ARRISKUAREN BARNE EREDUAK ERAIKI ETA MANTENTZEAZ ETA LIKIDEZIAREN, INTERES TASEN, MERKATUAREN ETA ERAGIKETEN ARRISKUAK NEURTU ETA KONTROLATZEAZ ERE ARDURATZEN DA.

ARRISKUAREN KONTROL GLOBALAREN DEPARTAMENTUA: ARRISKUEN AREAREN MENPE DAGO. ARRISKU GUZTIEN IKUSPEGI GLOBALA ESKAINTZEN DU, DEPARTAMENTU BAKARREAN BILTZEN DELAKO ENTITATEAK DITUEN ARRISKU GUZTIEN NEURKETA ETA KONTROLA. AKTIBOEN ETA PASIBOEN BATZORDEARI (APB) EMATEN DIO INFORMAZIOA. DEPARTAMENTU HORREK PRESTATZEN DITU KREDITU ARRISKUA ONARTU ETA JARRAIPENA EGITEKO BARNE EREDUAK ETA, ILDO BERETIK, DEPARTAMENDU HORREK EGITEN DU INTERES TASEN, LIKIDEZIAREN, MERKATUAREN ETA ERAGIKETEN ARRISKUEN NEURKETA ETA KONTROLA.

ARRISKUEN GESTIO DEPARTAMENTUA: ARRISKUEN AREAREN MENPE DAGO. PARTIKULAR ETA ENPRESEKIN DAGOEN KREDITU ARRISKUA GESTIONATZEKO ARDURA DU.

JARRAIPENAREN ETA BERRESKURAPENEN DEPARTAMENTUA: ARRISKUEN AREAREN MENPE DAGO. ENPRESAK BERANDUTZAN SARTU BAINO LEHENAGO HAIEN ARRISKUEN JARRAIPENA EGITEAZ ARDURATZEN DA, BAI ETA ENTITATEAREN TXIKIZKAKO SAREKO BEZEROEN BERANDUTZAGATIKO INBERTSIO IRREGULARREKO EGOERAK BERRESKURATZEAZ ERE. ZENBATEKO BATETIK GORAKO KOBRAEZINEN ZEHAPENETAN ESKU HARTZEN DU, KOBRAEZINEN BATZORDEAN PARTE HARTUZ.

AHOLKULARITZA JURIDIKOAREN DEPARTAMENTUA: ARRISKUEN AREAREN MENPE DAGO. ARRISKU ERAGIKETETAN LAGUNTZA ETA DOKUMENTU JURIDIKOEN MAILAKO BABESA EMATEAZ GAIN, ENPRESA SAREAN AUZIBIDEA GESTIONATZEN ERE LAGUNTZEN DU.

ALTXORTEGIAREN DEPARTAMENTUA: INBERTSIOEN AREAREN MENPE DAGO. FINANTZA ENTITATEEN ETA ERRENTA FINKO PRIBATUAREN KREDITU ARRISKUA, MERKATU ARRISKUAK, EPE LABURREKO LIKIDEZIA ARRISKUA ETA APB-AN (AKTIBO

ETA PASIBOEN BATZORDEAN) HARTUTAKO ERABAKIEN ONDORIOZKO POSIZIOAK KUDEATZEAZ ARDURATZEN DA.

ARAUTEGIA BETETZEKO DEPARTAMENTUA: ARAUTEGIA BETETZEAREKIN ZERIKUSIA DUTEN ARLO GUZTIEN KONTROLAREN ETA JARRAIPENAREN BARNE ANTOLAKUNTZAZ ARDURATZEN DA. ENTITATEAREN AREA ETA DEPARTAMENTU BATZUK KOORDINATZEN DITU.

BULEGO SAREA: PARTIKULARREKIN NAHIZ ENPRESEKIN KREDITU ARRISKUA ONARTZEKO PROZESUAREN LEHEN FASEA DA. ESPARRU HORRETAN HAINBAT AHALMEN DITUZTE ESKUORDETUTA, BETI ERE ENTITATEAREN ARRISKU POLITIKAK ZEHAZTUTAKO SCORING MAILEN, ALERTEN ETA ESKUMENEN ESPARRUAN. ARRISKUAREN ONARPENAK TXIKIZKAKO SAREAREN AHALMENAK GAINDITUZ GERO, ERABAKIA ZUZENEAN ARRISKUEN AREAREN ESKU UZTEN DA.

BARNE IKUSKARITZA: SEGURTATZEKO ETA AHOLKU EMATEKO EGINKIZUN INDEPENDENTE ETA OBJEKTIBOA BETETZEN DU, IKUSPEGI SISTEMATIKO ETA DIZIPLINATUA EMANEZ, ARRISKUEN GESTIO, KONTROL ETA GOBERNU PROZESUEN ERAGINKORTASUNA EBALUATU ETA HOBETZEKO.

E.3 Azal itzazu negozio-helburuak lortzeko arrisku nagusiak.

PARTIKULARREKIKO ETA ENPRESEKIKO OHIKO NEGOZIOAREN KREDITU ARRISKUA (KONTZENTRAZIO ARRISKUA BARNE), EGITURAZKO INTERES TASAREN ARRISKUA, LIKIDEZIA ARRISKUA, ALTXORTEGIAREN ETA CAPITAL MERKATUAREN ARRISKUAK (AURKAKO ALDERDI, HERRIALDE, KONTZENTRAZIO ETA MERKATU ARRISKUAK), ERAGIKETA ARRISKUAK, IZEN ONAREN ARRISKUAK ETA NEGOZIO ARRISKUAK.

E.4. Esan ezazu erakundeak arriskuarekiko tolerantzia-mailarik ote duen.

ENTITATEAK ARRISKUAREKIKO TOLERANTZIA MAILAK DITU, ARRISKUAREKIKO GRINAREN ESPARRUAN ZEHAZTURIK. TOLERANTZIA MAILA NAGUSIAK KAPITALARI, LIKIDEZIARI ETA ERRENTAGARRITASUNARI DAGOZKIE.

E.5. Adieraz ezazu zer arrisku gauzatu diren ekitaldian.

INTERES TASAREN ARRISKUARI DAGOKIONEZ, INOIZ EZ DA GAINDITU KONTSEILU ERREKTOREAK EZARRITA DUEN ETA APB-AK KONTROLATZEN DUEN MUGA.

MERKATU ARRISKUETAN, SOBERAKOAK GERTATZEZKOAK DIRA, HAU DA, MUGAK MURRIZTEAK ERAGINDAKOAK ETA EZ POSIZIOA HANDITZEAREN ONDORIOZKOAK. KASU HORIETAN, KONTROL SISTEMEK EGOKI FUNTZIONATU DUTE. ABP-AK SOBERAKO HORIEN BERRI IZAN DU, ETA POSIZIOARI EUTSI ALA EZ ERABAKI DU.

LIKIDEZIA ARRISKUARI DAGOKIONEZ, ENTITATEAREN LIKIDEZIAREN JARRAIPEN SISTEMATIKOARI, AURREIKUSPENEKIKO DESBIDERATZEEN AZTERKETARI ETA ALTXORTEGIAREN HILEKO PLANEI ESKER, DENBORA NAHIKOZ AURREIKUS DAITEZKE EPE LABURRERA EGON LITEZKEEN KONTRAKO INPAKTUAK, ETA BEHAR DIREN NEURRI ZUZENTZAILEAK GARAIZ EGITEKO AUKERA DAGO. LIKIDEZIA RATIOEK MAILA BIKAINAK DITUZTE, BAITA LCR-AK ERE. GAINERA, LIKIDEZIAREN INGURUKO GORABEHERETARAKO PLANA SORTU DU ENTITATEAK, LIKIDEZIAREN LARRIALDIETARAKO ESTRATEGIAK FINKATZEKO.

KREDITU ARRISKUARI ETA PARTIKULARREN ETA ENPRESEN SEGMENTUETAKO ERAGIKETEI GAGOZKIOLA, KREDITATU BATEKIKO ARRISKUAK ESTAMENTU BATEKO ESKUDANTZIAK GAINDITZEN DITUENEAN, GORAGOKO ESKUDANTZIAK DITUEN HURRENGO ESTAMENTURA BIDERATZEN DA IRIZPENA. FINANTZA ERAKUNDEEKIKO ETA KORPORAZIO HANDIEKIKO ERAGIKETETAN, EZ DA SOBERAKORIK SORTU URTEAN ZEHAR.

ERAGIKETA ARRISKUAN, BERRIZ, ENTITATEAREN JARDUERAREN ONDORIOZ NAHITAEZ SORTZEN DIREN GALERAK TXIKITU EGITEN DIRA, ATAL KUALITATIBOAN EZARRITA DAUDEN KONTROLEI ESKER.

IZEN ONAREN ARRISKUARI DAGOKIONEZ, BEZEROEKIKO NEGOZIOAN IZANDAKO EGOERA BATZUEK PUBLIZITATE NEGATIBOA ERAGIN DUTE ETA HORIEK GESTIONATZEN ARI DIRA. HALA, HORNIKUNTZAK EGIN DIRA, ETORKIZUNEAN EGON LITEZKEEN BEHARRIZANAK AURREIKUSITA.

E.6. Azal ezazu zer plan dauden Entitatearen arrisku nagusiei erantzuteko eta horiek ikuskatzeko.

BARNE IKUSKARITZAK ZEHAZTEN DU ENTITATEAREN ARRISKUEN BARNE GAINBEGIRATZEA. IZAN ERE, ARRISKUEN GESTIO ETA KONTROL PROZESUEN ERAGINKORTASUNA EBALUATU ETA HOBETZEA DA HAREN ZEREGINA.



F ARRISKUAK KONTROLATZEKO ETA GESTIONATZEKO BARNE SISTEMAK, INFORMAZIO FINANTZARIOA EMATEKO PROZESUARI (IFBKS-ARI) DAGOKIONEZ

Azal ezazu zein diren Arriskuak Kontrolatzeko eta Gestionatzeko Barne Sistemak osatzen dituzten mekanismoak, informazio finantzarioa emateko prozesuari (IFBKS) dagokionez

F.1 Entitatearen kontrolaren arloa

Jakinarez itzazu honako hauek gutxienez, haien ezaugarri nagusiak aipatuz:

F.1.1. Zer organo eta/edo funtzio arduratzen dira IFBKSa (i) egokia eta eraginkorra izateaz, (ii) ezartzeaz eta (iii) gainbegiratzaz.

MERKATUETAN ENTITATEARI NAHIZ TALDEARI BURUZ ARGITARATUTAKO INFORMAZIO FINANTZARIOA FIDAGARRIA ETA EGOKIA IZANGO DELA ZIURTATZEKO, BARNE KONTROLEKO MEKANISMOAK EZARRITA DITU CAJA LABORALAK. HALERE, PROZESU HORI INDARTU EGIN DA, 2014ko EKITALDIAN INFORMAZIO FINANTZARIOARI BURUZKO BARNE KONTROLEKO SISTEMA (AURRERANTZEAN IFBKS) BURUTUTA.

CAJA LABORALEAN KODE ETIKOAREN ETA JARDUNBIDE PROFESIONALAREN KODEAREN 3.6. ATALEAN ('INFORMAZIOAREN FIDAGARRITASUNA'), IFBKS-AZ ARDURATUKO DIREN GOBERNU ORGANOAK ETA HORIETAKO BAKOITZAK DUEN EGINKIZUNAK ZEHAZTEN DIRA:

"CAJA LABORALEKO KONTSEILU ERREKTOREA ARDURATZEN DA IFBKS EGOKIA ETA ERAGINKORRA EZARRI, MANTENDU ETA ZIURTATZEAZ, MERKATUAN ENTITATEARI NAHIZ TALDEARI BURUZ ARGITARATZEN DEN INFORMAZIO FINANTZARIOA OSOA, FIDAGARRIA ETA EGOKIA IZANGO DELA KONTROLATU ETA BERMATZEKO".

"ZUZENDARITZA KONTSEILUAREN ETA BARNE IKUSKARITZAKO DEPARTAMENDUAREN ARDURA DA MERKATURA HELARAZITAKO INFORMAZIO FINANTZARIOAREN FIDAGARRITASUNA UNEORO BERMATZEKO BEHARREZKOAK DIREN KONTROL PROZEDURA ERAGINKORRAK DISEINATZEA ETA EZARTZEA. HORRETARAKO, BEHARREZKO GIZA BALIABIDEEZ ETA BALIABIDE MATERIALEZ HORNITUKO DU ENTITATEA ETA INFORMAZIO FINANTZARIOA PRESTATZEN DUTEN PERTSONEI EGINKIZUN HORI BETETZEKO TREBAKUNTZA NAHIKOA ESKAINIKO DIE".

IKUSKARITZA BATZORDEAREN EGINKIZUNA DA IFBKS-AK ONDO FUNTZIONATZEN DUELA GAINBEGIRATZEA, INFORMAZIO FINANTZARIO ARAUTUA PRESTATU ETA AURKEZTEKO PROZESUAN ZEHAR. BEREZIKI, LEGEZKO ERREKERIMENDUAK ETA ORO HAR ONARTUTAKO KONTABILITATE PRINTZIPIOAK ZUZEN ERABILTZEN DIRELA IKUSKATZEN DU. ZEREGIN HORRETAN BARNE IKUSKARITZAKO DEPARTAMENTUAREN LAGUNTZA DU. DEPARTAMENTU HORREK ARRISKUAK GESTIONATU ETA KONTROLATZEKO SISTEMAK –HORIEN ARTEAN IFBKS– ZUZEN DISEINATU ETA EZARRITA DAUDELA ETA BEHAR BEZALA ETA EFIZIENTZIAZ FUNTZIONATZEN DUTELA GAINBEGIRATU ETA HORREN BERRI EMATEN DIO IKUSKARITZA BATZORDEARI.

AZKENIK, FINANTZEN AREAKO ZUZENDARITZAREN MENDEKO **GESTIOAREN PLANGINTZA ETA KONTROL DEPARTAMENTUAK** ARRISKUAK GESTIONATU ETA KONTROLATZEKO SISTEMAK DISEINATZEN ETA EZARTZEN LAGUNTZEN DU, BATEZ ERE MERKATUETARA IGORTZEN DEN FINANTZA INFORMAZIOA PRESTATU, AURKEZTU ETA OSATZEKO PROZESUARI DAGOKIONEZ.

F.1.2. Informazio finantzarioa sortzeko prozesuari dagokionez, ea elementu hauek dauden:

- Honako hauez arduratzen diren departamentu eta/edo mekanismoak: (i) antolamendu-egitura diseinatu eta gainbegiratzeaz, (ii) erantzukizun- eta aginte-ildoak argi eta garbi zehazteaz, lanak eta zereginak behar bezala banatuz, eta (iii) entitatean horiek egoki hedatzeko behar adina prozedura izateaz.

ANTOLAMENDU EGITURA DISEINATU ETA AZTERTZEA ANTOLAMENDU DEPARTAMENTUARI DAGOKIO, BAINA BAITA LAN HORRETARAKO AREA BAKOITZAK DITUEN BALIABIDE PREMIAK AZTERTZEA ETA BERRIKUSTEA ERE. AZTERKETA HORI ANTOLAMENDU EGITURA EGOKITZEKO PREMIA DAGOENEAN EGITEN DA, ZERBITZU ZENTRALETAKO AREA ETA DEPARTAMENTUETAN, ETA, ZENBAT LANGILE BEHAR DIREN ERABAKITZEKO EZ EZIK, UNITATE BAKOITZAREN ANTOLAMENDU EGITURA BALIDATZEKO ERE EGITEN DA.

ERA BEREAN, BULEGO SARE KOMERTZIALEAN, BULEGO BAKOITZAREN LAN ZAMA NEURTZEN DA, HILEAN BEHIN, BERARIAZ DISEINATUTAKO APLIKAZIO INFORMATIKO BAT ERABILIZ. INFORMAZIO HORI ZUZENDARITZA NAGUSIARI, GESTIO SOZIALEKO ZUZENDARITZARI (GIZA BALIABIDEAK) ETA SARE KOMERTZIALEKO ZUZENDARITZARI HELARAZTEN ZAIE, BALIABIDEETAN EGIN BEHARREKO DOIKUNTZAK EGIN AHAL IZATEKO.

BESTALDE, ANTOLAMENDU DEPARTAMENTUA ARDURATZEN DA JARDUKETA ARLO BAKOITZEKO ERANTZUKIZUN ETA AGINTE ILDOAK ZEHAZTEAZ. JARDUKETA ARLO BAKOITZEAN EGINGO DIREN ZEREGIN ETA LANAK ERE DEPARTAMENTU HORREK ZEHAZTUKO DITU, ETA AREA BAKOITZAREN AGIRIAN ARGITARATU.

ANTOLAMENDU ESKULIBURUA, ERAKUNDEAN BETETZEN DIREN EGINKIZUNETARAKO AGIRI BAKARRA, 2015ean BUKATU DA, ETA LANGILE GUZTIEK ESKURA DUTEN INTRANET KORPORATIBOAN ARGITARATUKO DA, ENTITATEAREN ORGANIGRAMA OROKORRAREKIN BATERA, 2016KO LEHEN HIRUHILEKOAN.

- Jokabide-kodea, onespren-organoa, hedapen- eta instrukzio-maila, sartutako printzipio eta balioak (eragiketa-erregistroari eta informazio finantzarioaren prestatuntzari buruzko berariazko aipamenik dagoen adieraziz), ez-betetzeak aztertzeako organoa eta ekintza zuzentzaileak eta zigorrak proposatzekoa.

ENTITATEAK ETIKA ETA JARDUNBIDE PROFESIONALAREN KODEA DU. HORREN AZKEN EGUNERATZEA 2015eko EKAINEAN ONARTU ZUEN KONTSEILU ERREKTOREAK.

ETIKA ETA JARDUNBIDE PROFESIONALAREN KODEAK, 3.6. ATALEAN, INFORMAZIO FINANTZARIOAREN FIDAGARRITASUNARI BURUZ KONTUAN HARTZEKO ALDERDIAK JASOTZEN DITU. HORIEN ARTEAN NABARMENTZEKOAK DIRA:

- ✓ *“CAJA LABORALAK BERE FINANTZA EGOEREI ETA HORIETAN INPAKTU NABARMENA IZAN LEZAKETEN GERTAKIZUNEI BURUZKO INFORMAZIO FINANTZARIO FIDAGARRIA, ZORROTZA, OSOA ETA EGOKIA EMAN BEHAR DU.*
- ✓ *PRESTATUTAKO INFORMAZIO FINANTZARIOA INDARREAN DAUDEN PRINTZIPIO ETA ARAUEN ARABERA PRESTATZEN DELA ZIURTATZEKO TALDEAN EZARTZEN DIREN PROZEDUREZ GAIN, LAN BAZKIDE ETA LANGILE GUZTIEK INFORMAZIOA ERREGISTRATZEKO ETA TRATATZEKO LANAK ARDURAZ BETETZEKO BETEBEHARRA DUTE, ETA HORIXE DA TALDEAREN INFORMAZIO FINANTZARIO PUBLIKOA PRESTATZEKO PROZESUAREN OINARRIA*
- ✓ *ARDURA HORI GAUZATZEA ARE GARRANTZITSUAGOA DA TALDEAREN FINANTZETAKO EGOERA ORRIAK PRESTATZEKO DATU ETA TXOSTENAK EGITEKO UNEAN, NAHITAEZKOA BAITA EGOKI ERREGISTRATU ETA INTERPRETATZEA, KONTABILITATEKO SALDO, TRANSAKZIO EDO KONTINGENTZIA BAKOITZARI DAGOZKION BALORAZIO IRIZPIDEAK EGOKI EZARRIKO DIRELA BERMATZEKO”.*

2015eko EKAINEAN CAJA LABORALAK DELITUEI AURREA HARTZEKO ETA ERANTZUNA EMATEKO ESKULIBURUA ONARTU DU, BAITA DAGOKION BETEARAZPEN PENALEKO POLITIKA ERE. HORRELA, ENTITATEAK BERRETSI EGIN DU ARAUEKIKO ETA ESTANDAR ETIKOEKIKO ERRESPEZUZ JOKATZEKO

BORONDATE IRMOA, ETA, HORRETARAKO, BETEARAZPEN PENALEKO PRINTZIPIOEN ESPARRUA FINKATU DU.

ESKULIBURU HORREN ARABERA, ETIKA ETA JOKABIDE PROFESIONALAREN KODEAREN PRINTZIPIOAK BETETZEKO ETA IKUSPEGI PENALETIK LEGEZ KANPOKOAK IZAN LITEZKEEN JOKAERAK ZAINTZEKO EGINKIZUNA HARTZEN DU BERE GAIN ETIKA BATZORDEAK.

BESTE ALDE BATETIK, JOKABIDEEN BARNE ARAUTEGIA ERE BADU CAJA LABORALAK, BALORE MERKATUAREN ALORREAN. ENTITATEKO KONTSEILU ERREKTOREKO KIDEEI, TALDEKO SOZIETATEETAKO ADMINISTRAZIO KONTSEILUETAKOEI ETA BATEZ ERE KUTXAK BALORE MERKATUAREN ALORREAN EGITEN DITUEN JARDUEREKIN ETA EMATEN DITUEN ZERBITZUEKIN LOTURA DUTEN PERTSONEI (ZUZENDARIAK IZAN ALA EZ) APLIKATZEKOAK DIRA, BALDIN ETA SARRITAN EDO OHITURAZ KUTXARI BURUZKO INFORMAZIOA ERABILTZEN BADUTE.

- Salaketen kanala, Ikuskaritza Batzordea finantzen eta kontabilitatearen alorreko irregulartasunen, jardunbide-kodean gertatzen diren ez-betetzeen eta erakundeko jarduera irregularraren jakinaren gainean jartzeko, eta konfidentziala den ala ez adierazteko.

DELITUEI AURREA HARTZEKO ETA ERANTZUNA EMATEKO ESKULIBURUA ONARTUTA, BARNE IKUSKARITZAKO ZUZENDARIA KIDE DUEN ETIKA BATZORDEAK SALAKETEN KANALA GESTIONATZEN DU.

KANAL HORI TALDEA OSATZEN DUTEN SOZIETATEETAKO BAZKIDE, LANGILE ETA ADMINISTRATZAILE GUZTIEK ERABIL DEZAKETE. HAREN FUNTZIONAMENDUA SARTUTA DAGO ENTITATEAK DELITUEI AURREA HARTZEKO ETA ERANTZUNA EMATEKO EGINDAKO ESKULIBURUAN.

KANAL HORREN BIDEZ, BARNE IKUSKARITZAKO ZUZENDARIA KIDE DUEN ETIKA BATZORDEARI JAKINARAZTEN ZAIKIO ETIKA ETA JARDUNBIDE PROFESIONALAREN KODEAREN EZ-BETETZEAK, BETEARAZPEN PENALEKO POLITIKA, INDARREAN DAGOEN LEGERIAREN EDO TA BARNE ARAUDIAREN AURKAKO ERAGIKETAK EDO GARRANTZI HANDIA IZAN LEZAKETEN IRREGULARTASUNAK, BATEZ ERE FINANTZARI ETA KONTABILITATEARI LOTUTAKOAK.

ENTITATEAK DELITUEI AURREA HARTZEKO ETA ERANTZUNA EMATEKO EGIN DUEN ESKULIBURUAN KANAL HORREN IRISMENA, EDUKIA ETA ERABILTZEKO MODUA AZALTZEN DIRA, BETIERE SALAKETAREN KONFIDENTZIALTASUNA BERMATUTA.

ERA OSAGARRIAN, IKUSKARITZA BATZORDEAK BARNE IKUSKARITZAKO DEPARTAMENTUAK EGINDAKO LANEI ETA ENTITATEKO JARDUERA IRREGULARREKIN ZERIKUSIA DUTEN LANEI BURUZKO INFORMAZIOA JASOKO DU, ALDIAN BEHIN.

- Informazio finantzarioa prestatu eta berrikusteko eta IFBKs ebaluatzen diren langileentzako aldian aldiko prestakuntza- eta eguneratze-programak, gutxienez kontabilitate-arauak, ikuskaritza, barne-kontrola eta arriskuen kontrola jasoko dutenak.

ENTITATEAK PRESTAKUNTZA POLITIKA OROKOR BAT DU. INFORMAZIO FINANTZARIOA SORTU, PRESTATU ETA BERRIKUSTEN ZUZENEAN DIHARDUTEN LANGILEEK BEHAR ADINAKO TREBAKUNTZA ETA GAITASUN PROFESIONALA DUTELA BERMATZEA DA POLITIKA HORREN HELBURUA. HORRELA, BADA, LANGILE HORIEK INDARREKO ARAU BETEKIZUNEN BERRI JASOTZEN DUTE, ETENGABE.

ENTITATEKO PRESTAKUNTZA SAILAK PRESTAKUNTZA JARDUERA ETA PROGRAMAK GESTIONATZEN DITU, ETA EGINDAKO IKASTARO GUZTIEN ETA HAIEN EZAUGARRIEN ERREGISTRO EGUNERATUA MANTENTZEN DU: JARRAIAN, 2015ean FBKS-AREN ARLOAN EMANDAKO IKASGAI BATZUK AGERI DIRA ZEHAZTUTA: ARRISKUEN ANALISIA ETA GESTIOA, ARRISKUAREKIKO GRINA, IKUSKARITZA ETA PERITUTZA INFORMATIKOA, ARAUDIA BETETZEA, FINANTZAK...

PRESTAKUNTZA SAIOAK AURREZ AURREKOAK ETA ONLINE DIRA, BARNE ETA KANPO PRESTATZAILEEK EMANDAKOAK.

F.2 Informazio finantzarioaren arriskuak ebaluatzea

Jakinaraz itzazu gutxienez honako kontu hauek:

F.2.1. Zein dira arriskuak identifikatzeko prozesuaren ezaugarri nagusiak, hutsegitearena eta iruzurrarena barne, alderdi hauetan:

- Prozesu hori badagoen eta dokumentatuta dagoen.

ENTITATEAREN ZUZENDARITZAK “COMMITTEE OF SPONSORING ORGANIZATIONS OF THE TREADWAY COMMISSION” (AURRERANTZEAN “COSO”) ERAKUNDEAK EZARRITAKO NAZIOARTEKO ESTANDARREN ARABERA GARATU DU IFBKS-A: ESTANDAR HORIETAN BOST OSAGAI FINKATZEN DIRA, BARNE KONTROLEKO SISTEMEN ERAGINKORTASUNA ETA EFIZIENTZIA OINARRITZEKO:

- JARDUERA HORIEN GUZTIEN JARRAIPENA EGITEKO KONTROL GIRO EGOKIA SORTZEA.
- ENTITATEAK BERE INFORMAZIO FINANTZARIOA PRESTATZEAN IZAN LITZAKEEN ARRISKU GUZTIAK EBALUATZEA.
- ARRISKURIK LARRIENAK ARINTZEKO BEHARREZKO KONTROLAK DISEINATZEA.
- SISTEMAREN AHULTASUNAK EDO EFIZIENTZIARIK EZAK ANTZEMAN ETA EZAGUTARAZTEKO INFORMAZIO ZIRKUITU EGOKIAK EZARTZEA.
- KONTROL HORIEK MONITORIZATZEA, HAIEN ERAGINKORTASUNA ETA DENBORAN ZEHAR BALIAGARRIAK IZANGO DIRELA BERMATZEKO.

HORRELA, FINANTZETAKO EGOERA ORRIETAN ERAGIN NABARMENA IZAN LEZAKETEN ARRISKUAK ANTZEMATEKO PROZESUAK ARRETA BEREZIA JARTZEN DU INFORMAZIO FINANTZARIOAREN SORRERARI ETA ARRISKU HORIEK GAUZATZEN DIREN FINANTZETAKO EGOERA ORRIETAKO AREA EDO EPIGRAFEI LOTUTAKO GESTIO PROZESU KRITIKOETAN. PROZESUAK ETA AREAK AZTERTZEAN KONTUAN HARTZEN DIRA FAKTORE KUANTITATIBOAK (SALDOA ETA GRANULARITATEA) ETA KUALITATIBOAK (PROZESUEN AUTOMATIZAZIO MAILA, ERAGIKETEN ESTANDARIZAZIOA, KONTABILITATE KONPLEXUTASUNAREN MAILA, AURREKO EKITALDIAREKIKO ALDAKETAK, ANTZEMANDAKO KONTROL AHULTASUNAK ETA ABAR).

INFORMAZIO FINANTZARIOAREN BARNE KONTROLEKO ARRISKUAK ANTZEMAN ETA EBALUATZEKO PROZESUA DINAMIKOA DA, ETENGABEKO EBOLUZIOA DU DENBORAN ZEHAR ETA UNEAN-UNEAN ISLATZEN DITU TALDEAREN NEGOZIOAREN EGOERA, HORRI ERAGITEN DIOTEN ARRISKUAK ETA HORIEK ARINTZEKO KONTROLAK. IFBKS-AREN KONTROLEN ERAGINKORTASUNARI BURUZKO EBALUAZIOA EGITEKO ABIAPUNTUA ADIERAZITAKO ARRISKUAREN IDENTIFIKAZIO PROZESUA DA, TALDEAREN ANTOLAKUNTZAN ETA NEGOZIOETAN IZANDAKO ALDAKETAK KONTUAN HARTUTA ETA KONTROL HORIEK XEDE DUTEN ARRISKUEN MATERIALTASUN MAILA, GERTATZEKO PROBABILITATEA ETA BALIZKO ERAGIN EKONOMIKOA.

- Prozesuak informazio finantzarioaren helburu guztiak (existitzea eta gertatzea; integritatea; balioespena; aurkezpena, banakapena eta alderagarritasuna; eta eskubideak eta betebeharrak) betetzen dituen, eguneratzen den eta zer maiztasunekin eguneratzen den.

CNMV-K ERAKUNDE KOTIZATUEN INFORMAZIO FINANTZARIOARI BURUZ PLAZARATUTAKO BARNE KONTROLEKO AGIRIAK JASOTZEN DITUEN INFORMAZIO FINANTZARIOAREN HELBURU GUZTIAK KONTUTAN HARTUTA DISEINATU DA PROZESUA (EXISTITZEA ETA GERTATZEA; INTEGRITATEA; BALIOESPENA; AURKEZPENA, BANAKAPENA ETA ALDERAGARRITASUNA; ETA ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK).

AURREKO PARAGRAFOAN ADIERAZI DEN BEZALA, IFBKS-AREN DISEINUAN SARTUTAKO ARRISKU MOTA GUZTIAK ANTZEMATEKO JARRAITU BEHARREKO IRIZPIDEAK KUANTITATIBOAK ETA KUALITATIBOAK DIRA. GAINERA, ARGITARATUTAKO INFORMAZIO FINANTZARIOAREN ERRORE ETA IRUZUR ARRISKUAK ERE AINTZAT HARTZEN DIRA.

AREA MATERIALAK ETA PROZESU NABARMENAK ANTZEMATEKO PROZESUA GUTXIENEZ URTEAN BEHIN EGITEN DA, INFORMAZIO FINANTZARIOARIK BERRIENA ERABILIZ. GAINERA, INFORMAZIO FINANTZARIOAREN BALIZKO ERROREAK AGERIAN JARTZEN DITUZTEN AURREIKUSI GABEKO ZIRKUNSTANTZIAK SORTZEN DIRENEAN EDO ARRISKU BERRIAK ANTZEMATEA ERAGIN LEZAKETEN ERAGIKETETAN FUNTSEZKO ALDAKETAK GERTATZEN DIRENEAN ERE EGINGO DA EBALUAZIOA, ESATERAKO HONAKO ALDAKETA

HAUEK: BATERAKUNTZA PERIMETROAREN EDO NEGOZIO LERROEN ALDAKETAK EDO BESTELAKO GERTAERA NABARMENAK, BESTEAK BESTE.

- Bateratze-perimetrao identifikatzeko prozesua dagoen, kontuan hartuz, besteak beste, sozietate-egitura konplexurik, erakunde instrumentalik edo asmo bereziko erakunderik dagoen.

PROZEDURA BAT DAGO BATERATZE PERIMETROA IDENTIFIKATU ETA EGUNERATZEKO, ETA KONTU HARTZAILAZA DEPARTAMENTUA DA ERANTZULEA. HIRU HILEAN BEHIN, DEPARTAMENTU HORREK SOZIETATE PARTAIDETUEN INBENTARIOA GAINBEGIRATZEN DU, ALDAKETARIK DAGOEN IKUSTEKO, ETA, HALA BADA, INFORMAZIO FINANTZARIO BATERATUA LORTZEKO SISTEMETAN SARTZEKO.

- Prozesuak bestelako arrisku batzuen (eragiketa-arriskuak, teknologikoak, finantzarioak, legezkoak, ospari buruzkoak, ingurumenekoak...) eraginak aintzat hartzen dituen, finantzatuko egoera-orriei eragiten dieten heinean.

AURREKO PUNTUETAN AIPATU DEN BEZALA, KONTROL ESTANDARRAK ETA FINKATUTAKO METODOLOGIA DIRELA ETA, BESTE ARRISKU MOTA BATZUEN ERAGINAK ERE KONTUAN HARTZEN DIRA (MERKATU, KREDITU, ERAGIKETA, TEKNOLOGIA, FINANTZA ETA LEGE ARRISKUAK, BESTEAK BESTE), INFORMAZIO FINANTZARIOAN ERAGINA IZAN LEZAKETEN HEINEAN.

ERAGIKETA ARRISKUARI DAGOKIONEZ, CAJA LABORALAK ERAGIKETA ARRISKUA GESTIONATZEKO EREDU BAT DU. HORREN BARRUAN, ARRISKUAK (BARRUKO ETA KANPOKO IRUZUR ARRISKUAREN, ARRISKU TEKNOLOGIKOAREN, ERAGIKETA ARRISKUAREN, NEGOZIO JARDUERAKO ARRISKUAREN ETA KALTE ARRISKUAREN MAPA) ETA HORIEK ARINTZEKO KONTROLAK IDENTIFIKATZEN DIRA, ETA HORIEN BALORAZIO KUANTITATIBOA EGIN. EREDU HORI ERAGIKETA ARRISKUAREN BATZORDEAK GAINBEGIRATZEN DU ZUZENEAN, ETA INFORMATIKA APLIKAZIO BATEAN ETA POLITIKEN, PROZEDUREN ETA ERABILTZAILIEN HAINBAT ESKULIBURUTAN DAGO EUSKARRITUTA. ERAGIKETA ARRISKUAK ETA HORIEI ESLEITUTAKO KONTROLAK BALIOESTEAREN ARDURA BARNE IKUSKARITZARENA DA.

- Entitateko zer gobernu-organok gainbegiratzen duen prozesua.

ARRISKUAK ETA KONTROLAK ANTZEMATEKO PROZEDURA GAUZATZEKO ARDURADUNA GESTIOAREN PLANGINTZA ETA KONTROL DEPARTAMENTUA DA, FINANTZEN AREAREN MENDEKOA. PROZEDURA GAINBEGIRATZEKO ARDURA, BERRIZ, IKUSKARITZA BATZORDEAK DU, BARNE IKUSKARITZAKO DEPARTAMENTUAREN BIDEZ.

F.3 Kontrol-jarduerak

Jakinarez ezazu gutxienez honako hauek dauden, haien ezaugarri nagusiak aipatuz:

- F.3.1. Balore-merkatuetan argitaratu beharreko informazio finantzarioa, IFBKSaren deskribapena eta horien arduradunak ikuskatzeko eta onesteko prozedurak, arduradunak nor diren zehaztuta. Finantzatuko egoera-orrietan ondorio materialak eragin ditzaketan transakzio mota guztien jarduera- eta kontrol-fluxuei buruzko dokumentazio deskribatzailea (iruzur-arriskuak barne hartuz). Dokumentazio horretan, gainera, kontabilitatea ixteko prozedura eta iritzi, estimazio, balioespen eta proiektzio nagusien berrikuspenak islatu behar dira.

BALORE MERKATUETAN ARGITARATU BEHARREKO INFORMAZIO FINANTZARIOA BERRIKUSI ETA BAIMENTZEKO PROZEDURAK HASTEKO, FINANTZEN AREAKO ZUZENDARITZAK BERRIKUSTEN DU. BARNE IKUSKARITZAKO DEPARTAMENTUAK URTEKO BANAKAKO KONTUAK ETA KONTU BATERATUAK BERRIKUSTEN DITU, KONTSEILU ERREKTOREAK FORMULATU AURRETIK. IKUSKARITZA BATZORDEAK INFORMAZIOA IRAKURRI ETA FINANTZEN AREAKO ETA BARNE IKUSKARITZAKO ARDURADUNEKIN ETA KANPO IKUSKATZAILIEKIN EZTABAIDATZEN DU, KONTSEILU ERREKTOREARI BIDALI AURRETIK.

FINANTZETAKO EGOERA ORRIETAN ONDORIO MATERIALAK ERAGIN DITZAKETEN TRANSAKZIOEKIN ZUZENEKO LOTURA DUTEN JARDUERA ETA KONTROLAK GAUZATZEKO, ENTITATEKO MATERIALEN ESPARRUKO AREA ETA DEPARTAMENTUEK ETA INFORMAZIO FINANTZARIOAREN KONTROLERAKO ARLOKOEK BEREK SORTUTAKO PROZEDUREN ESKULIBURUAK ERABILTZEN

DITUZTE. ESKULIBURU HORIEK AREEK BEREK LANDU KONTSEILU ERREKTOREAK ONETSI DITU.

PROZEDUREK PROZESUARI LOTUTAKO ORGANIGRAMA ETA FUNTZIOAK, TARTEAN DIREN SISTEMAK ETA PROZESUAREN DESKRIBAPENA BARNE HARTZEN DITUZTE. HORREZ GAIN, ARRISKUAREN MATRIZEEK ETA KONTROLEK HONAKO ARLO HAUEK HARTZEN DITUZTE BARNE, BESTEAK BESTE:

- ARRISKUAREN DESKRIBAPENA.
- KONTROL JARDUERA.
- KONTROLAREN SAILKAPENA: FUNTSEZKOA/ESTANDARRA.
- KONTROLAREN KATEGORIA: PREBENTIBOA/DETEKTIBOA.
- METODOA: ESKUZKOA/MISTOA/AUTOMATIKOA.
- KONTROLA EUSKARRITZEN DUEN SISTEMA.
- KONTROLAREN ERAGILEA ETA ARDURADUNA.
- KONTROLAREN MAIZTASUNA.
- KONTROLAREN EBIDENTZIA.

ONDOREN, ENTITATEAREN FINANTZA ARLOEI LOTUTAKO PROZESU ESANGURATSUAK ZEHAZTEN DIRA (ZEHARKAKO PROZESUAK ETA NEGOZIO PROZESUAK BEREIZIZ), ETA HORIETARAKO AURRETIK AIPATUTAKO DOKUMENTAZIOA DAGO.

ZEHARKAKO PROZESUAK

- KONTABILITATE ITXIERA.
- BATERAKUNTZA.
- ZERGA ETA LEGE GESTIOA.
- KONTROL INFORMATIKO OROKORRAK.
- IRITZIAK ETA ESTIMAZIOAK.

NEGOZIO PROZESUAK

- KREDITU INBERTSIOA.
 - ONARPENA.
 - JARRAIPENA ETA BERRESKURAPENA.
- FINANTZA TRESNAK.
- ZORRA ORDAINTEZKO JASOTAKO AKTIBO HIGIEZINAK.

LEHEN AIPATUTAKO DOKUMENTAZIO DESKRIBATZAILEAK ONDORENGOAK HARTZEN DITU BARNE:

- IDENTIFIKATURIKO PROZESU BAKOITZEAN ESKU HARTZEN DUTEN AREA ETA DEPARTAMENTUEN XEHETASUNA.
- PROZESUAREN HASIERATIK HAREKIN ZERIKUSIA DUTEN JARDUEREN PROZEDURA, KONTROL ETA EGIAZTAPENEN INFORMAZIO FINANTZARIO EGITEKO ALDERDIEN AZALPENA.
- PROZESU BAKOITZEAN ESKU HARTZEN DUTEN SISTEMA INFORMATIKOEN IDENTIFIKAZIOA.
- ENTITATEAREN FINANTZETAKO EGOERA ORRIETAN ERAGIN MATERIALA DUTEN ARRISKU NABARMENEN IDENTIFIKAZIOA.
- KONTROLEN IDENTIFIKAZIOA ETA AZALPENA, ETA AURRETIK ANTZEMANDAKO ARRISKUEKIN LOTZEA.

CAJA LABORALEAN KONTABILITATE ITXIERAKO PROZESURA MEKANIZATUA DAGO, KONTABILITATEA AUTOMATIKOKI EGITEN DA ENTITATEAREN APLIKAZIOEN BIDEZ. LEHEN PROZESUA EGINDAKOAN, ESKU HARTZE DEPARTAMENTUAK INFORMAZIOA BERRIKUSI ETA AURREKO HILEKO DATUEKIN ZEIN AURREIKUSITAKO ZIFREKIN ALDERATZEN DU, HILEKO BALANTZE ITXIERA ETA EMAITZA KONTUA BALIDATZEKO.

FILIALEN KONTABILITATE ITXIERA DAGOKIEN ENTITATEAK EGITEN DU, ETA, HIGIEZINEN SUSTAPENENKO SOZIJETATE BATZUEN KASUAN, KONTRATATURIKO HIRUGARREN BATEK. FILIALEN INFORMAZIOA JASOTAKOAN, CAJA

LABORALEKO ESKU HARTZE DEPARTAMENTUAK BERRIKUSI EGITEN DU, BATERAKUNTZA PROZESUA EGITEKO.

URTEKO KONTU BATERATUETAN AIPATZEN DEN BEZALA, ZENBAIT AKTIBO, PASIBO, SARRERA, GASTU ETA KONPROMISO BALORATZEKO ERABILI DIREN ESTIMAZIOAK ENTITATE NAGUSIKO ETA ERAKUNDE PARTAIDETUEN GOI MAILAKO ZUZENDARIEK EGIN ETA ADMINISTRATZAILEEK BERRETSI DITUZTE. ENTITATEAK IRITZIAK EDO ESTIMAZIOAK EGITEKO AUKERA EMATEN DUTEN ARLO NAGUSIEN NONDIK NORAKOAK ISLATZEN DITU URTEKO KONTUETAN, ETA, HALABER, HORIEN GUZTIEN INGURUAN AURREIKUSITAKO FUNTSEZKO HIPOTESIAK ERE ZEHAZTEN DITU. ZENTZU HORRETAN, EGINDAKO ESTIMAZIO NAGUSIAK HONAKO HAUEK DIRA:

- ZENBAIT AKTIBO NARRIATZEAGATIKO GALERAK.
- AKTIBO MATERIALEKO ETA AKTIBO UKIEZINEKO ELEMENTUEI APLIKATUTAKO BALIO BIZITZA.
- MERKATARITZA FONDOEN BALIOESPENA.
- KOTIZATU GABEKO ZENBAIT AKTIBOREN ARRAZOIZKO BALIOA.
- HORNIDURETAN ETA PASIBO KONTINGENTEETAN ESPERO DEN KOSTUA ETA BILAKAERA.
- ASEGURUENGATIKO PASIBOAK KALKULATZEKO ERABILITAKO HIPOTESIAK.
- ENPLEGU ONDOKO ORDAINKETEN ONDORIOZKO KONPROMISOAK ETA PASIBOAK KALKULATZEKO ERABILITAKO HIPOTESI AKTUARIALAK.
- KREDITU FISKAL AKTIBATUEN BERRESKURAGARRITASUNAREN EBALUAZIOA.

HORREZ GAIN, CAJA LABORALAK IRITZI ETA ESTIMAZIOAK EGITEKO POLITIKA OROKORRA EZARRI DU IFBKS-AREN BARRRUAN. AINTZAT HARTU BEHARREKO ALDERDI GUZTIAK ETA IRITZI ETA ESTIMAZIOAK PRESTATU ETA BERRIKUSTEKO ERANTZUKIZUNAK ZEHAZTEN DITU POLITIKA HORREK.

F.3.2. Informazio finantzarioa osatzeko eta argitaratzeko prozesu nagusiei dagokienez, entitateko informazio-sistemen barne-kontrolerako politikak eta jardunbideak (besteak beste, eskuratzeko segurtasuna, aldaketen kontrola eta jarduketak, jarraikortasun operatiboa eta funtzio-bereizketa).

CAJA LABORALEKO ZUZENDARITZAK, INFORMAZIOA ETA INFORMAZIOAREN OINARRIZKO AKTIBOAK BERE NEGOZIOARENTZAT ESTRATEGIKOTZAT JO DITUENEZ, ERABILGARRITASUNA, KONFIDENTZIALTASUNA, OSOTASUNA, BENETAKOTASUNA ETA TRAZABILITATEA ERABAT BERMATZEKO BEHARREZKOAK DIREN SEGURTASUN MAILAK LORTU NAHI DITU.

KONPROMISO HORI MAMITZEKO, BESTEAK BESTE, CAJA LABORALEKO SEGURTASUN INFORMATIKOKO BATZORDEAK ONARTUTAKO SEGURTASUN POLITIKA DU. ENTITATEKO AREA GUZTIETAN EZARTZEN DA, INFORMAZIOAREN ETA INFORMAZIOA GORDETZEKO SISTEMEN ARRISKUAK GESTIONATZEKO ETA MAILA ONARGARRIETAN MANTENTZEKO. INFORMAZIOAREN KONFIDENTZIALTASUNA, OSOTASUNA, ESKURAGARRITASUNA, EGIATASUNA ETA TRAZABILITATEA ZAINTzea DA HELBURUA.

ENTITATEAK KONTROL INFORMATIKO OROKORREN PROZESUA DU (AURREKO 3.1 ATALA), DAGOZKION PROZEDURA, ARRISKU MATRIZE ETA KONTROLEKIN, HONAKO HAUEKIN ZERIKUSIA DUTEN ARRISKUAK ETA KONTROLAK ZEHAZTEKO: ESKURATZEKO SEGURTASUNA, ALDAKETEN KONTROLA ETA JARDUKETAK, JARRAIKORTASUN OPERATIBOA ETA FUNTZIO BEREIZKETA.

INFORMAZIOAREN GESTIOA HAREN SEGURTASUN EGOKIA LORTZEKO ARAU ETA PROZEDURA EGOKIETAN OINARRITZEN DA. CAJA LABORALEKO LANGILE GUZTIEK BETE BEHAR DUTE SEGURTASUN POLITIKA HORI, INFORMAZIOAREN SEGURTASUNAREN HARIRA, ARAU MAILA GORENA DU ETA. HAREN EDUKIA BERARIAZ DEFINITZEN DA ALDERDI HAUEK BIDEZ, BESTEAK BESTE:

- AKTIBOEN GESTIOA.
- SEGURTASUN FISIKOA ETA INGURUMENEA.
- KOMUNIKAZIO ETA ERAGIKETEN GESTIOA (SEGURTASUN KOPIAK).
- SARBIDEAREN KONTROLA.

- INFORMAZIO SISTEMAK ESKURATU, GARATU ETA MANTENTZEA.
- ENTITATEAREN JARRAITUTASUNAREN GESTIOA.

ERA BEREAN, ENTITATEAK DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO LEGE ORGANIKOAK (DPBLO) EZARRITAKO BETEBEHARRAK ETA LEGEA GARATU ZUEN ERREGE DEKRETUAK XEDATUTAKO NEURRIAK HARTU ETA BETEKO DITUELA ERE EZARTZEN DU. DPBLO-ARI BURUZKO SEGURTASUN DOKUMENTUAREN 6. ERANSKINEAN, HAIN ZUZEN, DATU PERTSONALAK ETA INFORMAZIO SISTEMAK ESKURAGARRI DITUZTEN ERABILTZAILA FUNTZIOAK ETA BETEBEHARRAK ZEHAZTU ETA DOKUMENTATZEN DIRA.

SEGURTASUN POLITIKA INFORMAZIOAREN ETA INFORMAZIOA PROZESATZEKO SISTEMEN BIZI ZIKLOAREN URRATS GUZTIETAN EZARRI ETA BETEKO DA.

IKS-AREN (INGURUMENA KUDEATZEKO SISTEMA) 54.01-01 IMA JARRAIBIDEAN, INFORMAZIOA ZAINTEKO EZARRITAKO SEGURTASUN NEURRIAK ZEHAZTEN DIRA, HALA FUJITSU INGURUNEAN NOLA 'INGURUNE IREKIA' DELAKOAREN ZERBITZARIETAN (SQL, TD, SAP, MEDTRA, ETAB.).

GAINERA, ENTITATEAK PROZESU ETA ARRISKU INFORMATIKOEN IKUSKARITZAKO SEKZIOA ERE BADU. HAREN ZEREGIN NAGUSIA INFORMAZIOAREN GAINEKO KONTROLEN ERAGINKORTASUNA IKUSKATZEA DA: OSOTASUN MAILA EGOKIAK IZATEA, KONFIDENTZIALTASUNA, ESKURAGARRITASUNA ETA ARAUDIA BETETZEA. 2015eko URTARRILEAN SEGURTASUN IKUSKARITZA (WEBGUNERAKO ETA BANKA ELEKTRONIKORAKO HACKING ETIKOA) EGIN ZUEN KANPOKO ADITU BATEK. ANTZEMANDAKO AHULGUNEAK ZUZENDU EGIN ZIREN URTEAN ZEHAZ. BESTE ALDE BATETIK SEGURTASUN AGIRIAREN 12. ERANSKINEAN ('BABES ETA BERRESKURAPEN KOPIAK'), CAJA LABORALAREN SISTEMETAN GORDETAKO DATUAK BABESTU ETA BERRESKURATZEKO PROZEDUREN INGURUKO JARDUERAK AZALTZEN DIRA.

2015eko EKAINEAN, LEHEN KONTINGENTZIA PROBA EGIN ZEN, "MAINFRAME-EN" FUNTZIONAMENDUA TXANDAKATUZ, ETA "MAINFRAME-EN" MAILA IGO EGIN ZEN. PROZEDURAN GAITU EGIN DA HAIEN ARTEKO POTENTZIA ALDAKETA.

HORREZ GAIN, 2015eko EKITALDI HONETAN KANPO ZERBITZU BAT KONTRATATU DA, SEGURTASUN ANALISI INTEGRALA EGITEKO ETA ZAINKETA, GOBERNUA, BABESA ETA ERRESILENTZIA HOBETZEKO.

F.3.3. Hirugarrenei azpikontrataturako jardueren gestioa gainbegiratzea helburu duten barne-kontrolako politikak eta prozedurak. Kanpo-adituen esku utzitako ebaluazio, kalkulu edo balioespenei dagokienez, finantzetako egoera-orrietan edonolako eragin materiala izan dezaketen alderdiak.

ENTITATEAK HIRUGARRENEK GAUZATUTAKO JARDUERA JAKIN BATZUK ALDIZKA BERRIKUSTEN DITU: FINANTZA DATUAK OSATZEKO PROZESUAN GARRANTZIA IZAN DEZAKETENAK EDO DATUEN FIDAGARRITASUNA ZEHAZKA KOLOKAN JAR DEZAKETENAK, ALEGIA. ORAIN ARTE ENTITATEAK EZ DU KANPORA ATERA INFORMAZIO FINANTZARIOAN ERAGIN NABARMENA DUEN PROZESURIK. ENTITATEAK ADITU INDEPENDENTEEN TXOSTENETARA JOTZEN DU ETENGABE, FINANTZETAKO EGOERA ORRIETAN ERAGIN MATERIALA IZAN DEZAKETEN JARDUNBIDEEN BALIOESPENAK EZAGUTZEKO.

2015eko EKITALDIAN, ADITU INDEPENDENTEEN BALORAZIO ETA KALKULUEI LOTUTA, HIRUGARRENEI AGINDUTAKO ZEREGIN NAGUSIA HIGIEZINEN TASAZIOA IZAN DA, BAI ERABILERA PROPIOKO HIGIEZINENA, HIGIEZINETAKO INBERTSIOENA, ESLEITUTAKO HIGIEZINENA ETA ENTITATEKO KREDITUKO ZORROAN ERAGIKETEN BERMETZAT ERABILTZEN DIREN HIGIEZINENA, ESPAINIAKO BANKUAREN 4/2004 ZIRKULARRAK AGINDUTAKOARI LOTUTA. ENTITATEAK KONTROLAK DITU EZARRITA MAILA GUZTIETAN, TASAZIO SOZIALATEEK EGINDAKO LANARI LOTUTAKO ARRISKUAK MURRIZTEKO. KONTROLAK JARDUERA HORIEZ ARDURATZEN DIREN DEPARTAMENTU ETA ORGANOETAN EGITEN DIRA, EUREN GAITASUNA, TREBAKUNTZA, AHALMENA EDO INDEPENDENTZIA EGIAZTATZEKO, BATETIK, ETA ERABILITAKO DATU ETA METODOEN BALIAGARRITASUNA ETA HIPOTESIEN ZUZENTASUNA FROGATZEKO, BESTETIK. ERA BEREAN, BARNE IKUSKARITZAKO DEPARTAMENTUAREN LAGUNTZA ERE JASOTZEN DUTE EZARRITAKO PROZEDUREN ERAGINKORTASUNA EGIAZTATZEKO.

F.4 Informazioa eta komunikazioa

Jakinarez ezazu gutxienez honako hauek dauden, haien ezaugarri nagusiak aipatuz:

- F.4.1. Batetik, kontabilitate-politikak finkatzeko, eguneratzeko eta interpretazioen inguruan sortutako zalantzak edo auziak bideratzeko funtzioa (kontabilitate-politiken area edo departamentua), erakundeko eragiketa-arduradunekiko etengabeko harremanen bidez gauzatu beharrekoa. Bestetik, kontabilitate-politiken eskuliburu eguneratua, entitateari atxikitako unitate guztiek eskuragarri izango dutena.

ESKU HARTZE DEPARTAMENTUAK ENTITATEKO ETA SOZIESTATE FILIALETAKO KONTABILITATE POLITIKAK IDENTIFIKATZEN, FINKATZEN ETA JAKINARAZTEN DITU, ETA SOZIESTATE FILIALEK ETA ENTITATEAREN NEGOZIO UNITATEEK KONTABILITATE GAIEZ EGITEN DIZKIOTEN GALDEREI ERANTZUTEN DIE.

ENTITATEAREN KONTABILITATE ESKULIBURUAK INFORMAZIO FINANTZARIOA PRESTATZEKO MODUEI BURUZKO ARAUAK ZEHAZTU ETA ARGITZEN DITU, ETA ARAU HORIEK ENTITATEKO ERAGIKETETAN NOLA ERABILI BEHAR DIREN ARGITZEN DU: ADIBIDEZ, SOZIESTATEKO FILIALENTZAKO BATERATZE PAKETEA. DOKUMENTU HORIETAN, TRANSAKZIO MOTA BAKOITZAREN ARAUAK ZEHAZT-MEHATZ AIPATZEAZ GAIN, INTERPRETAZIO ZUZENA EMAN ETA ARGITZEN DUTE, EGOKI BETE DAITEZEN.

HIZPIDE DITUGUN DOKUMENTUAK ALDIAN-ALDIAN EGUNERATZEN DIRA, ETA ALDAKETA EDO EGUNERATZE GARRANTZITSU GUZTIAK DAGOZKIEN SOZIESTATEEI JAKINARAZTEN ZAIZKIE.

TALDE EKONOMIKOKO SOZIESTATE FILIAL BAKOITZAK EGITEN DITU BATERATZE PAKETEA, ETA ESKU HARTZE DEPARTAMENTUAK GAINBEGIRATZEN DU PARTAIDETUTAKO SOZIESTATE HORIEK BETETZEN DITUZTELA TALDEAK FINKATURIKO KONTABILITATE POLITIKAK. DEPARTAMENTUAK, FILIALEN INFORMAZIOA AZTERTU ETA BERRIKUSI ONDOREN, EGOKI DERITZEN ZUZENKETAK EGITEN DITU. INFORMAZIO FINANTZARIOAREN INGURUKO ARAUETAN FINANTZETAKO EGOERA ORRIETAN ERAGINA IZAN DEZAKEEN EDOZEIN ALDAKETA INDARREAN JARTZEN DENEAN, ESKU HARTZE DEPARTAMENTUAK KONTABILITATE ARAUAK BERRIKUSTEN, AZTERTZEN ETA EGUNERATZEN DITU. ERA BEREAN, KASUAN KASUKO ALDAKETAK EDO EGUNERAPENAK JAKINARAZTEN DIZKIE ENTITATEKO NEGOZIO UNITATEEI ETA FILIALEI.

ENTITATEAK ETA TALDEAK APLIKATURIKO KONTABILITATEKO FINANTZA INFORMAZIOAK HONAKO HAUEK HARTZEN DITU BARNE: (I) EUROPAR BATASUNAK FINKATURIKO INFORMAZIO FINANTZARIOARI BURUZKO NAZIOARTEKO ARAUAK, ETA (II) ESPAINIAKO BANKUAREN 4/2004 ZIRKULARRA.

- F.4.2. Finantzetako egoera-orri nagusiei, oharrei eta IFBKSari buruzko informazio finantzarioa formatu homogeneoen bidez eskuratzeko eta prestatzeko mekanismoak, Entitateko edo Taldeko unitate guztiek ezar eta erabil dezaten.

INFORMAZIO FINANTZARIOA EGIAZTATZEKO DATUAK OSOAK, ZEHAZTAK ETA EGOKIAK DIRELA ETA HORIEK DAGOKIEN UNEAN ETA MODUAN JAKINARAZTEN DIRELA BERMATZEKO KONTROL NEURRIAK DAUDE. INFORMAZIO FINANTZARIOA BATERATUA ETA PRESTATZEKO PROZESUA ZENTRALIZATUTA DAGO, ENTITATEAK EGITEN BAITU.

PROZESUAN ZEHAR, SOZIESTATE FILIALEK JAKINARAZITAKO FINANTZETAKO EGOERA ORRIEI BURUZKO BATERATZE PAKETEA "INPUT" GISA SARTZEN DIRA, EZARRITAKO JARRAIBIDEEN ETA FORMATUEN ARABERA, ETA ESKATUTAKO GAINERAKO INFORMAZIO FINANTZARIOAREKIN BESTE HORRENBESTE EGITEN DA, BAI KONTABILITATEA HARMONIZATZEKO BAI INFORMAZIO BEHARREI ERANTZUTEKO. SOZIESTATE FILIALEK EMANDAKO INFORMAZIO FINANTZARIOA ESKU HARTZE DEPARTAMENTUAK BERRIKUSTEN DU.

ESKU HARTZE DEPARTAMENTUAK ZENBAIT KONTROL DITU EZARRITA, SOZIESTATE FILIALEK ETA NEGOZIO UNITATEEK HELARAZITAKO INFORMAZIO FINANTZARIOAREN FIDAGARRITASUNA ETA ERABILERA ZUZENA BERMATZEKO. HORRELA, BESTEAK BESTE, BATERATZE IDAZPENEN ZUZENTASUNA ETA EMAITZEN ETA AURREKONTUEN ARTEKO ALDEAK GAINBEGIRATU ETA ESPAINIAKO BANKUAK FINKATUTAKO EGOERA KONTROLAK EGITEN DITU, BALANTZEKO PARTIDAK ETA EMAITZA KONTUAK KONPARATZEKO.

F.5 Sistemaren funtzionamendua gainbegiratzeari

Jakinaraz itzazu gutxienez honako kontu hauek, ezaugarri nagusiak aipatuz:

- F.5.1. Ikuskaritza Batzordeak IFBKSa gainbegiratzeko gauzatu dituen jardueren berri emateaz gain, entitateak barne-ikuskaritzako funtziorik egiten duen. Horietako funtzioetako bat barne-kontrolako sistema (IFBKSa barne) gainbegiratzeko ari den batzordeari laguntzea izango litzateke. Halaber, ekitaldiko IFBKsaren ebaluazioaren, eta ebaluazioaren arduradunak emaitzak jakinarazteko erabilitako prozeduraren berri ere emango da. Azkenik, entitateak kasuan kasuko neurri zuzentzaileei buruzko ekintza-planik ba al duen eta informazio finantzarioan izango duen eragina kontuan hartu duen zehaztuko da.

BARNE IKUSKARITZAKO ZERBITZUA GAINBEGIRATZEAZ GAIN, IKUSKARITZA BATZORDEAREN ZEREGINETAKO BAT DA INFORMAZIO FINANTZARIOA LANDU ETA AURKEZTEKO PROZESUA ETA SOZIALTEAREN BARNE KONTROLEKO SISTEMAK GAINBEGIRATZEA. JARDUERA HORIEK BARNE IKUSKARITZAKO DEPARTAMENTUAN ESKUORDETZEN DITU.

BARNE IKUSKARITZAKO DEPARTAMENTUAK LAU ATAL DITU, FUNTZIOAK EGOKI BETETZEKO: FINANTZA UNITATEEN IKUSKARITZA, BEZEROAK GESTIONATZEKO UNITATEEN IKUSKARITZA, URRUNEKO IKUSKARITZA ETA INFORMATIKA IKUSKARITZA. INFORMAZIO FINANTZARIOAREN FIDAGARRITASUNA BERMATZEKO, PROZEDURA ETA GESTIO JARDUKETEN ERAGINKORTASUNA ZIURTATZEKO, BARNE ETA KANPO ARAU APLIKAGARRIAK BETETZEKO ETA ENTITATEAREN ONDAREA BABESTEKO BEHARREZKOAK DIREN BARNE KONTROLEKO NEURRIAK EZARTZEA DA DEPARTAMENTU HORREN ZEREGIN NAGUSIA.

BESTALDE, ENTITATEAREN KODE ETIKOAREN ETA JOKABIDE KODEAREN ARABERA, MERKATURA HELARAZITAKO INFORMAZIO FINANTZARIOAREN FIDAGARRITASUNA UNEORO BERMATZEKO BEHARREZKOAK DIREN KONTROL PROZEDURA ERAGINKORRAK DISEINATZEA ETA EZARTZEA ERE ZUZENDARITZA BATZORDEAREN ETA BARNE IKUSKARITZAKO DEPARTAMENTUAREN ARDURA DA.

BARNE IKUSKARITZAK, HORRETARAKO, AURREIKUSITAKO IKUSKAPENAK GAUZATU OHI DITU ARRISKUAK KONTROLATZEKO SISTEMAK AZTERTZEKO, BARNE JARDUKETEN PROZEDURAK BEHATZEKO ETA UNEAN UNEKO KANPO ETA BARNE ARAU APLIKAGARRIAK ZENBATERAINO BETE DIREN BALIOESTEKO.

2015eko EKITALDIAN ZEHAR EGINDAKO EBALUAZIOAK HONAKO BERRIKUSPEN HAUEK HARTU DITU BARNE:

- 2014an IFBKSa DISEINATU ETA EZARTZEKO PROZESUAN IDENTIFIKATURIKO EKINTZA PLANEN JARRAIPENA.
- KONTABILITATE ITXIERAKO ETA BATERAKUNTZAKO ZEHARKAKO PROZESUEN BERRIKUSPENA, BANAKAKO KONTUEN ETA KONTU BATERATUEN BERRIKUSPENAREN TESTUINGURUAN. HORREZ GAIN, ZUZKIDURA ETA PASIBO GARRANTZITSUAK KALKULATZEKO ERABILITAKO IRITZI ETA ESTIMAZIOAK BERRIKUSI DIRA.
- ZORRAK ORDAINTZEKO JASOTAKO AKTIBO HIGIEZINEN NEGOZIOARI DAGOKIONEZ, TALDEKO HIGIEZINEN SOZIALTEETAN ERABILITAKO KONTABILITATE PROZESUA EGIAZTATU DA, BATERATZE PROZESUAREKIN DUEN ELKARRERAGINA AZTERTUZ.

BARNE IKUSKARITZAKO DEPARTAMENTUAK BERE URTEKO JARDUKETA PLANAREN BARRUAN TALDEAREN TARTERATZAKO GARRANTZITSUAK DIREN PROZESUEN BERRIKUSPENAK EGITEN DITU, HIRU URTEAN BEHIN PROZESU GUZTIAK BERRIKUSTEKO. SALBUESPENAK DIRA GARRANTZI BEREZIA EMATEN ZAIEN AREA EDO PROZESU JAKIN BATZUK, HALA NOLA KONTABILITATE ITXIERA EGITEKO PROZEDURA, IRITZI ETA ESTIMAZIOEN BERRIKUSPENA EDO INFORMAZIO SISTEMEN GAINEKO KONTROL OROKORRAK. AZKEN HORIEN EBALUAZIOA URTERO EGITEN DA (KONTROL INFORMATIKO OROKORREN KASUAN, LEHEN BERRIKUSPENA 2016an EGINGO DA).

- F.5.2. Ba al dagoen goi-zuzendaritzari, Ikuskaritza Batzordeari edo entitateko administratzaileei informazioa emateko elkarrizketa-prozedurarik, baldin eta kontu-ikuskatzaileak (Ikuskaritzako Arau Teknikoetan xedatutakoarekin bat), barne-ikuskaritzako eginkizunak edo beste adituren batek, urteko kontuan gainbegiratzeko edo agindutako beste zereginen bat egiterakoan, barne-

kontroleko ahultasun garrantzitsuak ikusten baditu. Era berean, atzemandako ahultasunak zuzentzeko edo indartzeko ekintza-planik badagoen jakinaraziko da.

IKUSKARITZA BATZORDEA BIRRITAN BILTZEN DA EKITALDI BAKOITZEAN KANPO IKUSKATZAILEAREKIN:

- LEHENGOA, URTEKO BEHIN BEHINEKO IKUSKARITZA BISITAREN ONDORIOZKO ATARIKO LANA BUKATZEN DENEAN. BERTAN, KANPO IKUSKATZAILEAK BERE ONDORIOEN BERRI EMATEN DU.
- BIGARRENA, URTEKO KONTUEN FORMULAZIOARI EKIN BAINO LEHEN. BERTAN, KANPO IKUSKATZAILEAK BERE LANAREN BEHIN BETIKO ONDORIOAK EZAGUTARAZTEN DITU.

KONTU IKUSKATZAILEAK GOI ZUZENDARITZAREKIN ETA BARNE IKUSKARITZAKO ZUZENDARITZAREKIN ZUZENEO HARREMANAK IZAN ETA ALDIZKAKO BILERAK EGITEN DITU, BERE LANERAKO BEHAR DUEN INFORMAZIOA LORTZEKO ETA AURKITUTAKO AHULTASUNEZ MINTZATZEKO.

KANPO IKUSKATZAILEAK BARNE KONTROLAZ EGINDAKO IRADOKIZUN ETA GOMENDIOEN MEMORANDUMA, LEHENBIZI, IKUSKARITZA BATZORDEARI AURKEZTEN ZAIO, ETA GERO, ENTITATEAREN KONTSEILU ERREKTOREARI, ONAR DEZAN. AZKEN DOKUMENTU HORRETAN, ZUZENDARITZA NAGUSIAK GOMENDIO BAKOITZARI BURUZ EGINDAKO IRUZKINAK ETA, HALA DAGOKIONEAN, AHULTASUNAK ZUZENTZEKO EKINTZA PLANAK EDO NEURRIAK JASOTZEN DIRA.

AZKENIK, KANPOKO IKUSKATZAILEAK EMANDAKO GOMENDIOEN GARRANTZIAREN ARABERA, BARNE IKUSKARITZAKO URTEKO PLANAK EZARRITAKO NEURRIEN JARRAIPENA EGITEA ERE AURREIKUSTEN DU.

BARNE IKUSKARITZAK EGINDAKO LANEN EMAITZARI DAGOKIONEZ, DEPARTAMENTUKO ZUZENDARIAK IKUSKATUTAKO ZENTROKO ARDURADUNEI ETA ZUZENDARITZA NAGUSIEI AURKEZTEN DIZKIE EMANDAKO TXOSTENAK. GAINERA, TXOSTENETAN PROPOSATUTAKO GOMENDIOEN EZARPEN MAILAREN JARRAIPENA EGITEN DU.

BESTALDE, BARNE IKUSKARITZA DEPARTAMENTUKO ZUZENDARITZAREN DEIA JASO ONDOREN, IKUSKARITZA BATZORDEA GUTXIENEZ HIRU HILEAN BEHIN BILTZEN DA BERE ERANTZUKIZUNETAKO BAT BETETZEKO, ALEGIA, ZUZENDARITZAREN LAN NAGUSIEI BURUZKO XEHETASUNAK EZAGUTZEKO.

F.6 Bestelako informazio garrantzitsua

F.7 Kanpo-ikuskatzailearen txostena

Jakinaraz ezazu honako kontu hauetaz:

- F.7.1. Merkatuetara helarazitako IFBKSaren informazioa kanpo-ikuskatzaileak gainbegiratzen duen. Hala bada, entitateak haren txostena eranskin gisa aurkeztuko du. Bestela, arrazoien berri eman beharko du.

IFBKS-A EZARTZEKO PROZESUAN, HAINBAT ALDERDI EZARPEN PLAN BATEN BIDEZ FORMALIZATZEKO BIDEAN DAUDE GAUR EGUN, ETA 2016ko EKITALDIAN BURUTZEA ESPERO DA. HORREGATIK, KANPO IKUSKATZAILEAK EZ DU IFBKS-A AZTERTZERIK IZAN.

MERKATUETARA HELARAZITAKO IFBKS-AREN INFORMAZIOA HURRENGO EKITALDI BATZUETAN KANPO IKUSKATZAILEAK AZTERTZEA KOMENI DEN ALA EZ BALIOETSIKO DU ENTITATEAK.



G BESTE INFORMAZIO INTERESGARRI BATZUK

Entitatean edo taldeko sozietateetan gobernu korporatiboaren inguruko alderdi garrantzitsuren bat badago txosten honetako gainerako ataletan jaso gabe, eta alderdi hori beharrezkoa bada erakundearen edo taldearen egiturari eta gobernu-jardunbideari buruzko informazio osoagoa eta arrazoitua jasotzeko, aipa ezazu labur-labur.

Atal honen barruan beste edozein informazio, azalpen edo xehetasun jaso ahal izango da, txostenaren aurreko atalen inguruan, baldin eta garrantzitsua bada eta ez bada errepikatzen.

Hain zuzen, esan ezazu gobernu korporatiboaren alorrean erakundea Espainiakoa ez den beste legeria baten menpe dagoen, eta, hala baldin bada, adieraz ezazu ematera behartuta zauden informazio guztia, txosten honetan eskatutakotik aparte.

Entitateak adieraz dezake, orobat, borondatez printzipio etikoen edo jardunbide egokien inguruko nazioarteko, sektoreko edo beste esparru bateko kodeei atxiki zaien. Hala bada, zer kode den eta noiz atxiki zain horri adieraziko du entitateak.

1.- INFORMAZIO HONEK "A. JABETZAREN EGITURA" ATALA OSATZEN DU:

CAJA LABORALEKO BAZKIDE DIREN KOOPERATIBA ETA HORIEN MERKATARITZA SOZIJETATE GEHIENAK MONDRAGÓN CORPORACIÓN COOPERATIVAREN PARTE ERE BADIRA. CAJA LABORAL ERE PARTAIDE DUEN KORPORAZIO HORI ASKATASUNEZ ELKARTUTAKO KOOPERATIBEN ELKARTEA DA. KOOPERATIBOK LANKIDETZA BALIOAK PARTEKATZEN DITUZTE ETA ENPRESA ALORREAN ELKARREKIN JARDUNEZ LEHIATZEKO ABANTAILAK LORTZEKO HELBURUA DUTE.

CAJA LABORALAK AURREKO EKITALDIKO ZERGA AURREKO SOBERAKINEN % 20 EMATEN DIE URTERO MONDRAGON INVERSIONES S. COOP.-i ETA MONDRAGÓN FUNDAZIOARI (KORPORAZIOKO PARTAIDE DIREN EDO BERTAN ELKARTUTA DAUDEN KOOPERATIBEK OSATZEN DITUZTEN ERAKUNDEEK OSATUTA DAGO), KAPITALAREN INTERESAK ETA MONDRAGON CORPORACIÓN COOPERATIVAREN KOOPERATIBA ARTEKO FONDO ZENTRALERA EGINDAKO EKARPENARI DAGOZKION DIRULAGUNTZAK KENDUTA. EKARPEN HORIEK IRIZPIDE HONEN ARABERA EGITEN DIRA:

A) DIRULAGUNTZA GISA, URTERO SOBERAKIN GARBIEN % 14aren PAREKO ZENBATEKOA EMATEN DA, KOOPERATIBA ARTEKO FONDO SOZIALETIK KENDUTA.

B) GAINERAKO ZENBATEKOA, EFZ-RAKO EKARPENA KALKULATZEKO OINARRIAREN % 20raino, KORPORAZIOAN SARTUTAKO ERAKUNDEEN KAPITALERAKO EKARPENETAN EDO MAILEGUETAN GAUZATZEN DA. CAJA LABORALAK KAUDIMENGABEZIAK HORNITZEKO IZANEZ GERO, HORNIDURA HORI EGIN BEHARRA SORTZEN DEN EKITALDIKO DIRULAGUNTZATIK KENDUKO DA.

2.- INFORMAZIO HONEK KONTSEILARIEN ORDAINSARIARI BURUZKO C.1.5 ATALA OSATZEN DU:

KONTSEILARI LAN BAZKIDEEK EZ DUTE ORDAINSARIRIK JASOTZEN KONTSEILU ERREKTOREKO KIDE IZATEAGATIK, LANGILE DIREN ALDETIK ENTITATEAN EGITEN DUTEN LANAGATIK JASOTZEN DUTENAZ GAIN, KONTSEILU ERREKTOREKO GAINERAKO KIDEEK ERE EZ DUTE ORDAINSARIRIK JASOTZEN KONTSEILUKO KIDE IZATEAGATIK.

CAJA LABORAL POPULARRAK LEHENDAKARIAREN LANA ORDAINTZEN DU, ETA ZEHAZTUTAKO PROZEDUREN BITARTEZ, HARI ORDAINTZEN DIO, CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITOK ZEHAZTUTAKO ORDAINSARIEI BURUZKO IRIZPIDEAK APLIKATUTA, KREDITU ERAKUNDEENTZAT ZEHAZTUTAKO ARAUDIAREN ESPARRUAN.

Gobernu korporatiboaren urteko txosten hau erakundearen administrazio-batzordeak edo -organoak onetsi du 2016-02-29an egindako bilkuran.

Adieraz ezazu administrazio-organoko zein kidek edo kontseilarik eman duen txosten hau onestearan aurkako botoa eta zein abstenitu den.

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITO

URTEKO KONTU BATERATUAK ETA KUDEAKETA TXOSTEN BATERATUA, 2015 EKITALDIKOAK

Entitate Nagusiko Kontseilu Errektoreko kideek esan dutenez, urteko kontu bateratu hauek kontabilitate-printzipio aplikagarrien arabera egin dira, eta Entitate Nagusiaren eta haren mendeko sozietateen ondare bateratuaren, finantza-egoera bateratuaren eta emaitza bateratuen berri ematen dute. Bestalde, honekin batera doan kudeaketa-txostenean Taldearen 2015eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko bilakaeraren eta emaitzen azterketa zorrotza egin dela ere esan dute.

Ondorioz, Caja Laboral Popular Coop. de Crédito (Entitate Nagusiko) Kontseilu Errektoreko kideek 2015eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiari dagozkion kudeaketa-txostena eta urteko kontu bateratuak taxutu dituzte 2016ko otsailaren 29an. Urteko Kontu bateratuetan honako hauek sartzen dira: 2015eko abenduaren 31n amaitutako ekitaldiko Txosten bateratua, Balantze bateratua, Galdu-lrabazien Kontu bateratua, Onartutako Sarreraren eta Gastuen egoera-orri bateratua, Ondare Garbian gertatutako aldaketen egoera-orri bateratua eta eskudiru-fluxuen egoera-orri bateratua. Ados daudela erakusteko, guztiek orri hau sinatu dute. Bestalde, Kontseilu Errektoreko idazkariak dokumentu horietako orri guztietan sinatu du, horiek identifikatu ahal izateko.

Txomin García Hernández jauna (Lehendakaria)	Roberto Ruiz de Infante Aguirre jauna (Lehendakariordea)	Iñaki Josu Goñi Gabilondo jauna (Idazkaria)
Elena Zarraga Bilbao andrea (Kidea)	Ainhoa Gallastegui Martínez andrea (Kidea)	Javier Oleaga Mendiarrach jauna (Kidea)
José María Balzategui Juldain jauna (Kidea)	María del Carmen Inurria Landeras andrea (Kidea)	Rafael Idigoras Alberdi jauna (Kidea)
José Luis García García jauna (Kidea)	José Javier Saenz de Buruaga Gabilondo jauna (Kidea)	Luis M ^a Ugarte Azpiri jauna (Kidea)
Adolfo Plaza Izaguirre jauna (Kidea)	Jesus Ignacio Peña Gómez jauna (Kidea)	